



Hiztegiak

Bikoizketarako itzultzaile-egokitzaileei jasotako hitz, adierazpide eta esaldiak*

«Hiztegietan ageri ez diren adiera, adierazpide eta esaldiak biltzen saiatu naiz lehen bi sailetan: HIZTEGIA I: Euskara-euskara, eta HIZTEGIA II: Erdara-euskara. Bertsolari, idazle, kazetari, itzultzaile eta egokitzaileengandik bilduak dira, nire ukitutxo orraztuak. Hirugarren sailean, HIZTEGIA III, aldaketak bildu ditut. Ez dut atsegin "zuzenketak" esatea, handiustekoa delakoan. Eskuinean dagoena da nire ustez egokiena. Biak berdin samarrak iruditu zaizkidanean (Biak) jarri dut parentesi artean, edo (Hirurak edo Laurak) hala direnean. Sail honetan ere lehen aipatutako egileengandik bilduak dira adibideak, ezkerrean daudenak».

Iñaki Zubizarreta Mujika «Xubi»

* 2011ko irailaren 2an EIZIEren esku jarri zituen Xubik hiztegiak: «ia 29 urteko eskamentua (...) besteri eskaini nahian, urteotan bildutako hiztegia bidali nahi dizuet (...), zuen lanaraentzat probetxugarri izan daitekeelakoan».

EUSKARA-EUSKARA

A hor: A hor, ba, nor bere modua du horretarako.

A ze: A ze alfer pila, pobreak altxatzeko a ze kuadrilla! A ze jartoa duen gaixoak! A ze lo saioa egin duzun!

Abartsu: Mahatsondo egin zen, aihenak bota zituen eta abartsu egin.

Aberats/pobre: Gu, lehengo bertsolariak, diruz pobre izan gara, baina lagunez aberats

Abokatu egin: Bilbora joan zen abokatu egitera.

Adar sarde: Zuhaitz adar sardeetan uzten ditu arrautzak, habiarik egin gabe.

Adar: Adarrean (adarra jotzen) ari al haiz? Zer, gaur adarrerako (adarra jotzeko)?

Adargora: izond. Adargora da zezen hori.

Adarra/harpa jo: (Nor nori ari den eta ze girotan) (Haurrentzako saioetan: Harpa jo)

Adarrak bildu: Petrak adarrak biltzen ote zizkion.

Adiago: Adiago jarri nintzen.

Adierazgarri: Aipamen ugari aurkitu dugu (gai horri buruz haren lanetan), kezkarri zaion adierazgarri.

Adierazi (interpretatu): Herriko txistulariek AGUR JAUNAK adierazten zuten dotore asko.

Adimen/bihotz: Adimena zorrozteko sortua zen jostaketa, ez bihotza ukitzeko.

Adin modu: Iturriko ura bezain garbi eta sano egoten baitira aingeruak (haurrak) adin modu horretan.

Adina/zentzua: Baina sasoi hartan, nolako adina halako zentzua.

Adinatsu: Bi eskuekin adinatsu.

Adinez aurreratua: Adinez, behintzat, aurreratua zegoela zirudien.

Ageri (iz.): Atera zaitetz agerira, hor barruan bazaude.

Ageri: Aski duzue begiratzea neska guztiei: zein politikak diren izterrak ageri!

Agertu: Ageri bekizue zuei ere Jauna onbera eta leial.

Agia: Labur-beharrez esan beharko ditut, nahiz agian -eta agiarik gabe- premiazkoenak izan.

Aginduak agindu: Aginduak agindu, ni ez naiz joango.

Aginduta: Baina hemendik irtetea, hil nazaten aginduta dauzkazu zure mutilak.

Ago (aditzari): Ez esateko inori agindu zioten behin eta berriz, baina debekatzenago eta zabaltzenago zuen berria.

Agur: -Agur! -Luze adina labur!

Agur-legea: Goizeroko agur-legea. -Egun on, aita! -Zer moduz, laztana?...

Ahal eta leher: Ahalak eta leherrak egin

Ahal/zor: Bakoitzak ahal duena ematen badu, ez du gehiagoren zorrik.

Ahal: Itoko ahal haiz! Deabruak eramango ahal hau!

Ahalegin/ahalezin: Ahaleginean eta ahalezinean.

Ahalegina (Adlag.): Ahalegina saiatu ziren nirekiko.

Ahalegina saiatu: Ahalegina saiatu ziren nirekiko; baina sendatzerik ez zen komeniko.

Ahaleginak ahalegin: Gure ahaleginak ahalegin, ez genuen arazoa konpondu.

Ahaztu: Ai, ama, zeharo ahaztu!

Ahaztu-erraztu: Iturzaeta bertsolariari aditu nion, gizonari zahartzean gauzak ahaztu-erraztu egiten zitzaizkiola.

Aho bete: Aho bete luma geratu da sugea, txoria lurrera erori zaiola.

Aho bete: Aho betekoak esan dizkio. (direnak eta ez direnak)

Aho bete: Kontu zaharrak erabiltzen genituen aho betean.

Aho/bihotz: Ahoa bete hortz geratu zen. Eta bihotza bete arantza.

Aho: Ahoko zulora begira egon.

Ahoa bete: Ahoa bete lokatz irentsi dut

Ahoa beteko: Ahoa beteko prezioan (kale inguruko lursailak)

Ahogoagarri: iz. Mahaia, ahogozagarriz hornitua

Aho-sudurrak (ahoa eta sudurra): Estali aho-sudurrak musuzapiaz!

Ahots-dardara: Urduritasunak ahots-dardara eragin zidan.

Aho-xoko: Aho-xokoan zuelarik pipa.

Ahozabalik (adlag.): Ahozabalik naukazu.

Aiaratu: Gero familia Aiaratu, nonbait bizi behar eta.

Aingeru Guardako: Gu, Aingeru Guardakoz, bertso saio franko eginak gara Donostiako Ibaeta bailaran.

Aingerutan: Lehen semea aingerutan hil zitzaion.

Aingira: Aingira baino labainago.

Aire girotua: (tresna) Aire girogailua

Aire: Airean alde egin zuen. Aire tximista alde egin nuen.

Aire: Luzifer-airetxo bat erantsio diote.

Aise asko: Aise asko jaso zuen 200 kiloko harria.

Aitaren! Aitaren eta Semearen! Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren!

Aitaren: Aitaren egin orduko,...

Aitzaki: Aitzakia eta zikina!

Aitzakia (akatsa): Zepoak ez du aitzakiarik.

Aitzakia maitzakia: Haren aitzakian eta bestearen maitzakian

Aitzakia merke: Ez dut aitzakia merkerik entzun nahi.

Aitzaki-maitzaki (adlag.): Jaunak ezteietara deituak aitzaki-maitzaki hasi ziren.

Aitzur: Ukuilu aitzurra.

Aitzurtu: (iz.) Badu soro honexek aitzurtu baten premia.

Akats: Akats aitortua, erdia barkatua.

Akatsa: Ez ezazu hortik edan, akatsa du kopak eta.

Aker: Akerrak jeztera bidali.

Akixo: (umeak beldurtzeko mamua Azkoitian): "Lo hartzen ez baduzu, Akixo etorriko da"

Ala: Ala ni, Jauna!

Ala: Biak ala biak bat zetozen.

Alajainetan (alajaina): Eta ikusi genituen ikustekoak, alajainetan!

Alargun: Dantzan ikasi beharko dugu, garai batean bezala; gure trikitilariak alargun geratuko dira bestela.

Alargun: Neskak hemen bizirik alargun utzita alde egiten dute beren herrira.

Albiste/alpiste: Zer albiste eta alpiste, gero!
Alda erraz: Aldagaitez/alda erraz.
Aldabehar: (izond.) Beltzek aldabeharrena ez dute izena, egoera baizik.
Aldaera (Norabait joateko bide aukera): Eta handik Azpeitira joan ginen; aldaera bikaina genuen.
Aldaera: Beti aldaera onetik hobera.
Alda-nahi: Gure alda-nahiak bazuen non ase.
Aldapa gora: Aldapa gora zen dena. Aldapa gorak ez zion onik egiten.
Aldapa gorakoan: Trena aldapa gorakoan oso mantso ikusten genuen.
Aldapa, malda: Lurrak aldapa samarrak edo maldak ziren tokietan.
Aldatu (batetik bestera joan): Hankak astintzen zituen jendeak, bizikleta faltan, alde batetik bestera aldatzerakoan.
Aldatu (bizimoduz): Gu Leizatik familia osoa bizimoduz Aiara aldatu ginenean.
Aldatu: Aldatu da bai, oso aldatu ere!
Aldatu: Gero Aiara aldatu ginen senide eta gurasoak.
Aldatuxe: Aldatuxe dira itxuraz ohiturak.
Alde(aldera, -eko): Gabonak girotu alde (girotze aldera, girotzeko). Denbora galdu alde (galtze aldera, galtzeko)
Alde: Hau da atari alde!
Alde: Hirurak alde hori izango zen. Hirurak aldean etorri zen.
Aldeago: Mikel ni baino haren aldeago zen.
Aldeko: Aita(ren) aldekoa atera da, bai!
Aldera: Eta barka dakioke, egin dituen mesedeen aldera, daraman izen harrotxkoa.
Alderago: Eramazu eskua buru alderago.
Aldera-karga: Aldera-karga ez baita arinenetik kenduta berdintzen.
Aldera-karga: Sekulako aldera-karga dute. Bi aldeak berdindu behar.
Aldez... aldez: "Etorkizunaren mendean daude, bada, alde zure ahaleginak: eta alde zure mendean" (Koldo Mitxelena)
Aldi izan: Garai horretan hango aldi izaten dute urtero.
Aldi joanean: Ez genuke ahaztu behar era lotsagarrian jokatu dugula maiz euskaldunok aldi joanean.
Aldi: Egun on, Jose, hemengo aldi?
Aldi: Gizona beti gizon delarik, aldiak nolako, gizakiak halako ageri baitira.
Aldi: Hemengo aldia egin du.
Aldiko hainbestean: Nik aldiko hainbestean egiten dut lan.
Aldrebestu: Ezina zaio erreztu eta horrekin dabil estu, horra gizona azkenerako dena aldrebestu.
Ale: Alerik ale oiloak errota bete.
Ale: Hik botatzen dituk aleak!
Aleak sartu: (gezur handiak) Hiri sartzen dizkiate aleak!
Alegia/egia: Alegia edo egia, ederra benetan.
Alen: Alfer alena! Alfer alen hori!
Aletu: Elizako kanpaiak zortzietako dandak aletu zituen banan-banan.
Alfer (iz.) Hark alfer pixka bat bazuen.
Alfer: (Alferlan-en haritik): Alfer bidaia, alfer gastuak...
Alfer: Alferra izatea hobe, alferrik jardutea baino.
Alfer: Aspaldiko esaerak dioenez, alferrik jardun baino omen da alferkerian egon.
Alfer: Gizon alferraren etxean, behiak antzu eta andrea ernari.
Alfer: Kukua baino alferrago.
Alfer: Zorria baino alferrago.
Alfergura: Niri behintzat, gau bakar baterako astoak bezain kargatua joateak alfergura ematen dit.
Alfer-iturri: Alper-iturri Ernion.
Alferkeria: Alferkeriak eragiten zizkigun pausoak.
Alferrik: Ez alferrik!
Alfertsurik (alfer samarrik): Bidean bazter guztiak miatu ditut alfertsurik.
Algara/Negar: Atzoko algarak, gaurko negarrak.
Altxa/martxa: Altxa eta martxa!
Altxatzekoa egin: Altxatzekoa egin nuen, baina ezin eutsi hankek.
Altxa: Altxa porru!
Ama jende: Xehetasun hori berdin zitzaion ama jendeari.
Ama/aita: Eugenia amak munduratu, Frantzisko aitaren eskutik.
Ama-min: Ama-minez bizi. Ama-minak egon.
Amaren seme: Amaren semerik bada, betor bide-erdi!
Amaren seme: Ez dago amaren semerik hori egingo duenik.
Amaren seme: Ez dago amaren semerik jo zuten erronka, baina bestea ere amaren semea izan.
Amarenago: Zer da, ba, amarenago?!Amazuloago: Haurtxo txikiak baino amazuloago da.
Amen: Amen Jesus esaterako!
Amerika aurkitu (aberastu): Hementxe aurkitu dut nik neure Amerika.
Ameslandia": Ametsalde (Errekalde, mendialde ta holakoan haritik)
Ameslari/oroitzaille: Gaztea ameslari, zaharra oroitzaille.
Amestegi: "Ohea amestegi" (X. Lizardi) "Amestegi guria" (X. Lizardi)
Amets eragin: Arrats askotan zara, sehaska, niri amets eragina.
Amets-herri: Baina harako amets-herri haren oroitzapena eta mina zeharo galdu ez duenak...
Amodio: Hamaikak sufritzen du amodio-faltaz. Amodioak ez du hizkuntzarik bereizten.
Amodioso: Ama zureak babesten zaitu magal amodiosoan.
Amodioz lehertzen: Amarengana zaude amodioz lehertzen.
Amorratu: Izond. "Mutil txikia, baiña bizi amorratua" (Manuel Lasarte)
Amorru: (joera) Baina elkar errespetatzeko ez dago orain orduan baino amorru handiagoa.
Amorrudun txakurra: Ez laztandu amorrudun txakurrik!
Andereño Pixontzi (Pixontzi itxurako kapela daramanari esana)

Andraetxe (andrearen etxe): Andraetxera ezkondu zen.
Andregai: Andregai ere egin zuen.
Andreta(ra)ko: Ez nauzu, beraz, andretako nahi.
Anteron: Anteronak egin zituen.
Antolatu: Orion goiko kalean antolatu nuen lantokia.
Antolatu: Zaldiari zegokion are txiki antzeko bat antolatu eta harekin landu eta gozatu lurrak.
Antza (elkarketaren bigarren osagai): Omenaldi egunak astun antzak jartzen dira azkenerako.
Antza: Ez dakit noren antza atera duen.
Antzean: Itxura antzean.
Antzeko-pareko: Hirurak ere antzeko-pareko direla esango nuke.
Antzeman (dio, nori gabe): Zahar jendeak erraz antzematen dio noiz datorren eguraldi aldaketa.
Antzeman (zaio, nori gabe): Berehalaxe antzematen zaio jendeak zertu nahi duen.
Antzeratsu: Antzeratsu idazten dute.
Antzu (esaera): Jezten ez dakienarentzat behi guztiak antzu.
Apal (iz.): Nik, neure apalean ikasi dudanez, hori horrelaxe da.
Apal egin: Hark apalago egin zion behintzat.
Apal: Apalik inor bada, zu zara apala.
Apaltasuna: Apaltasuna behar baitu nor denak.
Apar: Aparretan bizi da orain.
Apareju: Ederra aparejua!
Aparta: Hizlari txukun aparta.
Aparte: Baserria aparte egiten da.
Araba eta Bizkaiko: Araba-Bizkaietako txapelketa.
Arantza: Esaera da lore guztiak badituztela arantzak, bertsolaritzak ere baditu une gozo eta garratzak.
Arantzago: Arantzak arantzago.
Arbola: Arbola zaharra, lur batetik atera eta bestera eramanda, ihartu egiten da gehienetan. Gurasoei ere hori gertatu zitzaien.
Ardaztu: Umiltasuna ardaztu, ez zikindu eta lokaztu.
Ardiak larrera: Garai haietan, gai-jartzailerik edo zuzendaririk gabe, ardiak larrera bezala bidaltzen gintuzten plazara.
Ardi-kontu: Zertan habil hemen? -Ardi-kontu. Eta heu?
Arditara gabe: Zergatik etxean arditara gabe?
Ardo/mozkor: Ardoa baino mozkorrigo.
Ardoak barre: Ardoak barre egin zuen Martin eta Jenaroren begietan.
Ardura (norekin): Bera baita gurekin ardura duena.
Areago: Haurrak baino areago zarete! (haurrago alegia)
Arestixean: Arestixean zabaldu diren berriak...
Argazkian/benetan: Argazkian baino itxura hobea du benetan.
Argi harrigarri: Buruz argi harrigarria izan.
Argi ozena: Argia txinparta-hotsarekin.
Argi: Argi, gero, edo salatuko zaituztet!
Argiberritu: Hura izan zen eguna, gure bizitza iluna argiberritu ziguna (haur jaioberriak).
Argibide: Argibide bat sortu zen zure (Jesusen) heriotzaren mugatik.
Argitu/askatu: Itsuak argitu, mutuak askatu.
Ari (du): Aspaldian barneko min batek xahutzen ari zuen lñazio.
Ari (du): Eta hizkuntzak etengabe harremanetan ari ditugu.
Ari (du): Gaiztakeria ari dunak argia gorroto du.
Ari (du): Jainkoak munduan ari duen salbamen lana.
Ari (iz.): Ariaren ariaz... (Jardunaren jardunaz...)
Ari (nor-nork): Beldurtzen ari nauzu.
Ari/ekarri: Ari du (haizea) eta badakar (euria), eta bota egingo du.
Ariera (jarduera): Min eman zidan, benetan, gizon haren ariera txoroak.
Arima aparte: Ganaduak, arima aparte, sen handia du oso.
Arima izartu: Zure arima izartuko da gauerdiko oskarbian.
Arima: Arima larrugorrian jarri dit musikak.
Arimaz gabetu: Eta arimaz gabetua nori zaio eder? Txoriak galduz gero, gure mendiak zer?
Arinbide: Sendagaiak ez zekarkion arinbiderik.
Arindu (diruz): Atzokoak ordaintzera joan naiz eta arindu naute ederki.
Arindu (iz.) Arindu ederra hartu zuen haren poltsikoak.
Arindu (iz.): Arindu ederra hartu zuen sendagaia hartuta.
Arindu (kargatik, pisutik): Ez ote nauzu zuk arinduko nahigabe horren pisutik!
Arindu-itxura: Eguedian pixka bat atertu edo arindu-itxura hartu zuenean...
Arinxeago: Arinxeago ibili behar duzu.
Arkakusoak hil (astindu, jipoitu): Nik hilko dizkizut zuri arkakusoak!
Arnasbehera: Hasperen baten arnasbeheran: Amen.
Arra: Arra beteko ahoa zabaldu zuen.
Arrain: Hori duk arraina!
Arrainak igeri: Hiru bider egin behar du arrainak igeri: uretan, oliotan eta ardotan.
Arraio: Isil arraio joana izan behar zuen handik lagunetara.
Arraio: Mutu arraio zetozen bidelagunak.
Arraio: Non arraio(tan) ote dabil?
Arraioak ez baitu: Ez ditut abiatu nintzen bideak utzi. Ez utziko ere, arraioak ez baitu, bizi naizeino.
Arraiokeria: Hau da arraiokeria! Hauek arraiokeriak gertatzen dira!
Arranek ezik: Bada gauza baliosorik bazterretan, arranek ezik.
Arrantza lehorrean: Hamaika arrantza egiten da lehorrean!
Arrantzu/larre: Hori da, arrantzura larrera joatea.
Arrasto (sail, bide): Baina sar nadin lehengo arrastora, haririk eten ez dezadan.

Arrasto: Hemen ere ez dut arrasto garbirik zenbat urte pasa zituen lanean.
Arrastoa hartu: Haiek ere hartu zuten arrastoa, ni bertotan pixkaren bat hasia ote nintzen.
Arrastoa: (bide zuzenean) Ez dago hori arrastoa sartuko duenik. Bazen garaia arrastoa sartzeko.
Arrazoi bidez (arrazoiz): Jendea biltzen denean saiatzen dira txanponak eskuratzen arrazoi bidez.
Arrazoi izan: Zeuk arrazoi.
Arrazoi on/txar: Gizon azkarra bere ustez, baina arrazoi txarrak ugari eta onak urri.
Arrazoi txar: Behin ere arrazoi txarrik ez zuen gizona.
Arrazoi txar: Eta ni pozik, ez zuelako arrazoi txarrik niretzat.
Arrazoi: Bai, ba, arrazoi!
Arrazoi: Hori da arrazoi!
Arrazoitu (da): Lehen arrazoitzen ginen egiaren argiz.
Arre-arreka: Eramango nauzu arre-arreka? (bizkarrean, haur hizkeran)
Arreta (zertara): Arreta handia jarri dut zure bihotz amodiosora.
Arreta jarri (-ra): Arreta handia jarri dut zure bihotz amodiosora.
Arretagabe: Arretatsu-ren kontrakoa.
Arrimatu: Arrima-arrima eginda.
Arrosa/lohia: Zerramak arrosa baino nahiago lohia.
Artamakila: Artamakila baino lehorrago (adkor.): Zeken, xuhur.
Arte (joan arte): Gazteiza arte, ez zuen elurra ezagutu.
Artetsuan: Litekeena da Xenpelar ezkondu artetsuan (1859) denak baserrian bizi izatea.
Arto makila (xuhur, zeken): Arto makila baino lehorrago.
Arto: Artazopak.
Artzain joan: Ni hasieran artzain joan nintzen.
Artzain/Txakur: Artzaina non, txakurra han.
Ase/gose: Gaur ase, bihar gose.
Ase/gose: Gaurko ase, biharko gosea.
Ase/oinaze: Begiarentzat ase, poltsikoarentzat oinazea. (Gauza garestia)
Asea/gosea: Gutxiren ase eta askoren gosea.
Aska bete: Belar gozoa izango dute jateko, aska betean izango ere.
Askalordu: (Afalordu eta bazkalordu-ren haritik)
Aski ez: Hori guztia aski ez, nonbait, eta...
Asko pentsatu: Ez zuten asko pentsatuko horretaraino iritsiko zirenik.
Asko/beste: Ez da askorik, baina ez dago besterik.
Asko: Barruraino sartu zen, lotsagabe asko!
Asko: Ergelak, ez dakite asko, hemen ni naizela agintari nagusia, eta bakarra.
Asko: Eta pertsona serio askoak barrez ederki gozatzen ikusia nago.
Asko: Ez dakigu asko bakoitzak nolako bukaera izango dugun.
Asko: Ez etortzea asko zuen niregana sesio bila!
Asko: Ez nintzen asko deskuidatu.
Asko: Lehenago etortzea/ibiltzea asko zenuen.
Asmo/jakite: Asmoz eta jakitez garaitu. Nekez, ordea, asmo-jakiterik gabe.
Asmo/jakite: Eta plazan irauko dugu, gerta ala gerta, baldin asmoz eta jakitez (ausarki, eta halere neurritz) jokatzen badakigu.
Asmo-bakar: (Hanka-bakarren haritik). Euskaldun asmo-bakarrak (Ideia edo asmo bakarrek) asko.
Aspalditxo: Aspalditxo ikasi genuen...
Asper: Hementxe asper-asper eginda!
Aspergarri: Berehalaxe bukatuko dut jarduna, gehiegi luza ez dezadan, inoren aspergarri.
Aspertu: Gustuko lagunartean nekez aspertzen da pertsona.
Aspertuxe: Aspertuxe, gogaituxe eta are nazkatuxe ginduzkan ateraldirik gabe ikusten genizkion ergelkeriekin.
Aste (astegun): Azkenean igandeak ere aste.
Aste jarri: Jaiaren izena kendu eta aste jartzea erabaki duzten.
Aste/lagun: Aste berri, lagun berri.
Asteartez: Hurrengo goizean, asteartez, hamaikak aldera atera zen.
Asto beltzarenak: Ikusi genituen geureak eta asto beltzarenak.
Asto: Bi etxetako astoa, otsoak jan.
Astoa/opila: Ama-amonak ez ziren eztabaida hartatik aterako, nork bere astoari arre, nork bere opilari su.
Astoa: Askoren astoa goseak hil
Astoa: Tokatzen astoari!
Astotegi: Astoak uzteko lekua azokara salgaiak zekartzaten baserriarrentzat.
Astun: (iz.) Eta hartu duen lanaren astuna.
Ataka: Eskaileretan atakak jarri, haurrak ez erortzeko.
Atari: Hau da atari aldea hau! (Ez dagoela batere txukuna, alegia)
Atarira orduko: Atarira orduko galdetu zion bere iritzia.
Ate/maratila: "Ate adina maratila aterako ditit honek" (Arrazoi izan nahi beti)
Ate/maratila: Zenbat ate hainbat maratila, mutilaren atzetik neskak.
Atera kontuak!: Oso garestia da, buruzagiarena; atera kontuak!
Aterarik: Laster ez da izango zeri aterarik (argazkia).
Atez barrura: Atez barrura sartzearrekin batera: -Arratsalde on, lagun!
Atsedeen-portu: Gero zerua izan dezagun atsedeen-portu.
Atsegin: -Atsegina izan da zu ezagutzea. -Niretzat ere bai.
Atsegin: Ez zen atsegin harekin!
Atsegin: Mundu atsegin gabeko hau.
Atzapar: Atzapar-handi. Atzapar-luze. "Hartu, hartu dena, atzapar-handi!"
Atzapar: Atzaparra bete txanpon eman zion.
Atzaparka: Gerraontzi arinak elkarri atzaparka.
Atzapar-luze: Zure neska, pirata atzapar-luze batekin.

Atzeko isatsean: Aurten bezala saiatzan badira, hurrengo urtean ere ez dira atzeko isatsean ibiliko (arraunlariak)

Atzendu: Orion ez dauzkagu zaharrak atzenduak.

Atzenduxe: Zentzumen atzenduxeak.

Atzera/aurrera: Ez atzera eta ez aurrera geratu nintzen.

Atzera: Handik atzera ez zuen pattarrik edan.

Atzera: Hirugarren enborretik atzera, lasaixeago ibili naiz.

Atzeraka (iz.): Atzeraka larrian dabil euskara Zuberoan.

Atzera-karga: Esaldien atzera-karga. Atzera-kargatuago eta irakurgaitzago.

Atzerako (atzerapen): Bilboko trena atzerako handiarekin zetorren.

Atzerako (iz.): Urrats nagusi hori egin dugu, eta ez dugu atzerakorik behar.

Atzerako/aurrerako: Ez atzerako ez aurrerako geratu zen.

Atzetik su eman: Zure lana atzetik sua ematea

Atze-zorrotz: Atze-zorrotza irten zait bertsoa, larrabehiak bezalakoa.

Atzo goizeko: Ez da atzo goizeko kontua.

Atzo/gaur goizeko: (zaharra esateko) Hori ez da atzo goizekoa. Hori ez da gaur goizekoa.

Atzo: Atzo jaioa naizela uste duzu, ala?

Aukera/oker: Aukera-maukeran, okerbidea errazena.

Aukera: Ni ez naiz bigarren aukerako neska.

Aukera-aukeran: 1.- Aukera-aukeran etorri zara. 2.- Aukera-aukeran bizi dira.

Aukeran: Handitxo aukeran.

Aukeratu: (zer/zertzat): Loiolako basilika aukeratu zuten ezkontzarako leku(tzat).

Aulkia berotu: Aulkia berotzen iaioak dira funtzionarioak.

Aurpegi/begi: Aurpegia ilargi, begiak izar bi.

Aurpegi: Arrantzale aurpegia du, haize-euriek ondotoxo igurtzitako azal gorria, gorri-ubela.

Aurpegia jantzi: Zuk ondo ezagutzen duzu, ba! -Bai, baina ez diot aurpegirik jantzen.

Aurpegi-goza (aurpegi gozoko): Ez ziren batere aurpegi-gozoak.

Aurre: San Isidro aurre hori zen.

Aurrean bidali: Handik ere aurrean bidali ninduten.

Aurrera txalupa: Bakoitzak eska zezala komeni zitzaiona jateko eta edateko, eta aurrera txalupa!

Aurreragi sartu: Nik ez dakit ezer eta ez nuke aurreragi sartu nahi gai horretan.

Aurreragoko: Badugu aurreragoko lanik.

Aurrerako (aurrerapen): Lehen ere liburuen bidez aurrerako handia egingo zuela uste dut pertsonak.

Aurreratu (atzeraka): Aurreratzen goaz txangurruek gisa.

Aurreratu (du, nor gabe): Erlojua ondo jartzen ari naiz, aurreratu egiten du eta.

Aurreratu: Nola etorri hala joan, urteak aurreratzen ditugu diruaren partez.

Aurreratu: Urteko ume bana hazi, edo aurreratu behintzat (behi pareak).

Aurreratxo: Eta konfiantzan aurreratxo sartuta, eztenkada zorrotzak sartzen ari zitzaion.

Aurreku: Adlag. Hiruretan euskara zebilen aurreku.

Aurretxo: Gabon aurretxo zen. Hil aurretxoan egin nion bisita.

Aurretxo: Hil aurretxoan ikusi nuen.

Autoa jarri: Autoa jarri beharko diozu, etorriko bada.

Auzo bizi: Auzo bizi ziren (elkarren ondoan)

Auzo lotsa: Lotsa auzoan. Horrek auzoan du lotsa. Auzo lotsa izan.

Auzo: Auzoko umeak berehala hazten dira.

Auzoa gobernatu: Hemen auzoa erraz gobernatzen dugu, nork bere etxea kostata.

Axal (sakon ez dena): Ur axaletan bizi dira. Itsaso axal. Aintzira axal. Lur axal. Irribarre axalez.

Axal: Orduko gure janzkiak axal samarrak izan. Ardoak barrena berotuta, ez dago kontu axalik.

Axal: Oso hilobi axala zen. Zulo axal batean zegoen ehortzia. Zulo axaletan ehortzen zituzten umeak.

Axalago: Ongi asentatzen den ferra, axalago josita ere, han ibiltzen da.

Axal-ederzale: Betiko axal-ederzaleak.

Axalegi: Ez dago arazo hori axalegi hartzerik.

Axaleko: Dardara, ordea, axalekoa da, egun-argiak urratzen duen amets-itxura.

Axaleko: Ez zuen barre axalekoa.

Axkar-usteko: Axkar-usteko gehiegi, gauza onerako!

Axola izan: Bost axola natzaio.

Axola: Nor begira zegoen axolarik gabe.

Azal eta mami: Eta hemen, teatroan baikaude, hitzak ez dira eranskin huts; hitzak dira azal eta mami.

Azalak hartu: Nabari zen pozaren pozez ez zuela azalak hartzen, ez zela bere baitan kabitzen.

Azalarazi (dio): Nik azalaraziko diot dena ongi. (agertzera edo esplikatzerara behartu)

Azalean eduki: Agifietari buruz hitz egin nahia azalean neukan, aspalditxoan zirika ari zitzaidana.

Azal-urratu: Nola dute, ordea, horrela azal-urratu bizirik?

Azeri: Azeria baino lotsagabeago.

Azeria: Azeriak badabilta gauean ardi zain; artzainak ez lezake lorik egin lasai.

Azken agurra: Gure Manuel jatorrari azken agurra egitera bildu ginen.

Azken arnasa utzi: Azken arnasa utzi artean.

Azken bidaia: Baina aita ordurako han zegoen ohe gainean luze, bidaiarako erropak bestek jantzi eta prest.

Azken gaizto: Azken gaizto egin zuen.

Azken gaiztoa: Haren azken gaiztoa ikusi behar izan genuen.

Azken: Azkena, ipurdi gizena!

Azkenik ez: Haien borondateak ez baitzuen azkenik.

Azpeitiartu: Bost urterako azpeitiartua zen gure laguna.

Azpiak jan: Eta horrek azpiak jaten dizkizu apurka-apurka; hondoratu egiten zaitu.

Azpiharmonia: Hura zen azpiharmonia!

Azpijorra: Oso azpijorra maltzurra dik gaitz honek.

Azpiragotu: Ez du bere harrokeria azpiragotzea besterik lortuko.

Azpi-segalari: Azpi-segalaria izaki, belarra hondotik ebakitzen zuena.

Aztarren: Gaur gazteak holaxe ibiltzen dira batetik bestera, non dabiltzan aztarrenik gabe.

Aztarrika (ahaleaginean): Baserrian aztarrika lanean ari zen aitona.

Aztarrika (iz.) Aztarrika latzak joko zituen. Aztarrika batean ibili ginen.

Aztarrika (Iz.) Ez da harrizkoa txikizioa, bideetan dabilen aztarrikari begiratuta.

Aztarrika (iz.): Geroztik ere hamaika aztarrika eginak gara, sarritan galeran. Aztarrika batean ibili ginen.

Aztarrika: Aztarrika beti ezer ez egiteko.

Azukre-gauza: Hartzak askotan heltzen dio azukre-gauzari.

Ba: Banengoen, ba!

Ba: Ez, ba! Bai, ba!

Ba: Zer da, ba, bihurria!

Baba: Egositako babak erein (itxurarik gabeko gauzak egin)

Babestu (-ra): Ostatu jakinik eztu, ez daki nora babestu.

Babontzi: Babo. (adierazkor)

Bada ez bazen: Festak zirela-eta deitu ziguten bertsotarako aurrez, bada ez bazen ere.

Bada zerbait: Laurogei urte beteak omen zituen, bada zerbait.

Bada: Hauxe jaki gozoa, gozorik bada!

Badaezpada (iz.): Badaezpadarako da hau, ezta?

Badaezpada... Ere: Makila eramango dut, badaezpada txakurren bat ateratzen bazaigu ere.

Badaezpada: Jaitsi zu ere, Maria, zer gerta ere, badaezpada.

Badaezpada... ere: Badaezpada noizbait huts egiten badio ere.

Badakit (¡Ya (lo) sé!): Bai, ba! Aa, bai!

Bai (asko): Elefanteak bai jan!

Bai (ironiaz): Beraz, bai, ezta?

Bai horixe!/Hori esan!: Eskerrak harria den! -Bai horixe! Eskerrak ez den harria! -Hori esan!

Bai, ba: Bai, ba, joan berriz (ere) hara!

Bai, bai!: Berdintsuak omen dira. Bai, bai!

Bai: Haitza jo zuen, bai gogor jo ere!

Bai: Nik bai, ez zela parte onekoa! Nik bai, gauean zarata entzun dudala!

Baietz egin: Baietz egin nion buruarekin/buruaz.

Baina (bukaeran): Lehen ere izanak gara han; ez dakit gogoan duzun baina.

Baita: Makulutzat erabiltzeko: Baita!

Baizik (gabe ere): Han dago elizaren ondoan; ez plaza aldetik, iturri kale aldetik.

Bakar (Adlag.): Amonatxo, hementxe utzi behar zaitut orain bakar.

Bakar (Adlag.): Zuk zer egingo zenuke bakar, lagun jatorrik ez balitz.

Bakar-bide: Eta bere bakar-bidean

Bakardadezko: Etxeko sukalde epelean eta bakardadezko isiltasunean.

Bakarlán/auzolan: Bakarlana auzolan bihurturik,...

Bakarlekuago: Bakarlekuago baitziren haiek.

Bakarmin: Bakarminez nago, ama, zu joan zinenetik.

Bakarrizketa/Bakarkako hizketa: Haren bakarrizketa. Maitaleen bakarkako hizketa.

Bakartu: Behin ezagutu ginen eta gehiago ezin bakartu.

Bake/gizatasun: Hemen bakerik ez den tokian ez dugu gizatasunik.

Bake: Bakea behar diagu, hi!

Bakegura: Bakegura izan.

Bakeurruti: (sesio zalearentzako ezizena)

Bala-jasa: (euri-jasaren haritik)

Baldarraldi: Baldarraldia du aspaldian.

Baldartu: Nik ez nezake hitzez baldartu bihotzez maite dudarik.

Baldaxka: Ondoko besaulkian lotan, baldaxka-baldaxka gainera zetorkidan.

Bale/kale: Batzuek bale, besteek kale.

Balio: Aspaldiko esaera zaharrak dioenez, batek hamar balio omen lezake, eta hamarrek batere ez kasu batzuetan.

Balkoigintza: Balkoigintzan jarduna zen.

Bana-banako (oso berezi): Igorgailua jarri diegun tigre guztiak bana-banakoak dira guretzat.

Banaka (Adlag.): Banaka bizi beharra elkar maite genuen bi gazte.

Banaka (bakan): Lehen oso banaka ezagutu genituen Bizkaian bertsolariak.

Banaka (izond.) Haren parekoak oso banakak eta konta errazak izango dira.

Banaka: Banaka batzuekin hitz egin nuen.

Banakatu (Banandu): Aise banakatzen ziren mandoak, eta edozein zulotan sartzen muturrez aurrera.

Banatu/eduki: Ez dizut galdetu zenbat daukazun, galdetu dizut zenbat banatu duzun

Banatu/pilatu: Dirua, nola banatzen duzun da kontua, ez nola pilatzen duzun.

Banbuarte: (Sasiarte bezala)

Banengoen: Orain hamar bat urte, banengoen Donostian, Kontxara begira, eta han etorri zitzaidan laguna...

Bapo: izond. Berak ere emango dizkit arrazoi bapoak.

Baporegintza: Ontziolan baporegintzan erabiltzen zituzten trabesak...

Baratxuri: Baratxuria baino finago.

Baratzeak jorratu: Juliak maitasun grinarik ez duen boladetan, beste baratze batzuk ere jorratzen ditut.

Barau (Mus jokoan karta onik gabe): Itxura denez, eskua baraurik zegok.

Barau gelditu: Jende ikasiak ateratzen die muina Lizardiren poemei, baina asko barau bizian geratzen dira.

Barau: Barau geratu. Ni bezain barau geratu ziren (ezer ulertu gabe, ezer jakin gabe...)

Baraua hautsi: Baraua hautsi behar diagu lehenbailehen, etxe aldera abiatu aurretik.

Barazkiak egin: Patata, babarrun, tomate, porru, tipula, piper handi eta horrelako barazkiak egiten nituen.

Bare/beltz/latz/urdin: Iz. Itsasoaren bare! Gauaren beltza! Kolpearen latza! Zeruaen urdina!

Bare: (iz.) Hala dio aitak: ekaitzaren ostean barea datorrela.

Bare: Barea baino motelago.

Barea eta karakola: Holakoxea ohi da barearen jira, karakola eta biak lehengusuak dira.

Barealdi: Zakarra izan arren, ekaitzaren ondoren barealdia.

Barkakizunago: Barkakizunago zaio hori amari...

Barne giro: Barne giro gozoan bildurik.

Barne-biluztea: Barne-biluztea egin zuten elkarren artean.

Barne-muin: Maitasunak orduan odolaren barne-muina xurgatzen du.

Barra: Horrek dik zoro barra!

Barre gozo egin: Beste aldera jiratu eta barre gozo egiten zuela konturatu nintzen.

Barre/algara: Azkenaren barrea, algara!

Barre/negar: Gaur barre egin diozu txanponari, bihar negar egingo diozu.

Barre: Barre sanoa. Barre txoroa. Barre zuria (zurikoarena).

Barrearen barrez: Hau barregura! Txiza aterako zait barrearen barrez!

Barregarri/beldurgarri (iz.): Barregarritarako hobeak ziren beldurgarritarako baino.

Barregarri/ez-barregarri: Oso barregarria, aizu, une ez-barregarrian.

Barren: Alkandora barrenaz muki hondarrak garbitzen.

Barren: Alkandora barrenaz muki hondarrak garbitzen.

Barren: Barrenak ez dit agintzen. Barrenak eskatzen dit.

Barrena hustu (kaka egin): Oinez doala husten du barrena jirafak.

Barren-huts: Luma hutsezko txori barren-hutsa. Hizkuntza barren-hutsa, elkortua, agortua eta hila.

Barren-huts: Zuhaitz barren-hutsa da aproposa horretarako.

Barren-ustel: Sagar barren-ustelak. Gizon barren-ustelak.

Barrez: Hesteak bota beharrean barrez.

Barru (iraganean): Egun gutxiarren barruan deitu zuten berriro. Ez da kontu zaharra: bi hilabete barrukoa.

Barrua irauli: Barru guztia irauli zion.

Barrua izan: Ume gaixoak baztertzeko nik ez dut barrurik izan.

Barrua/Gibela: Barrua behar du. Gibela behar du.

Barrubigun: Hilkutxa barrubiguna.

Barruko biki (kontzientzia): (hala) esaten zion barruko bikiak.

Barrukoa kanpotik: Barrengo berri kanpotik jakitea zaila izanik, ni ezin nintzeke aurreragi sartu gai horretan, badaezpada ere.

Barrura egin: Etxe barrura egin genuen, gehiago itxaron gabe.

Barruregi: (Goregi-ren haritik)

Baserri bildua: Sail txiki samarrak dituen baserri bilduan batez ere.

Baso (bat) ur: Baso (bat) uretan arrautza bota eta...

Basoerdi ardo: Tabernaz taberna basoerdi ardoak edaten.

Basotu: Bailara buruan mendiak gora egiten zuen, belardiz belardi, aurreneko aldapa buruan basotzeraino.

Bat bada: Indartsua, bat bada!

Bat behar da ere (bat bera ere): Nik ez nuen mahairik libre ikusi bat behar da ere; denak leporaino beteta zeuden.

Bat eta bi: Ez bat eta ez bi,...

Bat etorri: Ez dira bat etorri aurrera begira zer egin.

Bat etortze: Nabaria zen puntuka ere bien (Uztapide ta Lasarteren) bat etortzea.

Bata/bestea: Askotan aritzen gara bata ta bestea, baina...

Batak/besteak: Batak zer egin, besteak huraxe.

Batasuna: Egian batasuna, zalantzan askatasuna; denean maitasuna (In veritate unitas, in dubiis libertas; in omnibus charitas)

Bateko ta besteko: Baina bateko hego haizea ta besteko eguraldi ona, elurra goi samarrean dago.

Bateko/besteko: Bateko gau galduak eta besteko jan-edan gehiegiak...

Bateko/Besteko: Bateko haize boladak, besteko oina ezin kokatu, eta erdia besterik ez dute egin.

Batekoz bestera (alderantziz): Baina batekoz bestera irten, ordea, gauzak zoritxarrez.

Batekoz bestera (alderantziz): Eta maizago bilduta ez zaigu damutuko; batekoz bestera, poz handia sentituko dugu.

Batekoz bestera (alderantziz): Sekulan ez genion tristurarik nabaritu: batekoz bestera, beti kantuan edo xeblekerian.

Batekoz bestera: "Baiña ez dek orrela gertatu, batekoz bestera baizik"

Bateratsu: Bateratsu gabiiltza.

Batere: Hartz honek batere nire antza badu, hau ez zaio batere gustatuko.

Batez beste: Batez beste egin beharko dugu: nire zakarkeria eta haren lotsagabekeria.

Bazkaleku/bizileku: (Esaera) Bazkalekua non, bizilekua han.

Bazkaltzera bitartean: Eta gero plazan eguerdiko festa ikusi, bazkaltzera bitartean.

Bazter: (adlag.) Mundutik bazter daude.

Bazter: Bazterrak harrotzen (iskanbila sortzen).

Bazter-hitzak: Txokokeriak.

Bazterrago: Gero eta bazterrago zegoen gaixoa.

Baztertuxe: Baztertuxe dauzkagu aspaldiko ohitura sanoak.

Bedeinkatu gabe: Ume bedeinkatu gabea! Horixe ume bedeinkatu gabea!(oker portatzen den gaztea)

Bedeinkatu: Zatoz etxera, Jaunak bedeinkatu hori! (Biblia)

Begi beteko: (kutun) Ikusleen begi beteko

Begi umil: Begi umilen argia zara, sorterrria!

Begi zulo: Begi zuloa atera aizkorari.

Begi zulo: Horiek begi zuloak! (ajea)

Begi/belarri: Dena begi ta belarri zen ikaslea.

Begi/belarri: Ez dugu atea zabaltzen ikusi. Ezin inork erakuts ez begik ikusi ez belarrik entzun ez duenik.

Begi/Bihotz: Begietatik urruti, ez da bihotza negarti.

Begi: Ikusteko begirik ez eta negar egiteko bai, zioen aitona.

Begi: Laster jarriko da ni kantari hastean, begi batean poza negarra bestean.

Begiak argi: Mendizaleek begiak argi joan behar dute bidean.

Begiak ase: Hantxe zebilen batera ta bestera begiak ezin aserik.

Begiak betean: Begiak betean egin zuen negar.

Begiak betean: Malkoak dituzula begiak betean.

Begiak bildu: Zenbat gau begiak bildu ezinik!
Begiak bixi: Begiak bixi-bixi, edariak piztuta.
Begiak erre: Gau eta egun telebistaren aurrean begiak erre beharrean.
Begiak izerditan (negarra disimulatzeko): Bero honekin, begiak ere izerditan dauzkat.
Begiak kizkurtu: Begiak kizkurtu zituen ongi apuntatzeko.
Begiak loratuta: Begiak loratuta/lora-lora eginda (pixka bat edandakoan)
Begi-alai: Alaba gaixoa begi-alai ikusteak poztu dit barrena.
Begi-argi: Irribarre gozoko haur begi-argi hura.
Begi-belarri: Neu naiz haren begi-belarri: neuk ematen diot hemengo berri.
Begi-bizi: Aita kaputxino begi-bixia.
Begien bista: Alde begien bistatik!
Begietara jaio: Zure begietara jaio nintzenean...
Begi-festa: Ez da, bada, harritzeko gure artean ere zinemak, begi-festa merkeen horrek, gero eta zale gehiago izatea.
Begi-gogoak: Gazteagoen begi-gogoetan.
Begi-gozagarri: Grace Kelly ere begi-gozagarri aukeratu du noski.
Begiko ninia: Huraxe zuen begiko ninia.
Begiko/begiokerreko: Oso begiko zintuen. -Bai, begiokerreko!
Begimindu: Hondartzan bada, bai, zerk begimindu.
Begi-neke: Ez dela begi-nekea Silvana Mangano berriro ikustea.
Begira (ekarri): Alderdi horretatik bila dabilen bati edo besteri argi pittinen bat begira diezaioke.
Begira izu: Begirada izua zuen gaixoak. Joera izua. Begiratu izua.
Begira: Zeruari eta zeruaren begira.
Begurago: Inoiz baino begirago egon behar genuke orainaldi igaroari.
Beguratu: Bazuen etxean nori begiratu.
Begurune izan: Izan, beraz, begirune Jaunari.
Begiz jan: Bazirudien begiz jan behar zuela neska.
Begi-zabal: Ondoan lau ume begi-xabal zituela.
Begi-zizta: Aitak begi-zizta egin zion eskumuturrari: hamabiak ziren.
Begi-zorrotz (Adlag.) Begi-zorrotz begiratu zion goitik behera. Begi-zorrotz daude denak, alajaina!
Begi-zorrotz (Izond.) Lagun begi-zorrotzak ikusi zuen aurrea, jakina.
Begi-zulo, Begi zulo, Betzulo: (zulo) Begiak zuloetatik atera beharrean dago.
Behar (aditza janda) Askoren Ameriketara behar hura...
Behar (aditza janda) Ez du ederki behar! Gaizki behar du! Gaixoak zaintzen behar nuke orain.
Behar (aditza janda): Hemen behar zuen honezkero. Hurrena beharko du.
Behar (izond.) Badakigu hil beharrak garela. Horretarako behar-beharrenak falta zituen.
Behar (izond.) Lehenik, beste kontu batzuk dauzkat esan beharrak.
Behar (izond.): Eta bertsoak dauzkat bukatu beharrak.
Behar (laguntzailerik gabe): Hura zelako, nik han egon behar izan nuen, Iruñean behar nuena.
Behar (laguntzailerik gabe): Nire andregai behar zuenari bere garaian hitz bat ez esateagatik galdu nuen.
Behar (laguntzailerik gabe): Pozik behar zenuke
Behar (nor): Horixe izan behar du bidea. Zeu izan behar zoritxarra dakarkidana.
Behar (Nork gabe): Poliki-poliki egosi behar du.
Behar besteko: Aurrerantzean izango ahal du behar besteko eragina!
Behar: (nork gabe) Arrazoiren bat egon behar du horretarako.
Behar: Beharrik beharreanean
Behar: Han hila izan behar zuen.
Behar: Noizbait behar eta...
Behar: Zu etxean gozo-gozo, eta guk egunero, hotz ala bero, lanera joan behar!
Beharko (laguntzailerik gabe): Hutsetik hasi beharko berriz!
Beharko: Beharko saiatu, jango bazuten!
Beharko: Bertso saio luze askoak egin genituen. Beharko gainera, entzuleak aseko baziren.
Beharko: Guk gaztetan ez genuen halako desordenarik erabili; ez beharko ere lehengo gurasoekin.
Beharko: -Isilduko al haiz? -Bai, beharko!
Beharko: Zer moduz zaude? -Ondo, esan beharko!
Beharko... bestela: Beharko esana egin, bestela gorriak ikusi behar!
Behar-ordu: Eta behar-orduetan lagunduko dizu (Jaunak). Behar-ordu estuan...
Beharrago: Donostian beharrago nintzela pentsatu zuen norbaitek, eta...
Beharrago: Ez zuen ezer beharragorik gaixoak. Gero eta beharrago dugu samurtasuna.
Beharraren beharrez: Zizipaza egiten dute haurrek, txupeteari bultzaka hitz egin beharraren beharrez.
Beharrean (ordez): Egunez beharrean, gauetz.
Beharrean: Eguzkitan kiskali beharrean.
Beharreko: Asko beharrekoa izan!
Beharreana: Hainbat gauza, eta beharreana falta!
Beharreana: Irautea da beharreana.
Beharreanean: Asmatu ezinda geldi liteke gizona beharreanean.
Beharreneko: Lanik beharrenekoak egin genituen.
Behartu (premia izan): Batek ez baitaki zertaz behartuko den. Berriz ere deitu, behartzen zaretenean.
Behartu (premia izan): Medikuri bazenik ere ez zuen jakingo seguru asko, ez zen haietaz behartuko eta.
Behe/goi: Hementxe etorri da Idoia, neurtuko nizkioke behe ta goia.
Behe-sarrera: Behe-sarrerako atea.
Behetik gora(koa): Bi metro bai behetik gora(koa).
Behin behar: Behin behar eta haren aztarrenik ez.
Behin edo bestetan (Noizean behin): Behin edo bestetan joan izan naiz hara.
Behin honezkero: Behin honezkero, bihar deituko diot.
Behin: Behin bezero bat etorriko ta harpa jo digu kurioso asko!

Behin: Behin jaikiko garaiz eta a ze atarramentua!
Behingo batean: Behingo batean aitari esan omen zion.
Behingo batez: Berak aitortu zigun behingo batez telebistatik.
Behingoz (behin): Nik beti grina berean ikusi dut, behingoz ezagutu nuen geroztik.
Behordun (umorez): Zalduna edo "behorduna" izan, ez duzu horretarako eskubiderik.
Beita egin: Beita egitera (sardina harrapatzea, gero beitzat erabiltzeko)
Bekain-bizar: Ez zen giro. Haizea indartsu zebilen, bekain-bizarrak kentzeko moduan.
Bekain-soil (Burusoil hitzaren haritik)
Bekoki izan: Nola izan huen bekoki horrenbeste jenderen aurrean apaizari jarkitzeko?
Belar ebakitzera (belarra moztera): Goiz batez ontzeko belar ebakitzera joan nintzen.
Belar egin: Belar egiteak gantza urtzen, andereak edertzen.
Belar janean (belarra jaten): Behiak belar janean ari ziren.
Belar ondu (ad.): Belar ontzen ari zen. Belar ontzeko garaia zela eta.
Belarri (Belarri ondoan hitz egiteko joera duenari esateko): Ezidazu belarria busti.
Belarri (poltsaren euskarri): Poltsari belarrietatik helduta alde banatetik.
Belarri/isilpeko: Hiru belarritara iritsiz gero, isilpekorik ez.
Belarri-berotzaile: Irabazleak belarri-berotzaileak izaten dituzenez, aurrera segitzea pentsatzen badu, orduantxe kontuak!
Belarri-zorrotz: Spock doktorea bezala.
Belatzain: Belatz zain
Belaun gorri (Belaun biluzi): Heriotzaraino belaun gorrien gainean ibilita ere, ez zaitut ordainduko.
Belaun gorritan: Bi ordu luze belaun gorritan otoiitzean.
Belazain: Bela zain
Beldur antzean: Beldur antzean ibilia naiz ni hona etorrita.
Beldur izan: (Esaera) Jainkoari beldur dionak ez du zertan beldurtu.
Beldur/irrika: Zeren beldur, huraxe gertatzen zaio gaiztoari; zeren irrika, huraxe ematen zintzoari.
Beldur: Beldurra airean ibili gara. Beldurra bizi gaitu.
Beldur: Hantxe geunden noiz bukatuko beldurra.
Beldur: Haur izu kale-beldur eta jende-beldur.
Beldur-jario (izond.): Orein beldur-jarioaren antzera, uzkur eta gogo-urri hurbildu...
Bele: Belearena egin (ordaindu gabe joan)
Beltz/ikatx: (Esaera) Beltz guztia ez da ikatza.
Beltz: Lana beltz egin.
Beltzak/gorriak/zuriak ikusi: Gorriak ikusi zituen. Beltzak eta zuriak ikusi zituen.
Belzkume: Beltzaren ume.
Benetakoago: Bere hutsean benetakoago bihur dakigun.
Bera samar: Eskua bera samar badu pilotariak...
Berandu gabe: Baina berandu gabe desagertu zen.
Beranduago: Bat berandu etorri da, eta beste bat beranduago (konparazioa). Bestela: geroago.
Berdekilo (ezizena).
Berdin/ezin: Fede onezko amodioak nola ez duen berdinek, elkar maitatzen jakinez gero ez dago bizi ezinik.
Berdin: iz. Berdinean (leku lauan) gusturago ibiltzen da edonor.
Berdindu (gose-egarriak kendu): Berdindu al zarete, lagunok?
Berdindu (irrika): Ez genuen irrika hori berdintzeko modu errazik izan.
Berdoztu: Ardoak apur bat berdozturik, berriitsu zihoazen etxera bidean.
Bere oneratu: Ari da bere oneratzeko.
Bereak eta: Bereak eta asto beltzarenak ikusi zituen hura ordeztzeko.
Bereak eta: Bereak eta bi hartu zituen lotsagabeak!
Bereak eta: Presarik izan ez banu, hartuko zituen bereak eta asto beltzarenak!
Bereak: Hori esateak ere baditu bereak.
Berehala: Berehala (bela) etorriko da! (ez dela etorriko, alegia)
Berehalako/geroaxegoko: Ez dakigu zer datorkigun berehalako, are gutxiago geroaxegoko.
Bereiz (Adlag.) Iritziak bereiz dabilta.
Bereizpide: Elkarbide/Bereizpide
Berekoi, bertakoi: Berekoi eta bertakoi.
Berez: (bere kabuz, bere kasa) Berez igotzen dira autoko leihoak.
Berez: Bertsolaria, badakizu, berez behar du.
Berezko/erosteko: Hori da berezkoa, ez denda erostekoa.
Bero antz: Une bateko bero antza laster epeldu zitzaion.
Bero egoskorra: Eguzkirik gabeko bero egoskorra, berriz, egunez bezalatsu gau askotan ere.
Bero usain: Barrura sartu bitartean bero usain gutxi.
Bero/lehor: Bero ta lehor egiten du han.
Beroan: Emeak beroan sartuak ote dauden...
Berogarri (iz. Arropa): Artean berogarri gehiago eskatzen zidan gorputzak.
Berotan/euritan/haizetan/hotzetan: Ez zaitezte hor hotzetan geratu.
Berotu: (nork gabe) Ederki berotuko du gaur.
Berotuta: Bero-bero eginda.
Bero-usain: Bihar ere ez da bero-usainik izango (hotz egingo duela, alegia).
Berpiztua da Jesus: Iragan jarraitua da: berpiztu zen eta berpizturik segitzen du.
Berri (-ko berri jakin): Lehen ere inguruan ibilia, bazekien hango berri.
Berri/zahar: Jan-berria naiz. Ez naiz jan-zaharra.
Berrian: Soldadu joan berrian. Txipiroia itsasotik ekarri berrian.
Berriketa: Berriketa gutxi (nirekin) eta haiek onak!
Berritan: Holako gauzak berritan zuzendu behar dira, ahal bada.
Berritik hamabira: Beraz, goazen aurrera berritik hamabira, pilotariak esan ohi zuten bezala.
Berritik hamabira: Sabelak berotzen zitzaizkigunean hasten ginen kantari, berritik hamabira.

Berritsu: Kilkerrak maiatzean bezain berritsu.
Berritu: (iz.) Kontu zaharrei berritu bat eman.
Berritu: Berritu egin behar, eroriko ez bazen!
Berritu: Hementxe, kontu zaharrak berritzen! -Gu ere bai, zuei zer entzungo!
Berritu: Mila bider esana berritu beharko dizuet.
Berritu: Lehenago bizimoduari berritu bat eman genion, denbora-pasa.
Berritu: Lehenago gertaerak kontatzen berritu bat sentitzen dut barruan.
Berritzo (hurrengorako): Eta herria gustura geratzeak ez du gutxi balio berritzo ere.
Berritzo (hurrengorako): Gauza bakoitza ordainduta, lasaiago geratzen da pertsona berritzo ere.
Berritzo: Gaia geratu zen han berritzo ere: lizar gazteak eta ederrak.
Bertago: Haiek zerutik bertago baitaude.
Bertan goxo: Urte gehiegi iragan zaizkigu "bertan goxo" geundelarik.
Bertso eta irri (Adlag.): Izar artean dabil (Mattin) bertso eta irri.
Bertso festa: Ez naiz orain gogoratzen zein herritan izan zen orduko gure bertso festa.
Bertsoak axalean (erraz ateratzen): Guk geuk ere bertsoak axalean geneuzkanez, ahalegindu ginen jendearen egarria asetzen.
Bertsoak ibili: Eta hola beste asko (bertso zaharrak) garai hartan ibiltzen zirenak.
Beso (animaliaren aurreko hanka): Astarra bi besoak emeari gainean jarrita.
Beso zabal (Adlag. Beso(ak) zabalik): Emioko gurutzea beso zabal ikustean,...
Beste: (-z beste) Ezin gara beste inor izan, garenaz beste.
Beste: (-z bestera) Jendeak uste duenaz bestera, ez da hain zaila ere.
Beste: Zeureaz gozatu beste kezkarik ez duzu izango.
Bestelakoan: Bestelakoan, nik nahi nuena zen.
Bestelakorik: Oso bestelakorik aurkitu dugu hemen.
Bestera egon: Inor bestera bazegoen, atera zedila, hitza berea zuela.
Besteri: Besteri esan behar zuk!
Bestetango: Ez duzue hemengo eta bestetango eskoletan...
Bestetsu: Gizakia bestetsu urte bizi ohi da animalia hori.
Betaurreko: Gauzei geure begiz, betaurrekorik gabe, begiratu.
Bete bezain isil: Plaza bete bezain isilean.
Bete: Bete egin da pilotaria, arnasari buelta eman ezinda.
Bete: Ez da gizon betea. Ez da bete-betea ere.
Bete: Izar argiak ikusten dira zeru urdina betean. Bikote ederra, plaza bete-betekoa.
Bete: Saskia bete fruitu heldu
Beteago: Ez zuen ezeren jabetzarik nahi, gauza guztiak Jaunagan beteago eduki ahal izateko.
Betean: Eskuak betean diru banatzen.
Betean: Izar argiak ikusten dira zeru urdina betean.
Bete-beteko: Egiaren babesle bete-beteko!
Beteko: Ahoa beteko izenak.
Betiko: Betikorik ez da inor mundu honetara jaio denik, oraindaino bitartean.
Betikoan: Hemen gauzek betikoan segitzen dute.
Betimin: Gizakia betiminez bizi da. Gizakia betiminak dago.
Bezala/bezalako (Zer/nolako): Ama bezala da niretzat. Ama bezalakoa da.
Bezalako: Bizkorra, bera bezalakoa!
Bezalatsu: Azkeneko zortzi urte Oriotik inora irten gabe bezalatsu daramatzat, bertsolaritza zeharo utzirik.
Bezalatsu: Etxetik bi pausora bezalatsu baitzeukan Itziar.
Bezalaxe: Etorri bezalaxe joango dira.
Bi doinutara dantzari: Noiz arte ibili behar duzue bi doinutara dantzari?
Bi minutuan/Bi minutu barru: Bi minutuan egingo dut joan-etorria; hemen izango naiz bi minutu barru.
Bi pezeta: Ni ez naiz bi pezetaren jabe.
Bi puntuen erabilera (aurkaritza): Ez zen hizkuntzaz ari: mamiari dagokion auzia zen eta da.
Bi puntuen erabilera (erlatiboa): Iparraldeko gizon hezea zen: Hegoalde lehorrak ez zuen kilikatzen.
Bi puntuen erabilera (kausala): Ez zion kasurik egin: ongi azaldua zion kontu guztia.
Bi puntuen erabilera (konpletiboa): Hauxe esango dizut aurrenik: biziro alaitu nau hori ikusteak.
Bi: Bi, bi, ez naiz ondo ibili.
Bibolin: Zakurraren bibolina!
Bibote: Bibote oker arraioa!
Bide (arrasto, sail, hari): Baina goazen lehengo bidera poliki-poliki.
Bide (ez bide du): Hori ahoa betean dioenak ez bide du irakurri, besteak beste, Detxepare, ezta Oihenart ere.
Bide (izond.): Bide hau bideago da (bidegurutze batean esana)
Bide eran (eskueran): Bide eran dauden jantokiak, kamioizaleentzat egokiak. Bide eran (ferratokia) lana ugari inguratzeko.
Bide eran: Bide eran dauden jantokiak, kamioizaleentzat egokiak.
Bide galduta (Bidea galduta): Bide galduta ibili ziren luzaroan.
Bide sail: Bide sailak egiten zituzten oinetakorik gabe.
Bide/esan: Zuk segi zeure bidetari, ez egin kasu jendearen esanari.
Bide: Aspaldi joana da hemendik, baldin topatzen baduzu haren biderik, eman eskumuinak nire partetik.
Bide: Gabiltzan bideak konponduko gaitu.
Bide: Ilunabarrera bidean zen gure gizona.
Bidea betean: Bidea betean heldu ziren Oriora, bizikleta, gurdi, zakur, atso eta ume. Halako erromeria tristerik!
Bidea erakutsi: Lasartek erakutsi dit zureganako bidea.
Bidean izan (ordua): Badakik bostetan dugula saioa, eta bostak bidean dituk.
Bidelagun (adlag.): Hauen bidelagun etorri naiz.
Biderako: Prestatu biderakoak!
Bidezago: Zuk bidez jokatu baduzu, lagunak bidezago.
Bihar/etzi: Bihar ez bada, etzi; ezin bada, utzi.
Bihotz batez: Bihotz batez elkarturik,...

Bihotz berria landatu: Bihotz berria landatu zioten, eta pozik bizi da orain.
Bihotz bigun: Ai zer sufrimendua bihotz bigunean, heriotzak atean jotzen digunean!
Bihotz bigun: Hura atsegin zoragarria gure bihotz bigunean udaberria iristean!
Bihotz isil: Zer pena ote du bihotz isilean? Bihotz isilen laguna (sorterria).
Bihotz kontra: Bihotz kontra jardun lagunaren aurkako partidan.
Bihotz ona erakutsi: Nik neuk ezin nezake ahaztu gureganako bihotz ona erakutsi duenik.
Bihotz samur: Eta elkarren ingurura maizago biltzen bagara, poz handi bat sentituko dugu gure bihotz samurretan.
Bihotz uzkur: Haurtzarotik entzungo zituen kontu hauek bihotz uzkurrez.
Bihotza beratu: Ez diozu bihotza beratuko.
Bihotza bete: Bihotza bete penaz esan zion.
Bihotza bete: Bihotza beteko poza zuen.
Bihotza betean: Eta bihotza betean nuen orduantxe zoriona.
Bihotza eduki: Errukia eman behar bihotzik zeukanari.
Bihotza izan: Erasoak harrapatutako haur gaixoak hozkia eman behar nahitaez bihotzik duenari.
Bihotza jaso: Baina ni triste utzi ninduen; bihotzik ezin dut jaso.
Bihotzak erakutsi: Hainbesteraino sentimenduz jantzia den gizon argiari bihotzak erakusten dio nola hitz egin.
Bihotzak jo: Bihotzak hamar aldiz bizkorrago jotzen dio saguari.
Bihotzak jo: Gure bihotzak minutuan 70 aldiz jotzen du. Burua ur hotzetan sartuta bihotzak geldiago jotzen du.
Bihotzeratu: Inoiz ahaztuko ez diren penak zaizkit bihotzeratuak.
Bihotz-garbi (izond.): Zorionekoak bihotz-garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa.
Bihotz-gozagarri: Lagunak bihotz-gozagarri dira.
Bihotz-isuri: Bihotz-isuri hutsez aritu.
Bihotz-isuri: Haren bihotz-isuriak gozarazi zituen gure arimak.
Bihotzondo/lapiko: Nabari zuen han bihotzondoan, asmoak eta ametsak egosten diren lapikoan.
Bihotz-urratu: Hurbil dute Jauna bihotz-urratuek.
Bihurri (iz.): Bihurri pixka bat berezkoa du, hori ezin zaio kendu.
Bihurrika: Beheko ordekan alderik alde ibaia zihoan bihurrika.
Bihurritu: Ni osasunetik gazterik bihurritu nintzen.
Biki: Barruko bikia (kontzientzia). Zer esaten dizu barruko bikiak?
Bilatu (aurkitu, ikusi): Gizon atsegina bilatzen nuen nik Mariano.
Bilaukume: (iraintzeko esana)
Bil-bil egin: Bil-bil eginda (Ongi bilduta).
Bildu (-gana) : Sarri-sarri biltzen zen amarengana.
Bildu (jaso): Alabak hala bildu du berria.
Bildu: Babarrun biltzera joan zen. Gaztaina biltzera joan ginen denok.
Bildu: Bildu-bildu egin zen berokian.
Bildu: Biltzen al zaizue lanik? Neuretzako bakarrik gehitxo biltzen da lana.
Bildu: Galtzak belaun gainetaraino bilduta.
Bildu: Hemen gaitzak ez dio barkatzen inori, zu ere horrek bildu, gaixo hori!
Bilduan egon: Irurita herri txiki dotore bat da. Oilalokaren azpian txitak bezalaxe dago bildu-bilduan.
Bilera (festa): Erromeri bilerak nonahi egin ohi ziren bailara txikitetan. San Isidro nekazarien bilera.
Biok (zu eta ni biok): Aiako Santiago bailaran lehen ere kantatuak gara zu eta ni biok.
Biribilak (barrabilak): Gizon gaiztoak hil zuen biribiletan ostiko z jota.
Birjintasuna urratu: Birjintasuna urratu gabe.
Bisigu-begi (begi gorriak): Horiek dituk bisigu-begiak!
Bista halako: Bista halako basoa.
Bista halako: Han bista halako zelaiak daude oraintxe ere.
Bistaratu: Besoarekin elurra kenduz, otea bistaratzen dute lehenengo behor-zaldiek, eta gero jan.
Bitarte: Sei haritik hogeira bitarte sortzen ditu ipurtargiak.
Bitarterainokoa: Soldadu joan bitarterainokoa.
Bizar ile: Bizar ileak dituzu kokospean.
Bizar: Bizar sarria zeukan.
Bizarguri: Bizar leuneko gaztea edo gizona.
Bizar-zorrotz (izond.): "Heriotza bezain beltza -handitu zuen bizar-zorrotzak".
Bizi (du): Amona xaharrak ere bere haurra bizi du. Beldurak bizi gintuen orduan.
Bizi (nork): Bizi gintuen haurrak... Euzkararen kezka bizi du Altuna. Jainkoak bizi nau: Bera dut argi.
Bizi (nork): Jaunak luzaro bizi zaitzala munduan!
Bizi ezina: Mundu iluna negarti dago nahigabez oso betea, ugaritu da bizi ezina, borroka ta gosetean.
Bizi gara? -Bai(ta) nahi ere!
Bizi giro: Bizi giro ederra zen hangoxea.
Bizi hondar: Atsedenean darama bizi hondarra.
Bizi hots: Bizi hots alaiak.
Bizi/etsi: Mundu honetan nahi duenak bizi, gerta ala gerta, ez du behar etsi.
Bizi/herio: (Esaera) Bizia non, herio han.
Bizi: Hi bizi haiz hi! Bizi al haiz? -Bizi ez, bixi.
Bizi-arnasa: Jauna, ene Jainkoa, otoi, etor dakiola bizi-arnasa haur honi.
Bizi-beldur: Bizi-beldur denak ezin asmatu nola bizi.
Bizi-erditze: Bizi-erditze zoragarri.
Bizigarri (adlag.) Amak ematen dio odola bere haurrari bizigarri.
Bizimodu: Bizimoduz, txerri tratuan zuen ogibidea.
Bizi-pisa (bizirik pisatuta): Hogeita hamabost kilo zituen bizi-pisa.
Bizirik jaiotako(a): Bizirik jaiotako zen huraxe! Bizirik jaiotako semea da Saizar.
Bizitzaren harian: Bizitzaren harian beti izaten da zerbait berri.
Bizi-uste: Erlojupeko bizi-ustean...
Bizkar otarre: Goizean erosi eta asto edo zaldia bizkar otarrean sartuta ogiak.

Bizkarra beteko fardela: Eta beste gauza asko ere oker irten zaizkidanez, azkenerako bizkarra beteko fardela neureganatu.

Bizkarreko hotzak kendu: Bizkarreko hotzak kendu zizkion horratik!

Bizkarreko maleta (Konkorra, korkoxa): Lehen ere bapo aspetua nauk bizkarreko maletarekin ibiltzen.

Blai (iz.): Hau da blai!

Borondateko: Borondateko pertsonak denerako balio du.

Bost axola: Bost axola zuei, irabazi edo galdu!

Bost: Bost-bost, kakatan plost!

Bota ahalean: Bota ahalean ari du euria.

Bote-harro: Pilota bote-harroarekin ezin burutu.

Botila ardo: Han zetorren berriz botila ardo gozoarekin!

Botila ardo: Hantxe gustura, botila ardoa aurrean, gure zaharrak kontu-kontari, patxada ederrean.

Buelta: Azpeiti eta Azkoiti buelta horretan...

Buelta: Ez dago sardexka-bueltan bildu beharrik (espagetiak)

Bukatuxe: Bukatuxe daukat lana oraintxe.

Bular joka: Bular joka bekataria otoitzean.

Bular-kaiola: Bihotza bular-kaiolatik ihesi.

Bulartsu hazi: Ama on batek bulartsu hazi ninduen bere besoan.

Bultza: Bultza-bultzaka atera zuten handik.

Burdin aho: ahoan hortzetako aparatuak dituenari marrazki bizietan.

Burdin aulki: Geltokiko burdin aulki zulotxo betean eserita.

Burdinaz egurra eman: Nik, errementari lanean, neure buruari burdinaz egurra eman nion.

Buru falta: Horrek gorputza kastigatzen du buruaren faltan.

Buru gabe: Buru gabeak sarri ohi du nekea hanketan.

Buru gutxi: Buru txiki. Pospoloek baino buru txikiagoa du horrek!

Buru gutxi: Gorputzean baduzu osasun aparta, baina buru gutxitxo; beharrena falta.

Buru ibili: Buru dabilzanetako bat...

Buru txikia/aho handia: Buru txikia eta aho handia duzu zuk!

Buru/bekozko: Burua zuritu ta bekozkoa beztu, sasoiak aldegin-da ezina erreztu.

Buru/bihotz: Bertsoa moldatzen da buruz eta bihotzez.

Buru/lepo: Zuk burua ere ahaztuko zenuke, lepoari itsatsia ez bazenu.

Buru: asteburu, hilburu, urteburu, mendeburu... Otsailburu, neguburu...

Buru: Buru lanpetua, buru zorionsua.

Burua bete kezka: Burua bete kezka sarri izaten du zaharrak.

Burua bete pentsamendu: Etxe aldean ganadu asko dauzkanak burua bete pentsamendu erabiliko du, ziur asko.

Burua bete: Hemen nork bere tokian badu burua bete kezka.

Burua galdu/jabe: Burua galdu zuen buruaren jabe izaterako.

Burua izan: Buru pixka bat balu!

Burua larrutu: (indiarrek zuriei)

Burua lepotik: Burua lehengo lepotik.

Burua makurtu: Burua makurtzen diot hotzari, berehala erasaten didala jakinik.

Burua tente: Eta atera zaitez bertatik burua tente.

Buruan pasata: Neroni buruan pasata nengoen gauza hori, baina idazteko ohitura handirik ez eta, geroko utzi beti.

Buruan: Zubi buruan. Eskailburuan.

Buruarekiko: Neure buruarekikoak esanda dauzkat nik.

Buruari eragin: Begira zeudenek buruari eragiten zioten.

Buru-azpiko (burko): Oheak janzteko erabiltzen diren maingidire eta buru-azpikoak.

Buru-bihotz: Buru-bihotzetan erabili. Buru-bihotzetan josi.

Buru-buztan: Buru-buztanik gabeko arrazoibidea.

Buru-elbarri: Zentzugabeko gizon buru-elbarriak asko izaten dira etxe-galgarriak.

Burujanean: (burua jaten) Ni ez naiz burujanean ibiltzen.

Buru-neke: Literatura behera omen doakigu, batere buru-nekerik gabe begiz ikustea gero eta atseginago zaigulako.

Bururik ez: Zaldiak burua du, eta mandoak lepoa besterik ez.

Buru-tente (izond.): Orduan, Jaun ahalguztidunak makurraraziko ditu harro, handiputz eta buru-tente guztiak.

Burutik galdua (atzendua, ahaztua): Herriaren izena daukat burutik galdua.

Burutik joana (atzendua, ahaztua): Burutik joanak dauzkat aspaldiko kontuak.

Burutik jota: Burutik jo samartuta.

Burutik kenduta (atzenduta, ahaztuta): Baina aspalditxoan gai horiek burutik kenduta nabil zoritxarrez, edo onez.

Burutik sano: Hi ez hago burutik sano.

Burutu: Beste tokietan lehorrarekin burutu ezin dutenean ibiltzen gara gu ongien.

Buru-urdin (izond.): Burt Lancaster buru-urdinak...

Buruz aurrera: Buruz aurrera lokaztegi sartuak.

Buruz gain: Azken urteotan, medikuarengana noan bakoitzean, kezka sentitzen dut buruz gain.

Buruz gain: Lana buruz gain zegoelako. Ferratokian lana buruz gain erabiltzen genuen.

Buruz jantzi: Buruz jantzi gabeak. Jaunak buruz jantziko banindu.

Buruz nagi: Baina Uztapide ez zegoen buruz nagi, eta laster bilatu zuen hango saltsari bizitzeko zegokion piper klasea.

Busti (iz.) Zer busti dauka buruan? Odola, ura...?

Busti antzean (adlag. Mozkorturik): Busti antzean ibiltzen da sarri.

Busti/lehor: Han ere busti ginen berriz (edanda), eta egun hartan ez genuen lehorrik erabili.

Busti/lehortu: Busti eta lehortu ibili ziren egun osoan.

Busti: (erosi) Ederki busti ditek!

Busti-urte: Mendiko lanetan lokatza, ura eta elurra gainezka izaten baitira, busti-urtean batez ere.

Dakidantxoa: Nik dakidantxoa azalduko dizuet hemen.

Damu eta erruki: Damu eta errukizko negarrak.

Damu(an): Ez naiz han egondako damu(an).

Damu-mina: Negarrez, damu-minaren indarrez.

Damutasun: Denbora joan eta geroko damutasunak ez du ezertarako balio.
Danbarra: Tximistak eta trumoiak ez gaur inoiz hainbat danbarra.
Dantza eta jolas (adlag.): Dantza eta jolas zebiltzan gurasoak haurrekin batera.
Dantzan/artajorran: Dantzan baino hobe lukete artajorran ibili.
Dantzari egina: Dantzari trebe egina zaude.
Dantzaritako: Dantzaritako sortu zituen nonbait Jainkoak.
Dantzatu: (iz.) Dantzatu ederra eman zion gorputzari. Dantzatu bat eman zien hankei.
Dar-dar/ikara: Dar-dar egingo du zeruak eta lurrak oinarritik ikara.
Dardaraz: Harparen antzera dardaraz daukat bihotza.
Deabruak ez badu: Mundu guztia malda behera badabil, gu deabruak ez badu malda behera.
Debekatu(zabaldu: Hark debekatzenago, eta berak zabaltzenago berria.
Deia deiaren gainean: Bertsolariek deia deiaren gainean erabiliko dute.
Deiadar mutu: inork entzuten ez duena.
Deitu ez deitu: Poliziari deitu ez deitu egon zen luzaroan.
Dela/denik: Ezingo dugu esan gure laguna dela (ez zaigu komeni ta). Ezingo dugu esan gure laguna denik (ez da ta).
Demonio: Hiri zer axola zaik, demonio ergela!
Demonio: Neguko izotza da demonio hutsa, gauza onik ekartzen ez duena.
Dena bat: Erabakia hartu eta lasaitu, dena bat izan zen.
Dena jakin behar (iz.) Hire dena jakin behar horrek galduko hau.
Dena-beharreko (izlag.): Horixe bai dena-beharreko(a)!
Dena-dena-dena: Maiatzeko egun eder bat: dena argi, dena eguzki, dena lore.
Denboraren joanean: Ganbaran denboraren joanean bere kasa lehortzen denak du gusturik onena jateko.
Denekiko: Hementxe, denekikoa ezin eginik.
Deskuidu santuz: Eta, deskuidu santuz halakorik balitz, irakurleari barkamena eskatzen diot aurrez.
Deskuidu: Deskuidua beti zain. Deskuidu latza.
Dexente: Tonatik gora izango da hori! -Dexente gora.
Diate/ditek: Heuri ekarri diate oparia, ez ditek hik besteri ematea nahi.
Diogun: Diogun egun horietan...
Dioska: Hangi dioska hotsa!
Diote, diotenez: Ez ahaztu inola ere OMEN.
Diru baino amets: Diru baino amets gehiago zuen gaixoak!
Diru jario: Diru jario izugarria zerabilen.
Diru polita: Eta diru polita irabaziko dut.
Diru/poz: Dirurik ez geneukan, baina pozak aberasten du pertsona.
Diru: Dirua botatzen errazago da eskuratzen baino. Dirua irabazten baino zailago da gordetzen.
Dirua harrika: Dirua harrika bota (dirua xahutu).
Dirua hautsa bezala: Dirua hautsa bezala zebilen garai hartan hemen.
Diru-gura (izond.): Dirudunago eta diru-gurago.
Disimulu: Inork endredatuko ez gaituen disimuluko txoko batean.
Doa/doanez: Partida gogorra doa, gogorra doanez.
Dokumentu (adkor. Barrabilak eta): Aterik gabe komunak, erakutsi ditugu dokumentuak.
Dolu egin (nori): Israel osoak egin zion dolu.
Dolumin: (Doluminak ematean): (Nire) doluminak! Lagun nauzu atsekabeen/nahigabeen!
Dona-dona: "Dona-dona katona, sutondoan aitona, lepotik behera kutuna, zu zara neska tuntuna.
Dotore: (iz.) Zenbat eta pobreago, hainbat eta dotore zaleago!
Dotoretu (iz.) Dotoretu ederra hartuko du herri honek.
Dozena: Ez dira dozenan hamahiru!
Duda: Duda, ala?
Dudako: Horrexek egiten dio kalte dudako osasuna duenari. Mendia sarri bisitatuko banu, nire osasun dudako honek hobera...
Dudako: Nire osasun dudako honek alde ederra baluke.
Ebai: Ebai-ebai egin zuen.
Edan: Hori da edan behar tristea!
Edanda: (Mozkortuta) Edanda zegoen gizona.
Edari-janariak (ontzia aurretik): Artean erdi beterik zegoen botila pattarra eskaini zion.
Edari-janariak (ontzia aurretik): Pozik eraman nituen botila ardo eta galletak.
Edari-janariak (ontzia aurretik): Zenbat gurdi sagar bildu ote zituzten?
Eder (iz.): Ederrik eta giza antzik gabe ikusi genuen.
Eder (iz.): Zinemagileek nahiago dute nonbait mediku ahaltsuen ederra irabazi eri arloteena baino.
Eder (kontrako esanahian): Ero ederra zegoen hura!... Ero baldarra!
Eder begira: Lehenbizi San Pedroko mutilak ibili ziren eder begira bezala; eta azken boladan San Juangoak nagusitu.
Eder begira: Urte berriaren irrikaz geunden eder begira.
Eder bide: Eder bidean aurrera.
Eder egin (-ren): Jendearen eder ezin eginik.
Eder usteko: Nik erakutsiko dizut, eder usteko txoro horri!
Eder: Ederra datorkizu, gazte!
Eder: Ederra kontua! Ederrak hitz egin du! Ederrari galdetu diozu.
Ederretsi: Itxi ditut bi begiak, loari ederretsiak.
Edo: Bagara edo? Gaurko da edo?
Edonon/inon: Edonon dagoela ez dago inon.
Edozertarakoa: Bihurria eta edozertarakoa zen mutila.
Eduki (nori): Ez daukat nori harpa jo, beraz!
Eduki (nork, non...): Badu nork lagundu. Ez dauka burua non ezarri.
Eduki (Nor-nori-nork) Gauza asko neuzkakion artean aurpegiratzeko.
Eduki (Nor-Nori-Nork): Poema eder bat daukakiot agindua amari.
Eduki uste: Eduki uste zuten guztia kendu egingo zaie.

Eduki: (Nor-Nori-Nork) Ama sorginduta daukakion azti maltzuraren atzetik
Eduki: Ezer ez daukana emateko prest
Egarbera: Han asegabe ez da geratzen goseti eta egarberarik.
Egarri/igarri: Nik bai igarri nor den egarri!
Egarriak ito: Egarriak ito beharrea.
Egarriz penatu: Haragiz eta arrautzaz leporaino bete eta edari gutxi hartuta, egarriz penatzen ziren gehienbat aizkolariak.
Egi (-egi): Arriskutsuegia da zuk egiteko. (Baina nolabaiteko konparaziorik ez badago): oso arriskutsua da.
Egia/alegia: Egia eta alegiak.
Egia/gezurra: Egia ala gezurra, begi artean sudurra.
Egia/pikardia: Lehen arrazoitzen ginen egiaren argiz, orain hori baztertzen gabiltza pikardiz.
Egiago: Egia baino egiago
Egiatzat ibili: Horixe baita egia, edo egiatzat dabilena.
Egin (nora) Behera egin du. Erdira egin du. Txanponak eskuratu eta kalera egin genuen.
Egin (-ra egin): Zahartzera egin zuen. Mahaitik jakitzera egin zuen.
Egin: Lehendik egina, geroko egina.
Egingo/non egin: Asko daude lana egingo eta non eginik gabe.
Egiteko: -Ez duzue egitekerik, ala? -Zer egitekoz ari zaren jakin behar.
Egokieran izan: Elkarri lagunduz baliatuko zarete. Egokieran zara, beraz. Laaurak inguruan etorriko zaizkizu.
Egokitu: Lan gogorrek eta baldarrak izan arren, norbaitek behar hartarako, eta geu egokitu parean.
Egon (iz.) Bere betiko egon gozoa uzten badu.
Egon (norengana): Amarengana zaude amodioz lehertzen.
Egon (nori): Zuri nago, Jauna! Zure bihotzari nago.
Egon (zer): Mediku dago Errezilen. Apaiz zegoen Erreterian. Irakasle zegoen Zumaian.
Egon dago/ibili dabil: Guretzat, ordea, egon dago, batzuetan, eta ibili dabil, besteetan.
Egon ere: Lanera joan gabe geratu nintzen; hain nengoen gozo, egon ere, izara artean.
Egon: Bazaude pixka baterako, bazaudenez!
Egon: Egia ote den nago.
Egon: Gauden euskaldun!
Egon: Hago horretan!
Egon: Hor zegok, ba (koska)!
Egon: Jainko maitea, nago noiz deituko naizun.
Egon: Lehengoan nago ni. Lehengo hitzean nago ni.
Egon: Nagien isilik!
Egon: Zintzoarengana daude Jaunaren begiak, eta haren deira Jaunaren belarriak.
Egon: Zurekin ez dago!
Egon: Zuretzat nago. Zuregana nago sentimenduz eta negarrez.
Egosi: Zure barnean zer egosten den jakin behar!
Egoskor (iz.): Gure gozabideak besteren egoskorra samurtuko ahal du!
Egoskor: Egoskorrean zabilta, ezta? Eta hark, bere egoskorrean,...
Egoskor: Mandoa baino egoskorrago. Astarra, berriz, hego haizea baino egoskorrago da.
Eguerdi min: Eguerdi mineko bero itogarria
Egun Handi: Egun Handira arte!
Egun on: Egun on pasa!
Egun santu: Hantxe egon zen egun santu osoan.
Egun: Egun berri, erronka berri.
Eguna bete: Hemen urteak aise joaten dira, baina egunak betetzen asmatu behar.
Eguna gozatzen (nork gabe): Eguna gozatzen ari du.
Eguna laburtu/luzatu: San Migelek dakar kandela eta San Josek darama.
Eguna zabaldu (nork gabe): Baserrian behera gentozela zabaldu zigun eguna.
Egunaren zabaleran: Eta, dena ongi osatzearren, goizean egunaren zabaleran baratxuri zopa jan eta aurrera.
Egunpasa (Gaupasa): Egunpasa ederra egin genuen Nafarroan.
Egur: Egurretara joan da. Egur txikitzen aritu da egun osoan. Egurretan dabil.
Eguraldi beltz: Eguraldi beltza dago, ekaitz girokoa.
Eguraldi/itxura: Ez du batere itxurarik gaur euria egiteko.
Eguraldia: Ekaitza ari du gogor! Euri jasa ari du.
Eguraldia: Zeraz aspitik oso behera, eta metro batetik gora elur, egiten du hemen neguan.
Egurretan: Egurretan ibiltzen zen: egurra txikitu eta saldu.
Eguzki izan: Eguzki denean zein den eder itzala! Eguzki denean, itzalak ordua adierazten du.
Eguzki-ilargi (Zeru-lur): Eguzki-ilargien eragina. (Zeru-lurren jabea)
Eguzkitu (eguzkiak jo): Gaur eguerdian eguzkitu du.
Eguzkitu (iz.): Emaiozu eguzkitu bat.
Ehizan egin: Eta ehizan egin, ez dio axola zertan.
Ekaitz/zorigaitz: Sartu da ekaitza, hau da zorigaitza!
Ekaitza sartu (nork gabe): Goizetik itxura polita, eta arratsaldean noiznahi ekaitza sartzen du.
Ekaitz-eraso: Non babesturik ez dugu, Jauna, guk ekaitz-erasoetan.
Ekaizte: Ekaiztea arindu orduko igo ziren berriro denak mendira.
Ekarri (eguraldi kontuan, nork gabe): Euria dakar. Euri-zaparrada ekarri zuen bat-batean.
Ekarri: Doinua ezin ekarrian ibili zen gai-jartzailea.
Ekarri: Edandakoa ezin ekarri.
Ekarri: Partida ekarri egin dute. (eutsi egin diote partidari)
Ekin (dio, zertan): Halaxe, gora igo eta ekin genion bertsoetan. Ekin diezaiodan aurtengo kosteraren berri ematen.
Ekin/egin: Gizonak ekin eta Jainkoak egin.
Ekin: (dio) Hasi. Jendeak txaloka ekin zion, ke zuria ikustean.
Ekinaren ekinez: Besoak bildu eta ekinaren ekinez jasoko dugu etxea.
Ele-zuri: Ele-zuri, alfer handi.

Elizkoi ez: Ez du, ez, elizak azpian harrapatuko.
Elizkoitu: Elizkoi bihurtu
Elkar huts egin: Goazen, ba, hortik, elkar huts egin gabe. (Beste laguna doan bidetik, alegia, ez galtzeko)
Elkar neurtu: lurrebaso eta Luxiak neurtu zuten elkar aizkoran.
Elkar-maite: Elkar-maiteak ziren oso anai-arrebak.
Elkarmin/elkar ezin: Elkarminenez, elkar ezinez.
Elkartasuna: Ezkondu nintzen lagunarekin bizitzeko ustean, baina mundua hain da pobrea elkartasuna haustean!
Eltze: Urruneko eltzea urrez, etxera orduko lurrez.
Elur-oreintzainak: (Artzain-en haritik)
Elurra/lurmen: Mendian nahiz eta elurra egon, hemen (elkarte barruan) beti dago lurmen.
Eman (nori): Bizkorra bizkorrik bazen, gutxi emango zioten eskolan eta kiroletan.
Eman behar: Eman behar nahita egin dudala!
Eman/eskatu: Ematen aspertu ezean, bada nork eskatu.
Eman/hartu: Zer emanik sortzen badugu, izango da nork hartu.
Eman: Ederki eman ere!
Eman: Nondik ematen dion! Ze aldik ematen dion!
Emanago: Zaharrak gero eta emanago idazteari.
Emazte: Emazteari gezurrak eta txakurrari hezurrak.
Emazue (eman ezazue): Emazue gaua basoan.
Eme gose: Arra eme gose dabil
Emetasun beroa: Emetasun beroa zerion izter artetik.
Enbarazurik ez: (jende gutxi) Astegunetan ez zegok enbarazu handirik tabernan.
Ene: Enetxo, astuna da, gero, ate hau!
Ene: Enetxoak!
Engaina erraz: Engaina errazak dira mutilak.
Entzun (nor): Gau osoan txoriak entzun ditut. Trena entzun dut.
Entzun(nor zertan): Sartzen entzun dut. Entzun zaitut ohetik jaikitzen.
Entzun: Bazuen nork entzun.
Entzuna egon (nori): Lehendik ere entzuna nengoen askori.
Entzute edo irakurtzerakoan: Manuelen kontakizunak eta bertsoak entzute edo irakurtzerakoan.
Epe jakinak: Hemen denok epe jakin samarrak dauzkagula badakigu gauza guztietarako, eta kito!
Epel (iz.) Hau haizearen epela, airean dabil orbela!
Epel (iz.): Etxeko epelean. Ni hazitako Franki zaharreko sukaldearen epela.
Epel (iz.): Gogoratzen naiz epel gozoan nola gordetzen ninduzun.
Epel egon: Askoren bihotz epel zeudenak fedez txit berotu dira.
Epel, gozo (iz.): Utzi nahi nuke nik komentuko gozoa eta epela. Udaberriko epelaren gozoa. Ordu batzuk epel gozoan.
Epel: Epelak hartu zituen.
Epela eman: Epela eman dio (pilotari).
Epelduxe: Ezta gaztetako beroaldia epelduxe duenarentzat ere.
Erabaki (izond.): Hain gauza erabakia ote da bi bakarrik direla?
Erabaki (nor-nori-nork): Felixek erabaki zidan datarena.
Erabaki: Ama Natura gaua eta eguna ezin erabakiz dabil.
Erabili: Azken urteetan suerte txarra erabili zuen. Garbitasuna erabili. Jan-edanean zintzotasuna erabili.
Erabili: Berriketa gutxi erabiltzen zuen hark. Ura bakarrik erabiltzen dut otordueta, jai eta aste.
Erabili: Errementariak ez zuten lan faltarik erabiltzen. Ardo ona erabiltzen zuten. Lasaitasun ederra erabiliko zuten.
Erabili: Ez zuen horretan deskuidu handirik erabiliko. Jatetxe horrek ere lan asko erabiltzen du.
Erabili: Gerrialde argalagoak erabiltzen zituen jendeak gerra ondorengo urte haietan.
Erabili: Ni okerrena hango "teorika" xelebreak erabili ninduen. Hezetan beldurgarria erabili genuen uda osoan.
Erabili: Ohitura hori goizez erabiltzen genuen. Seme-alabak Bergaran erabili nituen ikasketak egiten.
Erabili: Soinujole jakinek erabili zuten urte mordoan Agifetan: Maltzeta. Min egiteko arriskua erabiltzen dute pilotariak.
Erabili: Zoratu beharrean erabiltzen genuen ama.
Eragin (zertara): Horrek guztiak bekatura eragin zion jendeari.
Eragin: Eguerdian plazan saio bat eragin ziguten bertsolariak. Barre pixka bat eragin nahi nizuke.
Eragin: Itxaropen ustela eragin didazu.
Erakusgai: Hara hemen berriz ere nire idazlanak ditut erakusgai.
Erakustekoa egin: Ez zuen erlojua atera eta erakustekorik egin.
Erakutsi (seinalatu): Eta han erakutsi ziguten non eseri. Behatzarekin gora erakusten zuen.
Erakutsi: iz. Halaxe ohitu baikin gaztetatik elizkizunetara arretaz hurreraten, guraso zaharren erakutsira.
Erakutsi: Ongi erakutsiak zeuden hamaika trikimailutan.
Eraman (irabazi): Edonori eramaten diote arrainak harrapatzen. Gutxi eramango zion aitzurrean.
Eraman oneko/txarreko: Eraman onekoa da. Eraman txarrekoa zen.
Erasan: Ardoak lehendik gutxi edan duenari laster erasaten dio. Baina zahar jendeari, batez ere, hotzak aise erasaten dio.
Erasan: Badirudi ez diotela urteek erasan.
Erasan; (iz.) Ez dio inolako erasanik egin.
Eraso (ekin): Eginbeharrak egiten han nion eraso.
Erbi-loa: Erbi-loa du (beti erne dago). Erbi-loa eginik... (Lo arina)
Erdalgaizto egin: (Euskalgaizto egin-en haritik)
Erdaratiko/erdarazko: Eta erdaratikoak diot (hitzak) eta ez erdarazkoak.
Erdi bil: Ikusgarria izan zen haren agerpena olatu artean, titiak pil-pil, zorroetan erdi bil.
Erdi mendi: Hura ere erdi mendian dago.
Erdi tonto: Etxe bakoitzean erdi tonto bat ona omen da lanerako, eta bi gehiegi.
Erdi-behar: Behin batean, mendi baten erdi-beharretatik sagutxo bat jaio omen zen.
Ere: Egia ere da, bai,... Abstraktua da, eta abstraktua ere da...
Ere: Gogor ere gogor erasoko dio Jaunak.
Ergel: Ergelontzi!

Eri: Ez zen inor ohartu zegoen bezain eri zegoela.
Eriondo: adlag. Gripea izatetik eriondo zetorren.
Erlauntz: (erleena, baina liztorrena): Liztor habia.
Erne: Erne ibili niri, gero!
Ero/nagi: Eroko eta Nagiko, herriko xebreak.
Erokume: Erokume horrek egin behar!
Erori ez erori: Hordi moduan zebilen, erori ez erori/erori ez eroriko/eroriko ez eroriko.
Erori: Erori bazen erori, egin zuen negar ugari.
Erori: Titi-erori, zakil-erori...
Erorixe: Horregatik nabil erorixea azkenaldian.
Erosotu: Kale-baserria zuenez, ganaduak eduki ohi zituen, eta goiz partean haien martxa erosotu lehenengo.
Erratz: Erratza baino latzago.
Erraz (isildu, moldatu): Afalondoan ere ez ginen isildu errazak. Ez ziren moldatu errazak.
Erraz ematen: Ez da batere erraz norberak ez daukana besteri ematen.
Errazkeria: Errazkeriatik zetozen gauza narrasak.
Erraztu: Bertsolaritza erraztu, garbitu eta orraztu. Etsipena errazten bazaizu, beti huraxe duzu gogoan.
Erraztu: Gerora pixkanak erraztu dituzte lanak. Familiari bizitza erraztu nahirik.
Erraztu: Hizkuntza erraztu nahi duenak... Euskara oso erraztua dauka.
Erre (iz.) Eztariko errea leuntzeko ezitia.
Erre: Umea logurak erretea dago.
Errebes: Errebes/errebesez/errebeska jo.
Erregarazi: Erregutzero behartu
Errekan pasata: Gu erreka horietan sarri pasata gaudenez, aise jabetzen gara bertsolariaren nekezko jardueraz.
Errekatar: Ibiur baserrian jarri zuten eskola errekatarrontzat.
Erreka-zulo: Hala banentorren menditxoan behera, eta iritsi nintzen erreka-zulo batera.
Errekonde!: Ixo biok ala biok, errekonde!
Errenditu: Ezin errenditu etxera.
Erreparoa jarri (erreparatu): Erreparoa jarri zak, seme, nire bizitza estura.
Errespetu/maitasun: Errespetua nagusi gauza pozgarria, maitasunezkoa baldin bada.
Errespetu: Errespetu ederrean itzuli zion!
Errespetu: Halako errespetuak ez du dudako konturik (jendeak zion beldurra, alegia)
Errespetu: Zure asto horrek atzealdean errespetu izugarria daukala usteko du (ostiko bikaina emanda).
Erreten: Ipurdiko erretena izerditurik.
Erretolika: Harexen erretolika erretxina!
Erretolika: Hori esan nionean, a ze erretolika gizonarena!
Erretxin: adlag. Erretxina zaude gaur, neska!
Errezelotan egon: Idi probak edo demak urritu diren errezelotan nago.
Erromako zubi (adkor.): Ostadar
Erronka jo: Herri osoari bira ematea jo didate erronka.
Erronka: Munduan bat bada!
Erronkagailua: Erronka jotzen duen tresna.
Erronkatsu: Alaitasun apala, ez erronkatsua.
Errugabe (iz.) Errugabeen ez bada, penitentzian bederen, haren antzeko izan gaitzezela.
Errukirik gabe lanean: Bere buruaren errukirik gabe lanean jo ta ke, familiaren onagatik.
Esaldian baino esaldian: Esaldian baino esaldian soilago ageri ziren haren burubideak.
Esan (hitzik gabe): Eta zein biziro esana, hitzik gabe.
Esan (-tzat): Ez, nik ezin nezake esan inorentzat txarrik.
Esan samartu: Esan beharrekoak esan samartuak ditudanez,...
Esan/barre: Berak esan eta berak barre!
Esan/egin: Amak zer esan, semeak kontrakoa egin.
Esan/egin: Erraza da esatea, ez hain erraza egitea. Erraza da esatea, zaila egitea.
Esan/erdi esan: Esaten hasita, ezin erdi esanda gelditu!
Esan/gorde: Gauza bat da hitzen azaleko esanahia, beste bat sakoneko mezua, esanago eta gordeago dena.
Esan: Esan badu esan, entzun ditu epelak!
Esan: Esan badu esan, entzun ere entzun ditu bereak/ederrak/entzun beharrekoak!
Esan: Esan bazuen esan (zuen), a ze istilua sortu zuen!
Esan: Esan bazuen, esan zuen, esan ez balu, hobe zuen.
Esan: Esan beharra zegoen, eta nik esan.
Esan: Esan besterik ez zenuten, ba! Guk lagunduko genizuen.
Esan: Esan dizut, ba!
Esan: Esan ere esan dit ez azaltzeko puska batean.
Esan: Esanak esan,...
Esan: Esango nuke¹ Hori esan! Zeuk esan!
Esan: Esatea ere!
Esan: Eta zuk esan behar hori,gainera!
Esan: Eta zuk hori esan, gainera, erdi-erditik!
Esan: Etzazu esan! Zuk ere bai?
Esanera: Esanera naukazu (gutuna amaitzeko). Haren esanera ari zen.
Esateko: iz. Neure esatekoan neukan jarria arretea osoa.
Eskailera zulo: Eskailera zulutik behera.
Eskailera: Ezagutu al duzu munduko eskailera: gora hainbeste maila dituela behera?
Eskarmentuan sartu: Ez zara eskarmentuan sartu erraza.
Eskas izan: (falta izan) Beti eskas dut oherakoan amaren musu beroa.
Eskas/gutxi: Noiz izan zen hori? Urtebete eskas, astebete gutxi. (Urtebete, astebete gutxi)
Eskasean: Eskasean edo eskas samarrean ibiltzen da musu ematen.

Eske izan: Nire ohorea mendeku eske da.
Eske: Eskerako dago trebe, ez du beldurrik batere.
Esker ona: Esker ona, emailari zor zaiona.
Eskerrak: Eskerrak, ez duenean handiagorik hartu!
Eskerrik asko: -Ez horregatik! -Ez da ezer (izan)! -Ez dago zeri.
Eskerrik askoka: Eskerrik askoka irten zen laguna etxetik.
Eskertu: Bihotzez eskertzen zaitut, alaba!
Eskertu: Oso eskerturik nago adiskideari.
Escola gabeko jakintsu: Ez naiz txantxetan ari; eskolaz jantzi gabeko pertsona jakintsua zen hura.
Esku berritan: Hemen, dakienik ez da jaiotzen inortxo; eta gu esku berritan aurkitzen han (maisur berriaren eskuetan).
Esku bete/sudur bete lan: Esku eta sudur bete lan larre-txakurrak.
Esku eman: Elkarri esku eman eta...
Esku eutsia: Merkatarien esku eutsia
Esku onetan: Jainko handiak eraman zuen bere ondora aingeru eder hura eta nik uste dut esku onetan dagoela geroztik.
Esku/atzesku: Eskutik zegoenak mus eman zuen atzeskua harrapatu nahian.
Eskua hartu: Eskua hartu behar zaio lanari, egoki egingo bada.
Eskualdatu: Eta orain eskualdaturik dago jatetxea. Dirutza harrigarriak eskualdatu omen ziren egun hartan (apustuetan).
Esku-egoki (izond.): Horretan esku-egoki samarrak izan. Langile amorratuak, eta esku-egokiak gainera.
Eskuerakutsi: Hona, zilarra eta urrea igortzen dizkizut eskuerakutsi.
Esku-goza: Ez da pilotari esku-goza. (Esku gozokoa)
Eskuluze: Mahaietan-eta gauzak hartu nahi dituen ume bihurria.
Eskuraezin: Adlag. Oso barruan daude, eskuraezin.
Eskutik jaten: Eskutik jaten dauzka hoteleko guztiak.
Eskutiko/bihotzetiko: Haren eskutikoa da, bai, (gutuna) baina ezin esan haren bihotzetikoa dela.
Eskuz miaketan: Biak sabelaldean eskuz miaketan jardun zitzaizkidan ea non hartzen nuen minik gehiena.
Esku-zimur: (xuhur, zeken) Esku-zimur hori!
Esku-zimur: (xuhur, zeken) Lorez hornitzen, behintzat, ez da esku-zimurra izan.
Esnaeran (esnatzean): Lo egin eta esnaeran, begitxoan zabalera, izar eder bi zuregan ikusirik...
Esne aparretan: Garai haietan kristauak ez ziren esne aparretan bizi.
Esne mamitan: Oso ondo bizi naiz alaben ondoan, esne mamitan naukatela.
Esne-iturri: Bularreko esne-iturria agorturik.
Esne-lehor (izlag.): Ez dago esan beharrik ere esne-lehorrak zirela gure larrabehiak.
Esneztatu: Uraren orde esnez blai egin.
Esperantzak bizi: Zeren gu orduko esperantzak bizi gaitu.
Espero (norekin): Neskatxa garbi bat du zurekin espero.
Espero etsi: Ez baikaude, Peneloperen pare, senar herratuaren espero etsian.
Espero: Aurki itzuliko naiz, espero.
Espelikazio lehor: Ezidazu espelikazio lehorrik eman.
Estalgarri: Izenorde hori noren estalgarri den ez dakigu.
Estali (nork gabe): Zerua estali du bat-batean.
Estu eta presa (adlag.) Estu eta presa zebilen.
Estu: Estu eta presaka.
Estu: iz. Giroaren estuak are estutzenago zuen haien harremana.
Estualdi zorrotz: Heriotzaren estualdi zorrotzak ate joka hasiak.
Estutu: (iz) Eman estutu bat! Ea, estutu bat! (Besarkada bat)
Estutu-pasada: Heldu lepotik eta emaiok estutu-pasada on bat!
Et, et, et: Zer? Et, et, et, nire etxera ez!
Eta (kausala): Alaba zaharrena Italian zen, senargaia hangoa eta.
Eta (kausala): Gau hartan hartu zituen bereak, panderista ere halakoa eta.
Eta: Behin behar eta... Behin etorriko eta... Zer izango eta... Nork esango eta...
Eta: Ikasi eta ikasi ariko da!
Eta: Nor eta hi etorri behar! Nor eta zuk esan behar! Non eta han gertatu behar!
Eta: Zer izango eta... Zer gertatuko eta...
Eten: Gure ondorengoak dira, baina gugandik etenak.
Eten: Loaldi etenetan...
Etorkizun koloka: Etorkizun kolokaren mende dabilta gaurko langile gazteak.
Etorkizun urriko: Langilearen nekeak dira etorkizun urrikoak.
Etorri behar (denbora): Tronbosia izan nuen; bi urte etorri behar Gabonetan.
Etorri zahar/ etorri berri: Ez da etorri zaharra. Etorri berria da.
Etorri: Etorri egin behar du oraindik (ardoak, sagardoak...)
Etorri: Ez zela nire eskabideetara etorriko.
Etorriko bada: Autoa jarri beharko diozu, etorriko bada.
Etorrita ibili: Euskal Herrira etorrita dabilta.
Etsai-asmu: Badirudi alde guztietatik datorkiola Zesarri etsai-asmoen berri.
Etsi (ohitu): Ez dakit nolatan etsitzen duzun hemen barruan.
Etsi ezin (iz.): Hizketan hasi orduko nabaritzen zitzaion halako etsi ezin bat.
Etsi: Beti baserrian bizi izanik, ezin inola ere etsi kalean.
Etsi: Ez zuela erremediorik etsi zuen.
Etsi: Gazte bikain askotxo dira baserriak etsiak.
Etsia eman: Gugana agertu baino lehen, etsia emana du.
Etsian egon: Denak kanporako ziren etsian omen zegoen.
Etsian: Hil etsian eraman ninduten.
Etsibide: Itxarobidean edo etsibidean.
Etsipena erraztu: Etsipena errazten bazaizu, beti huraxe daukazu gogoan.
Etsi-zail (izond.): Aizkoran jotzaile gogorra, iraupen handikoa eta etsi-zaila.

Etxe sartzte: etxe berria estreinatzea.
Etxe-barren: Etxe-barren itzalean aurkitu dugu Baroja, bizkor, argi eta berriketazale.
Etxe-galgarri (etxealte): Zentzugabeko gizon buru-elbarriak asko izaten dira etxe-galgarriak.
Etxegintza ari: Izugarritzko etxegintza ari omen da Armendi gainean eta bere inguruan, Aian.
Etxekoago: Etxekoago ditut orain.
Etxe-maite: Etxe-maitea da, etxeaz arduratzen dena, txukuna.
Etxeordeko: Aiako Zulaika baserrian etxeordeko handi bat bazen lehen, ganaduen azpigarriz leporaino beteta egoten zena.
Etxera: Eta etxera nahi zuela berehalaxe.
Etxerako: Bera ez zen etxerako (seme gaztea), eta beste nonbait zuen ogia irabazi beharra.
Etxerako: Hi etxerako! Hi etxerako, besterik ez dagoenerako!
Etxeratu: Emaztea ere etxeratu zuen, ondasunez ongi zebilen nekazariak.
Etxe-zuloan: Etxe-zuloan sartuta aste osoa, dirurik gabe.
Etxolamin: Etxolamin larria du.
Euli kaka: Euli kaka ote gara, ba, gu?
Eulia gozora: Negar usainera jendea erruz dator, eulia gozora bezala.
Euri zahar: Ate gorri zurezkoa, euri zaharrek usteldua.
Euri/ateri: Euri nahiz ateri, bereari eusten zion.
Euskal min: Zaletasun hark sortu zion euskal mina.
Euskaraz heziak: Belarri euskaraz heziak behar dira kalitatea neurtzeko.
Euskaraz/euskara batuan: Euskaraz ari dira, baina ez euskara batuan.
Eutsi (izond.): Egur eutsiak (ebakitzen zailak) ekarri zituen aurkariak (aizkolariak).
Eutsi (nori gabe, zertan): Beraz, arrazoibidez eutsiko diote aurrerantzean ere festak antolatzen eta egiten.
Eutsi/eskuzabal: Eutsiak eta eskuzabalak.
Ez bat eta ez beste: Ez bat eta ez beste, borrokan hasi ziren.
Ez bat eta ez bi: Ez bat eta ez bi, hantxe ni!
Ez bat eta ez bi: Ez bat eta ez bi, milaka txori!
Ez egiteko: Ez egitekoren bat egingo du horrek.
Ez eta: Ezagutzen ez eta zer esango nion, ba, nik!
Ez gutxi (asko): Gau eder honen goxotasuna ez dute gutxi maitatzen.
Ez gutxiago eta ez gehiago: Nik bestek esanda bezala esplikatu ditut gauzak, ez gutxiago eta ez gehiago.
Ez izan haserre (pozik izan): Orduantxe ez zen haserre izaten ama. Hari esker ongi irten dena, eta ez ginen haserre orduantxe.
Ez non eta ez han: Ez non eta ez han lehertu zen dena. (Antton Garikano)
Ez uztea izan: Hozkailuan ez uztea zenuen, aizu!
Ez zerurako/ez lurrerako: Oraintxe utzi nauzu ederki, ez zerurako, ez lurrerako!
Ez zionean eta: Baina isildu gabe ari zen, burua gora jasota, inork kasurik egiten ez zionean eta beroago.
Ezaguera: Elkarriz ezaguera eman genion (Batak besteari bere burua aurkeztu).
Ezaguera: Ezaguera handiko gizona zen Manuel Olaizola Uztapide bertsolaria.
Ezaguera: Nire ezaguera guztian, Asteasu izan da segalarien harrobia.
Ezagun izan: Baina Lazkao-Txikik ezagun zuen ez zela hartara joan.
Ezagun izan: Hango lurrak ezagun du zertarako balio duen
Ezaidazala (Hark zu niri): Maite kutuna, ezaidazala Jaun Zerukoak berriz ken.
Ezarri: Bizantzio ezarri zuten hiriburua.
Ezaupide: Plazan ikusi ninduen eta eman zidan ezaupidea.
Ezbeharra zain: Ezbeharra, berriz, beti zain dagoela esan genezake.
Ez-dakit-zer: Halako ez-dakit-zer bat du.
Ezeren oker: Ezeren okerrik ez duela, pilotari bikaina aterako da.
Ezin gehiago: Euskaldun jatorrak baitira ezin gehiago.
Ezin konta ahal: Bat ez da bitan banatzen, zuri eta beltzetan, askotan baizik, ezin konta ahal diren gisen graduetan.
Ezin konta ahala/Ezin konta ahaleko: Ezin konta ahala gezur esan. Ezin konta ahaleko gezurra esan.
Ezina erraztu: Ezina zaio erraztu eta horrekin dabil estu. Sasoiak alde egin eta ezina erraztu.
Ezizenak: Erramun Babarrun. Serafin Mokofin. Arantxa Balantxa. Patxi Eztul. Martin Lepoker. Periko Bixar.
Ezizenak: Hermoxo. Patxi Pirata. Kattarro. Katalin Gorri.
Ezjakin (iz.): Geure ezjakinaren eremua neurtu behar genuke lehenik, jakite bidean sartuko bagara.
Ezjakin (iz.): Nik, neure ezjakinean, kezka horixe izaten dut beti.
Ezjakin: Gu ezjakinak izan garela esaten zertan lotsatu? Eskolaz jantzi zirenak ere ez dira guztiz osatu.
Ezker zeharra: Ezkerrez zabalera bota pilota.
Ezker-eskuin: Ezker-eskuin bizi gara. Ezker-eskuin mugitu burua.
Ezkerro: Adin batera ezkerro, ez dago txantxarik.
Ezkondu/gizon: Zure andrea ezkondu zen eta ez zuen hartu gizonik.
Ezkondu/mutilzahar: Ezkondu eta mutilzahar bizi.
Ezpain-gozo: Kaixo, Ezpain-goxo!
Eztabaida: Eztabaida sortu da hura norena den.
Eztei/hileta: Batzuk ezteietan, besteak hiletan.
Ezti: (Adlag.) Ezti! (Idiari atzera eragiteko)
Eztijario: lausengari
Eztitan bizi, ibili: Ezti gozotan gabiltza. Poz eztitan bizi dira.
Faborez/mesedez: Faborez eta mesedez!
Faltan: Ez zaudete esan faltan.
Faltsu: Sei durokoa baino faltsuago.
Fama bildu: Orduan garbizale fama bildu zuen.
Fama erabili: Fama galanta erabili zuen bere garaian.
Familia jaso: Hain zen familia jaso eta txukuna.
Familia sortu: Biak bakarrik bizi ziren; ez baitzuten familiarik sortu.
Fandango: Bazetorren fandangoaren buelta!
Fandangoa erabili: Fandango izugarria erabili du haizeak luzaroan. Hego haizeak fandango ederrik erabili du bazterretan.

Fedea izan (-ri): Fede handia zion Ama Birjinari.
Fededun/fede-gose: Ez da noski fededunaren deidarra, baina bai bederen fede-gosearen oihua.
Ferraketa: Ferraketan hasi. Ferraketako langintza.
Festa jarri: Askotan ez da gauza handirik behar festa jartzeko; ateraldi zorrotzak nahikoa. Horretan artista zen Uztapide.
Festa/neska: Non da festa, han da neska.
Festa: Ezer ez eta festa.
Festa: Festa hirugarrenean. San Iñazio bigarrean.
Festa: Festak hasiera alaiagoa du bukaera baino: poltsak zimurtu, gorputza zigortu, hitzak lehortu eta burua gogortu azkenerako.
Fidatu: Ez zaitetz fidatu berritsuen esanean.
Fin/latz: Zenbat eta finago (andrea), orduan eta latzago (bizimodua baserrian).
Fin/latz: Zenbat eta finago izan ama, orduan eta latzago bizimodua.
Finkeria: Finkeria fintasunaren aurkakoa duzu.
Fio izan: Lagun bat baduela nirekin fio da.
Fio: Gutxi fio atzetik etortzeko ere!
Franko/urri: Nekea franko eta etorkizuna urri.
Freskatu: iz. Freskatu eder bat hartu eta lanera berriz.
Gabe: Artean Aiaratu gabea nintzen.
Gabe: Etxera gabe, hurrengo tabernara bideratu zen.
Gabe: Handik itzulita urtebete gabe ezkondu zen.
Gabe: Ogi bila, gabe geratzeko beldurrez.
Gabetu: Eta arimaz gabetua nori zaio eder? Txoriak galduz gero, gure mendiak zer?
Gabon: Gabon Jainkoak! Nork bestela?
Gai (zertan): Nik neuk ez dut gehiegi ulertzen gai horretan. Nik ez nion gai horretan ezer galdetu.
Gai: Mintza eta kantagai. Kanta eta mintzagai.
Gain: iz. Bide gain bateko etxe eder batean...
Gainak eman: Baina bukatu gabe daukat oraindik. Inoiz edo behin, Jainkoa lagun, emango ahal dizkiot gainak!
Gaingorri (izond.) Etxe gaingorriak.
Gaintxo: Leaburu goiko mendi gaintxo politean dago oinarriturik.
Gaitz (izond.): Euskaraz idazteak baditu alde gaitz nabarmenak.
Gaitz beldur: Jauna, zu zaitut lagun, ez naiz gaitz beldur.
Gaitz ikusia: Emakume gaitz ikusia eta zintzo porrokatua genuen guk ama.
Gaitz/erremedio: Gaitza baino okerrago erremedioa.
Gaitz: Gaixotu zaitetz eta gaitza zer den jakingo duzu orduan.
Gaixo (iz.): Gaixoren bat harrapatu ezean.
Gaixoarazi: Zeuk gaixoarazi duzu ama, zure portaerarekin.
Gaizki ulertuta egon: Ni gaizki ulertuta ez banago behintzat.
Gaizkitxo!: Gaizkitxo hago hor! (irakurtzen eta pattarra edaten terrazan)
Gaizkitxo: Eta hi kexatu, gaizkitxo bizi haiz, ba!
Gaizto (iz.) Ez zaio oraindik piztiaren gaiztoa ernatu.
Gaiztorako: Gaiztorako zegoen mutikoa.
Galdean (eskean): Lehenago bazkari eta afari galdean jendea sartu ohi zen Oriden aldean.
Galdetu: Hori galdetzea ere!
Galdezka: Zein gozo den, otoitzean bildurik, denekin eta denarekin bat egitea, Jainkoaren galdezka.
Galdu (burutik): Burutik galdua dut herriaren izena.
Galdu/irabazi: Gainera, aspaldiko esaera da, jokalaririk irabazten bezala jakin behar duela galtzen ere.
Galdu: Azkenaldian hemengo jendeak ez zion hitzik galtzen Xalbadorri.
Galdu: Burua galduta, ipurdia ere galdu beharrean haren atzetik.
Galdu: Semeak galdu nau. (Tiro egin ziona salatu zuen horrela hil aurretik)
Galdu-gordean: Galdu-gordean, ala, txiki?
Galduko/ez galduko: Bi hilabete egon zen begia galduko ez galduko.
Galduxe: Pintura berdea galduxe zeukaten horniek.
Galtzak bete lan: Itxura denez, alde guztietan bada galtzak bete lan. Bizimoduak alde guztietan ematen du galtzak bete lan.
Galtzak estutzen: Nire txanda iritsi zenean, galtzek ipurdian estutzen nonbait edo nahiko lanak banituen behintzat.
Galtzak lasaitu: (kaka egin) Sasi artera joan zen galtzak lasaitzera.
Galtzak lasaitu: Berriz ere lasaituko zaizkio ipurdian galtzak.
Galtzak/gonak: Lehen janzen zituen gonak, orain galtzak ditu onak.
Galtzak/kabitu: Galtzetan kabitu ezinik pozaren pozez.
Galtza-usain: Galtza-usainean zabilta zu beti, neska!
Galtzazale: Neska galtzazalea.
Galtzeko ere: Ez joan bakarrik! Galtzeko ere!
Galtzetan estu: Orduantxe ni galtzetan estu!
Galtzontzilo-elastiko: Galtzontzilo-elastikotan atera zen etxetik.
Galzoariagoan: Montserrat behin ere baino galzoriagoan dago.
Ganadu ferratzen: Amezketan aritu zen ganadu ferratzen.
Ganbara (burua): Ganbara husten ari zait. Ganbara artalerik gabe bezala daukat burua.
Ganbaratik koloka (adkor. Erotu): Ganbaratik koloka dago.
Garai galdu: Garai galduan etorri zara afaltzera.
Garai: Garaiz aurretik. Garaiz lehen.
Garaitsu: Garaitsu hartan izan zen.
Garaiz antzean: Garaiz antzean agertu ginen badaezpada ere.
Garaiz esnatu: Eta erdiz erdi asmatu zuten lehen urte haietan, garaiz esnatu zirelako.
Garbitzako: Hitzak garbiak edo garbitzakoak
Gardengailu: Gardentzeko tresna.
Gargabetu: Sua gargabetu.
Gari ebaki: Larretxe zaharrera joan ginen gari ebakitzera.

Gari-ereite: Gari-ereiteko garaian.
Garodi: Hango belar sailak, hemengo inaurkin edo garodiak.
Garondoko eskailerak: Ilea mozterakoan egiten direnak.
Garratz (iz.) : Heriotzaren garratza.
Garratz : Usain garratza.
Gatz/berakatz: Ez gatz eta ez berakatz, motel hutsa.
Gatza: Amaren eskuetan bazen gatza lanerako. Bada bazterretan indarra eta gatza (harrijasotzaileena).
Gau lehenean: Lo arinekoa izan omen zen beti. Gau lehenean bi edo hiru orduan poliki osatzen nonbait.
Gau/egun: Gaueko lanak egunez lotsa
Gau: Gau-gaua zen.
Gaur-biharrek: Eta beldur naiz ez ote garen beti ibiliko gaur-biharretako munduan.
Gaurkoan/aurtengoan: Aurrez aipatu den egintzari badagokio. Bestela: Gaur/aurten
Gaurkoz (gaur egun): Hernani euskaldun herri zoragarri bat zen lehen. Gaurkoz ez dakit nola jarraitzen duen hango jendeak.
Gauza onerako: Itxura txarra du honek, gauza onerako!
Gauza onik: Ez dugu gauza onik.
Gauza/gauzago: Gauza izango zara horretarako? -Zu baino gauzago.
Gauzako: Gaur ez diat gauza onik; arratsaldean kantatzeko ez nauk gauzako. Ez da gauzako, bere kabuz moldatzeko.
Gazta: Gazta non, ni han, saguak moduan.
Gaztaroa: Adinez jantzi eta mundua pixka bat ezagutu bitarteko denbora da hori.
Gazte egon: Artean oso gazte geunden.
Gazte, berde: Aspaldi, artean gazte eta berde ginela,...
Gazte: Badakizu, gazteak!
Gazte: Hemen eta nonahi gaztea beti gazte, eta zer gauza ederragorik horixe baino pertsonarentzat?
Gazte-nahi/gazte-usteko: Bazebilen hantxe hamaika neska zahar gazte-nahi edo gazte-usteko!
Gaztetan/Zaharretan: Ibili bizkor gaztetan, izango duk-eta lotarako astirik zaharretan.
Gehiegi: izond. Edan gehiegiak hondatu du gizona.
Gehiegikeria: Lanak abisatzen du bere garai-modu batean gehiegikerian ibiltzerik ez dela komeni.
Gehiegizko: Zerbait gehiegizko du nire iritiz. Zer den ez dakit. Urteak ala hitza?
Gehientsu (izond.) Afrika gehientsuan aurkituko dituzu halakoak.
Gehientsuena: Gaua, gehientsuena parrandan pasata.
Gelaratu: Gelaratu bezain laster...
Gelditu: Lotara gelditu. Afaltzera gelditu.
Geratu: Ez lan eta ez etxe geratu zen.
Gero: Andregai polita ekarri, gero! Kontuz, gero!
Gero: Eta gero? -Hotz ez dena bero!
Gero: Urteak dira, gero! Ez pentsa, gero, hain erraza izango denik!
Geroan: Orduan, herrialde artean barreiatuko ditudanean, jakingo dute ni naizela Jauna.
Gerozkoan: Eta egun hartatik hasi zen bien arteko konfiantza ugaritzen; gerozkoan oso ongi konpondu ziren beti.
Gerra-antzeko: Gerran edo gerra-antzekoetan zebilen jendea.
Gerri: Gerri-giltzak.
Gerriera: Gerrieran lana egin. Gerrieran gizona nekez nekatzen da lanean, baina makurka egin beharra oso gogorra da.
Gerrietako hotzak kendu: Eta bi egunean ebaki horratik; gerrietako hotzak kendu genituen.
Gerrigain/gerripe: Gure sasoiaren ere mundu erdia gerrigainak mugitzen zuen eta beste erdia gerripeak.
Gerripeko kontua: Ez zabaldu gerripeko kontuak.
Gertatu berri/Ez gertatu zahar: Gertatu berria da/Ez da gertatu zaharra.
Gertatu gertatzekoa: Orduantxe gertatu zen gertatzekoa.
Gertatu/Ostatu: Non gertatu, han ostatu.
Gertatu: (Nor-Nork) Nik maiteño bat izaki eta, bertze batek eramaki; Jainko maiteak gerta dezala enekin baino hobeki.
Gertatu: Mutil gazterik gertatu nintzen ni laguntzaren beharrez.
Gertatu: Zer gertatzen zaizu gurutze, zer oinaze?
Gertatua gertatu: Gertatua gertatu, gure erantzukizuna da orain.
Gertatzekoa gertatu: Orduantxe gertatu zen gertatzekoa/gertatu beharrekoa!
Geundenetan: Denbora-pasa geundenetan, hantxe biltzen ginen gustura askorik.
Gezur eta saltsa: Horrexek bai gezurra eta saltsa.
Gezur/egia: Nahiago nuke gezur hori egia balitz, kaikutzar horien jardun guztiak baino.
Gezur/urrun: Zenbat eta urrunago, gezurra handiago.
Gezur: Inoiz gezurrak hegan ibiltzen badaki. Gezurrak ez du urrialdirik: egunetik egunera ugaltzen ari ote den daukat errezeloa.
Gezurra ditudi: Gezurra dirudi: halako kankailua zorabiatu, indizioa eman behar diotela eta!
Gezurra, tranpa eta zikina: Gezurra, tranpa eta zikina besterik ez darabil maltzur horrek.
Gezurra: Gezurrak gezurra dakar berekin.
Gezurra: Hatsa ere gezurra du.
Gezurrago: Definituago eta gezurrago.
Gezurti: Amasa adina gezur du horrek.
Gibel: Gibela ahotik bota beharrean (indarka)
Giltza zulotik: Giltza zulotik zelatan.
Giro egoskor: Ipar haize hotzak indar izugarria erabili zuen udaberrian, eta giro egoskor nolabaitekoak aukeran.
Giro gorri: Giro gorri horrekin! (Errezilen) (Ez da giro horrekin!)
Giro izan (ez izan giro, alegia): Giro zen haren ondoan! Giro zen, ba, hantxe!
Giro: Buruko kargak arindu dizkit, korapiloak askatu; espiritua oso berritu eta barrena freskatu (gau giro ederrak).
Giro: Egongiro. Sutondo giro. Ibilgiro. Hilgiro...
Giro: Giro ustela.
Giro: Itzalean giro.
Giro: Lan giro al dago? -Festa giro gehiago.
Giroago: Orduan arbi hostoa egiten baino giroago izan ohi da arto zuritzen.
Gisatsu: Abandonatua bezala, edo gisatsu hartan.

Gisatsukoa: Honen gisatsukoa izan zen galdera:...

Giza: Ze gizalarru? Ze gizamodu?

Gizabinako (ironiaz): Gizabanako eta gizabinako zoriontsu ofizialak.

Gizaki/animalia: Gizakiak ezagunago, animaliak maiteago.

Gizaleku: Gizaleku orotatik urrun.

Gizon axial: Zu gizon axala zara; ez duzu gizonaren ezaguerarik.

Gizon: Gizon egin baino lehen ari zara zahartzen. Hala eta guztiz ere, gizon batetik bestera dagoen aldea ezin liteke berdindu.

Gizon: Hirekin ez zegok gizonik!

Gizonago (adlag.): Gizonago izan.

Gizonetik gizonera: Bakoitza ongi neurtuko balitz aurrenetik azkenera, alde galanta aurki liteke gizonetik gizonera.

Gizonetik gizonera: Gizonetik gizonera azalduko dizut. Gizonetik gizonerako aldea.

Gizonez eta bertsoan: Nire begi bi hauetatik ezin dut kendu malkorik, gizonez eta bertsoan ez da Lasarte bezalakorik.

Gizonez gizon: Eta gizonez gizon, zurekin berdin nauzu.

Gobernu/probetxu: Nolako gobernu, halako probetxua. (Behia ongi alimentatu muturretik, errapetik sendo kenduko bazaio)

Gogaide/bidaide: Solasean jarraituko dugu aurrerantzean ere, hitzetik hitzera, isiletik isilera, gogaide, bidaide.

Gogo (gogoak geratu): Neuk ere jakin nahi nuke, baina oraingoz gogoak geratu beharko.

Gogo: Gogoa bada, irtenbidea ere bai.

Gogoa urri: Ustez ez dut hitz egin inoren mingarri, hortarako gogoa beti dut urri.

Gogoanegi: Ez dago luzaz kontatu beharrik, gogoan eta are gogoanegi ditugulako.

Gogo-giro: Gogo-giro ederrean...

Gogo-mehar (izlag.): Ez dut nik uste euskalduna sortzez, izaeraz, beste inor baino gogo-meharragoa denik.

Gogo-oihartzun: Soinuak ernatzen dien gogo-oihartzuna.

Gogo-pizgarri: Topa Elenari, bere edertasun gogo-pizgarriari!

Gogozago: Gogoz aritu zarete, baina gogozago ekin behar diozue.

Goi eta behe: Iritsi da gutuna, irakurri du goi eta behe,...

Goi: (Adlg.) Orain goi-goi egingo dut hegan

Goi-behe: (Miatu) Inguruak eta goi-beheak miatzen.

Goiz txori (Gautxori-ren haritik): Goiz txori bihurtu naiz orain, adinarekin.

Goiztar (adlag.): Goiztar habil gaur.

Gomazko (atzetik): Oinetakoak, berriz, hortik honakoak: abarka gomazkoak, ustel hutsak.

Gonak: Lehen janzen zituen gonak, orain galtzak ditu onak.

Gona-neurtzaile: Aukerako gona-neurtzaileak baditugu.

Gonbidatu (zerekin): Han egongo zen entzuten aurreko puntan, eta gero bilduko zitzaigun zerbaitekin gonbidatzera.

Gonbidatu (zertaz): Eta lagun guztiak gonbidatu zituen afariz. Botilatxo bat ardoz gonbidatu gintuen.

Gora (adlag.): Eguzkia gora zegoen.

Gorabeheran eduki: Bere gorabeheran dauka irabaztea.

Gorabeheran egon: Biak 22 kilometroren gorabeheran daude.

Gorago: izond. Beste gailur gorago bat agertu zitzaion.

Goragoko: Ahal dudan baino goragoko lanik ez eskatu niri, arren!

Gorde (iz.) Kaja ilun batean betiko gordera, bestek eraman behar, gauza ez norbera.

Gordin: (iz) Egiaren gordinak lur jota utzi zuen.

Gordina egon: Zeu hilgatik zure izena oraindik dago gordina.

Gorespen: Gorespen Zuri, Jauna!

Gorputz: Gorputz adarrak (besoak eta hankak) Gorputz atalak (zatiak, organoak, soin atalak)

Gorputzaren ongarri (onerako): Gorputzaren ongarri ditugun janariak.

Gorputz-arimen habea: Goien degu Erregea, zero ta lurren Jabea, gorputz-arimen habea.

Gorputz-bidea: Gorputz-jasotzaileek hilotz-kutxa eramaten zuten bidea.

Gorraizea ibili: Gorraizea dabil, ala? (Entzun nahi ez dutenei ironiaz)

Gorreria: Pozik entzun genituen hitz gozo haiek; ez genuen belarrietan gorrierarik.

Gorri/zuri: Gorritik bi kopa eta zuritik beste bi. (Gorri: kofak. Zuri: anisa ta.)

Gorriagotu: Masailak gorriagotu egin zitzaizkion.

Gorrotu-su: Mundualdi hau bihurtu zaigu gorrotu-suaren labe.

Gosaldu (da): Gosaldu egingo naiz aurrena. Egunkariarekin gosaltzen naiz egunero.

Gose: Izan ere, garai hartan jango genituen guk mandoaren ferrak ere; goseak ez duela txantxarik esan ohi da, eta horixe egia.

Gose-egarriak kendu: Apetitu bikaineko gizonak joan arren, bapo kendu zituzten gose-egarriak.

Gose-pasea: Gose-paseak iritsi ginen jatetxera. Gose-pasea zegoen ordurako.

Gose-uste: Gose-usteak ziren haiek: bazkaldu aurretik pisatu, eta ondoren lau kilo gehiago omen.

Gozaleku (betikoa: zerua): Gero betiko gozalekua zeruan izan dezagun.

Gozamena eman: Hamaika gozamen eman zion euskaldun jendeari.

Gozatu (da): Eta gu ere hantxe gozatu ginen iluntzean, beheko suaren inguruan. Jendea gozatu zen dotore (bertsoekin).

Gozatu (da): Ongi gozatua naiz ni haurtzaroan, ama zenaren magal oparoan.

Gozatu (da/du): Nire egun itxurazko bat neukan garaian, neroni gozatzen nintzen jendea gozatzen nuen tamainan.

Gozo: Hauxe jaki gozoa, gozorik bada!

Gozoa jarri: Gozoa jarriko da ama jakiten duenean!

Gozoa, gozorik bada: Hauxe jaki gozoa, gozorik bada.

Gozoagatik: Gozoagatik erantzun zion.

Gozogabetu, gozogaldu: Txikleka gozogabetzen. Txikleka gozogaltzen.

Gozo-gozo: Gozo-gozo hil da, bake-bakean, piztuerako argia zeriola aurpegian.

Gozo-mikatz: Gure bizitzako gorabeherak eta gozo-mikatzak.

Guarda: Aingeru Guardakoa. Jainkoak guarda!

Gupidarik ez lanean (gogor jardun lanean): Lanean hasita, ez zuten gupidarik.

Gurasotasun: Amatasun eta Aitasun hitzen haritik.

Gurdi: Idien atzetik gurdia.

Gure (atzetik, "Aita gurea"n bezala): Aita zaharra gurea han ibiltzen zen laguntzen. Dohain aparta zuen Manuel gureak.

Gurpila eman: Uztapidek gurpil berezia ematen zion pasadizo bakoitzari. Beste gurpil bat eman zion gaiari.

Gurtu (-tzat): Jainkotzat gurtu zituzten idoloak.
Gurutzeago: Zurezko gurutze xume batek gurutzeago bihurtuko bailuke gurutzea.
Gustatu (da): Hizlari gozo eta atsegina beti gustatu ohi da.
Gustatu (da): Korrikalari kenyarrik ez ziren gustatu Azpeitian.
Gustu izan: Gustu baduzu...
Gustura: Jendea gustura dago, gustura dagoenez.
Gutxi ez irabazi (asko irabazi): Zuen bizitzak mende erdian ez du gutxi irabazi.
Gutxi fidatu: Ez ote zaigu aurki guri ere holako zerbait gertatuko? Gutxi fidatu! Gutxi fidatu dena tranpa zikin bat izatea!
Gutxi uste: Gutxi uste dute, ze aurreratua dagoen.
Gutxi: Bederatzi egun egin nituen han, hiru ordu gutxi.
Gutxi: Hori gutxi ez, eta... Hori gutxi balitz bezala, ...
Gutxiena uste: Gutxiena uste nuen dena hain ongi aterako zela.
Gutxijakina (askojakinaren aurkakoa): Gutxijakina naiz ni.
Gutxirekin aberastu: Esku hutsik Donostiara joan eta ezer gutxirekin aberastu (umea, aitonak jostailua erositia)
Haatik: Adiskide bat izan dut, egia esan; ez, haatik, bila ibili nintzelako.
Haatik: Haatik izaten da! -Zergatik? -Haatik!
Habia/itxaropena: Habia non, itxaropena han.
Haginberritu: Errota harriak, azpikoa eta gainekoa, noizean behin pikatu behar dira, haginberritu alegia.
Hagin-zorrotz: Txikia baina hagin-zorrotza da arratoia.
Haiena: Mezu bat jaso dut haiena.
Hain nola: Hain ongi dagokio gaiztoari infernua nola onari paradisua.
Hain..., eta: Nire aldartea hain da tristea, eta dena itsusi iruditzen zait.
Hain..., nola: Hain maitea zen niretzat, nola den ogia gosetiarentzat.
Hainbeste handiko (hainbesteko): Hainbeste handiko abereak.
Hainbeste nola: Ez hainbeste ene dohain berria neurtzeko nola jostaketa egiteko.
Hainbeste: Hainbeste? -Bai, hainbestetxe!
Hainbestean: Zer moduz? -Hainbestean!
Hainbesteko: Hori gaztetxo da, beste hainbestekoa egingo da.
Hainbestexe: Hiri hainbestexe esan zidak niri.
Haize izpi: Ez dabil haize izpirik ere.
Haize kontra: Errinozeroaren haize kontra geundela...
Haize: (izond.) Nik bai esan sarjentua haize samarra zela.
Haize: Haizea ere ikusiko luke horrek. (Azkarra)
Haize: Haize-babesean. Haize-gordean.
Haizea eman: Nire isiltasunak haizea emanik, gogor eutsi zion bereari.
Haizeak jo: Ez da inoiz aritu horretan; zer haizek jo ote du orain!
Haizeak kendu (harroxoari): Badakit zerk kenduko dizkizun haize horiek: segi komunak garbitzera!
Haizearen hegoetan: Lagun batek besteari esanak ez dira haizearen hegoetan jartzekoak.
Haizetan: Haizetan ipini arropa lehortzeko. Haizetan ipini buztina lehortzeko.
Haizetuta: Haizetuta dabil aspaldian.
Hala moduz (gutxiespen zentzua): Hala moduz bere burua ezinean ikusiz gero, ordezkoren bat bilatu eta bidaltzea onena.
Hala moduzko (gutxiespen zentzua): Hasi zitzaigun aitona bat bertsotan, hala moduzko aingeru batzuek zirikatuta.
Hala moduzko (gutxiespen zentzua): Ni ere parrandan asko ibilia naiz, hala moduzko ofizioa da-eta bertsolaritza.
Hala moduzko (gutxiespen zentzua): Nik, berriz, janzkera ere hala moduzkoa erabiltzen nuen.
Hala moduzko (zentzu zuzena): Bai, hala moduzko hotsak dabilta.
Hala moduzko (zentzu zuzena): Jakina, hala moduzko giro ederrak baitzebiltzan, zuhaitzak loraberritzeko.
Hala moduzko (zentzu zuzena): Orduan ez genuen gogo faltarik bertsotarako, sasoiak hala moduzkoa, eta pozik.
Hala/hola/nola: Atzo hala, gaur hala eta bihar nola?
Hala/hola/nola: Lehen hala, orain hala, bihar auskalo nola!
Halabehartu: Hondamendira halabehartuak...
Halako/Halako: Halako hil zutela, halako ezkutatu zela...
Halako: Halako ikustera noa. Halakok egin du. Hori halakorena da.
Halako: Halakorik, gero!
Halakoxe: Arratsaldea zen halakoxea!
Hamabi-hamabi, platerean bi begi.
Hamaika: Hamaika holako ikusiak gara. Hamaika ikusteko jaiok gara.
Hamaika-hamaika, txakurraren lukainka
Hamalau: Hamalau dela uste horrek!
Hamalau: Hamalau jango, eta bi sardina asko.
Hamar zentimo: Eta, azkenean, zahartu eta ezinak jo zuenean, erretiratu, hamar xentimoren etorkizunik gabe.
Hamar zentimo: Hamar xentimoren kezkarik gabe, luze adina zabal eseri eta kontu kontari patxada ederrean.
Hamar-hamar, katua marmar
Han haietako: (Hango) Han haietako altxorra.
Han ziren hangoak: Jendea giro onean jarri zen, eta han ziren hangoak, kafeak hartu ondoren batez ere.
Handi antzeko: Lepo-otarre handi antzekoak ere bazeuzkan salgai.
Handi nahiz txiki: Eta ezingo du inork, handi nahiz txiki, ezer onik egin Egipton.
Handi/txiki: Garrantzi handiko karguetan eskarmentu txikikoak.
Handi: iz. Handi jendea. (Handikiak)
Handi: Zenbat eta handiago, erorikoa handiago!
Handik honako: Horixe handik honakoa!
Handiki: Handikiak hots handi.
Handitan: Handitan ez dira gauzak txikitan bezala izaten.
Handitik jo: Halako agertokia edukita, erraza zen handitik jotzea.
Handi-txiki (iz. Luze-zabal bezala): Handi-txikian eta luze-zabalean biak berdintsuak ziren.
Handiusteko txikia: Handiusteko txikia izan alproja hura!

Handi-zabaldur: Irudiak handi-zabaldur ahala,...

Hango edo besteko/Halako edo besteko tokitan eginiko kalteak.

Hango: Edo Frantziara, hango zeuk nahi duzun lekura.

Hanka hankari: Gorputza makurtua eta bi makulurekin, hanka hankari ezin aurreraturik.

Hanka hankari: Hanka hankari ematen lagundu behar.

Hanka hankari: Hanka hankarik ezin emanik (ezin ibilirik)

Hanka joko: A ze hanka joko atera zuen mutikoak! Libre utzi genionean, hura hanka joko!

Hanka joko: Han trenea gelditu zenean, jaitsi eta nik eraman nuen hanka joko.

Hanka joko: Hanka joko ederra atera zuen handik. A ze hanka joko mutikoarena!

Hanka joko: Erasotzen badute, utzi dena bertan eta ekin bizkor hanka jokoari.

Hanka makilak: Jendeak ederki astintzen zituen hanka makilak bazterretan (festetan).

Hanka sarde: Azpiroz genuen korrikalari eder eta kuriozoso; hanka sardea bikaina zuen eta luzea pausoa.

Hanka sarde: Hanka sarde bikaina, beso palanka ederrak.

Hanka sarde: Hanka sarde motz antza zuen Eleuteriok.

Hanka zuztar: Badu bizitasuna hanka zuztarretan.

Hanka zuztar: Hanka zuztarrak urrututa odoltzeraino idiak ferratokian.

Hanka/buru: Hankak arinak eta burua arinago.

Hanka: Hankaz aurrera eraman (hil)

Hankabakar: (Begibakarren haritik)

Hankagorri: 1.- Haur jaio berria. 2.- Itsaskia: otarrainska, ganba eta holakoak.

Hankak astindu: Bizikletak ere urri ziren garai hartan, eta hankak astintzen zituen jendeak alde batetik bestera aldatzerakoan.

Hankak jaso (alde egin): Hitz haiek entzun nizkionean, hankak jaso nituen.

Hankak lurrari kendu: Gu abarka zaharrak jantzita, hankak lurrari ezin kenduta.

Hankatraba: Ez jarri hankatraban! (aitak umeari esana)

Hankaz aurrera: Gau ilunean, ordea, edozein zulotan hankaz aurrera sartzeko arriskua egoten da.

Hanketako hotzak kendu: Dantzarako zaletasuna zuen gazte jendeari kendu zizkion hanketako hotzak (soinu jotzaileak).

Haragizko: Hemen haragizkoa denak derrigor jan behar du bizirik irauteko adina, nola pertsonak hala animaliak.

Harekin egon: Eta ni ere harekin nengoen (haren esanarekin konforme).

Hargatik/haatik: Bizikleta atsegin du. Hargatik ekarri du. Bizikleta atsegin du, ez da haatik Tourrean aterako.

Harkaitz: Harkaitza baino egoskorrago.

Harmonian (errietan haserre): Bi atso nabaritu ditut harmonian.

Harrapatu: Harrapazak! Harrapazak, hi! Alajaina, harrapazak atzeko zangotik!

Harri ta belarri: Harri ta belarri nago; tranpa bat zen dena!

Harri: Hauxe harria erori zaiguna! (Pertsona gogaikarri bat hurreratzean)

Harria etorri: Kontentu bizi ginen garaian etorri zaigu harria.

Harria gorria (umetako jolasa): Harria gorria badabil, ez dabil, badabil, ez dabil... Ez dabil.

Harridura Filosofia ororen sortzaile omen den harridura.

Harridurazkoak: Errekontxolis! Demasa Tomasa!

Harrika: Dirua harrika bota (xahutu)

Harriketa: "Bat harriketara joaten zen" zioen Eugiko xaharrak. (Etxea egiteko harri bila, alegia).

Harrimen (Harritzeko ahalmen): Harrimena aspaldi galduak ez bagina,...

Harritu (zertan): Harritzen naiz gurekin daukan arretan.

Harritu: Harriturik nengoen ze arin egiten zuten hegan.

Harritzekoago: Hori harritzekoa bada, harritzekoago da...

Harro/herren: Zertan harro, hartan herren.

Harrokeria: Harrokeria oso nabarmen geratzen zaigu sarri geure kalterako; kabi gaitezen, beraz, galtzetan.

Harropuztu/leherdu: Erabat harropuzturik dago, leher egingo du.

Harrotu: (zertan) Jesukristo gure Jaunaren gurutzean behar dugu harrotu.

Hartain/Hortain: Ez nekien hartain handi zela. Ez nuen uste hortain egoskor zenik.

Hartarainoxe: Hartarainoxe lotsagabetu, alajaina!

Hartaratu: Zirkurako ere balioko zuen agian, gazterik hartaratu balitz.

Hartu (zer/zertzat): 7a ta 5a hartu genituen zenbaki magiko(tzat).

Hartu/eman: Hartzeko laster, emateko alfer.

Hartu/sartu: Eskua hartu eta hanka sartu.

Hartu/utzi: Saltza gehiegitan sartzten den gizonak ez du atarramentu onik; hartu-utzi hori ez baita ona martxa zuzenerako.

Hartu: Franki baserrian artoa eta babarruna etxeko lurretan hartzen ziren.

Hartu-utzi: Hartu-utzi hori ez baita ona martxa zuzen eraman ahal izateko.

Hartzaile/emaile: Hartzaile bizkorra, emaile koskorra.

Haserre sutan: Haserre sutan etorri zen. Haserre sutan jarri zen.

Haserre: Haserreak bidea labur.

Haserrea erabili: Ez zuten haserre handirik erabiliko bi horiek beren mundualdian.

Haserreagotu: Ez dugu haserreagotu behar, arren!

Hasi (-ra): Atzera eskolara hasi beharko du jendeak.

Hasi (zer): eta Orion errementari hasi zen.

Hasi berriko: Hasi berriko koplak utzita,...

Hasi berritsu: Lana hasi berritsu zuelarik, bertan behera uztea ere!

Hasi eta bukatu: Partida ederra egin du, hasi eta bukatu.

Hasi/isildu: Ze ordutan kantari hasi jakiten genuen, baina noiz isildu ez.

Hasi: Hasi bazen hasi,...

Hasiera: Hasiera beti gaitza.

Haste: (iz.) Badago hobeto kontatzerik bertsolari baten haurtzarora ta bertsolari hastea?

Hatz kakotu: Agureak poltsa txiki bat estutzen zuen hatz kakotuen artean

Hatza sudurrean: Ez geratu hor, hatza sudurrean, alferrontzi!

Hau eta hau: Hau eta hau daukagu asmoa.

Haurrak bularra hainbat: Haurrak bularra hainbat maite dut Oriu.

Hausbero: Hausberoa jolastu, ta erreta suertatu
Hauspoa: Hauspoa bete. Hauspoa berotu. Hauspoa berritu.
Hautakizun: Lehendik geneuzkan hautakizunetan egin zen aukera.
Hautatu: (Zer): Zure lana hautatu dute urteko onena.
Hautsa kendu (zeri): Hautsa kentzen hasi zen apalei.
Hautsak kendu: Noizean behin makilarekin kentzen genizkien bizkarreko hautsak (geldirik egoten ez ziren mandoei)
Hauts-borla: Aurpegiaren hautsak emateko borla.
Hautsi: Biek hautsi dezaten zabilta, elkarrekin hasi baino lehen.
Hautsi: iz. Kolpeak ditu, baina hautsirik ez.
Hautsi-konpondu, josi-urratu: Gerrako, eta politikako, hautsi-konpondu eta josi-urratuen itsumena.
Hazi/bizi: Umeak hazi eta nekeak bizi.
Hazi: Hazi da haztekoa.
Hazitxo: Baina igo galtzak, aurrena, hazitxo zara ta.
Hazitxoegi: Ez ote zara hazitxoegia horretan jolasteko?
Hazka eragin (inurriak gizakiari).
Hegastun (lumak eta aletak): Hegatsak dituen.
Hego haizea dantzan: Ernio argi bazegoen, hego haizea dantzan, seguru.
Helmugaratu: Helmugara iritsi
Hemen bestetan: Hemen bestetan ez zegoela inon uste genuen guk, baina oso oker geunden.
Hemen eta bestetan: Hemen eta bestean, inorentzat ez diren irakurgaiak dituzu okerrenak.
Hemen hauetan: Hemen hauetan oso bakanak dira halako...
Hemen hauetatik: Ezkuta zaitez hemen hauetatik!
Hemendik atzera: Hemendik atzera gehiago edaten ez baduzu, ondo ibiliko zara.
Herio bide: Agerikoa zen herio bidean zela.
Herio itzal: Ilunpean eta herio itzalean direnei argi egitera.
Herio/zurbil: Herio bezain zurbil.
Herio: Herio sutan. Herio sugarretan.
Herio: Leitzan bezala Orion ere, berehala izan zuen atarian herio.
Herioan: Herioan zihoran. Herio batean zebilen. Herioan joan zen ihesi. Bere herioan, salto egin zuen.
Heriotza: Heriotzaren zorra denok dugu ordaindu beharra; hortik ez da inor libratuko, ez aberatsik eta ez pobrerik.
Heriotza: Jaiotako guztiak heriotza du zor, zurea pasa zen-da gurea badator.
Heriotza: Zain dauka heriotza, janzkiak beltz eta aurpegia zurbil.
Herri zulo: Goazen herri zulo honetatik. Zenbat bizilagun ote ditu herri zulo honek?
Herriko festak: Orainxe ditiagu herriko festak! (Istilu sortzear dela)
Hezur-muin: Negu-mineko hotzikara hezur-muinetan nabaritzen badu ere
Hil aurretxoan: Hil aurretxoan ikusi nuen kalean.
Hil beharra: Hil beharri ez dago ihes egiterik. Epea betetzean, badakigu ze propina dugun irabazia aurrez.
Hil berri(a) jakin: Iñazoren hil berri(a) jakin zuenean, negar egin zuen.
Hil etsian: Hil etsian eraman ninduten.
Hil ez hil (hiltzorian): Hil ez hil nengoela,...
Hil harian: Hil harian zeuden.
Hil: Hila da gizajoa, gazte eta zaharrei hamaika barre gozo eraginda.
Hil-biziko: Azkenean, makila eskuratu nuen eta zartada bat edo bi eman nizkion hil-bizikoak, eta hantxe errenditu mutila.
Hilburuko(tzat) utzi: Tresna hori Koldo Mitxelenak hilburuko utzi zigun Orotariko Euskal Hiztegia da.
Hil-dei: Hil-deia zegiten kanpaiek arratseko isilean.
Hilen eta bizienganako: Hilen eta bizienganako begirunea.
Hiletan/opiletan: Auzoa hiletan eta gu opiletan (Lapurretarako aukera)
Hirugarren hanka: Hirugarren hankaren premian mozkorra.
Hiru-hiru, kolkoa bete diru
Hiruz bi: (musean: hiru ale gehiagorekin bi hamarreko)
Hitanoa: Bestearen aurrean, aparte moduan: Honek jo ziguk adarra! (emakumeak ere bai)
Hitanoa: Emakumeak bere buruari: Ez dun tuntuna izan behar!
Hitz egin behar (iz.): Geure arteko hitz egin behar batzuekin.
Hitz egin/egin: Asko hitz egin, gutxi egin.
Hitz egin/huts egin: Gauzak garbi hitz eginik, ez nuke nahi huts eginik.
Hitz eginda egon: Berak jakingo du zer hitz eginda dauden elkarren artean.
Hitz hegalari: Hitz hegalaria...
Hitz/egin: Hitzetan labor, eginetan luze.
Hitz/pitz, zurrut/purrut: Han ari ziren hitz eta pitz, zurrut eta purrut!
Hitz batetik bestera: Eta honela esan zion hitz batetik bestera:...
Hitz galdu: Azkenaldean hemengo jendeak ez zion hitzik galtzen Xalbadorri.
Hitz/putza: Haren hitza eta zakurraren putza, berdintsua.
Hitzak/hizpide: Eta hitzak hizpidea ekarririk, aipa dezadan bidenabar...
Hitz-aspertu: Haien gozamina hantxe hitz-aspertu hartzea zela uste dut.
Hitzez gozatu: Eta ehun euro eman zizkion Jon hitzez gozatu eta droga zezan.
Hitzontzi: Apreta zulotik ere hitz egingo luke.
Hitzontzi: Hitzontzi, hutsontzi.
Hitz-urri/esku-luze: Hitz-urri zen mutila neskaekin, baina esku-luze.
Hizketa/kisketa: Alfertsurik inoiz egiten dugu hamaika hizketa; ez baita beti zuzen ibiltzen gure buruko kisketa.
Hizketarako bide (hizpide): Uztapidek gai hori hartu zuen hizketarako bide.
Hobe bideak: Hiru bekatari ikusten ditugu hobe bidean.
Hobe duzu!
Hodei tontor: Hodei tontor handi samarrak agertu ziren.
Hodei/sasi: Hodei guztien azpitik, sasi guztien gainetik.
Hogeitaka: Orain dela hogeitaka urteetako kontuak dira.

Hogeitsu: Gazte nintzelarik, hogeitsu urtetan, aise igotzen nituen aldapa pikoak.
Hala esateko: Beste bertsorik, egun hartakorik, ez dut gogoan hola esateko.
Hala eta hola: Hala eta hola esan zion. Ez duzu hola eta hola ahaztuko. Zu ez zara, ba, hola eta hola haserretzen.
Hala moduzko (gutxiespen zentzua): Hala moduzkoak tentatzen mutila zen Zepai zena.
Holako egunetan: Holako egunetan han nahi gaituzte zu eta ni biok.
Holakoren eta halakoren: Ohiturazko aurpegiak: Holakorenak eta Halakorenak
Hondar (azken. Izond. Iz.) Munduko urte hondarrak. Hondarrean idatzia.
Hondarrarazi: Sonar aktiboak hondarrarazten ditu baleak.
Honenbestean: Baina honenbestean beharko du!
Honenbestean: Beraz, garbi geratzen dira gauzak honenbestean.
Honetara ezker: Honetara ezker, esaiguzu nola bukatzen den istorioa.
Honetara(tu): Laurogei urte dira mundu honetara nintzela.
Honetaratu: Eta esango dut nola, honetaratu naizenez gero. Ez genuen asko pentsatzen honetaratu ginenik garai hartan.
Honez aurrera (aurrerantzean): Ekatzu, ekatzu, honez aurrera ez ditugu-eta sarritan hartuko (musuak).
Honezker: Behin honezker, ... Etxean behar zuen honezker. Honezker, zergatik ez diezu dena kontatzen.
Honi eta horri: Honi eta horri entzuna diot (Nori zehaztu gabe) Honi eta horri entzuna diet (Nori zehazturik)
Hontaka: Ipini hortxe hontaka. Atera hortik hontaka.
Hontza/argi: Hontza gauean baino argiago dago.
Hor nonbait (ongi samar): Hor nonbait ibiltzen naiz galletak hartuta.
Hor nonbait: Denbora badoa eta hor nonbait okerragorik ez dela!
Hor: A hor, ba!
Hori eta horrenbestez (Hala eta hola): Horrek ez du etsiko hori eta horrenbestez.
Hormaratu: Erabat hormaratu zaio pilota.
Horregatik edo: Horregatik edo, antzektokirako utzi ditu pailazokeriak.
Horregatik/horratik: Liburua atsegin du. Horregatik ekarri du. Liburua atsegin du, ez du horratik jango.
Horrenbestez: Esaiozu hori: horrenbestez ulertuko du.
Horretan: Bien artean nor azkarrago izan horretan, beste batek hartu aurrea.
Horretan: Hago horretan!
Horretan: Hitz hori puztuta dago -Neu horretan! (edo: Bai, neu horretan!).
Horretaratu: Iritzi horretaratzea bakarrik ere ez zen gutxi.
Hortik atzera: Hortik atzera lasaixeago ibili naiz aizkoran.
Hortik honakoa: Hi haiz hi hortik honakoa!
Hortik honakoa: Lehen polita bazen, orain jarri da hortik honakoa!
Hortik honerakoa: Lazkao-Txikiren parrandarako gogo, berriz, hortik honerakoa garai hartan.
Hortik honerakoa: Oinetakoak, berriz, hortik honerakoak: abarka gomazkoak ustel hutsak.
Hortik pentsatu: 1847ko kontuak dira, hortik pentsatu!
Hortik pentsatu: Dirurik ez genuen izaten, eta sagardoa bost xentimotan ematen zuten basokada. Hortik pentsatu!
Hortxe (ia-ia): Hortxe ibili gara, ba!
Hortxe: Hortxe, hamaikak alde horretan.
Hortxe-hortxe: (Ia-ia) Hortxe-hortxe ibili gara!
Hortxe-hortxe: Hortxe-hortxe ibiliko zarete biok (irabazteko).
Hortz: Hortzak zorrotzuta (txuleta jateko, etxea erosteko...)
Hortzak garbitu: (musukatu) Tabernan zeuden hortzak garbitzen.
Hortz-arin (hozka egiteko joera duena): Gure arratoi hortz-arinak...
Hortzez gora: Hortzez gora etzanda ohean.
Hots egin (esan): Hots egin al du irratia? Zer hots egiten dute (futbol zaleek oihuka)?
Hots: Egia al da hori? -Hotsak hala dira.
Hots: Ezkon hotsak atera zizkieten, eta Aliziarekikoak ere bai.
Hots: Hotsa dabil harrapatu dutela. -Eta non daukaten hotsik?
Hots: Mugaz bestaldera eramango ote gaituzten, hots hori dabil.
Hotsa zabaldu: Hildakoak, berriz, hamazazpi ba ote ziren zabaldu zen hotsa ondorengo egunetan.
Hotsak ibili: Hala moduzko hotsak dabilza.
Hotsak izan (fama izan): Langile ikaragarria omen zen Latasa: hala moduzko hotsak zituen Sunbilla aldean.
Hotsak zabaldu: Hots horiek zabaldu dira herrian.
Hotz eta urri: Zeregin zaila, eguraldia hotz eta janaria urri denean.
Hotz/bero: Maitasunean hotz eta zitalkeria bero.
Hotz/bero: Ze hotz eta ze bero! Non duzu adorea?
Hotz: Dantzari dabil hotzak (betroia).
Hotz: Mukiak gogortzeko hotza
Hotzagatik egon: Hotzagatik bazegok! (Bero-bero dagoela esateko)
Hotzak ikara egon: Jenobeba hotzak ikara zegoen.
Hotzak kendu: Arratoiari laster kentzen dizkio katuak muturreko hotzak, atzaparrak astinduta.
Hotzak kendu: Bizkar aldeko hotzak kendu dizkiot astoari, eta mantsotu ere bai dotore asko.
Hotzak kendu: Han ibiltzen ginen ilunpetan kaskarreko hotzak kenduta (ukuiluko habeak-eta jota)
Hoztu: Hozten hasi du.
Hurbiltzenago: Urrats bakoitzak hurbiltzenago ninduen.
Hurren: Gizon onak, Jaungoikoaz hurrena zuei zor dizuet nire semearen eta nire bizia.
Hurrena/hurrengo: Hurrena, herrira joan zenean... Hurrengo, handik etorri zenean...
Hurrena: Emango didazue hurrena elkar ikustean.
Hurrengo non: Gu ez ginen gaixo zegoenik ere konturatu, eta hurrengo non aditzen dugun hil zela.
Hurrengo: Hobe zenuke erropak entregatu hurrengo datorrenean. Hurrengo, berriz, arrantzaleen Kofradiak jarritakoa.
Hurrengoan: Hurrengoan (izan) beharko!
Hurreragotu: Hurrerago zaitetz, mesedez!
Hurretan: Hurrak hartzen hurritzetik
Hurretik: Hurreragotik. Hurreraxeagotik.

Hustu/bete: Zeure buruaz hustu behar, Jainkoaz betetzeko.

Hustu: (iz.) Barruari hustu bat emateko

Hustualdi: Hustualdi ederra hartu, barruan zegoena botata (fisikoki ta psikologikoki)

Huts: Bestela, nork bere buruari sufriaraz liezaioke hutsaren peskizan.

Huts: Hutsaren atzetik ibili ziren, hutsaren hurrengo bihurtu dira.

Huts: Hutsaren tokian gauza gutxik ere ongi luzitzen duela badakigu eta.

Hutsa (Gaitz erdi): Hutsa, hala balitz. Hutsa, zuzen balego.

Hutsa adinako: Hutsa adinako poza eman zidaten bisitarekin.

Hutsaren hurrengo: Eta ni, hutsaren hurrengo, ezta?

Hutsaren hurrengo: Lanaren ordainik ez zuen inork jasotzen, sagarra hutsaren hurrengo prezioan saldu behar izaten zelako.

Hutsaren peskizan: Bestela, nork bere buruari sufriaraz liezaioke hutsaren peskizan.

Hutsaren truk (doan): Hutsaren truk eman zion.

Hutsean (ia doan): Sagardoa hutsean izaten zen orduan: bost xentimon basokada ematen zuten.

Hutsetik hutsera: Horrelaxe ohi da gehientsuenetan ametsaren bukaera: hutsetik hutserakoa.

Ia joan: Aitona, sudurrarekin lurra ia joan, okertua.

Ia-ia egin: Ia-ia egin nuen! -Ihiak Gorputzetan. (Iyiye egin nuen- Iyek Korputzetan)

Ia-ian: Ia-ian gara oraintxe. Ez dezagun etsi, ia-ian gaude-eta lortzeko.

Ibai betean: Jordango urak beren tokira itzuli eta, lehen bezala, ibai betean joan ziren.

Ibairago: Bera baino ibairago zeuden.

Ibili (iz.): Eguneroko ibilian... Gau-ibili hartatik hiru egunera.

Ibili (iz.): Eguraldi txarra zen ibilirako (bai autoan ere). Ibilian nekatzen direnentzako eserleku ederrak.

Ibili (iz.): Orain goiz ibilirako irrika nabaritzen zaio herri honetako jendeari.

Ibili (nor-nork): Nataliok mundua ibilia zuen, eta errespetua genion.

Ibili (nor-nork): Ziur asko ama bila ibiliko du. Zenbat mutil ibili ote zituen atzetik, neska gaztea zelarik?

Ibili nekoso: Oinezko ibili nekoso zeraman

Ibili zale: Denak ez baitira azkeneko puntan ibili zale izaten.

Ibili/bide: Dabilen bideak harrapatuko du. Zabiltzan bideak harrapatuko zaitu.

Ibili: Badabil hemen iritzi harrigarriak. Garai hartan bigarren gerra mundiala zebilen borroka bizian.

Ibili: Bagenbiltzan eta harri bitxi hauek aurkitu ditugu hondartzan.

Ibili: Gabiltzan jator! Gabiltzan Jaunaren argitan!

Ibili: Ibili berriz ere!

Ibili: Ibilian ibiliz ikasten delakoan nago ni.

Ibilian-ibilian: Ibilian-ibilian gailurreraino iritsi zen.

Ibili-hots: Haren ibili-hotsa entzun zuten.

Ibili-ibili egin: Ibili-ibili eginda, berearekin atera zen.

Ibiliko bazen: Bi bastoiren laguntza behar nahitaez, ibiliko bazen.

Ideia-jasa: A ze ideia-jasa zurea!

Idi ezkeraren antzera: Horrela ibili behar izaten nuen nik batzuetan, txandaka lagunak aldatuz, idi ezkeraren antzera.

Igandeak aste: Askotan igandeak ere aste arrantzaleentzat.

Igarri (nori gabe): Bestela, laster igarriko dio ze putzutuan sartu duen hanka.

Igeldu: (marrazki bizietan, Gizondu-ren haritik)

Igeltsero: Nire lagun igeltsero Jose Marik...

Igeri: (iz.) Igeri saioa. Igeri txapelketa.

Igual: Igual geratuko naiz hementxe bizitzen betiko!

Igual: Zu igual zaude pentsatuta zeuri arrosa usaina darizula.

Igualakoxe: Igualakoxe giroa zegoen han. Jendetza ez dut atsegin; igualakoxe nago etxean.

Igurtzi-migurtzi: Adlag. Lapikoak garbitzen igurtzi-migurtzi.

Ihes ate: Ihes ate ezkutua

Ihesi/arin: Ihesi doanak hankak arin (edo: oinak arin)

Iheskide: Iheseko laguna.

Ijitoaren igurtzia: Ijitoaren igurtziak, argizariak haritz egurrari bezalakoxe distira ateratzen baitio abereari.

Ikara (adlag.): Oraindik ikara zituen eskuekin...

Ikaragarri: (iz) Ikaragarriren bat egin baino lehen.

Ikarago: Antxumearen buztana baino ikarago.

Ikasi (jakin) Gertakizunen berri ondo ikasita gero hitz egin nuen nik.

Ikasi (jakin) Nik neuk ikasi berri samarra dut txapiro asko den urtean, angula ere ugari izaten dela.

Ikasi (jakin): Esango al didazu zure izena, ez dut oraindik ikasi eta?

Ikasi (jakin): Ezjakinean zegoen herriko jendea eta harritu zen, beren bizkar diru egiten ari zirela agintariak ikasi zuenean.

Ikasi (jakin): Munduko berri ikasitako gizona. Abizena ez dakit, ez nuen ikasi eta. Pozik gaude hango berri onak ikasita.

Ikasi (jakin): Orduan ikasi zuten noiz ereiten den artoa.

Ikasi (nori): Badut nori ikasi. Hori edo hari, bada nori ikasi. Nori ikasi zenion hori? -Amari.

Ikasi (-ren berri ikasi, jakin): Eta gure berri ikasi zutenean,...

Ikasi (zer): Ez al duzu oraindik artzain ikasi. Non ikasi duk hik sukaldari?

Ikasi/ahaztu: Aspaldiko esaera bada, pertsona zaharrari egun bakoitzean gauza bat ikasi eta bi ahazten zaizkiola.

Ikasi/ahaztu: Zahartuz gero, gauzak ikasi baino ahaztu errazago egiten dira.

Ikasi: adlag. Ikasi ta ikasi ariko da, ziur asko.

Ikaste: Ikastetik dator.

Ikus-ahal: Horrela lortu nuen Erreterian ezin lor nezakeen ikus-ahal zabalagoa, zabalegia ez bada ere.

Ikusi (iz.): Denak, ikusi batera, pozik. Tira, zure zatia ikusitxo bat...

Ikusi (iz.): Eman diot ikusi arin bat nire barrenaldeari.

Ikusi (nor eta nork): Honela Jainkoak nahi badu, lurtean elkar gehiago ikusiko ez badugu ere, duda gabe zeruan ikusiko gara.

Ikusi hutsarekin: Hitzez esanda bakarrik ezin liteke sinistu zenbaterainoko poza eman zidaten ikusi hutsarekin.

Ikusi hutsez: Lehen asko poztu ohi nintzen herri hartako ezagunak ikusi hutsez.

Ikusi zaharra ez (ikus berria): Ez dugu ikusi zaharra.

Ikusi/ikusia: Esaiguzu han zer ikusi duzun (une batean). Esaiguzu han zer duzun ikusia (askotan)

Ikusi/nahi: (Esr.zah.) Zer ikusi, huraxe nahi.
Ikusmin-jolasak: Neskaren batekin izandako ikusmin-jolasak.
Ikustekoak ikusita: Ikustekoak ikusita, gauza guztiez aspertu zen, azkenean.
Ilargi/larre: Ilargi betea, sorginen larrea.
Ilargi: Ilargi-milargi, egidazu argi!
Ile larru: Garbitu on bat eman gorilaren ile larruari.
Ile-latz: Txakurkumeak, artean ile-latz, aurea hartzen zuen eta atzera egiten gero.
Ile-luze: Ile-luzea zen gizona, eta bizarduna.
Ile-sarri: Nik ez nuen ile-sarri ezagutu.
Iltzea kopetan: Bestela izaten dira biharamon jakinak: kopetan iltzea eta buruko minak.
Iltzeberritu: Lehen zeuzkaten ferra onak iltzeberritu.
Iltze-jo: Iltze-jo hori da, ferra josterakoan, iltzeak ermamian edo haragi bizian ukituz gero gertatzen den okerra.
Ilun/argi: Ilun-ezkilak goiz-argiari hots.
Ilunabartu: Ilunabartzen hasia zen.
Ilunagotu: Begiak are ilunagotu zaizkio.
Ilun-ondoko: Ilun-ondoko egunsentia.
Ilunpe/lotsa: Ilunpetako lanak argitarako lotsa.
Ilun-urratze: Sorgin izugarria, ilun-urratzez azaltzen zena.
Iman: Ez duk luzaroan bakarrik egongo (alaba polita). Horrek bereganatuko dizkik mutilak, imanak arbi-haziak bezala.
Inbidia: Inbidia urtzen!
Indar lan: Indar lanak handiei utzi.
Indar zorrotza: Katuak atzaparretan du indar zorrotza; eta arratoiak, berriz, muturrean.
Indar/maitasun: Indarrez baino gauza gehiago egiten da maitasunez.
Indargune: Ahulgune-ren kontrakoa.
Indarra latz: Indarra latz horrek.
Indarrean ibili: Gaitza indarrean dabilela dirudi bazterretan. Urak indarrean zebiltzan, neurritz kanpora.
Inguru (adlag.): Eta, munduaren inguru nekerik gabe gabiltzala,...
Ingurutsu: Musikan Beethovenen ingurutsuan egin nuen planto.
Inoiz (iz.): Inoiz lainotsu horretan...
Inoiz bada eta: Inoiz bada-eta omenaldia aurten mereziko dute.
Inoizko: Ez zuen inoizko umorerik. Inoizko lasterren. Inoizko onenak.
Inoizko: Inoizko kirtenkeriarik esan gabe joan zen behintzat.
Inola ere, inondik ere (Baiezkoan): Zu, inondik ere, Tomasen semea zara. Hura izan behar zuen, inola ere.
Inolako moduz: Eta isilik egoten ezin dut asmatu inolako moduz.
Inon: Garbizaleak dira, inon garbizalerik bada. Inon onik bazen, gizon ona zen Peru.
Inondik ahal: Inondik ahal banuen, lau bertso horiek nahi zituela. Holako egunetan han nahi gaituzte, inondik ahal bagenu.
Inondik ahalean: Jaunari eskatzen diot inondik ahalean, berriz bildu gaitzala lehengo sukaldean.
Inondik ahalean: Ongile denak eskertu nahian nabil inondik ahalean.
Inondik ere: Zuk Joakinen iloba txikia behar duzu izan, inondik ere.
Inor asko gabe (huts samarrik): Inor asko gabe autobusak pasatzen.
Inor/hura: Nik Donostian inor lagunik banuen, huraxe bat.
Inor: Badakizu inor mintzen. Inori esan behar zuk!
Inora gabe: Inora gabe geratu ginen azkenean.
Inora(tu): Inora nahi badugu, horrelako buruargiak behar ditugu.
Inorako: Aurren-aurrenik, abiatu egin behar dugu handik edo hemendik, inorako baldin bagara.
Inorako: Jauna, ez gara gu inorako zure laguntzarik gabe.
Inozente: Ez naute berriz inozente harrapatuko, ez naiz-eta inorekin fidatuko.
Inozo: Inozoa ni, egingo zuelakoan!
Inporta: (iz.) Inporta handirik gabe jarriak zeuden ordurako.
Intzirika (nori): Gau eta egun intzirika nago Zuri.
Inuzente: Inuzente-minuzente, txakurraren buztana tente!
Ipur zuriketa: Utzi ipur zuriketak!
Ipurdantzari:
Ipurdi/titi: Ipurandi ta titi-txiki.
Ipurdia dantzatu: Ederki dantzatu zituzten ipurdiak.
Ipurdiko erretena: Kuleroak ipurdiko erretenean sartuta.
Ipurdiko hotzagatik/makalagatik: Ipurdiko hotzagatik/makalagatik alde egin zuen.
Ipurdiko hotzak kendu: Ipurdiko hotzak kenduta bidali zuen handik.
Ipurdiko hotzik ez: Azkenerako, horratik, ipurdiko hotzik ez zuten izan behar (zurrutean ibilita).
Ipurdiko hotzik ez: Halaxe, ordu txikietara iritsi, auskalo zenbat pattar edanda; jendeak ez zuen ipurdiko hotzik eramango...
Ipurdiko latza: Baina trenari ipurdiko latza emango ziotelakoan nago autobusek.
Ipurdiko minak: Goazen bai, ipurdiko minak nago ta.
Ipurdiz gora: Belar gaiztoak ipurdiz gora jarrita eguzkitan.
Ipurdiz ipurdi: Ipurdiz ipurdi eserita, nor bere liburua irakurtzen.
Ipurgarbitzaile: (adierazkor) lausengari, koipe emaile...
Ipurlan: Ipur lana aurreratu digu, eseri ta azterlanean.
Ipurpeko: Ipurpean jartzeko bigungarria.
Ipurtonor: Jotzen bazaitut ipurtxontxorrien!
Ipurzaku: Heltzen badizut ipurtzakutik, botako zaitut putzura.
Ipurzikin: (Ipurzuri eta Ipurzulo-ren haritik)
Ipurzuriketa: Orain ez hasi ipurtzuriketetan!
Irabazi (garatu): Udan bezalatsu irabazten baitzuen belarrak. Eta lehendik ongi bustita zegoenez, bapo irabazi zuen kanpoak.
Iragan (joan zen): Iragan mende hasieran
Iraganerago (Iraganean atzerago): Zoaz, ba, iraganerago!
Irain beltz: Irainik beltzena arrazoirik gabe bota ote nion beldurrez.

Irain/bakezko: Zenbat eta garratzagoak irainak, hainbat eta gartsuagoak bakezkoak.
Irakiten amorruz: Itsasoa irakiten dago, ekaitzaren amorruz.
Irauli: Barrena irauli zion (zerbaitek nahigabetu)
Iraulka (iz.): Iraulka zoroan zebilela,...

Iraun (zain egon): Bere hartan irauñ nuen hiru egun, berririk gabe, baina, oso kezkatu, haren etxera deitu nuen.
Iraun: Irautea da beharrena.
Irekiera (zabaltzea): Ostatuaren irekiera ospatu genuen.
Iritsi (non): Lehenago ere inoiz nire iritziak oso urrutietan dira iritziak.
Iritsi (Nor-nori-nork): Iritsidazu, seme (lurrera eroritako karta!)
Iritzi (izond.): Eugenio hori kaskagorria eta pertsona iritzia izan behar zuen.
Iritzi/jokabide: Laster zen bera ere besteen iritzi eta jolabideko.
Iritzi/uste: Iritzi bakar dirudien honek lau uste modu ezkututzen ditu.
Iritzi: Esaldi batzuk laburtu egin ditut, zureei luze samar iritzita.
Iritzi: Gauza horri ez nago ondo iritzita.
Iritzi: Iritziak iritzi,...

Iritziz berdintsu egon: Nik neuk ere halaxe uste nuen nire ezjakinean, eta biok berdintsu geundela iritziz iruditu zitzaidan.
Irri: Irriaren giltza.
Irribarre jario: Pozik gentozen, irribarre jario, mendian behera, egun zoragarri baten arratsean.
Irribarre zuri: Irribarre zuriak eta poltsiko beroak zer egiten duten!
Irribarre loratu: Irribarrerik eztieta loratu zitzaion aurpegian gaixoari.
Irribarre-zuri: Noiz arte horren irribarre-zuri eta begi-itsu?
Irika/zirika: Irika eta zirika ekin zion.
Irikor/kilikor: Gure anderea irrikor, izartean kilikor.
Irintziak atera: Hark aterarazten zizkion irrintziak dultzainari!
Irudi: Egunak luzatu ahala haziz joan zen, zuhaitz gaztea irudi.
Irudipenak hartu: Ikusi orduko hartu ninduen irudipen gaiztoak.
Irudiratu: Nork bere gogora irudiratu zituen Eguberrietako gertariak.
Isekagai: Jendearen isekagai.
Isil antzean: Horren berri zerbait jakinda zeudenak isil antzean zebiltzan.
Isil antzeko: Gizon serio isil antzeko horiek dira hizlari egokienak, gustuko lekuan dauden garaian batez ere.
Isil: (iz) Nire isilean egin zuen
Isildu: (gorde) Baina isildu egin nion nekiena.
Isil-gordeko: Isil-gordeko lanetan trebeak (kontrabandistak-eta)
Isilik: Jakituna sarritan isilik, ezjakina isildu ezinik.
Isil-kontu: Ez da isil-konturik inorentzat.
Iskanbila: Iskanbila polita duzue hemen (umeak jolasean).
Istilu ederrik: Baina gauean, etxeratu orduko, ikusi nuen istilu ederrik: haurra negarrez eta ama odolustuta.
Istoria: Bazituen istoria xelege asko, hango jendearenak.
Isur zulo: Bihotzak isur zulo asko ditu: batetik negarra dario, bestetik alaitasuna...
Isuri (iz. Joan): Orduen isuri etengabea.
Isuria: (joera) Errukirako isuria du Jaunak.
Ito behar/ito ezin: Hiru hilabete igaro zituen itor behar eta ito ezin.
Ito: (izond.) Leku itoa (leio gabea, toki itxia)
Itsas barren: Itsas barrenak miatzen.
Itsasmin: Itsasminak daruma arrantzale zaharra kaira egunero.
Itsaso: Itsas sakonean/Itsas axalean.
Itsasoan ardiak: Itsasoan ardiak azaldu dira (aparra: eguraldiaren adierazgarri bat)
Itsugor: Berean itsu, besterentzat gor.
Itsua: Satorrak bezain itsu.
Itsuaurreko: Itsu bat heldu zen, eta ni haren aurrekotzat aukerakoa nintzelakoan,...

Itsuaurreko: Ongi erakustea da beharrekoa, zu hortarako ai zer itsuaurrekoa!
Iturri: Jario handia eta etorri urria, honek antzutuko du gure iturria.
Iturri: Lehen bizi iturri, orain hilerri.
Itxaron!: (bai, baina ez atzendu) Zaude! Egon!
Itxi (bete): Zinemako pasilloak ederki itxi ziren.
Itxiarazi (dio): Hotzak leioa itxiarazi zion.
Itxura guztiz: Sorta ederra, itxura guztiz.
Itxura izan: Lanean ez da itxura negar egitea, baina etxean...
Itxurazko (atzetik): Nire egun itxurazko bat... Batez ere ilargitan edo giro itxurazkoan...
Itxurontzi: Negar ugari isuri zuen hileta egunean itxurontzi gogaikarriak.
Itzal beltz: Auzigela ilunean luzatu-laburtu, loditu-mehartu, dantzan dabiltzan itzal beltzez inguratutik.
Itzal haserre: Orixeren itzal haserre tentatzeko beldurrik ez banu.
Itzal: Itzal handiko gizona zen.
Itzala egin (bizi): Geroztik egin dut munduan itzala.
Itzala egin: Itzala egin beharra dugu egokitzaleok, kontuan har gaitzaten.
Itzalean: Zu fokuen aurrean azaltzeko irrikaz, eta ni itzalean naiz zoriontsu.
Itzalixe: Itzalixe dago orain...
Ixki-ixki: txerriei jaten emateko hotsa.
Ixoka: Bete ixoka dabil gogaikarri hori!
Ixteko (keinua) egin: Atea ixtekoa egin zuen.
Izan, bat izatekotan: Huraxe zen baserri txikia eta nekosoa, bat izatekotan.
Izan/uste: Ez-izan eta bai-uste merkea.
Izan: Bera da gazte hori, hitz, imintzio, ibilera, pentsabide.
Izan: Ez da izango! Bi badira! (muserako erronka). Ba al gara?
Izan: Zu zara zu izatekoa! Hi ere bahaiz, gero! Orain ere badugu!

Izatea: Izen berdin samarrak ditugu, nirea euskalduna izatea!
Izazu (Izan ezazu): Jauna, izazu ene amaren erruki!
Izen ona: (esr. Zah.) Izen ona galdu ezkerro, gauza onik ez espero!
Izen/izan: Izenetik izanera gogoia zubi
Izena lagun: Izena ere lagun darama.
Izerdi larritan: Erabat izaturik, izerdi larritan.
Izerdi: Izerdiaren izerdiz ogia irabazi.
Izter zorro: Izter zorrotik eskua sartu.
Izter: Izter masailak.
Izu eta ikara (adlag.): Lehoi kokkor baten orro isilak txmistak egiten bidali ninduezen gero, izu eta ikara.
Izu: Izu. (Betizu, behientzat. Oso bitxiak dira "tigre betizua edo Itziar betizua" bezalako adierazpideak.)
Izu: Izuak harturik, ilea lazturik, barrabilak kuzkurturik.
Izugarri: (iz.) Baina bere izugarrian (ere), gertaera hartatik bazen zer ikasi.
Izugarri: iz. Bidegabekeriaren izugarria!
Izuturik: Izaturik, non bizi ez duelarik.
Ja ta (Jo eta...) Ja ta akabatuko haut!
Jabe/gabe: Gaurko jabea, biharko gabea.
Jabetu (ardura hartu): Hala guri galdetu ziguten, eta orduan Uztapide jabetu zen eta honela erantzun zien:...
Jabetu (ardura hartu): Urduri hasi zen gertaera kontatzen, eta ni jabetu nintzaion: -Non utzi duzu motoa?...
Jabetu (norekin, -z arduratu): Ikusi orduko jabetu ziren gurekin.
Jabetu (-ri, -z arduratu): Baina laster jabetu zitzaizkigun gazte batzuk.
Jainko: Bihar arte, Jainkoa lagun, anaia!
Jainko: Egun on Jainkoak! Bihar arte, Jainkoa lagun, anaia!
Jainko: Jainkoak bestek ez zekien lekuren batera joan zen.
Jainko: Jainko-min eta Jainko-gose.
Jainkoa lagun! -Nor bestela?
Jainkoak bizi: Jainkoak bizitzen banau (ematen badit bizia).
Jainkoak habon! -Nork bestela?
Jainkoaren gerriko (adkor.): Ostadar
Jainkoka: Ez hasi orain "ene Jainkoka!"
Jainkozko/gizakizko: Egia jainkozkoak ala irakatsi gizakizkoak?
Jaiobizi: Jaiotakoak nonbait behar baitu bizi.
Jaioa ez, abiatua: Orain duen seme hori jaioa ez baina abiatua zuen.
Jaioberri: Jaioberri, itxaropen iturri.
Jakin (aditz laguntzaile): Begi argiak dituenek, badaki urrutira ikusten.
Jakin (aditz laguntzaile): Inoiz eguraldiak laguntzen badaki (laguntzen du) neguan ere.
Jakin (ezagutu): Nik eramango dut, aita, bidea badakit eta.
Jakin (izond.): Bere garai jakinean afaldu eta ohera. Toki jakinean pasatzen dut denbora.
Jakin (izond.): Goizean lagun jakin samarrak ikusten ditut egunero. Hango gaiak jakin samarrak izaten ziren.
Jakin gabe!: Ez ote zekien norena zen? -Jakin gabe!
Jakin/ezjakin: Dena jakin usteko ezjakinak dira horiek.
Jakin: Ez dakizu ondo! Ez dut zurekin ezer jakin nahi.
Jakin: Hainbeste badakizue, eta ez egotzi errua besteri.
Jakin: Nork jakin! Jainkoak daki! Nil al dakit, ba, non!//zer!//nork! Zer dakit, ba, nik non dabilen!
Jakinda egon: Agian izan zitezkeen bakarren batzuk ordurako gauza horren berri zerbait jakinda zeudenak isil antzean.
Jakinean (jakinaren gainean) egon: Oriotar pilotari bizkor hau herrian partida asko jokatu dela jakinean gaude.
Jakin-mindu: Hamar urteko belartxabala ni, jakin-mindua.
Jakintsu: Jakintsuago ta zuhurrago.
Jakite/kalte: Baina jakiteak ez du inorentzat kalterik; batek ez baitaki zertaz behartuko den.
Jan (irentsi): Nola jango dute, ba, kontu xeble hori!
Jan (jabetu): Orduan jan nuen nor zebilen atzetik. Ez zuen jan (zer esan nahi zion). Hango jendeak erraz jaten du bertsoa.
Jan (xahutu): Baserri osoa jan du.
Jan arin: Jan arin antzean ibili ohi naiz.
Jan beharrean: Han erabili zuten jan beharrean (omendua).
Jan/izan: Zer jan, hura izan.
Jan/lan: Lehenik jan, gero lan.
Jan/tripa festa: Hura zen jan festa! A ze tripa festa!
Jan: Hori jan eta jan beti! Hori da jan beharra (hori)!
Jan: Janik onena, urriena.
Jan: Kume hori gaizki janda dago.
Jana/edana: On degigula janak eta kalterik ez edanak.
Jan-garratxa: Neurritz kanpoko parrandak erraz erasaten dio pertsonari, jan-garratxa edo apetitu urrikoa bada behintzat.
Janondo: Janondo txarrak izaten zituen sarri.
Jantzi (ez arropaz bakarrik): Gerora jantzi zen jendea lanean. Buruz ongi jantzia. Borondatez jantzitako jende jatorra.
Jantzi (ez arropaz bakarrik): Umorez jantzi samartu ziren garaian. Orain diruz dezente jantzia egon behar du.
Jantzi (ez arropaz bakarrik): Zahartu naiz eta jantzia nago eskarmentuz. Eskarmentuz jantzi gabeko gazteak.
Jantzi (ikasi, jabetu): Jantzi al zara nor zen?
Jantzi (iz.): Horrelako obrak jantzi handia eman ohi dio herriari.
Jantzi (jakin) Aurpegiz bai, ezagutzen zaituztet, baina ezin naiz jantzi oraintxe nongoak zareten.
Jantzi (jakin, jabetu): Ezagutzen dut, baina ez naiz abizenaz jantzen.
Jantzi eta jabetu: Ezin nintzen jantzi behar bezala, baina letra txikietan zetorrena ikusita jabetu nintzen nor zen.
Jantzi: (apaindu) Honela jantzi zuen Irazu gazteak Argian Manueli egin zioten elkarrizketa.
Jantzi: Artean gazte izanik, ez nuen balioesten amonarena. Gerora jantzi naiz, bizitzaren gorabeheraz jabeturik.
Jantzi: Baietz esan behar, azkenean, ez nintzen jantzi, baina, nor zen.
Jantzi: Eskolaz jantzi zirenak ere ez dira guztiz osatu.

Jantzi: Euskaraz ikasi zuena gurekin ikasi zuen, baina ez da inoiz ondo jantziko.
Jantzi: izond. Ez dut eskarmenturik iritzi jantzi bat emateko.
Jantzi: Mendi eta basoz ongi jantzia. Oroitzapen txarrez jantzi ginen pozaren partez bizitzarako oso gazterik, gerra zela eta.
Jantzi: Mendiak gurutzez jantziak.
Jantzi: Nahi bezala ezin jantzi, alegia (ezjakinaren kezka).
Jantzi: Neure burua jantzi samar ikusi nuenean,...

Jantzia: Etxe jantzia edo jantzitako etxea (Etxe hutsa/etxe jantzia). Etxea jantzi, alaba ezkondu.
Jantziago: Gai horretan ni baino jantziago dago anaia.
Jantziberritu (da, du): Zuhaitzak ere Pazkoetarako jantziberritzen dira dotore asko. Maiatzak jantziberritzen ditu zelaiak.
Jantziberritu (iz.): Hondartza aldeari ere eman omen diote jantziberritu ederra.
Jantzixego: Besteak baino jantzixego zen gai uguritan.
Jardun: Hori da jardun (behar) triste!

Jardunear (txortan): Jardunear harrapatu.
Jarraitu (nori gabe): Eta hizketan jarraitu genion pixka batean.
Jarraitu: Horrelaxe jarraituko dut nik (behin) honezkerok!
Jasa: Tximista jasa ikaragarria
Jaso (izond.): Hain zen familia jasoa eta txukuna.
Jaso alea! (Musean) (Eta eztabaida bukatzeko batak besteari arrazoi duela esanda ironiaz)
Jaso/eman: Zer jaso, hura eman.
Jasotasun: Ez genuen jasotasun handirik izan dendarekin.
Jator asko: Berak eramango diola agindu dit, jator asko.
Jatorria/etorkizuna: Jainkoarengan dugu jatorria, Jainkoarengan etorkizuna.
Jaun izan: Gurea jaun da horien ondoan.
Jaun: izond. "bere mintzairia biziki jauna zuen"
Jaungoiko: Banoa, Jaungoikoarekin batera.
Jaungoikoak bestek: Zenbat kontu gozo esan genizkion biok elkarri, Jaungoikoak bestek ezin lezake jakin.
Jaunka/andreka: Jaunka/andreka hitz egin. Jaun-andreka hitz egin.
Jauzi egin ez egin: Han zegoen beldurak airean, jauzi egin ez egin.
Jende: Handi jendea. Zahar jendea. Gazte jendea...
Jendearen emana: Hura jendearen emana eta arreta berezia!
Jende-mende: Bertsoak, koplak, edozein jende-mendek erraz egin ditzake.
Jesuita eman: Jesuita eman zituen urteetan...
Jesuska: Ene Jesuska hasi zen...
Jira: Ez da jira gustagarria batera (gosari bila, tabernak itxita...)
Jira: Hori da jira hori!
Jo (iz.) Jo ikusgarria erakutsi zuen pilotariak.
Jo ta: Ja ta. Jata akauko diat!
Jo/egin: Inork ez zuen herriko jotzen/egiten.
Jo: Horrek jo du! (Ahitu da aizkolaria, ahitu da botila)
Jo: Ze haizek/haize boladak jo ote du!
Joaldia (bertsolariena ere): Mahaian bertan beste joaldi bat, bertsozaleak ase bitartekoa.
Joan (iz.) Bizitzaren joan gazi-gozaari eutsi.
Joan (zer): Ernio mendira joan nintzen pintxo basora.
Joan/etorri: Joan doazen eta etorri datozen...
Joan/etorri: Nahiz alde batera joan edo bestera etorri, berdintsu beti.
Joan: Burutik joanak dauzkat aspaldiko kontuak.
Joan: Ez dut norekin joan.
Joan: Noan hemendik ziztu bizian!
Joan: Zeruko Aitarekin han dugu joana (alabatxoa).
Joan: Zoaz etorritako lekura.
Joarazi (du): Ortzitik trumoia joarazi zuen Jaunak.
Joera eman: Gure andre horri ze joera eman ote dio? (atea itxita, etxeratzean).
Joera: Are makurtuago eta isuriago irten nintzen joera zaharrera.
Jolas eta jolas ibili: Jolas hutsean ibili.
Jope: Jope!
Josi: Begiraiozu arretaz Jesus gurutzean josiari eta hausnartu Jainko maitasunaren neurrigabetasuna.
Jostagura: (izlag.) Gazte jostaguren artean... Gazte jende jostaguraren artean...
Jostailu (izond.): Neskazahar jostailu baten izaera.
Jota egon: Jota nago (zentimorik gabe).
Jota: Hamabiak ondo(txo) jota etxeratu ginen
Juzgatu (kontsideratu): Geroztik hemen Latasa juzgatzen zuten aizkolaririk onena.
Juzgatu (kontsideratu): Maiatza juzgatu izan ohi dugu urte garairik ederrena. Sermoia arrazoizkotzat juzgatu genuen.
Kabitu ezin: Hori duk kabitu ezina! Hori da inon kabitu ezina!
Kabitu: Baina izugarritzko pena eman zidan gizonaren ibilera baldarrak; mozkortu eta inon kabitu ezinik, jo bater bat eta bestea.
Kabitu: Ezin kabitu bere galtzetan. Kabitu zaitez hor, zeure galtzetan!
Kafesne: Kafesne zopak.
Kaiku/Praixku: A ze kaikua! A ze praixkua!
Kaiku: Demonio kaikua! Ez horixe, kaiku buru!
Kaiola/txoria: Kaiola zabalik daramazu, txoriak ihes egingo dizu. (txilibuak, alegia)
Kaiola: Kaiola egin eta txoria hil.
Kaixo, motel! (lelo gisa): Eta afari galantak eman, dena berak pagatu eta kaixo, motel!
Kaka eta zikina: Oraintxe ere badarabil horrek kaka eta zikina. Hik baduk beti kaka eta zikina.
Kaka: Kakitzat!
Kaka-jario: (kakati) Kaka-jario hori!
Kakaraka: Kakaraka ugari eta arrautza gutxi.

Kakazturik: (Mozkorturik): Erdi kakazturik zegoen.
Kakusain: (kaka usaina darionari)
Kalamidade: Kalamidadea! Juanita Kalamidade. Hi haiz kalamidadea!
Kalaxka: Han ari zen bertsolari usteko mutilzahar kalaxka bat kantari.
Kalaxka: Nik neuk ez daukat jaterik atuna, erdipurdiko kalaxka bat naizelako.
Kale eragin: Kale eragin nion nahita.
Kale etxe: Lehen, baserriak ziren denak, eta orain, kale etxez josi dute Aiete.
Kale/bale: Batean kale eta bestean bale egin dut.
Kale/bale: Kale edo bale!
Kale: Goiko Kale, Beheko Kale, Erdikale.
Kalea zaintzen: Kalea zaintzen ibiltzen da, bere bizioak ordaintzeko.
Kaleak bete: Kaleak bete zetorren manifestazioa.
Kale-beldur: Etxe zuloan sartuta dago beti, kale-beldur.
Kaleberritu: Kaleberritzearen bidez galdu ziren herri barruko ganaduak.
Kaleraka: (pilotan) Kaleraka ibili: huts egin ahala kanpora.
Kalte: Aspaldiko esaerak dio noizean behingoak ez duela kalterik; eta hori horrela bada, gaitz erdi.
Kandela: Kandelaren negarra baino mukitsuago.
Kan-kan, kax-kax (onomatopeiak): Atea kan-kan jo, leihoa kax-kax.
Kanpakiak jo: Ez jo kanpakiak, irabazi baino lehen!
Kanpanbuelta (kanpai buelta): Harri kubikoa, behetik gorako martxan, kanpanbueltaoen antzera erabiltzen zuen gorputzean.
Kanpin denda: Kanpin denda jantzita (zakila tente, alegia)
Kanpo libre: Kanpo libreko plazetan. Eta kanpo librean prestatu afaria gasezko suaren bidez.
Kanpo librean: Eta kanpo librean haize sanoa hartu gainera, osasungarri.
Kanpo/eder: Askori gertatzen zaie hori: kanpora joandakoan, etxea eder.
Kanta/dantza: Kanta eta dantza ari dira etengabe.
Kantari/kalapitari: Kantari ala kalapitari?
Kantari: Iluntzen duenean hasten da kantari, "hemen nago ni".
Karakari: Oilo gosea karakari
Karga: (edana) Karga ederra eraman genuen bart gauean.
Karga: Eraman ahaleko karga eman
Karga-karga egin: Hankak karga-karga eginda dauzka.
Kariñoso: Aingeru kariñosoak azkartzen ditu pausoak, nik luzatzean besoak.
Kartera arindu: Etxea jantzi, alaba ezkondu, gastu guztiak batera; uste dut ondo arindu zela aita zaharraren kartera.
Kaskajo: Baina ez dut uste horretarainoko kaskajoa naizenik.
Kaskamoztu: Kaskamotz utzi.
Kaskar: iz. Hementxe kaskarrean sendo!
Kaskarin: Bizimodu kaskarina gorabehera, bazen haatik zerbait inoiz atzentzen ez zuena:...
Kaskarra berotu (adkor. Erotu): Kaskarra berotu zaio.
Kaskarreko hotzak kendu: Baserri zaharrean han ibiltzen ginen, jo ukuiluko habea eta kaskarreko hotzak kenduta.
Kasketoso: Eguraldi kasketoso honekin...
Kaskoa herdoilduta (adierazkor): Burua motel.
Katapun: Eta katapun erori zen.
Kate motzean: Kate motxean zeukan andrea.
Katu (katuei deitzeko): Mox-mox!
Katu (katuei laztanka): Mixi-mixi-mixi pitxitxi!
Katu: Ez zebilen katurik ere.
Kaxkar: Mundu kaxkar honetan.
Kax-kax/kan-kan: Leihoa kax-kax (jo), atea kan-kan.
Keinuka: Zerua urdin eta eder dago, izar argiak keinuka.
Kemen/atseden: Gaztetako kemena, zahartzaroko atsedena.
Kendu (nork gabe): Izugarriko izotza egin zuen bezpera gauean, eta ez zuen kendu egun osoan.
Kendu (nork gabe): Sei hilabetean ez zuen elurrik eta izotzik kendu.
Kendu: Hemezortzi urte zituen behiak, kendu genuenean.
Kezka iturri: Kezka iturri zen gurasoentzat.
Kezkak airean: Zain zeukan andrea, kezkak airean.
Kezkatu: Kezkatu nago semeaz/semegatik. Kezkatu nauka semeak.
Kezkatuago: Hartu dituzuen erbakiengatik kezkatu, eta iritsi zaizkidan zurrumurruegatik are kezkatuagorik, ...
Kiribil: Sugea kiribil-kiribil eginda.
Kitoan gelditu: Gastuak ordaintzeko adina diru irabazi badugu, kitoan gelditzen gara.
Klasetsu: Orain, lehengo hari klasetsuari jarraituz, elkarrizketa bat berri nahi nuke, aspaldiko pasadizo zaharra hau ere.
Koipe-emaile: (lausengari) Koipe-emaile tuntun halakoa!
Koipe-jario (lausengari, mihi-zuri): Horixe mutil koipe-jario zuria!
Kokoteraino: Kokoteraino naukazu.
Kokots: Kokotsa paparrean sartuta.
Koldar (iz.) Eta denok geuren baitan dugun koldarra garaituta...
Kolkua bete beldur: Aurrera egin nuen kolkua bete beldurrez
Komenentzia: Gaurko komenentziak jarri balitzaizkie lehengo bertsolarietara...
Komenturatu: Komentura joan
Komeria: Dunetara oraindik iritsi ez eta matxura: komeria da, gero!
Konfiantza erabili: Elkarrekin konfiantza osoa erabili ohi genuen nagusi-morroiok.
Konfiantza hartu: Baina bai, ordea, konfiantza osoa bata besteari hartu geniolako.
Konfiantza osoan: Baserriko aitona sartu da elizara konfiantza osoan, eta...
Konfiantza ugaritu: Eta egun hartatik hasi zen bion arteko konfiantza ugaritzen.
Konfiantza: Gu bion arteko konfiantzak ez baitzuen azkenik.
Konfiantza: Konfiantza duzun norbaiti galdetu behar zenioke

Konfiantzan sartu: Eta konfiantzan aurreratxo sartu nonbait.
Konfiantzari eutsi: Elkarren konfiantzari bizirik eustea komeni litzaiguke, ba, zer gerta ere.
Konfiantzazko: Iruñean mediku konfiantzazkoa neukan.
Konfiteak: ardi-kakak, jirafa-kakak...
Konforme etorri: Bera konforme etorri zen nire proposamenarekin.
Konformidade: Konformidade horrek urrea adina balio du: ezer gabe ohiturik, ezer gutxi asko zen guretzat.
Konparaburu: Ez da konparaburu txarra.
Konparazio: Konparazio batera(ko)...
Konpasa galdu: Konpasa galduta, etxea ezin bilatuta.
Konplimendu bat: -Barkatu bizkarra ematea! -Aingeruek ez dute bizkarrik.
Konponduxe: Gauzak konponduxe daudenean...
Konpostura (konponbide, konponketa): Konpostura onik izan ez lezakeen gaitza da zahartzeak dakarkiguna.
Konta(tu) erraz: Eta alde denetatik osatzen direnak baliteke oso konta(tu) errazak izatea.
Konta-ahala: Oso konta-ahalek zuten orduan motorra.
Kontari/kantari: Ez naiz ona kontari, baina ez dut parekorik kantari.
Kontra: Hauze kontra. Mendi kontraraino.
Kontra-adibide: Kontra-adibide bat jartzeko,...
Kontraeskura: Beste autoa kontraeskura sartzen bazaio,...
Kontrako eztarria: Jan eta jan kontrako eztarria bete arte.
Kontu (kalkulu): Gaur bizirik balego, laurogei eta bost urte beharko litzuke, nire kontuetan oker ez banabil.
Kontu (kontuz): Kontu errepideari! Kontu, gero, errepideari!
Kontu (zertan): Kirol kontuan ari naiz idazten.
Kontu axial: Zu betiere kontu axaletan!
Kontu egin: Lehengo zaharrek gauzari kontu egiten zekiten; nekez ekarritako pixkari eutsi egin behar zitzaion eta.
Kontu egina: Gizaki lodikote eta ondo kontu egindakoa zen.
Kontu esan/esate: Kontu esan bat egin genuen. Baina hango kontu esanak bukaerarik ez zuenez, egitekoak ahaztu azkenean.
Kontu isilka: Kontu isilka ari ziren txokoan.
Kontu jan: Andreek bazkaria prestatu bitartean, halako kontu jan bat egin genuen borda atarian.
Kontu zahar: Ez dira oraingoxe kontuak. Ez da oraintzeko kontua. Ez da atzo/gaur goizeko kontua.
Kontu, gero: Kontu, gero, ezer ukitu!
Kontu: Ederra kontua, ez nuen besterik behar. Udan bai ederki, neguan kontuak!
Kontu: Ez dira horiek afalondoko/artazuriketako kontuak (gezurrezko ipuinak).
Kontu: Hementxe, kontu zaharrak berritzen!
Kontu: Kontuak kontu,...
Kontu: Zertan zaude kontu jaten? Jan zopa! (ipuinak irakurtzen edo helduen kontuak entzuten ari den umeari)
Kontua da: Kontua da zer egin halakoetan.
Kontua erabili: Dena dela, bazkaltzeko denboran eta ondorenean erabili genuen kontua franko.
Kontua galduta: Zenbat lekutan izan diren ere, galdua daukate kontua.
Kontua: Atera kontuak!
Kontuz: Eta kontuz inori kalte egin!
Kontuzago: Kontuz baino kontuzago. Kontuzxeago.
Kontuzago: Kontuzago pentsatu behar genuke. Ezin duzu kontuzago egin, zakar horrek?
Kontzientziako harra: Kontzientziako harra piztu dio horrek.
Kontzientziako karga: Kontzientziako karga arindu dio horrek.
Kopako: Afariaren gainetik kafea eta kopakoak.
Kopeta bete: Eta zuzendaria hor gelditu da zur eta lur, kopeta bete zimur.
Kopeta hezurreko hotzik ez: Txakolina edaten hasi eta gero ziren komeri politak: nik ez nuen kopeta hezurreko hotzik.
Kopetako: Idiak uztartzeko larruz eta bigungariz dotore egindako kopetako berriak.
Kopetan azala: Zuk bai duzula kopetan azala!
Kopetaratu: Kezka zuen nabarmen kopetaratua.
Kopla: Horiek ez dute koplari erabiltzen!
Kopuru (Zenbat galderari erantzuteko) Litro kopurua (Zenbat litro? -Lau) (Baina ez energia edo ur kopurua: Lau energia, lau ur)
Korapilo/soka: Hobe da maitasunaren korapiloa askatzea maitasunaren soka etetea baino.
Kordel: Denek batera erabiltzen zituzten arraunak, kordela baino zuzenago.
Korrika: Korrika ta presaka.
Koruratu: Korura joan.
Koska ganbaran: Lepeldar guztiek omen ditek koska dezentea ganbaran.
Koskor: Bai, astoaren koskorrak!
Koskor: Ez dut koskorrik ikusi. Ez al zaik gustatu? -Ezta koskorrik ere!
Kosta (zertan). Kosta zitzaion altxatzen gizajoari. Hitzeman nien, baina gero betetzen kosta.
Kostata: Ederki kostata! Oso kostata ulertzen dut.
Koxka: Hor zegok, ba, koxka!
Koxka: Hortxe daukagu koxka (sasoia joanda), eta berdintzen zaila.
Krema: "Azalfin" krema, azal-finen krema.
Kriskitinak: Erropak erantzi eta ohera sartu orduko, belarriko minak emanda han ziren kriskitinak!
Kristaldu: (botila hustu) Botila ardoa kristaldu.
Kristau (pertsona): Nola kristauak hala animaliak. Kristau-maitalea (txantxangorria).
Kuido: Gaztetxoek ez dute kuidorik, bakarrik utzita ere.
Kuku: Euskal herrietan egiten ziren zenbait itunetan ere, "kukutik kukura" jotzen zuten urtea, zorte onekotzat zeukatelako.
Kuku: Urteko kukua entzun (bizirik irau). Ez du hurrengo kukurik entzungo (hil egingo da).
Kukua isilik: Baina Uztapidek ez zidan ezer esaten; isilik zebilen kukua, dotore samar.
Kukuak jo (zortea izan) Azkenean, kukuak jo du.
Kukuka: Hodei beltzarekin kukuka ilargia.
Kulero-lasai: Animatzaile kulero-lasai horrekin engainatu nauzu.
Kun-kun: Sehaskaren kun-kun hotsa

Kupitu (zertan): Kupitzen ziren neskatxak izan zituen ezbeharretan.
Kurioso (Adlag. Izond.): Kurioso asko jo zidan harpa. Ama zureak apaintzen zaitu hain era kuriosoan.
Kurioso (Adlag.) Jo zidan harpa kurioso! Kurioso asko!
Kurioso (Adlag.): Atzo ez nintzen egon oso kurioso (komunerako premiak eraginik)
Kutsatzeko ere!: Ez dizut inola ere utziko, kutsatzeko ere!
Kutsura: Inoiz amak ematen zigun ogi koskorren bat edo beste ez-titan bustita, hatz muturrak miazten genituen bere kutsura.
Labetik atera: Artistaren labetik atera berria.
Labezomorro: Labezomorroa baino itsusiago.
Laboregintza: Laboregintza oso goi mailan zegoen han bezala beste tokietan. Laboregintzari utzi samartu diote gehientsuenek.
Laboregintza: Laboregintzarako lur sendo eta mamitsuak. Lehen laboregintzan erabiltzen zituzten lurak gaur belardi bihurtuak.
Labur beharrez: Diodan, bada, labur beharrez, zerbait berri agertu dela gure artean.
Labur bezain samur: Saiatuko naiz labur bezain samur esplikatzeko.
Lagun: Lagun on batek bihotzak, gelditu orduko, beste batzuk minberatu ohi ditu sarritan.
Lagun: Lagunak nolako, hi halako.
Laguna izan (-kin): Bizi zinela ez nuen zurekin lagunik.
Lagundu: Niri ere ez da gutxi lagundua.
Lagundu-usteak: Gero ere pena eman zion gu uzteak, artean bazituen lagun-usteak.
Lagunetara joan (lagun artera, alegia).
Laino sare: Laino sare artean ontzi bat begiztatu nuen itsasoan urrun.
Lakar (iz.): Eztarriko lakarrak kendu. Eztarriaren lakarra ezin kenduta.
lakoa (-lakoa egin): Su eman behar ziotelakoa egin zuten.
Lan alferra (alferrikakoa): Ez dirudi lan alferra dakarren mandatu horri begiratzea.
Lan izan: Animalia gaiztoa leziazten lan da. Bareak ez du odolik eta ez hezurrik: sinisteak ere lan du.
Lan izan: Lan da hemen gauzak ondo egiten!
Lan txarrak: Oso lan txarrak ematen dizkio arratoi handi samarrak katu gazteari, dezente hazitakoa izanik ere.
Lan/jan: Lehenbizi lana, gero jana.
Lan: Diru asko egiten zail da lanetik, baina ez zaizu faltako nik dudanetik. Badu aspertzeko adina lan egina.
Lan: Lan gutxi egiten zen han, Olaberrin (soldadutzan), baina ordaintzen ziguten soldatarantz nahikoa.
Lan: Nik lehen ere egin dut gizon baten lana, orain atsedena da behar dudana.
Lana bildu: Biltzen al zaizue lanik?
Lana/eskola: Lana izan du Manuelek bizitzako eskola.
Lana/jana/edana/etzana: Lanak on du jana, janak edana ta edanak etzana.
Lana/ogia: Gaurko lana, biharko ogia.
Lanak eman: Lanak eman behar dizkit erronka honek!
Lan-da lan: Zu parrandan zabilzan bitartean, ni lan-da lan etxerako.
Landare (pilotari berriak): Landare gazte batzuk ba omen datoz, eta esku onetan dago pilota.
Landare (semea): Landaretxo bat ekartzeko modua ere izan genuen.
Landare (seme-alabak): Ez dakit ondorengo landareak zenbat dauzkaten.
Landare: Ikusirikan landaretxo bat lore berriak ematen (Aitonak alabari biloba munduratzean)
Landaretu (adkor): Landare bihurtu adierazteko. (Marrazki bizietan eta)
Lan-deslan: Ez dut uste, bada, Peneloperen lan-deslanean segitzea komeni zaigunik, egunez egina gauzez desegiten.
Landu: Euskarak landu gabe edo landu arin zituen alorretan...
Lanean madarikatzen: Ibilira da mendirik mendi lanean madarikatzen.
Lanean utzi: Ez dit lanean uzten.
Lanerako amorrazioa: Ez du lanerako amorrazio handirik.
Lanerratu: Goizean argi laneratzeko bizimodu aldrebesa.
Lanetz osatu: Lanetz osatuko haizela uste diat hemen.
Langile: Langileak hamaika mantendu behar du.
Langileago: Ni hi baino langileago izan nauk beti.
Lapiko: Gezurrak asmatzeko ere burua behar dik, burua; ez hire lepo gaineko lapiko zahar hori.
Laplasta (izond.) Elur laplasta zegoen. (labaintzekoa)
Laplasta: Lehen lurrean arrastaka, lau oinean laplastaka, gaixoa beti presaka (bilobatxoa).
Lapur: Lapurretan lapurrena.
Laranja: (izond. Kolorea) Batzuk laranjagoak dira.
Lardaska: Umeen lardaska izango da (igogailua hondatuta).
Lardastu: Frogak lardastu
Larratu (nora): Zeuk jakingo duzu nora larratu dituzun ardiak.
Larre motzean: Arbasoen ildotik, larre motzean bizi dira, mundu modernotik urrun.
Larre motzean: Guraso zaharrek ongi zekiten lan klase horietan, larre motzean bizitzen ikasiak zirelako; eta guk ere halatsu...
Larre: Badu bertsoa ezagutzeko motiborik: larre horretatik ugari antzean janez bizitu baita aspaldiko urteetan.
Larri ibili: Larri ibili azkena izaten!
Larri/urri (iz.): Gaiaren larriak eta astiaren urriak orobat eraginik...
Larri: iz. Komunerako larriarekin esnatu nintzen.
Larriak egon: Ni goseak nago. -Ni, berriz, komunerako larriak.
Larru bizian (larrugorrian): Larru bixian dabil, zahato ardoa bizkarrean hartuta.
Larru: Hori da larrua (hori)! Hori da larru gogorra!
Larru: Larruari poz eman.
Larrualdi: Ez lidake inportako larrualdi bat horrekin.
Larrutu: Arrantza ontzi industrialek zeharo larrutu dute aintzira.
Lasai (iz.): Abiatu nintzen, ba, etxe aldera, purua piztu eta lasai ederrean.
Lasai (zabal): Elkartea guztiz lasaia da: toki handia du barruan. Betekada ederra hartu zuen, tokia lasaia izan arren.
Lasaitasun: Kaixo, jaunak! Hori da gizonaren gibela. Gauzak lasaitasun horretan hartzen jakinez gero, ez dago bizi ezinik.
Lasaitasunean hartu: Gauzak lasaitasun horretan hartzen jakinez gero, ez dago bizi ezinik.
Lasaitu (iz.) A ze lasaitua!
Lasterka eragin: Lehen gogotik eragin didazu lasterka.

Lasterka txiki: Lasterka txikian abiatu zen.
Lasterkakide: Zaldia eta zaldizkoa.
Lastimoso: Pena izan zen hura hiltzea hain era lastimosoan.
Lasto-hori: Horiaren eta zuriaren arteko kolorea.
Lastotxapel: Lastotxapel! (lastozko kapela daramanari deitzeko)
Latin: "Latinez, nahiz eta batere jakin ez"
Lau begi: Lau begi! (betaurrekoak dituenari deitzeko)
Lau/hamalau: Emaiozu lau eta kenduko dizu hamalau.
Lau: Lau-lau sardina-bakalau.
Laudorioka: Laudoriotan.
Laukoan (lauoinka): Berebiziko laukoan, zaldi gainean.
Lauso: Lauoa egiten zait begietan.
Laztasuna: Urak harria leuntzen duen bezala leuntzen du maitasunak urteek metaturiko laztasuna.
Lege zaharrera (nola): Lege zaharrera bizi. Bertsoak lehengo lege zaharrera.
Lege: Etxean bazkari legea egin eta berriro lanera. Lehenengo hamaiketako legea eginik,...
Lehen (-z lehen): Garaiz lehen etorri zen. Orduz lehen joaten naiz badaezpada ere.
Lehen/orain/beti: Lehen zen bezala orain ere, hala izan dadila betiere!
Lehenaz gainera: Eta indarberritu da pilota lehenaz gainera.
Lehenengo/hurrengo: Lehenengo eskerrak antolatzaileoi, eta hurrengo ikusle guztioi.
Lehenago/lehen bezalakoa: Burua lehenago daukat nik, baina lehen bezalakoa ez (zahartuta gero).
Lehen-min: Lehen-minez hitz egiten dute ofizio zaharraz.
Leher eragin: Bazter guztiak ikusi beharrez begiei leher eragin.
Leher-eztanda gaizto: Eta arnasbideren bat ireki behar leher-eztanda gaizto egingo ez bazuen.
Lehor izan: Urtaro euritsuan lehor bada, atarramentu onik ez.
Lehorrenekoa: (xuhur) Lehorrenekoa duk hori.
Leial nori: Nori zara leial?
Leihatila/maratila: Leihari leihatila, ateari maratila.
Leku ederrean (aurkako esanahian): Leku ederrean zaude nire esperantzan (bazaude)!
Leku eman: Mahaian leku pixka bat eman genionean, gustura huraxe!
Leku hartu: Pentsamendu batek leku hartu zion buruan.
Leku onean (aurkako esanahian): Leku onean utzi nauzu orain ere!
Leku/desleku: Ez nekien zer erran, hain nengoen leku hartan deslekuan.
Lekuan lekuko: Lekuan lekuko, Azpeitian azpeitiar.
Lekuberritu (lekualdatu): Gurasoek ez zuten poz gehiegi izan lekuberritzearekin; ordurako edadetuak baitziren.
Leku-denborak: Leku-denboren mugak gainditu.
Lekuko izan: Lekuko dut gaur Jauna eskuak garbi ditudala.
Lekutako puntara: Nire maitearekin barrez ikustean, lekutako puntara bidaliko nuke!
Lepo otarre: Lepo otarre handi antzekoak ere bazeuzkan salgai.
Lepo zuztar: Hori da lepo zuztarra!
Letani hotsa (maldizioka): Hura zen letani hotsa!
Lika (izond.): Apoak harrapatu du bere mihi likarekin.
Listu-xirripa: Oka egin, baina listu-xirripa bat besterik ezin bota.
Literatura: Ahozko literatura/Literatura idatzia.
Lizunduxe: Ipuin hori, entzunaren entzunez edo, lizunduxe ageri da, ez du lehenagoko indarrak.
Lo arin egon: Lo arin dagoen artzain helduak, entzunak omen haize txistuak.
Lo arin: Lo arinekoa izan omen zen beti. Gau lehenean bi edo hiru orduan poliki osatzen nonbait.
Lo dudakoa: Ohean ordu mordo bat pasa, nahiz eta lo dudakoa askotan egin. Erdi esna eta ametsetan.
Lo eragin: Lo ederra eragin eskaleari baserriko estalpean.
Lo errea: Biberioa emateko esnatzen duzun haurrak duen lo errea. Umea lo erreta dago, lo egin nahi baina ezin.
Lo gozo egon: Egunsentian ni lo goxo nagoenean...
Lo gozotan: Artzainak eta olagizonak, ordea, ez zeuden lo gozotan, eta iskanbila...
Lo handi: Gure umeak lo handia egin du. Ez zuten lo handirik egingo marinel haiek.
Lo nagi: Jendeari bere lo nagian irauarazteko ez dugu ez dugu kritikaren beharrik.
Lo nahasi: Lo nahasiak ez zidan inongo argitasunik ekarri.
Lo saio: A ze lo saioa egin dudan! Lo (saio) ederra egin.
Lo zorro: Ez genekien kanpoko berririk, eta lo zorroan sarturik bizi ginen.
Lo zorro: Halaxe, gauean lo zorroak ongi bete ahal izateko modu egokia jarri ziguten Arantzazun.
Lo: (haur hizkeran) Lo handia egin. Lo potoloa egin.
Lo: Bi alaben artean sartu behar izaten dut, lo egingo badute.
Lo: Egon hadi lo eta jango duk mehe.
Lo: erbi loa (lo arina)
Lo: iz. Hiru lo eginda, oporrak. (Haur hizkeran)
Loa erakarri: Ezin zuen inola ere loa erakarri.
Loditu: (elurra): Loditu al du, elurrezko panpina egiteko adina?
Lodiz aurrera: Lodiz aurrera sartu digu kortxoan.
Logura: Ohe bete loguraz.
Lo-handi (loti): Lo-handi! (Amak semeari ohetik jaikitzean)
Lokatz mamitan: Bertan gozo-gozo lokatz mamitan krokodiloak.
Lokatz-jausiak: (Lur-jausien haritik) (Lur-jausi: Luizi)
Loratu: Begiak lora-lora eginda (edanak pizturik).
Lore xurgatzen: Erlea lore xurgatzen.
Lore/hosto izan: Zuhaitza lore denean. Zuhaitza hosto denean.
Lore/kolore: Zenbat lore, hainbeste kolore.
Lorea hartu: Udazken lorea hartzen ari dira arbolak.
Loreberritu: Sasoian dauden zuhaitzak erraz ohi dira loreberritu.

Lorraztean joan: Badirudi gauza ederren baten lorraztean goazela.
Lortu: (batzuetan) eskuratu/hartu/bereganatu. (Beste batzuetan ez da beharrezko): Ez du amaitzea lortuko: Ez du amaituko.
Lotara jarri: Baina lotara jarri eta ez ninduen loak segituan hartu.
Lotara/lotarako: Geratu hemen lotara(ko).
Lotoki: (animalientzako logela)
Lotsa izan: Erreka ondoan jaio nintzen ni, ez naiz esateko lotsa.
Lotsa izan: Lotsatu nintzen ederki, asko ez banuen ere.
Lotsa: Nik nuen lotsa apurra oso galdu nuen eta esaidazu zuk noiz izan zenuen. Geuk lotsarik ez eta besteri eman.
Lotsa: Ze lotsa ta lotsaondo!
Lotsa-bideak: Ikusirik neskatzak lotsa-bideak zetoziola...
Lotsagabe (adlag.): Mutikoak lotsagabe erantzun zion.
Lotsagabetu: Noiz lotsagabetuko ote zara apurtxo bat? (Neskak mutil serio bati)
Lotsago izan: Izurriteaz baino lotsago dira lñazioz.
Lotsa-gorritu: Etxera joan da korrika lotsa-gorriturik.
Lotu: Hanka ta beso lotu nuen gizona.
Lozorro: Ez dago Muxarto lozorrotik esnatuko duen ekaitzik.
Lukainka: Lukainka baino luzeago.
Luma-ehiza: Luma-ehizan (hegaztiak eta txoriak harrapatzen)
Luma-zorrotz: Kapuscinski begi-argi bezain luma-zorrotzak...
Lur konpondu/landu: Horretarako (lur lantzeko edo lur konpontzeko) tresnak, gaur oso atzenduta daudenak.
Lur konpondu: Lur konpontzeko garaian...
Lur landu: Lur lantzen. Lur lantzeko-eta ere, aukerako tresnak dauzkate.
Lurmena egin: Lehenengo, elurra kendu: lurmena egin, alegia.
Lurpeko: (asmatura) (Itsaspeko-ren haritik) Lurpeko ibilgailua. (Marrazki bizietan-da)
Lurperago: Satorrak baino lurperago
Lurra/gerra: Lurra non, gerra han!
Lurra gozatu (ongarritu): Haziak ereiteko lurra gozaten ez zen berehalakoan aspertuko.
Lurrera eman: Hanka biak lurrera emanda eusten zion oker-oker egindako zaldiari.
Luzaro gabe: Denbora luzea pasa gabe.
Luzatu (du): Horrexek ere luzatzen du, ba! (Berandu dabil, ba!)
Luzatu (galdera, deia, gonbita): Galdetu, deitu, gonbidatu.
Luzatu: (berandutu) "Zatoz, Jauna, ez luza!"
Luzatzen ari (da, du) Eguna luzatzen ari du/ari da.
Luze adina zabal: Luze adina zabal eseri eta kontu kontari.
Luze erori: Luze erori zen lurrera.
Luze jarri: Luze jarri zituzten errifleak.
Luze jo: Nik uste baino luzeago joko du (kontu honek).
Luze ta mehe: Luzea ta mehea, laster joko duk behea.
Luze/zabal/gora: Metro bat luze, metro erdi zabal eta metro hiru laurden gora.
Luzeko (iz.): Polainak belaunetarainoko luzekoak jantziak
Magaltsu: Neurririk gabe maite dituzu bertsuak, hazi zaituelako ama magaltsuak.
Mahai: Mahaian eta jokoan ezagutzen da zalduna.
Mahaia jantzi: Haien itzalean mahai handi batzuk jantzi ta jarriak zeuzkaten.
Mahaie: Mahaipetik afaldu. (goseak bizi)
Maila iritsi: Ez dut iritsi gizon jakintsuen maila.
Maisualdi: Jesuiten karreran.
Maitasun/gorroto: Hari zion maitasunak uxatu zion besteei zien gorrotoa.
Maitasun/gorroto: Maitasunean hotz, gorrotoan bero.
Maitasuna/Jainkoa: Maitasuna non, Jainkoa han (Ubi caritas et amor, Deus ibi est)
Maitasun-hari: Maitasun-hari ikusezinak lotzen ditu arimak, eta gozaten urrun-minak.
Maitasuntsu: Amona maitasuntsua. Maitasuntsu hazi zaitu magalean.
Maite (maitale): Ardi-maitea da gure aitona oso. Bi lagun elkar oso maiteak.
Maite: (maitale) Baditu nortasuna ematen dioten seme-alaba herri-maiteak.
Maite-: Maite-edabea. Maite-jolasetan ibili. Maite-mintzoa.
Maite-agiri: (aitari semeak) Jaso zazu begi onez, semeak eskaintzen dizun maite-agiritxo hau.
Maiteago: Elkar maite dugu, nork baino nork maiteago.
Maite-alargun: Neska edo mutil zahar
Maiteberotu: Hain eder ziren, haiengana Maitagarriak maiteberotu baitziren.
Maite-hitz: Maite-hitz isil eta samurrak.
Maite-laztan: Zure ezkongaietako maite-laztana.
Maiteminak: Maitemintzen garen bezalaxe ateratzen gara maiteminetatik.
Maite-sutan: Esku hotzak, bihotza maite-sutan.
Maitez: Haren maitez egin zuen dena.
Maiz (izond.): Handik atzera nire pentsamendu maizenetako bat horixe izaten zen.
Maizegiko: Gutxitan mintzen baitu ahoa maizegiko goxoak.
Maiztu (izond.): Karpeta urdin maiztu batean...
Maiztu: Maleta zaharrak heldulekua maiztuta zeukan, haren inguruan behin eta berriro bildutako eskuaren izerdiaz.
Makakorro. Umea makakorro bizian ari zen.
Makal: Ez du zorte makala! Ez hago makala!
Makal-makal: Urruntzen ikusi nuen, pausoa makal-makal, urteen zamak makurtua.
Makalontzi: Orain ere atzetik, makalontzi!
Makur erraz: ez dela makurgaitz.
Maldizioka (maldizioak botatzen): Maldizioka joan ziren.
Malko erraza izan: Txikitan, eta geroxeago ere, oso malko erraza nuen.
Malko/oihu: Malkoaren oihu isila.

Malko: Malkotan zituen begiak. Malkoz hezeak zituen begiak.
Malko-isurtze: Eta ez bihotz-ukitu isila, irribarre goibela, malko-isurtze nabarmena baizik.
Malko-iturri: Begiak malko-iturri.
Malko-jarioan: Oinak haragi bizitan eta begiak malko-jarioan.
Malkortxo: (konkordun) Azpeitiko Malkortxok...
Mamaxa: Hori da mamaxa!
Mamia: Izterrean, mami bigunean.
Mamienean (mami-mamian): Amatasun gaztearen porrotak mamienean baitzion min eragin.
Mandazaintza: Mandazaintzan izen izugarria zen Kakorena.
Mandolina: Astoaren mandolina!
Mantso bezain kontuz: Eta bagoaz oinez, mantso bezain kontuz.
Mantsoagatik: Hark aterarazten zizkion irrintziak dultzainari; lotan zeudenak esnaraziko zituen mantsoagatik.
Mantsoagatik: Mantsoagatik joan zen handik!
Mantsotu: Ibilera mantsotua zeukalako zaharrak.
Manttoni (Maria Antoni): Izeba Manttoni.
Manuelenganatu: Horrek Manuelenganatu ote zuen Eduardo?
Mari: Maripurtzil. Maribandera. Mariberritsu. Maripetral. Mari-mainontzi. Marilapur. Mariapain. Maritxintxarri.
Marigaixo: Beti errukarri eta marigaixo ezagutu nuen nik.
Maritxukeria: Ez zaitez maritxukerietan ibili.
Marka: Markakoa! Markatik fuerakoa!
Marru/larru: Marru asko, larru gutxi.
Marruskatu (iz.): Marruskatu bat eman babarrunei.
Martingala: Hara nolako martingala!
Martxoko lorea: Martxoko lorea, urrea baino hobea; eta apirileko lorea, hutsa baino hobea.
Maskuria: Maskuria hustu (txiza egin)
Mediku ikasi: Zaragozara joan zen mediku ikastera
Mediku: Medikutan ibili da. Medikutara joan da.
Memoria arina: Jaun Zerukoa, indartu gure memoria arina!
Memoria urria: Jaun Zerukoak indartzen badu nire memoria urria.
Mendebete: Orain mendebete,...
Mendeburu: 1. mendeurren 2.mende bukaera.
Menderatu/jakin: Hizkuntza ez dago menderatzerik; ondo samar jakin, gehienez ere.
Menderaxeago: Menderaxeago dauzka orain umeak.
Mendi (izond.): Oso mendia zen, ospela. Everest da mendietan mendiena.
Mendi-mendi: Mendi-mendian jaioa.
Merezi: (dio) Ez dizue merezi ni hiltzea.
Meritu makala: Ez zeukaten meritu makala orduko gurasoek.
Meritu makala: Ez zuten meritu makala orduko gurasoek. Ez duzu meritu makala, aitona!
Mesede: (esaera) Mesedea mesede truk.
Mesede: Egidazu mesede, izan zintzoa!
Mesede: Halaxe, lanak aurreratuta, neuretzat mesede.
Meza: Uitzin ez dun Meza Nagusirik, ez lapur-mezarik (meza laburra), ez Meza ixilik (kantu gabea).
Miatu: Patrikak miatu (zerbaiten faltan).
Miaztu: (iz.) Eman miaztu batzuk aurpegian!
Mihi: Mihi gabeko zintzarria (funtsik gabea)
Mihia leun: Mihia leun erabili (koipea eman, lausengatu)
Mihia/hizketa: Mihia loditu eta hizketa moteldu.
Mihian herdoilik ez: (hiztun egokia) Horrek ez du mihian herdoilik.
Mihi-zikin: Gazte mihi-zikin horiek neure onetik ateratzen naute.
Mihi-zorrotz: Arrantzaleen emazteak, emakume adoretzu eta mihi-zorrotzak.
Mila pasata: Mila pasata bederatziehun hogeita seiko urtean...
Min sor: Hagina zuztarretik aterata gero, min sor bat geratzen da luzaroan, hantxe balego bezalaxe.
Mingain/bihotz: Baina mingainak ezin du esan bihotzak nahi duenik.
Mingain/bihotz: Mingainez ezin nezake esan bihotzak nahi duen eran.
Mingain: Hizketarako ez zuen mingainean ilerik, eta gezurrari izugarrizko gorroto nabarmena zion.
Mingaina dantzatu: Ez daukazu mingaina zertan dantzaturik.
Mingaina luzatu: Zertan ari zara hemen mingaina luzatu eta berriketan?
Mingainez luze: Mingainez luze gaude, arrazoi garbiz motz, gorrotoan bero ta maitasunean hotz.
Mintzo: Mintzo arrotzek totelduta, hemengo bazterrei erabat ederretsita.
Mirari: Zer miraria egunsentiaz konturatuko bagina!
Miseria: Hura zen miseria! Gaur adina gilbor handi ez zen ikusten bazterretan. Gerialde argalagoak erabiltzen zituen jendeak.
Modaberritu: Zeharo modaberritu gara, ordea.
Modago: Gizarte gaiak zeuden modago.
Modu: Aukera handia dago. Zeuen gustukoena hartzeko moduan zarete.
Modu: Betiko ordu moduan jaiki eta lanera. Behin adin modu batera iritsita, hango edo hemengo mina.
Modu: Etxerako moduan da, senda-agiria hartuta. Noranahiko moduan gaude gu oraintxe.
Moduagoan: Halako dendak moduagoan zeuzkan laranjak.
Moduko: Hala, poliki-poliki hasi nintzen neure kasa bertso moduko batzuk moldatzen.
Moduko: Nire adin modukoak. Antsoain hartan baziren bi edo hiru ostatu moduko ere.
Modutsu/Modu samar: Ni hemen ari naizen modu samarrean/modutsuan...
Moduz gainera: 1958an hil zitzaigun alabatxo bat, 17 hilabetekoa, eta moduz gainera (babarrun ale bat irentsita).
Moduzko: Negu beltzean, ordea, asko moduzko giro bihurrietan, pasada latzak hartuko zituzten dudarik gabe.
Moko bete: Moko bete intsekturekin etorriko da.
Moko: Moko meharra, asko beharra.
Moldatu: Eta mediku harexek moldatu ninduen (besteetatik pasata gero).

Moldeberritu: Era guztietara aldatu zaizkigu gauzak; moldeberritu, alegia. Moldeberriturik daude harri klase batzuk: zilindroa...

Morroi: Penaren morroi eginik, hor nabil bizi ezinik, inon ez dut atseginik.

Motosdun: Mototsa duena.

Mozkor/opor: Igandeko mozkorra, asteleheneko oporra.

Mozkor: Mozkortzio (adkor.)

Mozkor-mozkor: Mozkor-mozkor eginda.

Mozkorra bildu: Sagardoak ez duela mozkortzen? Mozkor handiak bildutakoak ikusi ditut nik sagardotegietan.

Mozorro: Untxi mozorroan aurkeztu zen. (Bainu jantzian bezalaxe)

Mozorrotu (zer): Zer mozorrotu zara? -Moja mozorrotu naiz. (Jantzi bezalaxe).

Mozorrotu: (zer) Fraide mozorroturik ibili zen egun osoan.

Moztu/josi: Ileak moztu, laguntasuna josten (ardiei ilea moztu elkarri lagunduz).

Muki: Mukiak gogortzeko moduko hotza.

Muki-jario: Hago isilik, muki-jario!

Mundu kaxkar: Hementxe, mundu kaxkar honetan!

Mundu: Bukatu dira haren munduko egunak.

Mundua mundu deino: Erabaki gabe dago auzia eta horrelaxe irauko du mundua mundu deino.

Munduak bizi: Munduan bizi zen eta munduak bizi zuen.

Munduko lanak: Egin ditu mundu honetako lanak.

Mundutasun: Mundutasunak itsutu eta ez daukate federik.

Musika ari: Eta ari den musika harrigarria denean, ez die inork hitzei jaramonik egiten.

Musubero: (musu zalearentzako ezizena)

Mutikoa hasi: Oso mutiko txikia hasi nintzen bertsotan.

Mutil egon: Botikan zegoen mutil.

Mutil izan (gai izan): Hola moduzkoak tentatzen mutila zen Zepai zena.

Mutiljale: Neska mutiljalea.

Mutu (iz.): Bere mutuan, ordea, ez du mintzoaren beharrik oraingo bizitzaren alegia azaltzeko.

Mutu (iz.): Soinua eta hitza agertu zirenean zineman, lehengo mutuan irau zuen Charlotek.

Mutu egon: Igandean mutu egon zen organoa elizan.

Mutur: Txorizo mutur, odolki mutur, ogi mutur, paper mutur...

Mutur-beltz: Ikazkin mutur-beltz aho-handi bat.

Muturrak hautsi: Nora doa hori muturrak hautsi beharrean?

Nabarmen eduki: Ni probatu nahia nabarmen zeukanez.

Nabarmenegi (iz.): Kasuaren nabarmenegiak halaxe eskatzen duelako.

Nagi/erruki: Haserrera nagi, errukian oparo.

Nagi: Oroimen nagia.

Nagusi Joakin: Konturatu da nagusi Joakin, elkarri esku eman diogu eta...

Nahaian jarri: Baserriko gazte jendea dago kalera nahian jarria.

Nahasi: Maria eta ahizpa nahasi nituen. Etxez nahasi naiz.

Nahasi: Tokiz nahasiko zen eta beste norabait joan. Txerriak ardiekin nahasiko zituen!

Nahasketari: Nahasketak egiten dituen teknikaria

Nahi (nora): Batzuek mendira nahi dute, beste batzuek hondartzara, eta denak noranahi kanpora irtetekotan

Nahi (norekin): Zurekin nahi nuke lagun. Amarekin nahi du, ez beste inorekin.

Nahi (nori): Ez dakiola Jainkoari nahi. Nahi dakiola Zeruari gu oker egotea.

Nahi (zer): Ez naute errege nahi. Hori nire lekuko nahi dut; zaindu ongi!

Nahi ez eta: Besteek nahi ez eta utzitako lanak.

Nahi ta ezin: Edozeri helduko dio, ase nahi ta ezin.

Nahi/ezin: Nahi ta ezinean. Nahi ta ezin hartan...

Nahi/galdu: Dena nahi, dena galdu.

Nahi: Hik bai nahi! Nahi luke!

Nahi: Lanari ekin beharra zeukan, haiengandik libre nahi bazuen.

Nahigabez aberastuak: Nahigabez aberastuak (bizitzako egunak).

Nahikeria: Nahikeriak edertzen ditu gauza itsusiak.

Nahiko lan: Inoiz egin ote du holakorik? -Nahiko lan!

Nahiko/gehiegia: Nahikoa eta gehiegia.

Nahiko/nahitaezko: Nahi izatea ez da nahikoa izango, baina bai nahitaezkoa.

Nahikunde: Nahikundeak, neguko loreak (iraupenik gabeko asmoak).

Nahita ere: Etxera joan nahita ere, ezingo genuke.

Nahitako/halabeharrezko: Agian nahitakoa, agian halabeharrezkoa.

Nahiz: Herriko guztiei, gizaseme nahiz emakume, eman zien jatekoa.

Naizentxo: Zuengana neu naizentxo hau bidali naute.

Negar atertu gabe: Hiru egun egin zuen negar atertu gabe.

Negar egin (dio): Hiltzat negar egin dizugu. Israelgo alabak, egiozue negar Sauli (hil da eta).

Negar handi: Jendeak are eta negar handiagoak egin zituen orduan.

Negar saio: Negar saio ederrak egina zegoen ordurako; ezin betaurrekoek estali inola ere.

Negar: Negar batean lehertu zen. Negarretan urturik. Zu negarrerako zaude beti, ala?

Negarbide: Eta badu negarbide oraingoan, inoiz izan badu.

Negargarri (adlag.): Negargarri jotzen zuen.

Negargarrikeria: Hauxe da negargarrikeria! (konponbide oso zaileko egoeran)

Negar-muxin egin: Arren erregutzen dizut -negar-muxin egin zion kapitainari- ez nazazula...

Negarra jo: Hori beti bezala negarra jotzen: amatxo, amatxo! Negarra franko jo zidan gau hartan.

Negarra lehertu: Berehalaxe lehertu zitzaidan negarra begietara.

Negar-samur: Begiak negar-samur.

Negar-zoria: Negar-zoria sentitzen du hau ikusten duen guztiak.

Negar-zotinka: Negar-zotinka ari zen umea etengabe.

Negu: Negua da, bazter guztiak lokatza, eta hotzaren hotzez jendea.

Nekatu (ironiaz): Zu ez nekatu atsegin izaten, ee!
Nekatu (iz.): Nekatu ederra hartu du!
Nekazari (izond.): Europa nekazarian...
Neke (izond.): Inguru polita Orixe, etxez ez hainbeste; lurrez oso nekea lanerako.
Neke izan: Baina neke dut sinesten oraingo hau baino zinezkoagoa zenik.
Neke zale: Mendiak baino estimazio handiagoa du gaur kaleak; eroso bizi ahal bagintezke, ez gara neke zaleak.
Neke/atseten: Beraz, nekea ugari eta atsedena urri, hara nola den langilearen bizimodu behartsua.
Nekea indartu: Nahiz eta buruan nekea indartzen doakidan,...
Nekea probetxu: Toki ederrean zeuden! Disgustu galantak hartu eta nekea probetxu. Hara hor bi gauza alferrikakoak!
Neke-oinazeak: Neke-oinazeak eraman.
Neke-saria: langile iaio eta adoretuari zor zaiona.
Neketan egon: Zu neketan zaude horrela, eta eseri hemen, mesedez! (umearekin zegoen amari trenean)
Nekez/seguru: Nekez baina seguru.
Nekezago: Nekez baino nekezago.
Nerez: Aspalditxoan oriotar naiz, baina nerez ni leitzarra.
Neska-laguntza: Neska-laguntza egin. (Neskari etxeraino lagundu festa bukatutakoan)
Neska-usain: Neska-usainean zetozen herriko mutil gazteak irrikaz.
Neuago: Ni neu baino neuago zaitut, Jesus!
Neure ezjakinean: Zertarako, ordea? Nik horixe galdetzen dut, neure ezjakinean.
Neurriak beterik: Eta denak zeuden neurriak ongi beterik edo gehiegi edanik.
Neurriak: Bi metro luze-zabal eta hiru gora.
Neurriko jale: Handian ez da zenbait adinako alea, mantentzeko erraza, neurriko jalea.
Neurriko trajea: Uztapidek pertsona bakoitzari neurriko trajea laster josten zion (erantzun egokia emanda).
Neurritsu: Bizimodu neurritsua eraman.
Neurritsu: Irlandaren neurritsuko uhartera da.
Neurtu (auzoak): Auzoak neurtzen ibili gabe, etxean bada zer egin.
Neurtu: Baina nork neur lezake ama onaren handitasuna norainokoa den?
Ni agerian: ni alaia, ni serioa, ni hiltzuna, ni isila... Zein naiz ni neu?
Ni bai: Ni bai harritu hori ikustean! Ni bai, zer ote zen gaineko aparra!
Ni behartu: Ni behartuz gero, itsasoa lehor.
Nik al dakit: Erbitan, basaurdetan eta nik al dakit zenbat klasetan, ziur esateko.
Ninia: Oinez hasia da; ez da ninia.
Nire (atzetik): Nahiko lo egin al duzu, Manueltxo nirea?
Nire atzapar: Utzi nire esku, edo hobeto esan, nire atzapar!
Nire motzean: Aise ikasiko duzu, neuk ere ikasi nuen eta, nire motzean.
Nireak eta bi: Osasunez gazterik bihurtu nintzenez. Ikusi ditut nireak eta bi.
Noiz behar: Hantxe egoten zen autoa, amak noiz behar.
Noiz iritsiko egon: Udaberria noiz iritsiko zeuden herritar guztiak.
Noiz, eta: Noiz, eta garairik okerreanean.
Noiz/nola/non: Kantatzen zenekien noiz, nola eta non.
Noizean behingo (noizko): Gauza politak noizean behingo.
Noizko: Eta hor daude jasota liburuak, biharko edo etziko, inork irakurri nahi baditu.
Noizko: Hogeita bi urte nitueneko hasi nintzen sagardotegietara sarri joaten.
Nola hitz egin ikasi: Pulpitotik nola hitz egin guztiz ondo ikasia.
Nola: Eguraldi ona denean, itsasertzeko harkaitz-mutur batera joango zaizkizu taldeka, galtzak zuri eta gerrikoa gorri.
Nolabait (gutxiespen zentzua): Osasunez nolabait zebilen. Beti lo faltan eta nolabait.
Nolabait antzean: Goizean nolabait antzean hasi baginen ere, gero gauzak bideratu zitzaizkigun eta kontentu.
Nolabait antzean: Oheratu eta jira ta bira hasita, ezin gustuko tokirik bilatu pertsona nekatuak, nolabait antzean dabilenak.
Nolabaiteko (gutxiespen zentzua): Baina nolabaiteko giroa gertatu. Nolabaiteko bizimoduaren jabe eginik.
Nolabaiteko (gutxiespen zentzua): Egun onak, erdipurdikoak eta nolabaiteko samarrak gertatzen zaizkio bertsolariari.
Nolatsu/halatsu: Aitak nolatsu, halatsu egiten zuen semeak lasterka.
Nolatsu: Hara nolatsu den kontua. Hortik pentsatu nolatsu ibiliko ginen. Ni ere basoan ibilia eta banekien nolatsu erantzun.
Nolatsuko: Eta bazekien nork nolatsuko moldea zuen kanturako.
Non (nora): Lehenago ere inoiz nire iritziak oso urrutietan dira iritsiak.
Non aterako, eta: Non aterako, eta hantxe!
Non edo nondik: Kostata baina eskuratu zuen jatekoa non edo nondik.
Non eta zenbatekoa: Oso garrantzitsua da zuloa non egin, eta zenbatekoa egin.
Non gorde ere (edonon gordeta ere): Non gorde ere, harrapatuko haut.
Non ilundu han ostatu: Azkenerako gelditu ohi da non ilundu han ostatu.
Non zer: Egunero gabiltza non zer gertatzen den.
Non zer: Eta non zer komeni den asmatzen zaila. Non zer gerta litekeen ez dago esaterik.
Non, eta: Gaixoa, non etorriko pozik etxera, eta itsasoan ito!
Non/nondik: Janaria non dagokeen eta arriskua nondik datorkeen begira.
Non: Non amuarraina izango, suge handi bat izan. Non hamarna duro emango, hogeina eman.
Nonahi izan: Eta ni hurrengo lanari ekiteko amorratzen, nonahi izan.
Nonahi/zernahi: Nonahi zernahi aurkitzeko irrikaz.
Non: Non amuarraina izango, suge handi bat izan. Non hamarna duro emango, hogeina eman.
Non... Eta: Gaixoa, non etorriko pozik etxera, eta itsasoan ito.
Nonahi izan: Eta ni hurrengo lanari ekiteko amorratzen, nonahi izan.
Nondik den: Koraza bat ere bazen, nondik begiratzen den.
Nontsu: Lagunak bazekien nontsu galdu zitzaion. Asto hau nontsu hartu duzun badakit.
Non-zer: Non-zer bila dabil hori beti.
Nor baino nor: Bi alaba zituen neska zahar, nor baino nor! Bi seme ditu nor baino nor alferrago.
Nor eta zerekiko: Gaingiroki, nor eta zerekikoetan gehiegi sartu gabe.
Nor eta / Nori eta: Nor eta gu eskolatu honek? Nori eta guri erakutsi behar kontu horiek?

Nor izan: Nor zenak egin zuelako eta kito! Baina inork, nor den inork alegia, ez du horretaz ezer esan.
Nor izatera: Aitak, nor izatera, lagunduko zion arriskutik irteten.
Nor: Nor bere poetan bizi du.
Nor zer: Berak esan zigun nor zer zen.
Nora gabe: Hizketa nora gabe dabil, atzera eta aurrera.
Nora / Hara: Zu nora joan, laguna ere hara.
Nora (iz.): non denborak ez baitzuen norarik.
Nora joan: Nora joanik ez dut. Ez dut nora joan handirik.
Norabait kanpora: Norabait kanpora zihoazela ziruditen.
Norabaiteko: Igande gutxi izaten ditu norabaiteko deirik gabeak.
Norabide / noraez: Norabideak noraezean galtzen.
Norako: Norako gabe aurkitzen naiz eta garai beranduan.
Norbait izan: Bada norbait horixe!
Norberago: Norberago izan.
Nori begiratu: Haurrek behar dute nori begiratu (eredutzat).
Nori zer: Baduzu zeure baitan nori zer eskaini, nori zer erakutsi. Atera ezazu hori kanpora.
Nori/Hari: Nori begiratu, hari eman.
Nori: Nori berea Jainkoaren legea.
Nork beretik: Nork beretik ematen du.
Nork eskatu: Izango da nork eskatu.
Nork zaindu: Zaintzaile behar zaitut hemen, bi horiek beharko dute-ta nork zaindu.
Nork: Izango da nork eskatu.
Nortsu: Handik erraz jakin lezake lehengo bertsolari zaharrak nortsu ziren. Baina lehen ere hori nortsu den jendeak badaki.
Nuenetan (nuenean): Basoan mandoak kargatu eta bideak behera zetorrela sumatzen nuenetan...
Obligazio/debozio: Aurrena obligazioa, gero debozioa.
Odol jaitzia: Odol jaitzia izango du dudarik gabe, eta ferra askatu.
Odola esne / bihotza ezti: Odola esne bihurtzen zaio eta bihotz goxoa ezti (amari haurarentzat)
Odol: Odola hoztu (hil)
Odola ur: Hori entzunda, odola ur bihurtu zitzaion. (beldurtu)
Odolberritu: Odolustuta gelditu zinen bertan hiltzeko moduan; Donostian odolberritu eta esnatu zinen orduan.
Odol-egarri (izond.): Izaki erabat odol-egarri honek...
Odolkiak ordainetan: Odolkiak ordainetan izaten dira, gero!
Odolkien ordaina: Nik erakutsiko diot odolkien ordaina zenbatekoa den!
Ogi: Karta jokoa eguneroko ogia bezalatsu erabiltzen dute batzuek.
Ogi: Ogi biguna bezain gizon gozoa zen bere izatez.
Ogi: Urte haietan hain urri ginen ogiz, botika bezalatsu erabiltzen genuen.
Ogia/lurra: Bi gauza eskatzen dizkizut, Orio samurra, biazitzeko ogia eta hildakoan lurra.
Ogia: Eskaleak han eta hemen, emandako papurretatik eguneroko ogia osatu nahian.
Ogiak mantendu: Bera den baino baldarragorik ez du mantentzen ogiak.
Ohartzenago: Egunetik egunera ohartzenago naiz joan zaidala aspaldiko sasoa.
Ohe gorri (ohe jantzi gabe): Ohe gorrian etzan.
Ohe zuri: Ohe zuri batean jaio nintzen eta ohe zurian nahi nuke hil.
Ohe: Hil-ohe. Oinaze-ohe.
Ohe: Ohe beroak gosari hotza.
Ohea berotu (lo egin) Eta han berotu nuen ohea, egun batzuk lehenago Joseba Elosegik utzi zuena zen.
Ohea egin, askatu eta jantzi: Baina ni ez naiz bestek egindako ohean sartzen, askatu eta nire gustura jantzen dut.
Ohezulo: Loti (Etxezulo-ren haritik)
Ohoratu: Errege handitzat ohoratzen zaitugu.
Ohore-gose: Ez zen ohore-gose; ez zen txalo bila ibiltzen den horietakoa.
Oihu haserreak: Oihu haserreak isilarazi.
Oilagor/gor: (Hitz jokoa) Oilagorra baino gorrago.
Oilaloka: emakume zaratsua.
Oilanda: neska gaztea.
Oilo gosetua: Hara hor oilo gosetua kantari (mutil zahar dirurik gabea ostatuan) zertsu komeni zitzaion adierazi nahian.
Oilo ipurdi: Oilo ipurdia jan du. (Hiztunaz edo berritsuaz esana)
Oilo/pixa: Oiloek pixa egin arte.
Oilo/txori: Nahi duenak luzaroan bizi, oiloekin ohera ta txoriekin jaiki.
Oina hutsari eman: Oker neurtu, oina hutsa eman eta eroriko latza izan zuen.
Oinbide: Oinbide ederra zegoen paseatzeko.
Oinezko/zaldizko: Eta neska horri zer gertatu zaio? Esaerak dioena: oinezkorik nahi ez eta zaldizkorik etorri ez.
Oinezko/zaldizko: Oinezkoari muzin, zaldizkorik atzeman ezin.
Okela: Okela gutxi ta salda ugari.
Oker jo: Kukuak ez-ezik, galeperrak berak ere bazekien oker jotzen.
Oker pixka bat: Aizkora onena hautsi du, eta oker pixka bat izango du orain.
Oker: Okerrik ez bada.
Oker-antxean: Lehengo lepotik du burua. Eta oker-antxean, gainera.
Okerrago: Eguraldiak okerragora egin zuen.
Okerragotu: Arazoak okerragotu. Ez dago egoera okerragotzerik.
Olatu (haize olatu): Haize olatuak eta euri erauntsiak ito behar, eta aurrera pausorik eman ezin.
Olatu (jende olatu): Arratsaldeko jende olatua zen hortik honerakoa!
Olde eta molde: Hizkuntza bakoitzak bere olde eta moldera antolatzen du kolore zatiketa.
Olioa erabili: Horri gehitu behar zaio handiekin ondo geratzeko erabiltzen zuen olioa.
Oliotu: Sagardoa oliotu
On beharrez: Zuk hala diozu nire on beharrez.
On egin: Egizu on, begiratu gabe non.

On zale: Eta badakizu besteak ere gure on zale direla.
On-gaitzak: (onak eta gaitzak) On-gaitzak aztertu lehenik, eta gero ekin.
On/gaizto: Onik batere ez dauka, gaiztoa kenduta.
On/txar: Baina aipatu ditudan hauetan aizkolari txarrik alerik ez zen izango, onak eta hobeak baizik.
On: Onak gara, ba! Onak gaude, ba, besteri ezer opatzeko!
Onartu (nor zer): Eta herriak buruzagi onartu zuen.
Ondo batera: Ondo batera iritsi dira, ba!
Ondo behar: Ez duzu ondo behar, orduan!
Ondo egin: Haur guztiei ondo egiten zien.
Ondo/gaizto: Ondo eginda, esker gaiztoa azkenean.
Ondo/hobeto: Ondo zaude? -Hobeto nahi.
Ondo (oso): Ondo gazterik hil zen. -Zer moduz, ondo? -Ondo gaizki!
Ondo: izond. Ai, Nora, Nora, ondo emakumea zara!
Ondo: Oraintxe ondo! Orduantxe ondo!
Ondoa: (ajea, biharamuna) A ze ondoa daukadan!
Ondobidean: (dena ondo doala) Ondobidean, ezkur honek kortxoia emango du hemendik hogeitaz urtera.
Ondo-bizi: (izlag.) Jende ondo-biziaren seinalea.
Ondotxo: Hamabiak ondotxo jota etxeratu zen. Ondotxo dakizu zer gertatu zaion.
Ondoz ondoko: Hantxe zeuden, ondoz ondoko, ni bezalaxe izozturik.
Onean/txarrean: Onean, nahi duzuna; txarrean, ezer ez.
Onegi/gaiztoegi: iz. Ni onegiak galdu nau, eta zu gaiztoegiak galduko zaitu.
Onena: Onenak emanda dago.
Onetik hobera: Janari goxo bila onetik hobera.
Onez/gaiztoz: Onez zatozte ala gaiztoz?
Ongarri (onerako): Gurutzean gure ongarri bizia eman zuena. Nik poz bakarra dut oraintxe: herriaren aritu izana.
Ongi jaiok: Bestela, itsua badabil itsumutil, ongi jaiok gaude.
Ongi nahi Gero ez dakit nork lagunduko didan, eta nik denekin ongi nahi dut.
Onik ez: Ez zuen dena egin arteko onik izan. Dena kontatu arteko onik ez. Ez zuen huraxe egin gabeko onik.
Onik ez: Diru pixka bat duenean, ez du xahutu arteko onik izaten.
Onomatopeiak: Oilarra kukurruku, amona purra-purra, oiloa kla-kla, oilaskoa kle-kle, txita kli-kli, koloka klo-klo, oilanda klu-klu
Ontzeko belar ebakitza: Goiz batez ontzeko belar ebakitza joan nintzen.
Ontzi: Makalontzi! Alferrontzi! Ergelontzi! Mainontzi! Kakontzi! Pixontzi!
Opa: Ez nion, ba, nik horixe opa! Horrexek ez dio besteri ezer opa.
Opari: Samurtasuna dario sufritzen ikasiari, eta ikasi gabearen aurrean "ikasiko ahal du!" ateratzen zaio bihotzetik opari.
Opil/ikatz: Nork bere opilari hurbiltzen baitio ikatza, ez besterenari.
Opor egin (jai egunak ostatueta pasa baseritarrek): Hortik datorrela opor kontua dio J.M. Lertxundik.
Orain aurreko: Orain aurreko gau batez. Haien berri ez nekien, eta orain aurreko batean haraxe joatea pentsatu nuen.
Orain hurrena/hurrengo (Azkeneko(z)): Bertsolariak orain hurrena/hurrengo etorri zirenean...
Oraindik aurrera: Oraindik aurrera segitzeko asmoan dela diote, ezerekin ez badu.
Oraindik oraintsu: Amets bat egin nuen oraindik oraintsu. Oraindik oraintsuko kontua da.
Orainengo: Orainengo ikusi nuenean, itsutu samartuta zegoen. Bardem-en orainengo saioa, La Venganza, ez da hemen agertu.
Oraingo (noizko): Premiak neurtzeko daude, oraingo eta etorkizunerako.
Oraingotu: Axularren hitzak oraingotu ditut.
Oraingoxeko ez (aspaldiko): Ez da oraingoxeko kontua.
Oraingoz (orain): Lehen, noizean behin jokatzeko omen ziren txapelketak; oraingoz, berriz, ugariturik daude.
Oraingoz ere (Orain ere, oraindik ere): Bertako jendeak lehengo hizkuntza zaharra erabiltzen du oraingoz ere.
Orain-oraintsu: Orain-oraintsu izendatu dute.
Oraintsu: Hementxe izan da oraintsu ordubete. Oraintsu hila izan behar du.
Oraintxe/oraintxe: Oraintxe kikildurik, oraintxe ausart: xelebrea da, gero!
Oraintxe: Aspertu naiz oraintxe. Ez da oraintxe asko falta. Ez dakizue oraintxe zer asmatu.
Orbela haizetan: Egun hona bihar hara ibiliko gara, orbela haizetan bezala.
Orbeldu: Belardi bat dago, orbeldutako garoz erdi estalia.
Orbelpe: Orbelpean ezkutatu da.
Ordaindu (nor nork): Zuk nola tratatzen duzun, hala ordainduko zaitu lurrak.
Ordaindu (nor nork): Ezin ordainduko zaitut inoiz, ama, ahalegin guztiak eginda ere.
Ordain-opari: Emaiozue zerbait ordain-oparizat Jainkoari eta sendatuko zarete.
Ordez: Eskola bila, presondegi ordez.
Ordu arte: Afalordu arte!
Ordu txikiak: Hartantxe ari ginela, ordu txikiak iritsi.
Ordua zaindu: Baina zaindu zuen bere ordua jai beharrez zegoenak.
Orduan eta: Baina isildu gabe ari zen, burua gora jasota, inork kasurik egiten ez zionean eta beroago.
Orduan: Ordu-orduantxe.
Orduko: Eskura orduko ahora.
Orduko: Hara orduko ordainduko dizut dena.
Ordurik gabe: Ordurik gabe egiten genuen lan guk.
Ordutsu: Ordutsu honetan pasatzen da beti lanerako.
Oro: Oroikusle eta orojakile.
Oroigailu: (Marrakiz bizietan, oroitarazteko tresna bat)
Oroigarri: Argazkia atera nahi izan dute oroigarri(tzat).
Oroimen/oroimin: Alaba zenduaren oroimenez eta oroimenez jarri zion izen bera hurrengoari.
Oroimena: Oroimena, aintzirako lokatza bezain arrea.
Oroimin/jakin-min: Manuel beti galdezka, mugagabearen oroimenez, sorreraren jakin-minez.
Oroitez: Eta zenbait urteren buruan, oroitezaren osinean betiko hondatuko direnak.
Orotariko: Komunikabide zabal eta orotarikoaren eginbeharrak...
Orpo: Orpoak erakutsi (ihes egin)

Orpoz ipurdi: "eta patroiak herritik orpoz ipurdi ihes egin behar izan zuen" (Jesus M. Mendizabal)

Orratz: Orratza lastategian aurkitzea baino zailago.

Orriari orri: Orriari orri, halako batean... (A. Lertxundi)

Orri-pasa: (Denbora-pasaren haritik) Liburuaren orri-pasan.

Osasunean egon: Oraindik bizi da eta osasunean dago.

Osatu (-tik, -kin): Lanetik ongiosatzen ginen. Nire erdararekin ez zegoen osatzerik.

Osatu (zertan): Bapo osatu zirela ziruditen bertso entzuten.

Osatu (zertaz): Urte guztian nola osatzen garen kezka eta lanez.

Osatuak egon: Soinu jotzailea ere bazuten taldekoa eta osatuak zeuden parrandarako.

Oso maite (asko maite): Oso maite zuen.

Oso: Denak atean ikusitakoan harritu egin naiz, jakina, oso harritu ere.

Oso: Oso gaixotu zen.

Ospe eman: Emaiozue ospe Israelen Jainkoari.

Ostatu: Non gertatu, han ostatu.

Ostatu: Ostatuko kontuak (gezurreta ipuinak)

Oste/Ondo: Ze uste ta ze usteoste! Ze uste ta ze usteondo!

Ostia: (Ostia-ren aldaera leungarria).

Ostikada: Ostiladak hautsa jasotzen du, uztarik ez.

Ostrukategi: (Oilategi-ren haritik)

Ote: Etsaiei berria iritsi ote zaien, horrek kezkatzen nau ni.

Ote: Ezti bila etorrita, adi-adi aztertzen ditu inguruak, erle pila ikusiko ote.

Ote: Gerra ote datorkigun larri gabiltza denok.

Otoi/ahalegin: Jainkoari otoi eginez, eta beharrari ahaleginez.

Otso: Orain otsoko, gero otso.

Pa eman: Patxoak (musutxoak) eman. (Haur hizkeran)

Pago: Pagoari intxaurrak eskatu

Pago-lizarrak: Pago-lizarren artean...

Pagotxa/gorotza: Eskolako egitekoa, pagotxa; bertara joan, eta gorotza.

Panderoa astindu: Panderoa ederki astindua omen du (trumoi indartsu baldarrak) harriz eta euriz.

Paola (Parabola-tik ote dator?): Nahikoa diagu paolatik! Haren paola lehorrak!

Paper (egunkari ta aldizkari): Paperetan ikusi zaitut.

Papereratu: Zintako bertsoak papereratu.

Paper-mutur: Paper-mutur batean idatzi zuen.

Papo (haur hizkeran): Papo mina! (laztanen bidez sendatua)

Parean: Izen famatuen ondoan, eta parean Manuelentzat, ezezagunak.

Paretari jardun: Horri jardutea paretarik jardutea bezalaxe duk.

Paretik: Kendu paretik! Kendu ate paretik!

Parrokia (bezeroak): Parrokia handia nuen ferratokian.

Parte oneko: Hau ez da parte onekoa!

Partiketa: Ezker-eskuin hasi zen partiketan (zaplasterkoak)

Pasa (non): Apirilean Goizuetan pasa ginen, eta handik Hernanira bitarteko erreka agortu samartua zegoen.

Pasa (non): Ezagun dut kolorean pasa nintzela lorean.

Pasa (-z): Pasa zen gaztetasunez.

Pasada: Gosari pasada eginda.

Pasadizo: Pasadizo bat kontatuko dizut, oso barregarria.

Pasaera: Pasaeran etorri naiz, zuri bisitan.

Pasa-pasa: Haren aurpegia ikusi behar zenuen: pasa-pasa eginda zegoen!

Pasatu (zer): Lau urte pasa nituen Eibarren ferratzaile.

Pasatuxe: Pasatuxea da hemengo festa.

Pasatxo: Hiru urte pasatxoan aritu zen han lanean.

Patata zuloa: Egundoko patata zuloa zeukan poltsikoan/galtzerdian...

Patroitz: Nik bezain ondo dakizue bere patroitzaren berri arrauean.

Pattal: Pattal samar dabil aspaldian.

Pausoa aldatu: Baina oso gaizki zebilen, inondik inora pausorik aldatu ezinik.

Pausoa bakan: Etxe azpiko aldapan, pausoa ematen du bakan (mozkorturik).

Pausotik pausora: Txoria aldatzen da basotik basora, bai ni ere, Manuel, pausotik pausora.

Pega-pega: Elkarri pega-pega eginda.

Pentsa ahal: Pentsa ahal guztiak egin zituzten semea etxera bildu nahian.

Pentsatu (Hortik pentsatu!): Bost xentimon, basokada ematen zuten. Hortik pentsatu!

Pentsatu: Hori pentsatuta egon, ee! Ez dakit zer pentsatuta dabiltzan.

Pentsatu: Ez pentsa! Etzazula pentsa!

Pentsaturik egon: Horretan biok berdintsuak ginela pentsaturik egoten naiz.

Periko Kupela: Hor dator trinikili-trankala Periko Kupela!

Peskizan: Hutsaren peskizan (alferrik).

Petral (jenio txarreko): Horixe petrala, gizona! A ze ume petrala!

Petral: Hauxe kontu petrala!

Petralaldi: Haren petralaldiak hortik honakoak!

Pilotak eskura: Bat ondo ari denean bertsotan, zergatik ari da ondo? Besteak pilotak eskura ipini dizkiolako.

Pinto: Hauraren ondoan jarri zen Pinto, burua tente, mingaina kanpo, begitxoak dirdaika.

Pinu aldatu: Zelairik onentsuena ere pinu aldatu didazu.

Pinu estali: Baserritarra, mendi guztiak estali dituzu pinu.

Piperrauts: Nire esanak hemen ez du balio piperrautsik ere.

Pipi hautsak kendu: Zurezko solairua zegoen, eta pipi hautsak kendu zizkieten ederki (dantzari).

Pittirrin (adkor.): Txikitxo.

Pitza-pitza: Pitza-pitza egina zegoen.

Piura: Atso piura hori! Atso piura du horrek.

Pixa eginean (oixeinean: pixa egiten): Bata bestearen ondoan pixa eginean.

Pixa/hondarrak: Pix hondarrak botatzeko ahaleginean.

Pixka bana: Ardo pixka bana eman zien lagunei.

Piztuera: Lau hilabetetik seira bitartean, txala edo txekorraren piztuerako garaian.

Plater: Plater zikinean, jateko onik ez.

Plaza librean: Garai arriskutsua da-eta plaza librean festak egin ahal izateko.

Pobre/sobre: Mundura sortzen denak behartsu ta pobre, atsedean gutxi du ta nekea sobre.

Pobre: Ezer ez duzu aurreratu nekea besterik (alfer pobreak langile pobreari). Pobre jaio eta behartsu bizi.

Pobre: Gaur pobrearen egia daukagu merke. Pobreari ez zaio musu truk inondik ezer etortzen.

Pobre: Hark izan zuen bere bizitza pobrean zer jana urri eta zigorra sobrean. Pobrearen poltsa aise husten da.

Pobrea: Idiak uztarrirako gauza ez, eta behiak errapetik esnerik ez. Hara hor etorkizun bikaina, pobreak aberasteko.

Politagotu: Ilea zaintzen dizu, ta politagotzen.

Poltsa zimurtu: Poltsa zimurtu zaio horri (zekenari, xuhurrari)

Poltsa/poltsiko: Poltsaren kanpoko poltsikoa.

Poltsa-arin (pobre): Bi lagun poltsa-arin jarri ziren elkarrekin.

Poltsa beroak: Gizon ederrak, hizketa leunak eta gainera poltsa beroak.

Poltsa-zimur (xuhur, zeken): "Poltsaximur" oihukatzen genien txikitari bataioan txanponik botatzen ez zuten gurasoei.

Poltsiko bero: Irribarre zuriak eta poltsiko beroak zer egiten duten!

Poltsikoa irauli: Poltsikoak irauli (poltsiko barrenak atera)

Poltsikoa zimur: Poltsikoa zimur antzean erabiltzen zuena (diru faltaz).

Porru egin: Porru eginda dauzkat hankak

Porru: A ze porrua sartu zion!

Porru-hazi: Baina orain ere porru-haziak atera ditut nik (erronka gainturik).

Porru-hazi: Ea nolako porru-haziak atera dituzten!

Portatu: Portatu zara. Gizon portatu zara.

Pospolo: Afaltzeko ordua da, eta afaria oraindik pospoloan!

Potor: Harri potorra

Potroak ukitu/estutu: Potroak ukitu ez ezik, estutu ere egin zizkion.

Pottoka/Pottoko: Pottoka, hemen da zure pottoko!

Pottoko: Ume guriari ez ezik, maitagarriari ere esaten diogu pottoko.

Poxpolin-poxpolin: Galeperra "poxpolin-poxpolin" kantari.

Poz eztitan: Etxe barrua eta kanpoa biak daude poz eztitan.

Poz hartu: Poz hartzen dut zuek ongi ikusita.

Poz/negar: Begiak busti dizkit pozaren negarrak.

Poz/negar: Goizean pozez eta ilunabarrean negarrez.

Pozago (adlag.): Ez da inor pozago izango. Gero eta pozago

Poz: Hura zen poza jendearena!

Poza putzura: Gure pozak putzura, amets eroen modura.

Pozak bizi: Hainbestean pozak bizi ziren.

Pozak geratu: Eta pozak geratu ziren hantxe.

Pozaren bidez (pozaren pozez): Zu kantari entzutean txaloak jotzen dizkizu pozaren bidez. Haren gogoko bertsolaria zeu izan.

Pozaren jabe: Uste gabeko pozaren jabe egin nintzen, garbiro aitortzekotan.

Pozberritu: Pozberriturik joan nintzen handik.

Pozez leher: Zerbait esan nahi nuke eta al dakit zer? Nire bihotz gaixoak pozez egin du leher.

Poz-irrintzi: Uztako poz-irrintziak galdu baitira zuenean.

Poz-oihuka: Poz-oihuka etorriko dira Sion mendira.

Poztu: Oso pozten gara.

Poztu: Pozten naiz hori entzuteaz/entzunda. Pozten nau hori entzuteak. Pozgarri da hori entzutea.

Praka barrenak: Praka barrenak egin. Zapatak praka barrenekin garbitu.

Praka zorro: Ipurdi azpian, prakak betetzen ez direnean, ateratzen den poltsa modukoa.

Prakazale: Neska prakazalea, mutil-jalea.

Premia: Ez dut ezer esango premiarik ezean; utzi, beraz, bakean!

Presajario: Beharko, atzeko kamioi presajarioak irentsiko ez baninduen.

Presaka eta muturka: Presaka eta muturka nenbilen beste gauza batekin.

Prest: Dena prest azkenean, uretaratu egin ziren.

Prest: Prest ala ez, ekin guraso legez.

Prezio: Nik erositako prezio berean saltzen dizkizuet (haren kontuak).

Probatu (da): Probatuko gara horretan ere. Probatuko naiz aizkoran.

Probatu faltan: Ez zaio gustatzen, baina probatu faltan.

Probatu gabe: Ez gara probatu gabeak (probatuak gara, alegia)

Probatu: Ez dakit eroriko nintzatekeen (bizikletan), ez naiz probatu eta.

Probatu: Probatu arte ez da jakiten pertsona noraino iritsiko den.

Punbala: Punbala erori arte.

Puntarengo: Orratz-puntatik orratz-puntarengora.

Purrustari: Purrustada egiten duena.

Putz: Hi beti azken putz!

Putz: Putza lagunduko diok hik!

Putzu: Gaixo dagoena ez da sagardotegira joango. Bestela, laster igarriko dio ze putzutari sartu duen hanka.

Puzker: Lazoarekin puzkerra harrapatzea baino zailago.

Puzker-ume: Puzker-ume halakoa!

Puzkerka: (puzkerrak botatzen) Puzkerka joan zen pasilloan zehar.

Puzkerka: Han zihoan autoa puzkerka.

Puzkerra/Konpota: Puzkerra bota eta ipurdian konpota!

Puztu/hustu: Potxolindegiko Potxolo, puztu zen tokitik hustu.

Robotikari: Robotikan ari dena
Sabaialde: Sabaialde osoa hondaturik dago.
Sabeleko hotzik ez: Hantxe jardun behar izan nuen, sabeleko hotzik sentitzen ez zuten batzuei kantatzen.
Sabel-zorri: Sabel-zorriek loa galarazten zioten. Sabel-zorriek azkura egin. Sabel-zorriak eginda.
Sagar biltze: Sagar biltzera noa. Sagar biltzea dugu gero.
Sagar lore: Apirileko sagar lorea, urrea baino hobea; eta maiatzekoa, segurantzirik gabea.
Sagar: Egunero sagarra janez, mediku beharrik ez.
Sagasti jarri: Baserritarra, mendi guztiak estali dituzu pinu, hobe zenuen lege zaharrea sagasti jarri bazenitu.
Saiatu/ikasi: Gogoia behar du lehenbizi; eta gero, zenbat saiatu hainbeste ikasi ohi da lan bakoitzean.
Saihetsa saihetsari: Arra eta emea elkarrekin egoten dira egunetan, saihetsa saihetsari, ur gainean, apaintzen.
Sail (arrasto, hari): Gero berriro sartuko naiz ardi sailera. Baina goazen lehengo sailera.
Sail: Urte sail bat ere bai aitona, eta oso okertua. Ameriketara urte saila pasa eta berriro herrira itzulia.
Sail: Bide sailak egiten zituzten batere oinetakorik gabe.
Sailean: Hargatik zituen hainbeste joko sailean irabaziak.
Saio adina huts: Saio adina huts egin.
Sakela bero: Sakela bero dagoen artean, segi aurrera!
Sakontxo (iz.): Goiko menditik beheko sakontxo hartara begiratzean. Mendi-sakontxo batean nago ustez leku seguruan.
Salaketa: Salaketa, harria legez, botata gero, ezin itzularazi.
Saldu: Ez dut neure burua bertsolari saltzen.
Salgai/saltzeko: Nik Amezketa ez daukat salgai. Ez daukate herria saltzeko.
Saltsa: Saltsa nahasiago, usaina handiago.
Saltzeko adina: Horrek badu umorea saltzeko adina.
Saltzeko eduki: Umorea saltzeko ere bazuen gure lagunak!
Samartu/samurtu: Behartsuaren izaeraz ni nago etsi samartua, lehen zaila bazen, azkenaldera ez da asko samurtua.
Samartu: Etsi samartua zegoela adierazi zion hitz gutxitan dotore asko. Udaldia igarota, joan samartu dira gehienak.
Samartu: "Gurea joan samartzen ari da (baserritar zaharrak bere mundualdiaz)"
Samur: Ez zen, ba, huraxe izutu samurra.
San Iñaziotan: San Iñaziotan, hiru egun pasa nituen Azpeitian.
San Iñazioz: San Iñazioz (San Iñazio egunez) meza nagusira joan nintzen.
Sankristau: Ala sankristau!
Sano aparta: Udaberri ederrak eta eguraldi sano apartak ezagutu genituen lurralde hartan.
Sano: Hi ez hago burutik sano.
Santa eskean: Santa eskean ibili ginen baserriz baserri, Santa Ageda bezperan.
Santa Luzia: Santa Luzia, eguna laburra, gaua luzia!
Santu ez egon (osasunez): Ez nago santu-santu ere.
Santu/bekatari: Hemen santuak oso banaka izango zirelakoan nago, eta bekatariak ugari.
Santu: Santuak janzteko geratu.
Santu: Zer egin duzu egun santu osoan?
Santugai: Bere ordenako santugaien zerrendan...
Sare: Sare estuan sartu ginen eta lasaira ezin pasatu, errazetik janez ez gara bizitzan asko gozatu.
Sare: Sarean argiak zomorroren bat erakarri ote duen dabil armiarma.
Sarritu: Sarritzen ari dira tantak.
Sartu berri: "etxera sartu berri eskuak garbitzen ari zela" (Jesus Mari Mendizabal)
Sartu ez sartu: Sartu ez sartu egon da (zalantzan).
Sartu ta irten: Sartu ta irten dabil (Sartu-irtenean dabil).
Sasi-erabili: Zakur mezulariak sasi-erabiliz, errusiarrek lehegailuak eta antena luze bat ipini zizkieten.
Saskiak tontor: Zaldi harroxa aurretik eta, saskiak tontor, gartzaz beterik.
Sasoi: Nola etorri hala joan ohi da sasoi.
Sasoi pasata (sasoi pasata): Hi ere sasoi onenean pasata egongo haiz, eta laster utzi beharko duk aizkora.
Segi: Tira, sego ohera! Txakurra, segi txokora!
Segitu (nori gabe): Eta trenean segitu zion Donostiaraino. Jaten hasita, lehertu arte segituko lioke, eta gero kontuak!
Segitu (nori gabe): Nik halaxe segituko diot behin honezkero.
Segitu (du): Eskola hau segitu dutenek.
Segitu (da): Ea halaxe segitzen zaren portatzen!
Segitutik: (segituan) Segitutik esan egiak.
Segun (ez da beharrezko): Udazkenak zertara jotzen duen, hortxe dago gorabehera. Zer nahi duzuen, huraxe emango dizuegu.
Segun (ez da beharrezko): Zein lagunartean zauden ere, alde ederra dago. Zer zen egokiena, harixe heldu.
Sehaska: Amdioak sortzen zituen aingeruentzat egina, non ote da zu egin zintuen fede oneko zurgina?
Sehaska: Zure sehaskako (jaioterriko) oihal epelak oraindik ez dira hoztu.
Seinale (izond.): Egun seinalean elkartu ziren han. Biak egun seinaletan hil ziren.
Seinale: Peruk zer du seinale? Berak esan eta berak barre.
Sei-sei, txiza usei.
Sekula santako (betiko): Eta halaxe izango da hori sekula santako.
Sekulako pasada eman dio (adkor.): Aise irabazi dio (edo astindu ederra eman dio)
Sen: Ehiztari sena atera zaio.
Senperrak pasa: Haiekin dabilen itzainak pasatzen ditu senperrak.
Sentiarazi: (dio, eta du) Gaizki sentiarazi nau zure jokabideak.
Sentimenduzko (sentimental): Gizon sentimenduzkoa eta garbia zen Uztapide.
Sentitu: Sentitzen zaitut kontu politik esaten dizkiozula.
Sentitu: Zuregan sentitzen dudana azaldu nahi dizut. Zureganako nire sentimendua azalduko dizut.
Serio, ez goibel: Beti serio eta apal, goibeltasunik gabe, ordea. Hortxe dago gizonaren balore berezia eta nortasun sendoa.
Setatsu: Apustu setatsuak jokatu.
Simur/samur: Lasarte hemen dago argal eta ximur, entzuleak poztutzen ez daukat nik xamur.
Sinesberegia: Sinesberegia zara zu, egia esan.
Sinetsi: Ikusita sinetsi. Zalantzan zebilen sarri, sinetsi ez sinetsi.

Sinetsi: Sinesteak ere baditu bereak!
Sinesteak lan: Bareak ez du odolik, eta ez hezurrik; sinesteak ere badu lanik!
Sinistu: Eta nik sinistu!
Sinisturik egon (konbentziturik): Udaberriak alaituko du, egon hori sinisturik.
Soineko jantzi: Hostoak soineko jantzi zituzten.
Soin-gurutze: Toreroak laster sartuko dio soin-gurutzetik behera ezpata luze zorrotza.
Soinu jo: Zuk ikasiko zenuke bai soinu jotzen ederki. Nire gogoko lanak, soinu jotzea eta kantua.
Soinua jo (kontua zabaldu): Bailara txikiotan batek soinua jotzen badu, denek entzun ohi dute, eta han horixe gertatu.
Somantako: Somantakoz josi zuen.
Sorbaldala/sorbaldari: Sorbaldala sorbaldari emanak laurak operazioari begira.
Sormin: Sorminetan dabil. Sorminez urduri.
Soro-baratzeak: (Soroak eta baratzeak): Hura zen zoramena soro-baratzeetan.
Sorraldi: Sorraldi luzearen ostean, bere onera etorri zen.
Sorta arbi: Halaxe, bi sorta arbi etxeratu. Sorta arbi handiegia hartuta...
Sortu (atera, eskuratu): Dirua sortzeak ematen dizkigu lan txarrak sarritan.
Sortu (atera, eskuratu): Ogi eskasiak ematen zuen kezkarik larriena garai hartan, baina sortu zuten non edo nondik.
Su egon: Su zegoen kanpoan.
Sudur kako: Haren sudur kako zorrotzak gezia zirudien.
Sudur-txistu: Idixkoaren antzeko sudur-txistu bat egin zuen, emaztea hala ikusita. Idixkoa sudur-txistuka hasi zaigu.
Sufrimendu: Sufrimendurik ez den tokian ez da bizitza luzerik.
Sugandila: Sugandila (sugelinderie) baino petralago.
Sukaldari: Sukaldari ugari, kalte zopari.
Sukaldaritzan (sukaldean): Nik badakit sukaldean.
Suma: (iz.) Ni misterio-suman nabil beti.
Sumatu: Joan Martinek sumatzen ninduen kantari.
Susmo izan: Ez du susmo txikienik ere giltzarria aurkitu dudala. Badut susmoa non bizi den.
Susmo eragin: Ez zioten susmo onik eragiten.
Sustrai (arrasto): Ez zuten inondik ezeren sustrairik atera. Beraz, horren sustrai garbirik ez niezaioke inori eman.
Sustrai (iturri): Ez nion behin ere galdetu; bestela, jakin nitzakeen gauzak sustraitik.
Sustrai (iturri, arrasto): Aspaldiko kontu zaharretan sartu naiz sustrai zuzenak eman ahal izateko.
Sustrai: Zuk, gazte, ez duzu ezagutu Euskal Herria nolatsukoa zen eta nik sustrai garbiak utzi nahi dizkizut...
Sustraia atera (ulertu, jakin): Ez zuten horren sustraia erraz atera.
Sutegi lan: Hamaika izerdi badugu aterea sutegi lanean.
Sutu (piztu): Puruak sutu eta bapo lanerako.
Taberna zulo: Taberna zuloan sartuta beti.
Takoi-altu: Zapata takoi-altu txarolezko finak.
Talo egin: Talo egin zituen (taloa bezala zanpatu)
Tapako urak: Ez ibili tapako uretan! Ez ibili tapakoetan!
Tarari: Tarari-tarari, amona dantzari!
Tartakada: Tartakada eman zion aurpegian (tartaz, jakina)
Taupadak jo: Bere bihotzak 60 taupada jotzen ditu minutuko.
Taupaka: (iz.) Bihotza taupaka bizian.
Teila falta (adkor.): Baina teila(txo) bat falta zaio; ero-ukitu(txo)a du.
Teila orde: Eta etxe gainean, teila orde, ez dute hipoteka eta zentsua besterik.
Teilape: Haren teilapekoak...
Telefonema: Baina herriko lokutoriora telefonema jarri zuen Uztapidek: halako ordutan hots egingo zidala eta zain egoteko.
Telefonoa: Iñaki, Xabier duzu telefonoan!
Telefonoak jo: Telefonoak gero ta ozenago jotzen du, hartu arte.
Tindatu: (iz.) Tindatu eder bat egingo dizut.
Tira egin: Tira eragin. Tira eragiezu lera-txakurrei.
Tiratu: Norbera jaiotako lurra beti tiratzen du pertsona. Zurrutak tiratzen nau.
Tiro: Tiro jasa
Tirriki-tarraka: Burua makurtu eta tirriki-tarraka...
Titare: Ipurdiko titarean jotzen bazaitut! Nik ematen badizut ipurdiko titarekoa!
Titi (adkor.): Errape, katilu,
Titi bistan: Neskak titi bistan.
Titia/iturria: Haurtxo nintzela, amaren titia aurkitu ohi nuen nik holaxe betia; zuk haren antza duzu, iturri maitia!
Titi-dardara: Titi-dardara samurra.
Titi-erori/Titi-tente/Titi-fresko: Atso titi-eroria. Neska gazte titi-tentea. Bazen neska titi-fresko ugari han eta hemen.
Titiko: Euskaldunak genituen guk aurretikoak, euskara edan genuen haurtxo titikoak.
Titi-zorro: Bularretako
Toka/Noka: Animaliei, ar eta emeei, Toka: oiloei, Noka. (Hala diote batzuek)
Toki ederrean (kontrakoa): Bestela, toki ederrean zeuden!
Toki onean (kontrakoa): Halako batean igeltsua kendu eta pozik hanka sendatu zelakoan ni: toki onean nenbilen!
Toki onena (kontrakoa): Toki onena sartu haiz (apustuan), baserria gora jasotzeko.
Tolestu/zabaldu: Aurrena tolestu papera eta gero zabaldu.
Tolestura: Tolesturan jarri hoge tonako harriak garabiaren bidez.
Tonto: Gure tontoan, geuk ere antzeman genion.
Topa: Egin dezagun topa amonaren osasunerako/zure onerako.
Topa: Topa zure izenean eta gure gizenean!
Trabarik ez egin (ez joan): Nik neuk atsegin dut pilota jokia, baina ez diot inori trabarik egiten pilotalekuetan.
Trabarik ez eman (ez joan): Ostatueta ez zuen traba handirik emango.
Traka/txapla/ttapa: Traka-traka trenean, txapla-txapla txalupan, ttapa-ttapa oinez.
Tranpa ta zikina: Dena tranpa ta zikina erabiltzen zuen.
Tranparatu: Tranpara eraman.

Trapu: Trapu zikinak eguzkitara atera.
Tratatu: Tontotzat tratatu. Tonto gisa/bezala tratatu.
Tratu txarra: Oso tratu txarra pasatu zuen.
Tratua egin: Hantxe egiten genuen tratua noiz eta nora joango ginen.
Tripa lan: Utzi tripa lanak gerorako!
Tripa-jate (amorrazio): Eta trenik agertzen ez, hura zen tripa-jatea!
Tripak jan: Norteko estazioan trenaren zain, gosaltzeko partez, tripak jan nituen.
Tripa-zorri: Tripa-zorriei jaten eman.
Tripa-zorria: Noizean behin halako lekuetan tripa-zorria goxatzea ez da kaltegarri.
Tripa-zorriak dantzan: Tripa-zorriak dantzan dabilzkit.
Tripa-zorriak egin: Tripa-zorriak egin zaizkit.
Tripa-zorriak hil: Gu oraindik baraurik gaude eta tripa-zorriak hil behar ditugu lehenengo.
Tripa-zorriak isilarazi: Nire tripa-zorriak isilarazi zituen behintzat,
Tripa-zorriak lasaitu: Perretxikoak ez ditugu jaten tripa-zorriak lasaitzeko, atsegin hutsez baizik.
Tripa-zorriak protestan: Tripa-zorriak protestan/protestaka ari zaizkit.
Tripa-zorriak baretu: Tripa-zorriak baretzeko,...
Tripa-zorriak esnatu: Tripa-zorriak esnatzen zaizkionean, ezin zaio janaria ukatu.
Tripa-zorro: Halaxe, tripa-zorroko hotzak kendu (gosalduta) eta aurrera! Tripa-zorroa ongi berotuta, erretira etxe aldera.
Tripa-zorro: Tripa-zorroak berdindu arte.
Triste-antza: Halako triste-antza nabaritzen du bazterretan.
Tronpa bete lan: (elefanteek).
Trumoi: Trumoi setosoak berekin ditu soinua ta panderoa, jendeari dantzan erakusten diotenak. Bestela...
Tarraka-tarraka: Hemen gabilta tarraka-tarraka (osasuna gorabehera)
Ttattarra (adkor.): Eskasa.
Ttipi-ttapa: Badoa haurra ttipi-ttapa amaren besoetara.
Txakalaldi: Txakalaldia izan du berriro.
Txakil/Txokil: Txakilondo/Txokilondo!
Txakur: (izond.) Hauxe eguraldi txakurra!
Txakur: Atari-txakur
Txakurtzaindegia: (Haurtzaindegiaren haritik) Ingalaterran-da badira holakoak.
Txalkor: (konkordun) Txalupa zale txalkorak... Azpetiko Txalkorak...
Txalupa: Txalupan nagusi asko, arrain gutxi ta zor asko.
Txanda: Lana, txanda hartu ezinda.
Txango (beso edo hanka txangoa): Hego txangoa (hegaztieki)
Txantxak: Inori kalterik ez badatorkio gauza politikak noizean behingo.
Txantxarrik ez izan (benetakoa izan): Haien gozamenak ez zuen txantxarrik.
Txapel (laino): Izarraitz mendiari txapela erdi-erdian jartzen bazaio, euria seguru.
Txapel: Ez du buru galduak txapel beharrik. Bururik ez duenak alferrik du txapela.
Txapel: Txapel! (txapela daramanari deitzeko)
Txapel: Txapela buruan eta ibili munduan.
Txapeldungai: Txapeldun izateko gai
Txar/on: Bizitza honetan, gauza txarrik pasa ezean, onik ez da estimatzen merezi bezala.
Txarra ez: Txarra ez, gutxiago edango balu!
Txepetx: Txepetxa kantuan txor-txor-txor.
Txerri (zikin-zikin): Dena txerri eginda utzi dute sukaldea.
Txerri hazte: Txerri hazteari eman dio jendeak.
Txerri: Txerri urdea!
Txiki (iz.) Nik ere, neure txikian, badut ahalmen hori.
Txiki/handi: Opari txikiena ere handia izan ohi zen urte haietan.
Txikito: Infernuko txikitoa.
Txikitu beharrean: Bazterrak txikitu beharrean!
Txilibistro:
Txima-jario: Emakume txima-jario bat.
Tximista: Tximistak egiten joan ziren. Tximistak airean abiatu ziren.
Tximisteria: (tximistak jotakoaren eritasuna) "Garo freskoak sendatzen du tximisteria"
Txingorra/danborra: Auto gainean txingorra ari zuen danborra jotzen.
Txintxo: Txintxo zu!
Txipiroi/angula: Nik neuk ikasi berri samarra dut txipiroi asko den urtean angula ere ugari izaten dela.
Txirripristin: Huraxe txirripristina! (neska)
Txitxijario (adkor.): Potoloa
Txiza bota (egin): Txiza bota behar dut.
Txiza: Txiza parrastada.
Txizalarritu: Txizalarritu da eta han ari da errekatxoa egiten.
Txiza-zorroa (Maskuria): Txiza-zorroa husteru.
Txoko/gozo: Non bere txoko, han bere gozo!
Txokoa egin: Zigarro bat atera eta bi eskuekin txokoa eginez piztu zuen.
Txoko (izond.): Tokirik txokoenetan.
Txoko: Uztarriaren gaineko txokoan botila txakolinen bat edo beste hartuta.
Txokokeriak: Txoko bateko hitzak, ohiturak...
Txora-txora eginda (txoratuta): Txora-txora eginda zegoen Anarekin.
Txoramen: Biak txoramen batean gabilta ez dakigula zer egin.
Txoratu: Horri txoratu zaio!
Txori: Gauean garaiz oheratu eta goizean txoriekin batera jaiki.
Txori: Guraso denok horrela saiatuko bagina, beste txori baten kantuek entzungo genituzke.
Txori: laz txoria gari artean baino kontentuago ibili zen, txapel horia jantzita, burutik kendu gabe.

Txoria eskura: Hori bai dela txoria eskura etortzea!
Txoriak eskutik alde egin: Bestela, puntu haietakoren bat galtzen badu deskuiduan, akabo! Txoriak alde egin dio eskutik.
Txori-etxe (adkor.): Baserri hutsa adierazteko.
Txorimalo: Orain arte bera ibili da gora ta behera, umeen txorimalo.
Txoro haize: Nik kenduko dizkizut txoro haizeak. Nik kenduko dizut txoro haize hori.
Txoro haize: Umildadea urruti eta errespetua atzian; edozer gauza esaten degu txoro haiziak jotzian.
Txoro haizea: Halaxe, txoro haizea indartu zizaion buruan astoari, atzeko hanketan ferrak josten hasi orduko.
Txoro: Hego haizea baino txoroago!
Txoro (iz.) Hasi al zara txoroan! (Amamak bilobari). Ze txorotan zabilta?
Txoro: Txoro gaixtoa. Txorokume.
Txoro-fabrika: Baina ez du horrek esan nahi txoro-fabrika izan behar duenik (amets fabrika omen den zinemak).
Txoroflauta: (txoroarentzako ezizena)
Txoro-jardun: Hori duk txoro-jarduna, motel!
Txorokilo (adkor.): Mutil txorokilo horiek!
Txoroxka (adkor.): Neska txoroxka horiek!
Txorta keku (adkor.): Putetxe.
Txortan egin: Apretak josi. Larrua jo.
Txortan: denak txortan: apretak josten edo larrua jotzen.
Txost egin: pilotak hormaren eta zolaren arteko ertza jo.
Txotxalamotxean: Txotxik motxena ateratzen duenak xelegekeriaren bat egin behar.
Txukun zale: Txukun zalea, izan ere, ama benetan!
Txukunarazi: Etxe osoa txukunarazi zion.
Txusperreko sagardoa: Txotx berriko sagardoa.
Uda hoztu: Uda hoztuko da zuri halakorik emateko.
Uda jo: Behin batez, uda ere hola modukoa jo zuen eta, atzeratua zetorren labore guztia...
Uda/negu: Hemen udan egin behar du negurako behar duenak.
Uda: Zortzi hilabete eder pasa genituen, uda, udazken eta negu.
Udaberria: Egun argia luzatu, gau iluna mostu, kanpoa jantzi berritu.
Udazken buru: Zein diren goxo udazken buruko egun epelak, bere laburrean zein eder!
Ugalmen: Udazken lehorrak eta eguzkitsuak asko balio du mahatsaren ugalmenerako.
Ugari antzean: Bazuen zer galdetu ugari antzean.
Ugari: Baserrian lana gauza ugaria izaten da. Langile izugarria izan behar du, ugaria eta egokia.
Ugari: Zuen ondorengoak zeruko izarrak bezain ugari egingo ditut.
Ugarituak egon: Gaur autoak ere ugarituak daude.
Ukatu (nola uka): Zerrenda hau, nola uka, edonork luza dezake.
Ukitu: Bihotz-ukitu isila.
Ume eduki: Baina bihotzak ume dauzkagu: apalak eta bigunak.
Umegai: Umegaitan amaren sabelean
Umegorri: Baina haren aldean umegorri bat naiz (emakumeen konkistan). Ez naiz umegorria (andre gazteak gizon bati).
Ume-maite: Oso ume-maiteak dira orangutan amak.
Umetsu: Ijitoak, izan ere, hain dira umetsuak.
Umezaindegi: Animaliena
Umezaro: Animalien umezaroa, gizakien haurtzaroa bezalaxe...
Ume-zorri: Ume-zorri lotsagabea!
Umil/isil: Begi umilen argia zara, bihotz isilen laguna (sorterria).
Umirez urri: Ordurako zahartua, eta umirez urri antzean.
Ur baretako: Ur baretako marinela (Ur baretan ausart)
Ur joanak: Emakume horrekiko nire harremanak ur joanak dira.
Ur: Ur beroak erretakoan, epelari ere beldur.
Ura eman: Euri atergabeak aseta, mendia ura ematen hasten da.
Ura joanean: Joan doala, ez da usteltzen ura.
Ura/hura: Ekarki orain ura, ta gero egin zer-nahi-hura!
Ura: Marmario goxotan jaisten zara behera, goiko mendi azpitik beheko zuhaizpera.
Urak handitu: Urak handituak zetozen. (Itsasoan urak handi)
Uraren: Hain zen egarri, egarri guztiak aseko zizkion uraren!
Urdin (iz.): Zerua urdina.
Urdinarekiko: (Urdinez jantzitako) Urdinarekiko hori...
Uretaratu: da/du. Uretan sartu. Uretara jauzi egin. Barkua uretaratu zen/zuten.
Urez/lehorrez: Nahiz urez nahiz lehorrez etorri.
Ur-negar: Zipiriyoko iturritik pasatzean ur-negar fina besterik ez zela konturatu ginen.
Urratu: Tximistak han eta hemen hodeiak urratzen
Urratu: Urratuak zituen eguzkiak laino beltzak.
Urre-gose: Harrezkero, pirata urre-gose ugari itsasoratu da altxorraren bila.
Urri-murri: Hemen dituzue, urri eta murri, esku artean irauli zaizkidan sosa.
Urri (iz.): Gaiaren larriak eta astiaren urriak orobat eraginik...
Urrialdi: Gezurrak ez du urrialdirik gaur egun. Egunetik egunera ugaltzen ari zaigu.
Urriki-laino: Urriki-lainoz inguratua.
Urritu/ugaritu: Irabaziak urritu dira eta ugaritu gastuak.
Urrun-min: Maitasun-hari ikusezinak lotzen ditu arimak, eta gozatzen urrun-minak.
Urruti gabe: Handik urruti gabe dagoen basoan...
Urte askoan: Urte askoan, bizitzaren arrastoan!
Urte honetan: Hogeita hiru urte honetan atzerakada handia egin du.
Urte kontatuak: Urte kontatuak daude horretarako. Sasoi joanda, gizonak ezin gehiago eman eta kito! Azken motza.
Urte: -Urte askotarako, Luis! -Zu ere bai, Mikel!
Urtean joan: Laurogeigarren urtean doa, eta hantxe zegoen adi.

Urteberri/Urtezahar: "Urteberri ta Urtezar, Martzelino prakazar"
Urteen fardela: Txarrena daukazu zuk urteen fardela.
Urteko/urtetako: Urdaia ta ardoa urtekoa; adiskidea urtetakoa.
Urteetan aurreratua: Gizon urteetan aurreratua, lehengo gerran ibiliak.
Urtetik behera: Hirurogei urtetik behera hilko ziren denak.
Urtez aurrera (urteetan aurrera): Aspaldi samar hila den arren, gogoan izango dute urtez aurrera doazenek.
Urtez osatu: Honezkero urtez ongi osatua beharko du noski.
Urtu/espíritu bihurtu: Denei on egin beharrez gaixoa erabat urtu. Maitasun bidez espíritu da bihurtu.
Urtzen ari: da/du. Elurra urtzen ari du/ari da.
Uso pasaia: Mundu hau uso pasaia bat da.
Uste/jakin: Askok zekiela uste, baina ezer gutxi jakin.
Uste/ustel: Usteak erdia ustel.
Uste: Orain ez daukat nik kanturako indarrak eta usterik.
Uste: (nik uste, nire ustez, uste dut) Gehiegi erabiltzen ditugu itzulpenetan, beste hizkuntzen eraginez.
Uste: Ez nian asko uste; orain ikusi diat nolakoa haizen. Hala usteko duzu, baina ez da hola.
Uste: Gutxi izan eta asko uste, sasipeko masuste. (Goierriko esaera zaharra omen)
Uste: Hartu uste ditudan fabore guztiak...
Ustea: Baina gorputza ahuldu ahala, burua ere arintzen da eta azkenean ustea besterik ez dugu izaten.
Ustekoa: Handi/eder/polit usteko hori!
Ustekoa: Eta kanpotarrak ere asko agertu eta toki lasai ustekoa estutu.
Ustetaz-eta: Baina, ustetaz-eta piztia bat-batean aterako zaizulakoan, normala da urduri jartzea.
Utzi (dio, nori gabe): Libre utzi genionean, hura hanka jokoa! (dio, zer gabe): Utzidazu! (eskutik heltzen dionari)
Utzi samar (zabar): Zabarrak edo utzi samarrak izan berezi!
Utzi samartu: Baina ordurako utzi samartua izango zen harri jasotzeari.
Utzi: (du/dio): Utz nazazu hemen. Utzidazu bakean/lanean/laguntzen.
Utzi: Ez du alde batera utziko, zurea izan ala besterena.
Uztaipe: Orain artekoek hemen utzi dute dirua. Datozenek ere uztaipe horretatik igaro beharko dute.
Uztarri: Eztula ta buruko mina uztarrian...
Uztarri: Uztarri onik ez dute behin ere goseak dauden idiek.
Uztarrira bildu: Beraz, bi bildu ziren elkarren antzekoak uztarri batera.
Xarpa: Kaixo, xarpa! (txakurrari esateko)
Xarra-xarra: Euria xarra-xarra ari zuen.
Xatar (iz.): Bizpahiru xatar nahikoak ditu ikusgarri agertzeko.
Xelege: Hemen kontu xelegea dabil...
Xelegekeria: Hila da gizajoa, hamaika xelegekeria esanda.
Xelegekume: A ze xelegekumea!
Xir-xir: Xir-xir ari du (xirimiria, euri-lanbroa)
Xomorro: (adlag.) Orain ere xomorro-xomorro dabil hori.
Xomorro: (izlag.) Oso xomorroa da.
Zabal/gora: Metro bat zabaleko eta metro erdi gorako ahoa.
Zabaldut-bildu: Soinekoa izterretan gora jaso zuen eta noizbehinka belaunak zabaldut-bildu egiten zituen.
Zabaldut: Nagitasun hori zabaldutxea dago.
Zabaleran (-en: -ak zabaltzean): Lo egin eta esnaeran, begitxoan zabaleran, izar eder bi zuregan ikusirik...
Zabaletik hartu: Zabaletik hartu zuen kontua.
Zabartzenago: Etxeko bizi giroa zenbat eta mingotsago, ohituretan zabartzenago.
Zabor: Zabor batzuk zaborrago. Zaborrik zaborrenak.
Zahar ez (berri): Ez dira itxi zaharrak ostatuak (itxi berriak, alegia). Ez da hil zaharra; urtebeterik ez.
Zahar/eskarmentu: Zahartu naiz eta jantzia nago eskarmentuz.
Zahar/gazte: Negua, nekeak erasandako kristau zaharraren tristura; udaberria, sasoi beteko gaztearen itxaropena.
Zahar/hiztun: Zaharra hiztuna izaki nonbait.
Zahar/ikasi: Zaharrago eta ikasiago, Solon zaharrak esan ohi zuen bezala.
Zahar (iz.): Zaharrak ondu duen ipuin ederra.
Zahar-berriak: Mutilaren zahar-berriak eskatu.
Zaharkilo: Zaharkilo txoroak!
Zaharria: Zahar ajeak.
Zaharrez hiltzera: Zaharrez hiltzera, hamaika ikusteko gaude.
Zahartut: Zaharrak eta zahartut poxik...
Zahartzera: Zahartzera egin. Zahartzera, ez dakigu zer ikusteko gauden.
Zahartzera: Gizon zuzena eta zintzoa. Nik hala juzgatu nuen zahartzera. Gaztetan ez dakit nolakoa zen.
Zahato ardoa: Han joan zen larrugorrian, zahato ardoa bizkarrean.
Zain egon: Egoera hobetu zain egon nintzen.
Zain: Zainak eten negarrez edo barrez.
Zain: Zeruko isiltasuna jabetu da gazteluko gelaz. Zain daude eta zain gaude atea noiz irekiko, atean zer ikusiko.
Zaindu: Usoen egutegia gurea baino zuzenagoa: eguraldi segurua zaintzen asmatzen dute dotore asko.
Zakarrontzi: (izond.) Zaude isilik, zakarrontzi hori!
Zakil: Zakilak bizi ditin gizonak.
Zakil-erori: Zakil-erori ugari adin batera ezkeren.
Zaku berean: Ez nazazu aitaren zaku berean sartu.
Zaku egur: Zaku egurrak betetzen ari ziren ahalegin osoan.
Zaku (adkor. Amaren sabela): Lehenbiziko zakuan lorik gozoena.
Zaku: Zaku soinean darabil (arrote bizi da)
Zakur/soldadu: Zakurra eta soldadua biak berdintsu juzgatzen ditut nik; katetik noiz libratuko zain egoten baitira.
Zakur: Uste ez zuen zakurrak egin dio zaunka.
Zakur: Zakurraren bibolina! Zakurraren potroak! Zakurraren putza!
Zalantza nahasi: Horixe izan da gure jokabide bakarra eta estimatuena, inongo zalantza nahasirik gabe.

Zalantza/dantza: Zalantza-dantzan noraezean.
Zalantza: Zalantzan beti, zeri ekingo
Zalantzak bizi: Ni neu, behintzat, zalantzak bizi nau.
Zalantzatan blai: Gauza erraza zelakoan, baina uretan sartzean zalantzatan blai.
Zaldi/zaldun: Nahiak zaldi balira, eskaleak zaldun.
Zaldiago: Nire zaldiak hasieran zaldiago ziren (eskultoreak esana)
Zale: Bizar luzeak eta zorrotzak zituen betazeletan, haren begiak ez ziren bizi ni han ikusi zaletan.
Zale: Denak ez baitira azkeneko puntan ibili zale izaten. Zuek ikusi zale dauzkat nik bihotza eta begiak.
Zale: Gizonen arteko norgehiagoka ikusi zale baikara denok. Hara joan zale ez izan arren.
Zale (iz.): Ni ikusteko zalez. Zure zalez daudenen bihotzak.
Zale: Alferrikako nekearen zale ez da inor; lanaren saria nahi izaten dugu guztiok, arrazoi handiz gainera.
Zale: Ez da indarka aritu zalea.
Zangoen sarde: Apropos jaso zuen soinekoa izterretan gora, zangoen sarderraino.
Zanpana: Neska zanpana!
Zaparrada: Txalo zaparrada atertu zenean...
Zapata/neurria: Nork bere neurriko zapata aurkitu: ez dago guretzat zapata handiegirik (erronka).
Zapero: Arto irinezko zapero bigunetik nahi zuten guztia jaten txerriak.
Zapi zuriz: Zapi zuriz aldatzen ninduen egunero amak.
Zapoa: Zapoa klin klon, bihar eguraldi on.
Zapoka: (ume jolasa)
Zarata ta zalaparta: adlag. Han sartu ziren, zarata ta zalaparta. Zertan habil hor goian, zarata ta zalaparta?
Zati egin: Bi zati egingo dugu tarta.
Zati iraun: Nik zati bat ikusi nuen. Eta zati iraun du ordutik gaur arte.
Zazpi-mihi (adkor.): Leku batean gauza bat eta bestean kontrakoa esaten duena.
Zazpi-sukalde (adkor.): Aprobetxategi.
Zazpi-zazpi, etxea bete zapi
Zegoenetan (zegoenean): Umore onean zegoenetan.
Zehar: iz. Ikusi zehar-marratxoak!
Zein bere: Gaztak ilaran, zein bere sarean bildurik.
Zein ere: Denentzat behar du, zein ere den euren pentsabidea.
Zelaitu: Bidea zelaitzen den parajea.
Zelatari (izond.): Mutiko zelataria.
Zenbat ere gehiago: Nik uste dut, eta zenbat ere gehiago irakurtzen dudana are sendago uste dut..
Zenbat ere / Hainbat ere: Zenbat ere puztuago, hainbat gizatasun gutxiago.
Zenbat eta.../ago: Zenbat eta gehiago entzun, tristeago jartzen naiz.
Zenbat urtean: Zenbat urtean ibili ote zen eskean!
Zenbat/hainbat: Zenbat aldiz eskatu, hainbat aldiz ukatu.
Zenbat: Gaur hilak zenbat ditu?
Zenbat: Zenbatean (ze abiaduran) ote zihoan? 140an?
Zenbat... horrexek: Erregek zenbat elefante eduki, horrexek erakusten zuen boterea.
Zenbatez / Hainbatez: Zenbatez triste bizia, hainbatez eder saria.
Zenbatez: Ulertu duzu orain zenbatez beharrezkoago zaren hemen?
Zenbatsu: Halako etxetan zenbatsu gurdi edo karga sagar egon zitezkeen gutxi gorabehera.
Zentzura bildu (zentzatu, zentzarazi): Zentzura biltzen baduzu...
Zepelin (mozkorra): Ordurako izugarritzko zepelina harrapatua eduki. Asko sartu eta zepelin izugarria harrapatu.
Zer aterako: Umeak zer aterako hurreratu zitzaizkion osabari.
Zer berri? -Zaharrak berri, (gazteen amorragarri)!
Zer egin: Ez dut zer eginik horren kontra. Ez dut zer egin handirik norgehiagoka horretan.
Zer entzungo!: Eta hantxe zegoen hura ere, zer entzungo!
Zer erakutsi: Ba ote du horrek zer erakutsi?
Zer esango/zango: Inoren zer esangoak lotzen dizkigu zangoak.
Zer esango: Zer esango, eta hori zuk esan behar!
Zer esanik esan: Eta tratu horietan, zer esanik esan, hartzaile ginen gu emaille baino areago.
Zer eta: Eta zu zer eta barrez? Txukuna nago, ba, oraintxe!
Zer ikusi (ikusizun): Sartu, baina ez dago zer ikusi handirik.
Zer ikusi: Eta zer ikusi joan zenari ez zitzaion damutuko.
Zer ikusiko: Eta jendea erne dago zer ikusiko.
Zer modutan? (zer moduz?): Zer modutan zaude, aitona?
Zer moduz? -Honenbestean/horrenbestean/hainbestean. -Hementxe. -Ondo, esan beharko!
Zer nahi hura: Koipea erabili, zurikeria, zer nahi hura. Zer nahi huraxe.
Zer nahi hura egin: Zer nahi, hura egiten du.
Zer pentsa egon: Pertsona xelebrek sarri eragiten digute barre, beti zer pentsa egoten direlako.
Zer suma: Zeuk asmatutako istorioak dira denak, zer suma zaude ta.
Zer/hari: Berak zer esan, nik harixe erantzun.
Zer/hura: Gizonak zer erein, hura(xe) biltzen du.
Zer (iz.): Gizona gizon egiten duten zer nagusi horiek...
Zer: Zer diren gauzak!
Zera: Ba, gogorra naizela ni, zera!
Zera: Badator beste zera!
Zera: Miraritsua ta zera! Ez du ezer sendatzen-da!
Zera: Zer? Galanki oradaindu, zera! Zera egingo du horrek!
Zerbait berri: Izan ere, Kristok zerbait berri eta hilezko ekarri du mundura.
Zerbait bide: Araba aldera zerbait bide eginik...
Zerbait izan: Baina horrelaxe gara mundu xelebre honetan: beti badugu zerbait, hau ez bada, bestea.
Zerbait urriago: Leitza inguruan zerbait urriago ote den deioten.

Zerbait/zer: Zerbait aldatu beharrean gertatzen gara. Hobeki esan, bi "zer" aldatu beharrean.

Zerbait: Haizeak bazuen gure zaharrentzat halako misterio zerbait ere.

Zerbait: Izenaz ere izan dugu zalantza zerbait.

Zerbaiten behar izan: Zerbaiten behar direnak...

Zer-behar-hura: Baina beti neurrian: zer-behar-hura.

Zer da-ta: Hainbeste lan eginda gero, orain zer da-ta, pikutara joateko esan ez dit, ba!

Zergatik eta: Ez dut nik halakorik egingo, zergatik eta zuri apetak eman dizulako.

Zergatik?: Zergatik? - Haatik! Zergatik, eta haatik!

Zer nahi hura (aukera zabala): Azoketan zer nahi hura aurkituko duzu. Zer nahi huraxe izango duzu han.

Zerrikilo: Ez dut ezer jakin nahi zerrikilo horrekin.

Zertan eta: Zertan eta arte-gaietan

Zertara jo: Hara nola diren gauzak! Inork ez du jakiten azkenerako zertara joko duen.

Zertarako egon: Ez zen erraza haren bekokiari antzematen zertarako zegoen (musean).

Zertarako: Zertarako asmoz etorri zara?

Zertsu: Badaki besteak zertsu erantzunon dion. Badakit zertsu ordutan joan. Zertsu balio ote du?

Zertsu: Bai, aita, badakit zertsu duen. Jenero askori begiratu zertsu prezioetan dauden.

Zertsu: Hara zertsu lan eman didaten!

Zeru bidean: Zeru bidean Jesus izango dugu gidari eta lagun.

Zeru/infenu: Elkar maitatuz zeru behar luketen etxeak, gorrotoz infenu bihurtuak.

Zeru/lur: Oraintxe utzi nauzu ez zerurako, ez lurrerako!

Zerua/lurra: Gizagaixoa! Zerua goian eta lurra behean, ez zuen besterik munduan.

Zeruan gertatu: Biak zeruan gerta daitezela betikotasun osoan!

Zeru-gose: Grecoren figura luze, zeru-gose, lurruntuak...

Zeru-min: Ez ote dio askori hobe-behar horrek, zeru-min horrek, Txejov-gana bidea zabaldu?

Zerura nahi: Berak ere zerura nahi zuela. Zerura nahi duenak lapurreta gutxi.

Zigorra dantzatu: Ez zaio iruditzen legearen zigorra behar bezala dantzatzen denik.

Zikin estali: Zikindu arren nabaritzen ez dena. Kolore ilunak zikin estaliak dira.

Zikina (garbitzen ez dena): Ez du ur-xaboitan asko gastatzen.

Zil, zilbor: (Ume hizkeran) Txirrin. Tripako botoi.

Zilar eginik: Badakizue zilar eginik kontxa eskuan dudala (Donostiako omenaldian)

Zilar/zabor: Lehen zilar ziren, orain zabor, lehen ardo on, orain urardo.

Zimel/zimur: Oroilore zimelak denboraren zimurretan.

Zimur (zeken, xuhur, eutsi) (izond.): Zabaletako atso zimurrak...

Zimurrago: Haren zimurrek zimurrago ziruditen.

Zimurrak kendu: Ederki kostata kentzen dizkiogu poltsari zimurrak (puta batek esana).

Zine-atari: Horrelako zerbait ipini behar lukete maiz asko zine-atarietan.

Zinema: Begi-festa. Amets-fabrika.

Zinez eta minez: Zinez eta minez ahalegindu nintzen.

Zinezko eta minezko: Hain baitira haren hitzak zinezkoak eta minezkoak. Zinezko eta minezko orduan.

Zintzarri: Bat ona eta bestea hobe iruditzen, eta isiltasunik gabe segi berriketan, zintzarriak bezala.

Zintzarriak (adkor.): Barrabilak.

Zintzo/asto: Zintzoa, alferren astoa.

Zintzo: Aa, txintxo!

Zintzotasun: Zintzotasunak asko janzen du, familiako maitasuna ere berak ekartzen du.

Zintzotegi: Fraile zintzoak gure zintzotegira abiatu ginen.

Zintzur luze: Zintzur luzeko zurruteroa.

Zintzurreratu: Belar-ura besterik ez dute zintzurreratu, eta urdaila hoska ari zaie.

Zipitzu: Askotan erabili ditut (txotxak), eta zipitzurik daude.

Zipotz: Askotan nolabaiteko giro zipotzak aukeran izan ohi dira urte garai horretan.

Zipriztinka: Zipriztintzen. Zipriztinak egiten/botatzen.

Zir/kir/txir: dirua kontatzen zir-zir-zir, barrez lehertzen kir-kir-kir, sardinak erretzen txir-txir-txir.

Ziri lehorrak sartu: Basarri hasi zitzaion eztenkadak ematen, eta Uztapidek huraxe nahi ziri lehorrak sartzeko.

Ziri/zotz: Ziritik zotza, zotzetik ziria.

Ziri: Ez ziririk sartu! Ziririk ez! Ziria sartzeko, gezurretan ikasi behar.

Zirimiri: Zirimiri ari du gozo-gozo zelaian.

Zirkilu (txoko): Zirkilu batera ezkutatu, disimuluan bere ustez, eta pareta zaharrari txiza egiten ari zaiola, serenoak harrapatu.

Zizare/sator: Zizarea nora, satorra hara.

Zizareak berotu: Eta Joxeri azkenerako txitxareak berotu. Zizareak berotu dizkit eta muturrean eman diot.

Zizareak iraulkatu: Ezizkidazu txitxareak iraulkatu. (Ezizkidazu tripak nahasi, alegia)

Zitzakari: Zitzaka dabilena. Aspaldian oso zitzakari zabilta.

Zoko usaina: A ze zoko usaina duen gela honek.

Zokorago (baztertuago): Gero eta zokorago sentitzen dira pobreak.

Zopak egin: Ibaira harria bota, saltoak egin ditzan.

Zopatu: Ardotan zopatu.

Zor/lepo: Zorrak zor, lepoa lodi.

Zor: Jaioz gero, heriotza zor.

Zora-zora eginda: (zoratura) Zora-zora eginda daude beren futbolarekin.

Zoragarri: Zuen bihotzen zoragarri.

Zoratu: Azkenean, zoraturako ez bazen, anaia zaharrenak dena esan zion.

Zorion oso: Beraz, badirudi inork ez duela zorion osorik munduko bizitzan.

Zoriona: Zorionaren iturria, urruna bezain urria.

Zoriondegi: Bere baitatik irten eta bazihoala iruditu zitzaion betiko zoriondegiarentz edo.

Zoriongarri: Lagun zahar batek ongi gordeta zeukana bidali dit zoriongarri, eta estimatu diot benetan.

Zoritxarreko: Gu behartu orduko, errekan urik ez.

Zoritxarrez edo onez: Gai horiek burutik kenduta nabil zoritxarrez edo onez.

Zoroko: Zoroko ibili.
Zorri: Zorriak dituenak egin dezala hazka!
Zorri: Zorri galantak hazten (pobre izanik, gosea sufritzen)
Zorri: Zorria baino lotsagabeago.
Zorrotz heziak: (agindu zorrotzetan heziak, alegia)
Zorrotzura: Are, karramarro eta bestelako erreminten zorrotzuran aritzen nintzen, baserritarrentzat.
Zortea izan: Karta guztiak ondo zetozkion
Zorteari lagundu: Zorteari lagundu egin behar.
Zortzi-zortzi, etxea bete zorri
Zotz: Zotza baino iharrago zen.
Zozo/bele: Nork nori, zozoak beleari.
Zozolo-mozolo: Zozolo-mozolo galanta!
Zu nor zara?: (adierazkorrago) Zu nor zaitugu?
Zuhaitz botatzen: Trebea zen zuhaitz(ak) botatzen.
Zuhaitz zaharra: Zuhaitz zaharrak ez du besterik: zotz iharra ta orbela.
Zuhaitz: Zuhaitz zaharretik ez dago fruitu berririk sortzeko modurik, inolaz ere.
Zuhaitz: Zuhaitzetan bizi, jan eta lo egiten dutenek, buztanarekin eusten diete beren buruei, eta gordetzen dute oreka.
Zuhaitzarte: (sasiarte bezala): Zuhaitzartetik aldendu behar ditugu (animaliak ekaitzean).
Zuku-zuku egin: Ekin berehala, edo zuku-zuku egingo zaitut!
Zuku-zuku: Eta axuriek zuku-zuku beteko dute tripatxoa.
Zulatu (iz.): Zulatua izan du bizikletan zihoala.
Zula-zula egin: Larrua zula-zula egingo ote diozu geziz?
Zulo egin: (Zuloan asmatu) Bertan zulo! Txulo egin zuen.
Zulo egiten: Goizak zulo egiten ematen ditugu
Zulo/ziri: Zulo bakoitzari neurriko ziria laster sartuko zion dotore asko (umorezko gaietan).
Zulo: Zulorik zuloenean.
Zuloa: Hanka zuloa utzi du paretan ostikoz jota.
Zuloago: Sorgin-zuloa gero eta zuloago bilakatu zaigu.
Zuloaldi: Epailleak hamar urteko zuloaldira kondenatu zuen.
Zuloan egon: Zure erruz, gure negoziua zuloan dago orain. Zulo beltzean dago gure mutila harrezkero.
Zulo-miatzaile: (zuloak miatzen diharduena)
Zulorago: Gero ta zulorago doaz bide horretatik.
Zuloratu: zuloan sartu.
Zume: Zumea baino bigunago.
Zumitz: Saski txikiak egiten ari zen gaztainezko zumitzekin, dotore asko.
Zumiztu: Frutaz beteta dauden arbolak txikitu eta zumiztu (harriak udan).
Zure (atzetik): Ama zureak apaintzen zaitu hain era kuriosoan.
Zuregana/niregana: Zegama, galdetzera nator zuregana: maitasun hau zergatik duzun niregana.
Zuretzat egon: Ezer gehiago nahi baduzu, esan beldurrik gabe; zuretzat nago hemen.
Zuriko: (Pertsona zuri edo lausengariari deitzeko izena)
Zuritu: Zuritu hoge! duro!
Zuri-zuri utzi: Sarraskia zuri-zuri utzi dute saiek (dena janda).
Zuri-zuri: Zuri-zuri hitz egin zion.
Zurrut eta mau-mau, sakelak badirau.
Zurrut/purrut: Berriz ere ibili zara zurrut eta purrut!
Zurrut: Aurretik zurrut, atzetik purrut.
Zurrut: Zurruta dexente eginik zegoen gizajoa.
Zurrut: Zurrutak dago eragina, hainbeste badu egina, txikitandik ekarri zuen horretarako grina.
Zutik jaio (zortekoa): Hori da zutik jaiotzea!
Zuzen/oker: Gizon zuzen askoak ikusi izan dira inoiz ederki okertuta (parrandak hartaraturik)
Zuzenbide egin: Epaille zuzenak zuzenbide egiten die behartsuei.

ERDARA-EUSKARA

A bote pronto: Bote lasterrean.

A ciegas (una prueba a ciegas): Itxukako proba bat.

A fistful of veggies: Esku bete barazki

A lo loco: Ero-eroan.

A mi vera: Nire ondoan.

A nivel de (oker gaztelaniaz ere): Europa mailan: European. Ministroen mailan: Ministro(en) artean.

A pasar el verano: Uda-pasa. Uda-pasa etorri dira.

A propósito: Izan ere. Izan ere, non bizi da hire lagun hori?

Abandonar: eskutik utzi. "Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?"

Abandono (en actitud de abandono): Nagitasunean. Nagitasunez.

Abrigarse (¡Toma, abrígate!): Tori, jantzi bero-bero!

Abrir (el paraguas): Aterkia zabaldu

Abrirse: Burua zabaldu.

Abstracción (Haciendo abstracción de eso): Hori alde bat(era) utzita. Hori kontuan hartu gabe.

Abuela (Eramos pocos y parió la abuela): Gutxi ginen eta amona haurdun.

Aburrimiento (¡Qué aburrimiento!): Hau da aspertzea!

Aburrimiento (morirse de puro aburrimiento): Asperraren asperrez hil.

Acartonado: kartoi itxurazko: Eta orduko kartoi itxurazko gelditasun hura ere ez zaio komeni.

Acartonado: kartoi usain: Harri zaharren azal horiztari ez dario kartoi usainik.

Acceso (Una zona de difícil acceso): Irispide zaileko leku bat.

Acción (zineman): Ekin!

Aclarar (las ideas): Burua argitu. Urak lagunduko dio burua argitzen.

Acotado: Mugabarru. Arrantza mugabarrua.

Actuar: Eragin. Buruan eragiteko sendagaia.

Adaptive and competitive: Moldakor eta lehiakor

Adiós para siempre: Adio, sekulako!

Adoctrinador: Doktrinatzailer

Adulador: Koipe-emaile. Mihizuri. Zuriko.

Adular (adulando): Ipurzuriketan.

Advertida o inadvertidamente: Oharkabez ala ohartuki.

Affineur (fromage): Gazta-ontzailer

Afición a la lectura: Irakurzaletasuna.

Aficionarse a la lectura: Irakurzaletu.

Afirmar (Afirmar con la cabeza): Baiezkia egin buruarekin.

Aftershocks: Lurrikara-ondo. Lurrikara-ondoko indartsu bat.

Agarrado: (esku-) eutsia izan.

Agradecido (Os esta(re)mos para siempre agradecidos): Gure esker ona betiko zuentzat!

Agridulce: Ezti-mingots. Gau-neguen itxuraren azpian ezkutatu zaigun heriotzak zirrara ezti-mingotsa zabaltzen digu bihotzean. (K. Mitxelena)

Agua no potable: Ez edateko ura.

Agua potable: Edateko ura.

Aguardentoso (Voz aguardentosa): Pattar ahotsa (Ahots latza, gogorra).

Aguas poco profundas: Ur axalak (uraxalak)

Aguijoneador: Eztenkari.

Ah, it's... day to day: Hementxe, eguna egunari ematen.

Ahí esta!: Hor dago, ba! Hor zegok, ba! (Hortzeopa!)

Ahora que lo pienso: Izan ere...

Aire (al aire libre): Kanpo librean. Kanpoan. Landa zabalean. Aire/atari zabalean.

Ajado (deslucido): maiztu. Soineko maiztuak.

Al toque: Adar hotsera zihoazen denak aurrera.

Alcance (más al alcance): Eskurago.

Alcanzar (Alcánzame...): Iritsidazu, seme! (lurrera eroritako gutuna)

Alegrar (la vista): Begiak argitu.

Alegría (¡Qué alegría verte!): Hau poza zu ikustea! Hau poza, ama!

Alegría interior: Barnepoz

Aleta: (que tiene aletas) Hegastun.

Aletazo: Hegalkada.

Aliento (recuperar el aliento): Hauspoa berritu

Alivio: Arindua. Arindu ederra sentitu zuen sendagaia hartuta.

Alteza/bajeza (txantxetan): Gorentasuna/Beherentasuna.

Altibajos: (Sin altibajos) Gorabeherarik gabe.

Alucinar (No alucines): Ametsik ez!

Alzarse (sobresalir): Nabarmendu. Nabarmen ageri.

Ambientador: Aire-gozagarri

American life: Amerikar bizibidea.

Amigablemente: Lagunkiro.

Amor (en amores...): Amodiotan ibili

Amor Dei (Deum amamus/Deus nos amat): Jainko(aren) maitasuna (Jainkoa guk maitatzea/Jainkoak gu maitatzea)

Amor sobreabundante: Maitasun ugaria ("O maitetasun ugaria, gizonarentzat gehiegia")

Amueblar (la cabeza): Burua jantzi.

Amueblar: Jantzi. Etxea jantzi, alaba ezkondu. Etxe jantzia/etxe hutsa.

Ancho (de hombros): Bizkar-zabal

Andar (andaremos justitos): Larri-larri ibiliko gara

Andar (desayunar andando): Ibilian gosaltzen dute.

Ande yo caliente y riase la gente: Nabilen ni bero, nahiz irudi ero!

Animo: (¡ánimo!): Eutsi goiari! Animo!

Antecielo: Zeru-aurre

Antes (un poco antes): Aurretxoan. Hil aurretxoan. San Fermin aurretxoan.

Antes de un año: Urtea gabe.

Antes o después: Lehenago edo geroago. Lehentxeago edo geroxeago (Un poco antes o un poco después)

Antiarrugas: Zimur-aurkako. Zimurren aurkako. Zimur-kentzeko.

Antibacteriano: Bakterio-kontrako

Antical: Karearen aurkako. Kare-aurkako.

Anticaspa: Zahi-aurkako. Zahiaren aurkako.

Antigrasa: Koipe-aurkako. Koipearen aurkako. Koipe-kentzeko.

Antigravitation: Antigraibitazio

Antigravitatorio: Grabitazio-aurkako

Antiguos alumnos: Ikaskide ohiak.

Antirroto (pelo): Zartatze-aurkako. Zartatzearen aurkako.

Años (81 años largos, casi 82): 81 urte luze, ia 82.

Apegados a la ciudad: Hirizaleak, hiri-maiteak.
Apegados al dinero: Diru zaleak. Diru-goseak. Diru-maiteak.
Aplicarse el cuento: Etxerako ere ez da txarra.
Apoyado en la baranda: Barandaren kontra.
Apremiar: Presarazi. Presatu.
Apretar (presionar mucho): Estu hartu. Gogor egin.
Aproximadamente: Hurrean. Hitz egiten ez nuela ere hilabete hurrean egon nintzen. Hura zen miseria!
Aquí (De por aquí): Hemen hauetako
Arco iris: Jaungoikoaren gerrikoa.
Armar/montar (¡Ya la has armado/montado!): Egin duzu orain ere!
Arriba (de arriba abajo): Goi ta behe (miatu).
Arrimarse a la pared: Hormaratu. Erabat hormaratu zaio pilota.
As de picas: Bateko pika (Bateko urrea-ren haritik)
Asentar la cabeza: zentzatu. Buruz jantzi.
Asistencia a la escuela: Eskolaratze. Eskolaratze-saria.
Asistente: Bertaratu (entre los asistentes): Bertaratuen artean
Aspirar a: irrikatu. Irrika itzazu betiereko ondasunak.
Asunto (¡Al asunto!): Harira!
Asunto (de cama): Ohe kontua
Asunto de amoríos: Maitasun saltsa
Ataque (¡Al ataque!): Eraso!
Atenerse a razones: Arrazoitara bildu/makurtu
Aullador: Ululari (otsoa, hontza...)
Aumentos lineales (Aumentos comunes, para todos): Denentzako igoerak.
Aún: Oraindik (orainaldian) Ez da oraindik etorri. / Artean (lehenaldian): Artean asko falta zitzaion.
Aupar: Aupa! (Haurrak amari besoetan hartzeko adierazteko)
Ausente: Urrun. Urrun nabari dut, eta hotz, zakar.
Autónomo: Beregain. Beregain jarri zen.
Autre temps autre moeurs: Beste garai bateko ohiturak.
Avestruz (granja de avestruces): Ostrukategi
Ayuda (con la ayuda de Dios): Jainkoa lagun. Ondo bizi, anaia, Jainkoa lagun!
Azotea: Goiko terraza. Etxe gaineko terraza.
Babia (estar en Babia): Zer, orain ere pikutan?
Baja altura (volando a baja altura): Oso behetik hegan
Bajo (en calorías): Kaloria urriko
Bajo (Más bajo, en voz más baja): Isilago. Isilago hitz egin, faborez!
Bajos (de los pantalones): Praka barrenak. Praka barrenak egin.
Bajos fondos: Kalezuloak. Kalezuloetako bizimodua, giroa.
Bala (hombre bala, bala humana): Giza bala
Balonazo: Baloikada
Barbaridad (Hacer barbaridades): Ikaragarriak egin.
Barlovento (Ganar el barlovento): Haizealdea irabazi.
Báscula (del baño): Pisu.
Bastante mejor: Aldekoxe. "Aldekoxe gabilta geure oinetakoekin"
Basura: Simaur-pila. Jo zak pareta buruaz, simaur-pila!
Batalla sin cuartel: Hil edo biziko borroka.
Bateador: Batedun. Bateatzaile ("Bonba-bateatzailea" marrazki bizietan)
Beber (de mal beber): Edan txarrekoa
Bebida (No poder sobrellevarla): Edana ezin ekarri.
Belleza desolada: Edertasun soila (basamortuarena)
Besito: (dale besitos): Eman patxoak (haur hizkeran)
Besucón: Musubero
Bien hablado: Ondo hitz egina.
Bien nacido: amaren seme
Boca/agua (Se me ha hecho la boca agua): Txistua egin zait ahoan.
Bofetada/tortazo: (A bofetadas, a tortazos): Zaplaztekoka.
Bolsa de agua: Poltsa beroa (oherako).
Bon vivant: Ondo-bizi. Ondo-bizi bakan batzuk...
Bondad infinita: On azkenik gabea.
Boogie board: Txanpero (txanpak egiteko oholtzoa).
Bote (premio acumulado): Sari metatua.
Brevemente : (Muy brevemente): Labur-labur. Labur baino laburrago.
Brillar: (Brilla la amistad): Adiskidetasuna gailen.
Brujo (aprendiz de brujo): Azti-ikasle. Aztigai.
Bueno (¡Qué bueno eres!) Zu bai zintzoa! Zintzoa zu!
Bueno (no tenemos cosa buena/nada bueno): Ez dugu gauza/ezer onik!
Bullanguero (adkor.): Zintzarri.
Burla (En tono de burla): Burlaizez. Burlaizean.
Busca: Bilagailu
Buscar: (Se busca: Bila)
But you deserve credit: Ez duzu meritu makala!
Cacharro (¡Vaya cacharro!): A ze neska/mutil puska! A ze auto puska!
Caer (No he caído en (la cuenta de) eso): Ez naiz horretaz jabetu.
Caer bajo (¡Y que haya caído tan bajo!): Ta hain behera erortzea ere!
Café con algo: Kafe bixitua
Cagaprisas: Kakalarri. Ez zaitzete kakalarri(ak) izan.
Calada: Txupa(ka)da (zigarroei eta gozokiei) Pipa(ka)da (pipari). Fumada (zigarroei).
Calado, empapado: Tximu eginda
Calamares: Txibi erroak
Calentorra: Pottobero. Tutubero.
Calera: 1. Karobi (karea egiteko labea) 2. Kareharrobia.
Calidad (de vida): Bizimodu ona
Calmar (el hambre): Tripa-zorriak baretu.
Calor (Hace calor): Bero da (hemen). Bero dago (gaur). Bero egiten du.
Calzonazos: Galtza-jario. Cantinflas galtza-jarioak...
Calzonazos: Galtzaundi. Prakaundi.
Callado: Isil. Hitz-urri. Hitz urrikoa.
Callar/otorgar (Quien calla otorga): Isila, baiezkotz biribila.
Callar: Ahoa itxi. Ezpainak lotu.
Calle (Chicas de la calle): Kale bazterreko neskak

Calle (en plena calle): Kale-kalean.
Calle de arriba: Goiko Kale. Calle de abajo: Beheko Kale. Calle de en medio: Erdikale.
Cambiar (No cambia. No ha cambiado): Lehengo lepotik burua!
Camilla: esku ohe
Camino (peatonal): Oinbide. Oinbide ederra zegoen paseatzeko.
Camino (vivir de camino): Bidez bizi.
Campamento base: Kanpaleku/Kanpamentu nagusia.
Campana (Vuelta de campana): Kanpanbuelta.
Campo (Salir/entrar al campo): zelairatu
Canción amorosa: Maite-kanta (Biblia)
Candling: Zeharrargitu (esku-argiz begiratu arrautza-oskolei, hutsak diren ala ez ikusteko)
Cansancio acumulado: Neke zaharra.
Cantidad (tal cantidad): Hainbesteko. Hainbesteko (txiki) bat ordaindu.
Capataz: Lan-arduradun.
Captar: atzeman (ez antzeman)
Cara culo: Ipurtaurpegi
Carácter (formar el carácter): Izaera landu.
Carantoñas (Hacer carantoñas al niño): Maite-maite egin haurtxoari.
Cárcel: adkor. Zulo.
Cargos electos (kargua hartu arte bakarrik): Hautetsiak.
Caricias lascivas: Zirri lizunak.
Cariño: (hacer cariñitos): Maite(a)-maite(a) egin.
Carne (del pescado): Mamia
Carne de gallina (Se le ha puesto carne de gallina): Oilo larrua. Oilo larrua egin zaio.
Carta (Enviando cartas): Gutun bidaltzen
Cartas (Picar las cartas): Kartak nahasi (revolver). Kartak moztu (cortar)
Cartera (de los carteros): Gutun zorroa
Casa amueblada: Etxe jantzia.
Casi casi: Hortxe-hortxe (ibili naiz)
Caso: (Aún en el peor de los casos) Txarrenean ere
Casually (de pasada): Bestela bezala.
Causa (por una buena causa): Helburu on baten alde.
Ce petit sous-marin, dernier-né de la technologie: Itsaspeko txiki hau, teknologiaren labetik irten berria.
Ceca (De Ceca en Meca o de la Ceca a la Meca): Munduz mundu. Munduan alde batetik bestera.
Ceder: (No cederá así como así): Ez du berehalakoan amore emango. Ez du hola ta hola amore emango.
Cementerio de coches: Auto-txartategia
Cenizo (No seas cenizo): Ez deitu zoritxarrari!
Cerro montañoso: Mendi uztai
Cerrado (de mente): Gogo-hertsia
Científicamente: Zientziaz. Zientifikoki.
Cierto (Por cierto,...): Izan ere, non utzi zenuen liburua?
Circular (Hacer circular): Zirkularazi
Circular: ibili. (La noticia que circulaba...) Horixe zen herrian zebilen azken berria.
Círculo vicioso: Gurpil zoro
Clamar (¿Por quién claman/llaman?): Nor hots egiten dute?
Claridad (Claridad de pureza): Garbitasun argia.
Cobrar (Todo cobra vida): Dena bizi bihurtzen da.
Cobro revertido: Kobrantza itzulia
Coger (para modelo): Modelotarako/Modelo izateko hartu.
Coincidencia (Ha sido una coincidencia): Halaxe egokitu da.
Coincidencia: Elkar-topa. Elkar-topa horietakoa.
Cojín de pedos: Puzker kuxina
Colgar: (el teléfono): Telefonoa pausatu.
Colgar: (sakelakoa) Itzali. Itzali egin du. Itzalita dauka.
Colilla: (de cigarro) Zigarro muturra. (de puro) Puru muturra.
Columna de nube: Laino-adar
Cómo no!: Nola ez, ba!
Compañero cadáver: Hilozkide.
Comparación (Término de comparación): Konparaburu.
Complicación (Si no hay complicaciones): Inongo okerrik gabe.
Comportarse (Compórtate): Portatu! Ongi portatu!
Común (En común) (Testuinguruaren arabera): Ez dugu ezer batera/elkarrekin/biona/guztiona/berdinik.
Común (en común): Garbi dago zer duten berdin (edo antzeko).
Comunicator, comunicador (aparato): Komunikagailu
Concentrado: Buru-belarri. "Buru-belarri ari zen lanean".
Concentrarse: arreta bildu. Ikasgelarik gabe, larri ibiltzen ginen ikasten, arretarik ezin bilduta.
Concentrarse: gogoa bildu. Horrela ez dago lanean gogoa biltzerik.
Confianza (en mí mismo): Neure baitango konfiantza.
Conflicto (de personalidad): Nortasun nahaste
Confundir (uno con otro): Bata-bestetu. Nagusia ta morroia bata-bestetu zituen.
Conquistar: sarean bildu. Neska ikusi, neska sarean bildu nahi.
Considerar (juzgar): Juzgatu. Maiatza juzgatu izan ohi dugu urte garairik ederrena.
Consistir: (El juego consiste en encontrar la pareja correcta): Jokoa da bikotekide zuzena aurkitzea.
Constar (Y para que así conste a los efectos oportunos): Eta hala ager dadin dagokionerako
Contar (no cuentas con ese): Jai duzu horrekin!
Contar con (No vuelvas a contar conmigo): Nirekikoak egin dituzu.
Contar con (vosotros): Zuek etxerako!
Contar con: Kontuan izan. Eusebiok esan zigun kontuan zuela lanerako.
Contar con: Lagundu. Ziur nago lagunduko didala.
Contrapasa: Kontrapasa. (Itzularoko ehiza ?)
Convencer: Bere iritzietara bildu zituen.
Convencer: Bereganatu. Urkok badaki jendea bereganatzen.
Convencido: Sinisturik. Udaberriak alaituko du, egon hori sinisturik.
Convertirse a Dios: Jaunarengana bihurtu.
Coño (¡Tú qué coño le vas a ayudar!): Putza lagunduko diok hik!
Copla (Déjate de coplas): Koplarik ez.
Coqueta: (niña coqueta): Mariapain(txo).
Corazón (con el corazón en la mano, vengo a pedirte perdón): Bihotz-bihotzetik barkamen eske natorkizu.
Correcaminos: Bideibiltari
Corredera (Puerta corredera): Ate irristakorra

Corriente (mantener al corriente): Jakinaren gainean eduki
Corroer (Le corroe la envidia): Espak jaten du. Inbidiak jaten du.
Cortada (pilotan): Zeharra. Ezker zeharra txokora edo zabalera.
Cortadora (de hierba): Belarra moztekoa. Nire belar-moztekoa.
Cortar la cabellera: Burua larrutu.
Corte (sección) transversal: zehar-ebakidura
Corto y cambio: Txanda ta kito.
Cosas más urgentes: Aurreragoko kontuak
Credenciales (barrabilak): Dokumentuak
Creer (¡Y yo, que te creía!): Eta nik sinistu!
Creer (No te creas, en aquella época...): Ez pentsatu, garai hartan...
Crema desmaquilladora: Makillajea kentzeko krema.
Criticar: larrutu. Zertan zaudete hemen, norbait larrutzen?
Crudo/a (Llevarla cruda): Ez du ederki behar! Gorriak pasatu behar!
Crujiendo: kurruska. Suak eta garrak kurruska-kurruska goraka.
Cuando menos se piensa: Gutxiena ustean. Gutxien uste denean.
Cubrir: (¡A cubrirse!) Jantzi txanoa!
Cuchicheando: Ahapeka
Cuenta (A fin de cuentas...): Kontuak kontu...
Cuento (el cuento de nunca acabar): Bukatzen ez den soka
Cuerpo sano, mente sana: Gorputza sano, burua sano.
Cuesta (llevar auestas): Bizkarrean eraman. Arre-arreka eraman (Haur hizkeran)
Cuestión: (Poner en cuestión) Auzitan jarri.
Cuidate: Zaindu! Zaindu ondo! Zaindu zeure burua! Zaindu zaitze.
Cumpleaño: Mendebetetze
Cunde más de lo que cuesta: Asko eman, gutxi kendu.
Cundir: asko eman.
Chalado (Cuando estás chalado por algún chico): Mutil-txoro zaudenean... Mutilen batek txoratuta zauzkanean...
Chapa (dar la chapa): Belarria berotu/gorritu.
Chef de cave: Sotoburu
Chica que ve, chica que quiere conquistar: Neska ikusi, neska sarean bildu nahi.
Chicha (Ni chicha ni limonada): Ez ur eta ez ardo
Chino (jugar a los chinos): Txinotan jokatu
Chulo (proxeneta): Puta-jabe.
Chungo (Lo tienes chungo): Beltz daukazu! Ez daukazu erraz!
Chupada/Calada: Txupada (karameluari, zigarroari...)
Chupar (Venga a chupar. Chupa que te chupa.): Txupa ta txupa. Izozki gozoa txupa ta txupa.
Dar (bien el vestido): Jantziak ongi ematen dizu. Jantzi horrekin ez zaude ondo. Jantzia ez daukazu ondo.
Dar (Dió todo de sí): Zituenak eta ez zituenak eman zituen.
Dar comienzo (comenzar): Hasi
Darse a la fuga (fugarse): Ihes egin
De ida y vuelta: Joan-etorrikoa. Joan-da etorri.
De vuelta: Itzulikoa.
Death letter: Hilberri gutuna
Death roll: (Krokodiloena) Iraulka zoroa
Deber (te debo una): Zorretan nago (zurekin).
Debilidad (tiempo de debilidad): Txakalaldia.
Decena (decenas de miles): Dozenaka mila. Milaka ta milaka.
Decenas de años: Dozenaka urte
Decir (¡Mira que te lo tengo dicho!): Mila aldiz esan dizut eta! Mila aldiz esan dizut, ba!
Decir (¡Tú me dirás! ¡Ya me dirás!) Esango didazu!
Decir (Dígase lo que se diga): Tratu horietan, zer esanik esan, hartzaile ginen gu emaille baino areago.
Decir (Ya decía yo): Banioen, ba, (nik)!
Decir pronto (¡25 años, que se dice pronto!): 25 urte, ez da txantxa, gero!
Decir: (Digamos lo que digamos): Zernahi (ere) diogula.
Declaración de amor: Maite-agiria
Dejar (¡Cómo te ha dejado!): Txukun(agatik) utzi zaitu!
Delfinario: Izurde-tegi
Delicioso: Gozo-gozo.
Delirando (delirante): Sukar ametsetan.
Demasiado para cosa buena: Gehiegi gauza onerako!
Derecha (Lo más a la derecha posible): Eskuinaldeenean
Derribador: Eraisle
Desahogo (¡Qué desahogo!): Hau lasaitua! A ze lasaitua! Lasaitu ederra!
Desahuciado: Hil etsian eraman ninduten.
Desamorarse: Maitegabatu
Desarrollismo": Garatze neurrigabea.
Desayunar andando: Ibilian gosaldu
Desayunar: Baraua hautsi. Baraua hautsi behar diagu lehenbailehen, etxe aldera abiatu aurretik
Descansar (¡Que descanséis en paz!): Bakean atsedean!
Descansar, parar (No descansaron, pararon hasta echarme): Ez zuten ni bidali arteko onik izan.
Descapotable: Auto ireki. Gain ireki: autobus gain irekirik ez zegoelako; bestela...
Descaro: lotsa gaizto. Seme-alaben lotsa gaiztoa ta esker txarra ikusita...
Descontaminar: Kutsagabatu
Descortés(mente): Gisagabe
Desembarcar (en playa): Hondartzaratu.
Desesperadamente: Etsi-etsian.
Desesperante: Desesperatzekoa da. Desesperatzeko modukoa da.
Desgana: alfergura
Deshacer la maleta: Maletakoa jaso. Maleta hustu.
Deshecho (Estoy deshecho): Leher eginda nago. Porru eginda nago.
Desheredar: Desheredatu (Heredatu onartua dago ta)
Desinhibirse: Lotsa utzi.
Desmentidor: gezurtatzaile
Desolado: Triste, babesgabe, mortu.
Despeinarse: Ilea banatu.
Espistado: distraitu
Espistar: Galdu. Ea galtzen ditugun atzetik datozenak!
Después (Poco después): Geroxeago.
Destiempo: (A destiempo, deshora y fuera de lugar): Desgaraian, desorduan eta deslekuan/Lekuz kanpo.

Detalles: Ipi-apa
Devastador/a: Suntsigarri
Día (El otro día): Lehengo batean
Día (Un día intenso): Jarduera handiko/ugariko eguna. Egun gogorra.
Día a día: Egunean-egunean
Dibujos animados: Marrazki biziak. Marrazki bizidunak.
Dicho (Lo dicho): Esandakoa. Esandakoa, inozo hutsa zen.
Did you miss me?: Nire oroiminez?
Diente (con los dientes afilados): Hortzak zorrozuta (txuleta jateko, etxea erosteko...)
Difícil (A la suerte no hay que ponérselo difícil): Zorteari ez zaio oztoporik jarri behar.
Dignarse (Se dignó bajar del palko): Makurtu. Onartu. Palkotik jaistera makurtu zen. Onartu zuen palkotik jaitea.
Dinero reservado: Isil poltsa.
Dios único-trino: Jainko Bakar-Hirukoitzak...
Dios uno y trino: Jainko Bakoitz eta Hirukoitz
Dios (Vaya con Dios -¿Con quién si no?): Zoaz Jaunarekin -Norekin bestela? Jainkoa lagun! -Nor bestela?
Discreto (Hay que ser discretos): Zuhur ibili beharra dago.
Disgusto (a disgusto): Disgustura.
Disimulador: Disimulatzale
Disparate (Decir disparates) : Ez esatekoak esan.
Disparate (Hacer o cometer un disparate): Ez egiteko bat egin.
Distraer (desviar la atención): Arreta desbideratu.
Distraído (andar distraído): Arreta galdurik ibili
Do you not have a place to stay?: Nora joanik baduzu?
Doblar y extender: Tolestu eta zabaldu. Aurrena tolestu papera eta gero zabaldu.
Dolphin safe: Izurderik mindu gabe.
Dominguero: Igandezale
Dormant volcano: Sumendi itzalia
Dormida (¡Qué dormida! ¡Vaya dormida!): A ze lo saioa!
Dormir (de buen dormir): Lo oneko. Lo onekoak gara.
Dos almas afines: Bi arima kideko.
Dos pájaros (Matar dos pájaros de un tiro: Tiro batez bi txori (hil)
Duda (ante la duda, la más tetuda): Seguruena, titi-handiena!
Dudar (¿Acaso dudas?): Duda, ala?
Early (In the early afternoon): Eguerdi ondoan.
Echar de menos (Te he echado de menos): Zure falta izan dut.
Echar en falta: Paradisu galduaren mina daukagu hezur muinetaraino sartua.
Echar en falta: eskas aurkitu. Eskas aurkitu zuen haren esker ona.
Echar en falta: eskas izan. Beti eskas dut oherakoan amaren musu beroa.
Echar en falta: Gogoan izan. Faltan aurkitu/bilatu. Haren mina izan. Haren falta/hutsa/hutsunea sentitu/sumatu/nabaritu
Echar en falta: Haren mira egin/izan
Echar flores: Hitz ederrak esan/izan. Hitz ederrak ditu beti niretzat.
Echar ramas/raíces: Adarrak/erroak bota.
Echase a dormir: Lotara(ko) etzan.
Echase para atrás: Atzera egin
Edificio (Viven en el mismo edificio): Etxepe. (Etxepe berean bizi dira)
Efecto: erasan. Ez dio inolako erasanik egin.
Ejemplario: Adibidetegi
El Gigante de Alzo: Altzoko Handia.
El ladrón con escoba: Erratzarekiko lapurra
El pasado: Iragana. Aldi joana.
El pueblo de al lado: Auzo herria.
Electro(cardiograma) plano: Elektro(kardiograma) zapal. Elektroa zapal-zapal dago.
Elegir (no tienes mucho donde elegir): Ez duzu non aukeratu handirik.
Elegir (puestos a elegir): Aukeran. Handitxo aukeran.
Elegir como bueno: Ontzat hautatu.
Elemental: Agerikoa. (¡Elemental!...): Jakina!...
Elemento (Menudo elemento): Apareju ederra!
Elemento, prenda (¡Vaya elemento/prenda!): A ze alea!
Elixir (de la juventud): Gaztetasun edabe
Embarancar (hacer embarancar): Hondarrarazi. Sonar aktiboak hondarrarazten ditu baleak.
Emoción (Con tanta emoción...): Emozioaren emozioz...
Empollón: adkor. Liburujale
Empulgueras: Erpuru-estutzeak
En diez minutos (empezará todo): Hamar minutu barru hasiko da dena
En diez minutos (haré todo): Hamar minutuan egingo dut dena
En menos de: Handik bi oren gabe Gobernadorea Burgosko bidean zen.
En una de esas: Halako batean
En vano: alferrik. Ez zuen alferrik hautatu Jonek!
Encantamiento ((Como) por encantamiento): Xirmi-xarmaz (bezala).
Enfant sauvage: Basaume
Enfermo mental: Buru-gaixoa
Engagement party (Fiesta de compromiso): Ezkonaurreko festa.
Enganchar (una afición): Katigatu. Hasieratik katigatu ninduen ehizak.
Entender (dar a entender a medias): erdi adierazi.
Enterarse (darse cuenta): jan. Orduan jan nuen nor zebilen atzetik.
Enterarse: Ikasi. Ikasi azkoitiararen izena, Amaiaren amari aurkezteko.
Enterarse: Ikasi. Lorentzo, berri hori ikasitakoan, hura zegoen kartzelara joan zen.
Enterarse: Ikasi. Ostegunean etorriko da ta ordurako ikasiko omen du zer gertatu den.
Enterarse: Ikasi. Paperetan ikasi dut hori.
Enterarse: Jakin. Ikasi. Jantzi. Jabetu.
Entrañar: Barneratu. Hain barneratua dut haren irudia!
Entrañas (¡Hay que tener entrañas!): Barrua behar du (gero)!
Entre pitos y flautas: Bata dela edo bestea (dela).
Entregar: eman. Zure eskuetara eman nautenek...
Entrever (ver a medias): erdi ikusi.
Envidiable: Inbidia izatekoa
Equivocarse (se equivocó de casa): Etxez nahasi zen.
Era tan hermosa que no sabía hablar: Ederraren ederrez, ez zekien hizketan.
Erudito: Askojakin
Escarbador: Aztarrikari

Escasez (época de): Urrialdi
Espabilar (despertar a tiempo): Garaiz esnatu. Eta erdiz erdi asmatu zuten, garaiz esnatu zirelako.
Espada (entre la espada y la pared): Ezpata aurretik, pareta atzetik.
Espalda (Dando la espalda): Bizkar emanda. Labeari bizkar emanda berotzen.
Espalda inferior: Bizkar azpi
Espantaniño: Ume-izugarri.
Espantarse: Izu-larritu
Esperando que hayan pasado bien, les deseo...: Ongi pasatuko zenutelakoan, ... opa dizuet.
Esperanza (No quiero que abrigo/alimente/se haga falsas esperanzas: Ez dut itxaropen ustelik izan dezan nahi.
Esperanza (Tiene muchas esperanzas): Itxaropen handia du.
Espléndido: Ugari. Mesede egiten ugaria zara, Jauna!
Está reunido: Bileran da(go).
Estado (Por el estado español): Espainian zehar. (Estado es el conjunto de los órganos de gobierno...)
Estado de gracia: Graziak egoera.
Estar (Ya estaremos): Bilduko/elkartuko gara.
Estar a bien (a buenas): Ongi nahi. Nik denekin ongi nahi dut.
Estar en las mismas: Beti batean egon
Estirada (¡Vaya estirada!) Hori da luzatzea! Ederki luzatu da!
Evitable (fácil de evitar): Saihesten erraz. Saihesterraz.
Exactly!: Arrazoia!
Exagerar (No exageres: No ez para tanto): Ez da horrenbesterako (ere)!
Examen de recuperación: Bigarren aukerako azterketa.
Excepto residentes: Bertakoak izan ezik.
Excusa (Con el colesterol no hay excusa que valga): Kolesterolarekin ez dago aitzakia merkerik.
Exfoliante: Esfoliatzaile. Xaboi esfoliatzailea.
Existir (Y nosotros, como si no existiéramos): Eta gu ez gara inor, ala?
Existir: (Como si no existiéramos): Munduan ez bageunde bezala.
Existir: Existitu (izateko modu bat).
Existir: Izan. Jainkoak izan behar zuela, nahitaez, berak, Unamunok, betiko bizia goza zezan.
Explicaciones (No me vengas con explicaciones...): Ezidazu esplikazio lehorrik eman.
Explotar (al pobre): Behartsua zurrupatu
Expósito: herri umea
Expuesto (estar expuesto a): (Haren) eraginpean egon.
Fácil de: Ez da kontrolatzen erraza.
Factura (pasa factura): Ondorena/ondorioa dakar
Faltar (¡lo que nos faltaba!): Ez genuen besterik behar!
Faltar (No me falta casi nada para terminar): Hutsa falta zait bukatzeko.
Faltar (Pero nos faltas tú): Baina zu falta zaitugu
Faltar (Sólo me faltaba eso): Ez nuen besterik behar! Horixe besterik ez nuen behar!
Faltar al respeto: Ezingo diogu errespeturik galdu, behintzat.
Fallido (Intentos fallidos): Saio huts eginak
Fama(Morir con fama de santo): Santu faman hil
Familia unida: Batera jaten duen familia, beti bat.
Fast food: Berehalako janaria.
Felices sueños!: Amets on!
Felicidad total: Zorion betea
Feline friends: Katu-jendea
Festivo (vestido de festivo): Jai eguneko jantzita
Fiarse (¡No te fies!): Gutxi fidatu!
Fibra (tocar en la fibra más íntima): Gihar-giharrean ukitu
Fibrilador: Fibrilagailu
Fideliter et devote: Leialki eta debozioz
Fin (de semana): Asteburu. (de año): Urteburu. (de siglo): Mendeburu
Fin (Hasta el fin del mundo): Munduaren azkenera arte (denboran) Munduaren azkeneraino (lekuan)
Fin (Por fin): Noizbait (Uztapidereen liburuaren izenburua)
Fin: Azken "Bere erregetzak ez du azkenik"
Finisecular: (La poesía finisecular) Mendeburuko poesia. Mende hondarreko poesia.
Flaco de espíritu: Gogo-mehar.
Flores de un día: Neguko loreak. Nahikundeak, neguko loreak (iraupenik gabeko asmoak).
Flota de aeronaves: Astrontzidi.
Flote (salir a flote): Burua jaso. Diru horrekin, burua jasoko dugu.
Fogues: (balas, cartuchos de fogues) Sasi balak. Sasi kartutxoak.
Fondo (Al fondo): Atzean. Atzetik. Beste zerbait entzuten genuen atzean/atzetik.
Fondo (Bajos fondos): Kalezuloak
For he's a jolly gook fellow! Which nobody can deny!: Mutil aparta dela... Inork ezin uka!
Forma (en forma de): Hiru lagunek aurre egingo diote tornadoaren tragediari (ez: tornado itxurako tragediari)
Forma (estar en forma): Sasoiko egon/ibili. Sasoian egon.
Formar (¡A formar!): Lerrokatu!
Formarse nubes: Hodeiak sortu.
Fortificarse: gotortu. "Etxean gotortu ziren, eta ez zuten irten nahi"
Fraile que da misa: Fraide mezadun.
Franchise: Frantses porru
Fraternity/Sorority: Anaidi/Ahizpadi
frecuenciador: maiztagailu
Fregar (de tanto fregar): Igurtziaren igurtziz
Frenético: Erotzeko, erotzeko moduko
Fresa silvestre: Larremarrubi.
Frigido/a: Sexuhotz.
Fuego (a discreción): Sua, nahi adina!
Fuerte (¡Qué fuerte!): Handia da, gero!
Fuerza (sacar fuerzas de flaqueza): Ez den lekutik indarra atera. Ez zuen lekutik atera zuen indarra.
Funcionar (¡Si ya funciona!): Badabil eta!
Galbana: alfergura
Galletas (Repartir galletas): Epelak banatu
Gallo (echar un gallo el cantor): Kio egin du kantariak. Ez du kiorik egin.
Gallo despertador: Oilar iratzargailua
Ganas (Con muchísimas ganas): Gogoz baino gogozago
Ganas (de trabajar): Lanerako gogoa.
Ganas de echar pedo: Puzkergura.
Ganas: (con más ganas) Gogozago.

Gastar (No sabe ni en qué gastar su dinero): Ez daki bere poltsikoak zertan hustu ere.
Gemma long time: Gema, aspaldiko!
General (En general... Y al detalle): Oro har,...; eta xehe har,...
Girar una visita a las instalaciones: Instalazioak bisitatu.
Globo (¡Menos globos!): Haize gutxiago!
Gloria (En la gloria de Dios Padre): Jainko Aitaren argitan.
Golfo (¿No ha venido el golfo de mi hermano?): Ez al da etorri nire anaia alproja hori?
Golpe de calor: Beroak jo. Beroak jota.
Gorra de visera: Bisera
Got my two grandsons for the weekend: Bi bilobak etorri zaizkit asteburu pasa.
Gracias! -Igualmente: Eskerrik asko! -Zuri ere bai.
Grande (pensar en grande): Handi pentsatu
Grateful (We're eternally grateful to you: Gure esker ona betiko zuentzat!
Grito de alarma: Deiadarra jo.
Grupo (unirse al grupo): Talderatu.
Gusanillo (Entrar el gusanillo): Gogoa/grina piztu. Zaletasuna sortu.
Hace más de 20 años: Hogeitaz urte pasa. "Orain dela hogeitaz urte pasa izan zen hori"
Hace más de 20 años: Hogeitaz urte. "Orain dela hogeitaz urteetako kontuak dira"
Hacer (¡Qué le vamos a hacer!): Zer egingo zaito! Zer egingo diogu, ba!
Hacer (Aunque sea lo último que haga): Besterik egin behar ez badut ere
Hacer (de las suyas): Bereak eta bi egin.
Hacer evolucionar: Eboluzionarazi
Hacer flotar en el aire a las cosas: Airean flotarazi gauzei.
Hacer frío (Fuera hace frío): Hotz da(go) kanpoan.
Hacer polvo a alguien: Lur joarazi norbaiti. Lur jota utzi norbait.
Hacer sitio (ceder un sitio): Mahaian leku pixka bat eman genion.
Hasta nunca: Zoaz betiko! (doanari) Hortxe betiko! (geratzen denari)
Hasta siempre: Adio sekulako! Agur betiko (betiko agur)! Ez adiorik! Adiorik ez!
Headhunter: (cazador de cabeza) Buru-moztaile.
Headhunter: (cazatalentos): Talentu-ehiztari.
Heart-pounding: Bihotz-pilpiragarri.
Hecho (de hecho): Eduki, bazeukan. Bizi, han bizi dira. Berez, ez da hemengoa.
Hecho (de hecho): Izan ere, hangoak dira. Hangoak dira, izan ere. Kanpotarrak dira, izatez.
Hecho polvo: Porru eginda.
Hecho!: Kito! Ados! Ederki!
Her eyes started bleeding: Begiak odoletan zeuzkan
Hielo: (Para romper el hielo) Giroa berotzeko.
Higo silvestre: Sorgin piku.
Hijo (Por hijo): Bi mila euro seme-alabako.
Hilar fino: Zorroztz jardun.
Hilo (pendiendo de un hilo): Hari-harian. Hari-harian gabiltza beti osasun kontuekin.
Historia (pasar a la historia): Historian sartu.
Hoe he é nalu: Arraun surfa.
Hombre (de hombre a hombre): Gizon artean.
Home run (viaje de vuelta): Bueltakoa.
Hongo (plantación de hongos): Onddodi
Hora (¡A buenas horas!): Garai ederrean!
Horario (bajo horario): ordupean
How do you actively maintain that much surface area?: Nola moldatzen zara txitxi sail hori dena mugitzeko?
Hoy (A día de hoy. Aujourd'hui) (Hoy): Gaur. (Hasta hoy): Gaur arte.
Hozador (tresna): Uxargailu
Hueco (Algo hueco): Zerbait barne-huts (zerbait ezkutatzeko)
Huída (compañero de huída): lheskide
Huidizo y callado: Izu ta hitz-urri.
Humildad (cura de humildad): Apalbide. Apalbidearen beharrea da.
Humor (De humor, de buen humor, de mal humor): Umoreko/umore oneko/umore txarreko zabilta.
Hurgar (Hurgando en la herida): Zaurian zirika.
I believe it with my entire heart: Bihotz-bihotzez sinesten dut.
I miss you: Zure hutsa dut. Gogoan (izan) zaitut. Zure hutsa/hutsunea/falta sumatu/sentitu/nabaritu dut.Faltan aurkitu zaitut.
Iba de camino/de paso: Bidean/pasaeran nindoan.
Idea (de una sola idea): Asmobakar. Euskaldun asmobakarrak...
Idea (Ni idea): Arrastorik ez. Ideiarik ez. Ezta arrastorik ere.
Idem velle, idem nolle: Gauza bera nahi, gauza bera ez nahi.
If he makes one false move: Zirkin ustelen bat egiten badu
Igual: (De igual a igual) Parez pare.
Iluminación: (Erljioa) Goiargia. Goiargitzea.
Iluminado: (Erljioa) Goiargitua
Iluminados: Goiargitu ustekoak
Iluminar (Iluminame): Egidazu argi
Ilusión (hacerse ilusiones): Amets egin.
Ilusión (no hacerse ilusiones): Ez egin ametsik
I'll make you proud, mother!: Ez dizut huts egingo, ama!
Imaginación (Dejar volar a la imaginación): Irudimenari atek zabaldu.
Imbécil (un perfecto imbécil): Ergel hutsa.
Imperdible: (de corbata) Gorbata orratza.
Imponer (Su presencia impone): Errespetua ematen du.
Importante (persona): Itzal handiko. Izen handiko.
Importar (¿Qué le importa a nadie?): Zeini zer inporta?
Importar: (¡Qué nos importaba!) Inportan zigun guri!
Imprevisible (Pero ese hombre es imprevisible): Baina gizon horrekin ez dago jakiterik.
Imprevisible: Ezin jakin aurretik. Halakoxea zen gizona; ezin jakin aurretik zertara joko zuen.
Incomprendido/a (Una persona incomprendida): Pertsona ez konprenitua.
Inconclusive (not decisive): Ez erabakigarri. Datu ez erabakigarriak.
Inconstante: Aldabera
Increíble (El increíble show de): -ren ikuskizun harrigarria.
Indigentes: Ezergabeak
Inmutable: Beti batean.Euskara bizi delarik eta bizi deino, ez du beti batean irauten eta ez du iraungo.
Innovador: Bide-urraztaile
Inofensivo: Parece inofensivo: Ez dirudi arriskutsua.
Insignificante: Hutsaren hurrengo.

Insistir (Es para el hijo; me ha insistido tanto): Semearentzat da; arren-da arren eskatu dit.
Insistir (Si insistes tanto): Ho(rre)la jartzen bazara! Ho(rre)la ekiten badiozu!
Insistir (Ya que insisten así): (Horrela) tematu direnez
Insistir (Ya que insisten en eso): Horretan tematu direnez
Insomne: Lo-galdu. Gau batez, lo-galdurik nengoela, bururatu zitzaidan hori.
Intención (Sin intención): Nahi gabe. (Sin intención definida): Asmo zehatzik gabe. Asmo jakinik gabe.
Intermediario (de amor): Maitasun zubi
Intoxicador: Intoxikatzaille (pertsone) Intoxikagarri (produktua)
Introducción a (-gana): Manuel Lasarterengana.
Inventar (Muchas (cosas) de esas (se) han inventado sobre mí): Horrelakoa franko asmatu didate niri.
Inyesado (Con el pie inyesado): Hanka igeltsutan
Ir (Vaya donde vaya): Edonora/Noranahi doala
Ir (yendo las cosas bien): Ondobidean. Ondobidean, etxean behar zuen honezkerero.
Irritante: Sumingarri
Irritarse (los ojos): erre. Begiak erre-erre eginda keaz. Begiak erre beharrean telebistari begira.
Irse de la lengua: (para que se vaya de la lengua): Mihia luza dezan.
Jacinto: Jazinto... Kaito
Jesús te asista (Dominus tecum): Jesus! Doministiku.
Jet lag: Hegaldi-min
Jorobado: Korkoxa. Malkortxo. Txalkorra. (Azpeitian erabiltzen ziren/diren ezizenak)
Juan Nadie: Jon Edonor.
Juego (de naipes): Karta sorta
Juego de cartas: (Veo tus diez, y diez más): Zure hamarrak (bai) eta hamar gehiago.
Juegos de amor: Maite-jolasak.
Jugar (Jugaremos a piedra, papel o tijeras): Harria, papera edo guraizetan jokatu dugu.
Jugar (Me la habéis jugado): Ziria sartu didazue.
Jugar al ratón y al gato: Sagu-katutan jolastu.
Jugar de delantero: Aurrelari jokatu.
Juramento: Zin-hitza
Justiciero: Justiziagile
Justo (andaremos justitos): Larri-larri ibiliko gara.
Justo delante de tí: Zure aurre-aurrean.
Justo justo: Larri-larri (ibili) gara
Keep your voices down: Hitz egin isilago!
Laboral (condiciones laborales): Lane(ra)ko egoera. (situación laboral): Lan egoera
Ladrón (El ladrón con escoba): Erratzarekiko lapurra.
Ladronzuelo: eskuluze
Lágrima (de lágrima fácil): Malko errazekoa izan. Malko erraza izan/eduki. Umetan malko erraza nuen oso.
Lágrimas (llenarse los ojos de lágrimas): Begiak malkotu. Begiak busti.
Lamentaciones: Negar kantak.
Lamentarse (lamentándose sin cesar): Negarra jo ta negarra jo. Jo negarra ta jo negarra.
Land (-land/landia): -alde. Basoalde, Errekalde, Ametsalde...
Landscape architect: Paisaiagile
Lapa (No seas lapa): Ez itsatsi hola!
Las desgracias a menudo vienen juntas: Ezbeharrak elkarri esku emanda sarri.
Last but not least: Atzen baina ez hutsen. Azkena baina ez eskasena.
Lata (dar la lata): Belarria berotu.
Lavado tras lavado: Garbaldiz garbaldi.
Leche (de mala leche): Odol gaiztoz
Leche frita: ahizko pastela
Lejos (¡ni de lejos!): Ezta hurrik eman ere!
Lejos (Sin ir más lejos): Urruti gabe.
Lengua (de lengua afilada): Mihizorrotz
Lengua (Las malas lenguas dicen): Mizto gaiztoek diote
Letrinas: Kakategi
Levantarse (la piel): Azala harrotu.
Levantarse: (Se está levantando la niebla): Jasotzen ari du.
Ley de la selva: Oihaneko legea
Liarse con: Harekin nahasi da. Beste batekin dago nahasia.
Librar: atera. "baina atera gaitzazu gaitzetik".
Libro abierto: (su cara es un libro abierto): Bere aurpegiak argi erakusten du.
Ligereza (¡Habrás visto ligereza semejante!): Ez dago kaskarinago izaterik!
Light-sensitive: Argi-sentibera. Lore argi-sentiberak...
Listillo: azkar usteko
Listo!: Hor, ba!
Listo, Calixto!: Kito, Agapito!
Lobo (En la boca del lobo): Otsoaren zuloan. Bakar-bakarrik sartu zara otsoaren zuloan.
Localizador: Aurkigailu
Loco (Cada loco con su tema): Nor bere eroak bizi du. Nor bere zoroak darabil.
Loor a Ti, Señor!: Gorespen Zuri, Jauna!
Lucha (nada de luchas, ¡por favor!): Borrokarik ez, mesedez!
Luego (sin dejar para luego): Gerora gabe. Esan dezadan, gerora gabe,...
Lugar apartado y solitario: Leku bazter eta bakartia.
Lugar preciso: Leku-leku. Txalupak dira onenak fauna dagoen leku-lekura hurreratzeko.
Lur hartu: Lurreratu
Luto: Dolualdi.
Llamar a la puerta (fuerte): Atea kan-kan jo (zakar, gogor)
Llamar a la puerta (suave): Atea kax-kax jo (arin, gozo)
Llano (en llano): Zelai-zelaian dabilta (ziklistak Milango kaleetan)
Llano (En llano) Txaplanean. Orain ez naiz mendira joaten, txaplanean ibiltzen naiz lasai-lasai.
Llanto amargo: Negar samina.
Llave (de la luz): Argiaren giltza. Argi-giltza: Zoriontasunaren argi-giltza.
Llegados a esto: Honetara ezkerro
Llegar y besar el santo: Iritsi ta bertan bitxi!
Lleno (de lleno): Buru-buruan jo.
Llorar (estaba a punto de llorar): Ez zuen negarra aparte/urruti. Ez zituen malkoak aparte/urruti
Llorera: negar saio. Negar saioa bukatzean, azaldu zer nahi duzun poliki.
Llorón: Malko-jario.
Macizo (una chica maciza): Neska motz ederra
Madre (¡De puta madre!): Ondo arraio!

Madre: Ama jendea. Xehetasun hori berdin zitzaion ama jendeari.
Magnífico (Los cuatro magníficos): Lau Harrigarriak.
Mal de altura: Mendiko gaitz. (Hegazkinean: Garaiera-gaitz)
Mal por mal: Gaitza gaitz orde. Inori gaitzik gaitz orde itzuli gabe.
Maldiciente: Mihizikin
Mamada: Miaztu. Miaztu on bat nahi?
Mane nobiscum Domine: Zaude gurekin, Jauna!
Maniobras de distracción: Distrazio-maniobrak
Manos arriba!: Eskuak gora! Altxa eskuak!
Mantear: Aireratu (eskuz edo mantaz, aupaka)
Máquina (del tiempo): Denboraren makina. Denbora-makina: Nobitaren denbora-makina.
Máquina de cortar el pelo: Ile-moztekoa. Ilea mozteko makina.
Marcapáginas/Marque-pages: Orriarteko.
Marcar la diferencia (galicismo) (Establecer): Aldea ezarri, jarri, finkatu, mugatu.
Margen (Quedar al margen): Bazter geratu.
Marginado: Gizabazter.
Marrullera: Marisuge
Más de 60 años: 60 urte pasa
Más fea que Picio: Tximua baino itsusiago
Más propicios a caer: Aberatsak erortzenago dira haragiaren bekatuan.
Más seguido: Jarraiago, segidago. Segidago/jarraiago eman behar diozu.
Más tarde o más temprano: Lehentxeago edo geroxeago.
Masa (con las manos en la masa): Eskuak zakuan harrapatu. Bete-beteen harrapatu.
Musalén (de los tiempos de Musalén): Kea asmatu zen garaikoa.
Mearse encima: Pixa soinean egin.
Médico: (Ir a los médicos. Estar en los médicos) Medikutara joan. Medikutan izan.
Medio (en medio de): Izadi-izadian. Baso-basoan. Mendi-mendian. Kale-kalean. Negu-neguan
Mejorado por el tiempo: Zaharrak ondua.
Mejorar (Está mejorando el tiempo): Eguraldia hobera dator.
Mejorar (Has mejorado mucho en el trabajo): Asko aurreratu duzu lanean.
Mellizos: Poltsa banatakoak
Mente (en blanco): Burua hutsik (geratu).
Mentidero: Gezurretxape.
Menuda paz! (comparado con lo anterior): Igualeko bakea!
Mercenario: Soldatapeko. Soldatapeko hiltzaileak.
Meta (llegar a la meta): Helmugaratu
Metepatas: Hanka sartzaile. Hanka sartzen duena.
Meter gol: gola sartu.
Meter mano (el que mete mano): Zirrilari.
Meterse (No te metas con él): Etzazu zirrikatu. Eziozu aurre egin. Ez zaitetz bere aurka hasi.
Meterse (No te metas donde no te llaman): Ez busti ogia besteren saltsan!
Metido (Lo llevaba muy metido en la sangre): Odol-odolean zeraman
Metido (siempre metidos en casa): Etxe zuloan (sartuta) beti!
Mezclador (técnico de doblaje): Nahasketari.
Mientras (en cambio): Berriz. Jon ikasten ari da; zuk, berriz, ez duzu ezer egiten.
Mierda (¿No te das cuenta que aquí no vale una mierda?): Ez haiz konturatzen zakurraren putza haizela hemen?
Mimado (un niño demasiado mimado): Esne-mamitan hazitako umea.
Mirada: ¡Vaya mirada! A ze begirasuna!
Mirar (¡Mira a éste!): Hara bestea!
Moda (más de moda): Modago. Gizarteko gaiak zeuden modago.
Moda (Ponte a la moda): Sartu modan! Jantzi modan!
Modales: Moduak. Manerak. "Horiek ez dira moduak/manerak".
Moderado (en comer): Neurriko jale.
Modo (A su modo): Bere gisa.
Mojarse (¿Hasta qué punto te mojarías?): Zertaraino/Noraino iritsiko zinateke?
Molar (¿Cómo mola!): Mundiala da.
Molestar (No me molestas): Ez didazu eragozten.
Molestar (No te molestes): Ez hartu nekerik!
Molestar: Galarazi, eragotzi. Ez nizon galarazi/eragotzi nahi, baina arazo larria da.
Montaña rusa: Tren eroa
Moonstone (Piedra lunar): Ilargi-harri (Zientzia fikzioko literaturan eta zineman)
Morada (La morada definitiva, eterna): Betiko bizilekua.
Morir (Morirse de ganas de): -tzeko irrikaz egon
Moro (No hay moros en la costa): Inor ez bistan. Ez da inor ageri. Inoren arrastorik ez. Bidea libre.
Morro (¡qué morro!): Hori (da) kopeta! Hori (da) azala! Hori (da) muturra! (haserre dagoenari ere bai)
Moteado: tantodun, tantotu, pikart, pikardatu, titadun, pinto, pintarratu.
Motivación: motibazio. Motivo: motibo. (Ez dira nahasi behar)
Motivo de alegría: Pozbide
Movida: saltsa. (En todas las movidas): Saltsa guztietan.
Movido (Una mañana muy movida): Mugimendu handiko goiza.
Móvil (Teléfono móvil): Esku telefonoa. Eskukoa.
Movimiento: (rizos suaves y con movimiento): Kizkur leunak eta arinak.
Muchacho (Que es un muchacho excelente... Y siempre lo será!) Mutil aparta dela... Inork ezin uka!
Mucho músculo y poca cabeza: Gihar beteak eta buru hutsa.
Mucho: (Como mucho) Asko jota.
Mudarse a: Azpeitira aldatu zen.
Nacer para ver: Hamaika ikusteko jaiok gara.
Nacido (Un bien nacido): Amaren semea
Nada (menos que nada): hutsaren hurrengo
Napia (¡Vaya napia!): A ze aldaba! Aldaba bikaina!
Nariz: (Dar con la puerta en las narices) Atea muturren aurrean itxi.
Naufrageur (le): Hondoratzaillea
Ni sí ni no: Ez bat eta ez bi
Night of the creeps: Beldurra ate joka
Nivel (a nivel de nación): Nazioan. Nazio osoan.
Nivel (a nivel mundial): Munduan. Mundu osoan. Mundu osoko...
Nivel de conocimiento: Jakite maila
No es momento para lamentaciones: Ez da aieneka aritzeko unea.
No es rival para mí: Ez du nirekin zer eginik!
No lo haré de nuevo: Ez dut berriz egingo.

No lo haré más: Ez dut gehiago egingo.
No man's land: Inor gabeko eremua. Jaberik gabeko lurra.
No potable: Ez edatekoa
No te molestes: Ez nekerik hartu!
No (¡Oh no!): Ez, ba! Oo, ez!
Noción (perder la noción del tiempo): denboraren arrastoa galdu
Noche (en plena noche): Gau-gauean.
Noche (Muy avanzada la noche): Gau beranduan
Noche avanzada: Gau berandua
Noche cerrada: Gau-gaua. Gau iluna. Gau beltza.
Nolite tangere unctos meos: Ez, gero, ukitu nire gantzutuak! Kontu, gero, nire gantzutuak ukitu!
Normal (no es del todo normal): Ez da bete-betea ere.
Norte (Sin norte): Nora gabe. Noraezean.
Nostalgia (del pasado): Lehen-min. Lehen-minez bizi dira gure zaharrak.
Nostalgia: min. Paradísu galduaren mina daukagu hezur muinetaraino sartua.
Nostalgia: Oroimin. Oroiminak jota bizi da zaharra.
Notar: (Le noto ausente, frío, arisco) Urrun nabari dut, hotz, zakar (edo izu)
Notas altas (Música): Goiko notak
Novedad (¡Sin novedad, mi capitán!): Berririk ez, kapitaina!
Nutricio: haz-. (Padre nutricio): Hazaita. (Madre nutricia): Hazama.
O por una cosa o por otra: Bata dela edo bestea
Obscenidades: Berdekeriak
Observación (Quedar en observación): Behaketapean geratu.
Observador (buen observador): Begi-zorrotz
Obstinarse: Egoskortu. Berean egoskortu zen.
Oca (de oca a oca, tiro porque me toca): Antzaratik antzarara, ta txanda nirea da.
Ofrenda (víctima, cosa): Oparigai
Oh, no!: Ez, ba! Oo, ez! Oo, ez, ba!
Oír (¡Lo que hay que oír): Hamaika entzuteko gaude!
Oír pero no escuchar: Entzun/aditu baina jaramonik ez
Ojalá no hubieras aparecido nunca en nuestro pueblo!: Hobe gure herrian inoiz azaldu ez bazina!
Ojos pardos: Begi nabarrak
Ojos que no ven, corazón que no siente: Begiak urrun, bihotza urrun.
Olor a cerrado: Zoko usaina. Itxi usaina.
Olla (se le ha ido la olla): Ganbara pitzatu zaio.
Opinemos lo que opinemos: Iritziak iritzi. Usteak uste. Esanak esan.
Opposable thumb: kontrajartzeko erpurua
Oreja (calentar las orejas): Belarri ertzak epeldu zizkion
Otra vez: Berriz. Berriz. Berriz ere.
Paciente (muy paciente): Eraman handiko
Paciente: Eramaneko. Eraman oneko.
Pagar (no la pagues con él): Ez pagarazi berari! Ez ordainarazi berari!
Pagar: (La ha pagado conmigo): Nik jaso behar ordaina.
Pagar (Marcharse sin pagar): Belearena egin.
Paisajista (especialista en la creación de parques y jardines...): Paisaiagile.
Paisano (Vestir de paisano): Kaleko jantzi
Palabras (Jugar a las palabras encadenadas): Hitz kateetan jolastu
Palmaditas en el hombro: Bizkarreko txiki batzuk.
Pan tostado: Ogi txigorra
Pañal: zapi zuri. Zapi zuriz aldatzen ninduen egunero amak.
Papá (Hijo de papá): Aberaskume
Papeles secundarios: Ezerezetako/Ezerezeko paperak.
Paracaidismo (Hacer paracaidismo): Jausgailuz saltatu.
Paralizador, paralizante: paralizatzaile, paralizagailu (paralizatzeko tresna)
Parecer (ya me parecía a mí): Banengoan, ba, ni!
Pareja: Bikotekide. (Bikote) lagun. Dantza lagun...
Pasado (Bien pasados): Ongi beteak. Bi hilabete ongi beteak.
Pasado: (Las doce pasadas) Hamabiak jota. (Las doce bien pasadas): Hamabiak ondo(txo) jota.
Pasar (¡Con todo lo que ha pasado!): Ikusi dituenak ikusita!
Pasar (al pasar): Pasaeran ikusi zaitut.
Pasar (de paso): Pasaeran nentorren.
Pasar (Lo pasado pasado): Joanak joan.
Pasarse (me he pasado demasiado): Urrunegi joan naiz. Zakarregia izan naiz.
Pasarse (Me he pasado un poco): Urruntxo joan naiz.
Paseo (mandar a paseo): Apapa bidali!
Pasillo (vigilante de pasillos): Korridorezain. Pasillozain.
Paso (¡A paso rápido!): Pauso bizian!
Paso (Al paso no, corriendo): Pausoan ez, lasterka!
Paso (de paso): Pasaeran. Pasaeran sartu naiz.
Paso a la funerala: Hileta pausoa!
Paso del tiempo: Denboraren joana
Paso lento: Pauso geldia!
Paso ligero: Pauso arina!
Paso ordinario: Ohiko pausoa!
Pata (A la pata coja): Kinkirrinean
Peatón (Camino de peatones): Oinbide.
Pedorreo: Puzker jario. Puzker jario kontrolaezina.
Peek (mirada furtiva): Kirik. Kirik egin. Kirika.
Pegada: Jo. Jo gogorra zuen Urtainek. Jo latza du Beginok. A ze joa duen Irujok!
Pelar (cortar al cero): Kaskamoztu. Neskatoa kaskamoztu.
Pelo (Historias que ponen los pelos de punta): Istorio ile-lazgarriak.
Pelo (Me estás tomando el pelo): Adarra jotzen ari haiz.
Pelota: (Hasta las pelotas) Koskorretaraino nago.
Pelota: (No me toques las pelotas): Ezidak potrorik jo!
Pelusilla (en la cara): Bixarra
Pellizcador: Atximurkari.
Pensar (pensando en lo peor): Txarrena jota. Zer gertatuko zaigu, ba, txarrena jota ere?
Pensar en (Estoy pensando en dejarlo todo): Dena uztekotan nabil.
Pensar/sentir (¿En qué piensas? -No pienso. Siento.): Non duzu burua? -Burua inon ez. Bihotza.
Pensar: (Pero tú, ¿en qué pensabas?): Baina zuk, non zenuen burua? Non duzu burua?

Penumbra: Argiantz. Eta argiantzera Golo han ikustean...
Pera: (Pedir peras al olmo) Pagoari intxaurrek eskatu
Perder (perderse de vista): Elkar galdu. Elkar galdu genuen (lagunok) unetxo batez, konturatu gabe.
Perder (salir perdiendo): Galduan irten/atera. Ez gara galduan irtengo irakurtzen badugu.
Pérdida de orina: Gernu jartoa
Perfilar (las patillas): Patillak findu.
Perfumado: lurrintsu
Permanecer: Egon. Gauden euskaldun! Gauden harentzako leial!
Permanezcamos unidos/Estemos unidos: Gauden bat!
Penera: Galtza/Praka zorro. Eskuineko galtza zorroa jaso eta belauna aztertu.
Perro/niño: El perro y el niño donde den cariño: Maitasuna non den, txakurra ta haurra han.
Persona decidida: Pertsona erabakia, zirt edo zartekoa.
Pertenezer (Nos pertenecemos el uno al otro): Gu biok bata bestearenak gara.
Pésame (dar el pésame): Doluminak eman. Dolulina adierazi/agertu. Samin agurra egin.
Pésame: Samin-agur. Nire samin-agurra, andrea! (Nire) doluminak!
Pico (y pico): -taka. Hogeitaka urteko beltzarana. Hirurogeitaka urtetik gorako...
PicoPico (y pico -taka): Hogeitaka urte izango dira! Hogeitaka urteko beltzarana. Hirurogeitaka urtetik gorako gizona.
Pie (Con los pies por delante): Hankaz aurrera. Hankak aurrean/aurretik.
Piedra (A un tiro de piedra): Harrikada bat bidera. Handik harrikada bat bidera zegok baserria.
Piedra (Lanzando piedras): Harri tiraka. Harri jaurtitzen.
Piedra (tropezar dos veces en la misma piedra): Zulo berean bi aldiz erori.
Piel (de piel negra): Larrubeltz. Esklabo larrubeltzak...
Piel de gallina (Se me ha puesto piel de gallina): Oilo larrua egin zait.
Piel roja: Azal-gorri
Pierna (falto de una pierna): Hankabakar.
Pies de banco (patas de banco): Banku hankak.
Pies planos: Oin-zapal ("Oin-zapala da hori" Azpeitian) (Plazido Mújika: oin-zapal: plantigrado)
Pillar (voy a andar pillado): Lanpeturik ibiliko naiz.
Pinchazo: Zulatua.
Pinta (¡Vaya pinta!): Hori da piura!
Pintar (¿Y yo no pinto nada?): Eta ni zer, hutsaren hurrengo?
Piso (compañero de piso): Etxelagun, bizilagun.
Pistolero: Pistolari.
Plantas medicinales: Sendabelarrak
Plazo/débito (A plazo o a débito): Epetan edo zorretan.
Plenitud (La plenitud de la contemplación): Kontenplazio betea.
Pleno (en pleno): Mendi-mendian. Baso-basoan.
Plumado, plumífero: Lumadun. Hegastun.
Pócima amorosa: Maite-edabe
Poco (hasta hace poco): Oraintsu arte
Poco hecho: erre-arin. Okela erre-arina.
Poder de atracción: erakarmen
Poesía finisecular: Mendeburuko poesia. Mende hondarreko poesia.
Polvo (Detergentes en polvo) Garbigarri-hautsak.
Polvos pica-pica: Azkura-hautsak.
Polla (Chupar la polla): Buztana jan
Ponerse (Puestos a pensar): Pentsatzen hasita. Pentsatzen jarrita.
Ponerse (Se me ha puesto dolor de cabeza): Buruko mina etorri zait.
Por cierto: Izan ere
Por supuesto que no: Ez horixe!
Por ti: (Topa) zuri! Zure izenean! Zure omenean/omenez! Zure alde! Zuretzat!
Poscombustión: Errekuntza ondoko
Posibilidad (Tiene grandes posibilidades): Aukera handia du.
Posición de ataque (Despliega las alas en posición de ataque): Zabaldur hegalak erasorako!
Potable (No potable): Edateko ez.
Potable: Edatekoa
Precoz (crecido precozmente): Gazte-hazia (12 urterako).
Predecible: Asmatzen erraz. Asmaerraz.
Preestreno: Estreinaldiurreko
Preferir: (Hubiera preferido haberlo encontrado antes): Nahiago nukeen lehenago aurkitu izan banu.
Preguntar (¿Preguntábais por las vacas): Behien galdezka zineten?
Preguntar por (telefonoz): Eska zazu Miren.
Prejubilación: Garaiz aurreko erretiro
Prescribir: baliogabe geratu.
Presencia (con una fuerte presencia): ageri-agerian. Ageri-agerikoa
Presentable (No estoy presentable): Ez nago ikusteko moduko. Ez nago itxurazko/itxuroso.
Presentación (hacer las presentaciones): Ezaguerak egin.
Presentación (Presentación mutua): Elkarri ezaguera eman genion (Batak besteari bere burua aurkeztu)
Presentarse (para): Alkatetarako aurkeztu.
Presente (En este presente mío): Neure orain honetan
Presionar (persona): estutu
Presumir de listo (el que presume de listo): Azkar ustekoa
Presuponer: Aurrez pentsatu
Prevenir (de la suciedad): Zikinetik gorde.
Previsible: Igarri erraz: "Zure asmoak igarri errazak dira".
Principios, rudimentos: Hasi-masiak. Arra gaztea da, baina laster ikasi ditu hasi-masiak.
Prisión preventiva: Badaezpadako espetxealdia.
Prison camp: Kartzela esparru
Profesional (abusua gaztelaniaz ere) (Es un buen médico): Mediku ona da. (Profesionala: zalea ez dena)
Prohibido: Ez. Ez erre! Zakurrik ez!
Propósito (A propósito,...) Izan ere, egin duzu nire mandatuak?
Propulsor (tresna): Propultsagailu
Protesto: ¡Señor, protesta!: Jauna, nire protesta!
Próximo (La próxima vez que lo vea): Hurrena ikusten dudanean
Puedo hacer algo por usted? ¿En qué le puedo servir?" (¿Qué desea?): Zer nahi duzu?
Puenting: Zubi-jauzi. Zubi-salto.
Puerta (Con la puerta abierta entra frío): Atea zabalik hotza sartzen da.
Puerta (En la misma puerta): Ate-atean
Puesto: (¿en qué puesto?) Zenbatgarren?
Puestos: Tenerlos bien puestos: Barrabilak beren lekuan

Pulga (coger pulgas): Zorriak harrapatu. Zoratu zara, ala? Ni hor sartu! Zorriak harrapatzeko ere!
Punto (en punto): ordu-orduan. Eguerdi-eguerdian. Hamabi-hamabietan.
Punto sin retorno: Itzulbiderik gabeko puntua.
Que Dios no lo quiera: Jainkoari nahi ez dakiola!
Qué mal rato!: A ze estualdia!
Quedar (¡Ahí queda eso!): Harrapa zak!
Quedar (con para): Norekin geratu zara gauerako?
Quedarse (Me lo quedo): Hori neuretzat. Neuretzat hartuko dut.
Querer (¡Ya se quisiera!): Nahi luke. Nahi luke ondo egon, horrela bizita!
Querer (Te quiere a ti para ese trabajo): Zu nahi zaitu lan horretarako.
Quien lo diría: Nork esan. Eta azkenean, nork esan, inor baino berritsuago azaldu zaigu.
Quienquiera (Quienquiera que haya hecho, está callado): Nork ere egin duen, isilik dago.
Quienquiera que sea: Nornahi izan, txikituko dut. Nornahi izanik ere, txikituko dut.
Quimera: txakur-amets
Quitagrasas: Koipe-kentzeko.
Quitapesos: Pisu-kentzeko.
Quitapolvos: Hauts-kentzeko
Quitar (de quita y pon): Jantzi-erantzikoa.
Rampa: Arranpla (Hala esaten genuen Azpeitian. Orioko Patxi Olidenek hala idatzi du)
Rapear: Rap kantatu. Rapean aritu.
Raquetista: Erraketalari
Rascarse las heridas: Zaurietan hazka egin.
Rato (Tiene para rato): Luzaroko du.
Raudo y veloz: Arin-arin! Arin baino arinago!
Raya (No pasarse de la raya): Arrastotik irten gabe. Neurritz jokatu.
Raya: (Pasarse de la raya): Arrastotik irten
Razón (Con más razón): Bidezago.
Razones profundas: Axularren arrazoiak
Reactivar (dar un nuevo impulso): Bultzaberritu.
Realidad (en realidad): Egiaz, benetan, izan ere, berez... (egia esan: a decir verdad)
Reanudar: Berritu. Berriz hartu gaia. Jarraitu. Berriz lotu.
Receloso, suspicaz: Susmabera. Susmotsu.
Reckon you've got it in the bag, do you?: Poltsikoan daukazulakoan, ala?
Recogeos más: (argazkia ateratzeko) Bildu gehiago! Jarri bilduago!
Recoger: bildu. Ezin izan zuen beso luzatua bildu.
Recogido (rezando con las manos recogidas): Errezatzen, eskuak bilduta.
Recompensa (por la captura): Atzeman-sari
Recompensa (posters): Sari-posterrak.
Reconocer (No te he reconocido): Ez zaitut ezagutu.
Recurrir: pasa. Zenbat herri pasa ote zituzten. Kaleko ostatuak pasatzen genituen banan-banan.
Recuperar la energía: Indarberritu
Reductor (de partículas): Partikula-txikigailu.
rééquilibrer: berrorekatu
Refuerzos (Mandar refuerzos): Soldadu/polizia/zaintzaile gehiago bidali.
Regatear: (Hacer un quiebro) Txiri egin.
Regla (bajar la regla): Hilekoa etorri
Reina (de corazones): (Kartetan) Bihotz-Erregina.
Reiniciar (recomenzar): Berriz hasi. Berriz ekin.
Reinvent(ar): Berrasmatu
Reir (Quien ríe el último, ríe mejor): Azkenaren barrea, algara!
Relación (Con relación a/En relación con): -ri dagokionez
Religiosamente: Erlijioso. Oso erlijioso entzun zuen meza.
Relucir (sacar a relucir los trapos sucios): Trapu zikinak eguzkitara atera
Remanso: Urlo. O, zein aizen eder loa! Eriotzaren anaitzakoa: bizitzazko urloa! (Lizardi)
Remar (¡Rema, rema!): Arraun, arraun!
Remediar las muertes: Heriotzak saihesteko/eragozteko.
Remo (golpe con el remo): Arraunkada
Remojón (¡Vaya remojón!) Hau da blaia" (Norberarena) Hori da blaia! (Besterena)
Rendirse (me rindo ante el frío): Burua makurtzen diot hotzari.
Renovar la piel: Azalberritu. "Sugea, zuhaitz adarren kontra gorputza igurtziz azalberritzen da."
Réplicas (Aftershocks): Lurrikara-ondokoak.
Reputación (buena): Izen ona.
Resguardo: (A resguardo del viento) Haize babesean
Respaldo (asiento sin respaldo): Aulki bizkargabea.
Respeto (¡Mis respetos, señor!): Nire begirunea, jauna!
Respirable: Arnasgarri
Respirator: Arnas aparatua. Arnasgailu.
Respuesta (para todo): Ate adina maratila aterako ditik honek.
Retar a un duelo: Duelu-erronka jo.
Retardar (Sin retardarse): Berandu gabe
Retocar (la barba): Ukituak eman/egin bizarrari.
Retrasar (el reloj): Gure etxeko horma-erlojuak gero ta gehiago atzeratzen du.
Retraso (atzerako): Bilboko trena atzerako handiarekin zetorren.
Reunido (Está reunido): Bileran dago. Bileran batean dago.
Reutilización: berrerabilera
Ridículo (estoy haciendo el ridículo, vestido así): Barregarri nago, hola jantzita.
Riesgo: (de lluvia): Baliteke euria egitea.
Rincón (oculto en el rincón más recóndito): Zokorik zokoenean gordea.
Risa (mearse, mondarse de risa): Hesteak bota barrez. Hesteak bota beharrean barrez.
Risa (risita): Barretxoa. Barre txikia.
Rodaja (Te voy a cortar en rodajitas): Xerra-xerra egingo zaitut.
Rogar/mazo (A Dios rogando y con el mazo dando): Jainkoari erreguz, lanari mailuz.
Rollo (nuestro rollo): Gure artekoa.
Rollo: erretolika
Ropa suave por dentro: Arropa barruleuna
Rostro pálido: Azal-zuri
Rumor (Corren esos rumores): Halako hotsak dabilta. Hala moduzko hotsak dabilta.
Rumor (correr el rumor) Hotsa zabaldu. Hilak, berriz, hamazazpi ote ziren zabaldu zen hotsa...
Rústico (adkor.): Aker usaina dario.
Saber (¡Vete a saber!): Auskalo! Nork jakin! Jainkoak daki! Nork daki!

Saber (¡Ya lo sé!): Bai, ba! Hori da! Bai, ba, hori da!
Saber (de saberlo alguien): Inork jakitekotan
Saber (No lo sabes bien): Ez dakizu asko!
Saber (Por saber): -Zer, ba? -Jakite aldera.
Saber (Sin que uno sepa cómo): Nork nola ez dakiela
Saber (ya se sabe): Jakina. Jakinekoa da.
Saber: Es más que sabido: Jakina baino jakinago da
Sabroso (La mesa llena de cosas sabrosas): Mahaia, ahogozagarriz betea.
Sacar chispas: Txinpartak atera. Txinpartak atera zizkion gaiari.
Saco (tela de saco): Zakuki. Zakukiz jantzia.
Safe environment: Basainguru
Salir a: Amagana irten da.
Salir perdiendo: Galduan irten.
Salitroso: Kresaltsu
Salpicar: zirtatu. Atsotizez eta esaera zaharrez zirtatzen zituen Mitxelenak bere lanak.
Salto (andar a saltitos): Ttattoka ibili. (Haur hizkeran)
Salvañas: Azazkal-babes
Sálvese quien pueda: Ahal duenak, ospa!
Sangre (lo llevaba en la sangre): Odolean zeraman. Odol-odolean zeraman.
Santuario (para animales): Babesleku. Gordeleku.
Santuario: (Japonian-da) Jainkotegi.
Santuario: Santutegi (santuena). Jainkotegi (jainkoena). Babesleku (animaliena).
Saquear: hustu. Hiria hustu egin zuten. Hango abereak eta etxeetako gauzak ostu zituzten.
Saquear: larrutu. Napoleonen gudaosteek Larressore seminarioa larrutu ondoren...
Sátira: Irri-kanta.
Satisfactorio: asegari
Savia (Por fin tenemos savia nueva en casa): Azkenean odol berria dugu etxean
Scalping (cortar el cuero cabelludo): Burua larrutu.
Schmooze. Impress. Whatever it takes: Koipea erabili. Zurikeria. Zer nahi hura.
Sea lo que sea: Zernahi ere den
Sea quien sea/Cualquiera que sea: Nornahi izan. Nornahi izan, txikitu egingo dut.
Secretista: Ezkutukoi
Secreto (Se ha descubierto el secreto): Sekretua/isilekoa/ezkutukoa agerian da.
Sediento/hambriento de poder: Botere-gose. Botere-goseak ez du errukirik izaten.
Seguidos (Tres veranos seguidos): Hiru uda ondoz ondoko
Según lo previsto: Aurrez ikusita, bi hilabete iraungo du lanak.
Según: -n. Nork begiratzen duen da kontua. Nondik begiratzen duzun! Nor den!
Según: (-n) Zeregina zein duten, bi behi mota daude: esne behia eta haragi behia.
Segundero: Segundolari
Segundo (de segundo): Bigarren, arrain zopa.
Seguridad relativa: Nolabaiteko segurtasuna
Seguro (ir a lo seguro): Segurura joan.
Seguro (Tirar por lo seguro): Segurutik jo.
Semitransparente: Erdigarden
Sentido (de orientación, tiempo): Orientazio sena. Denbora sena.
Sentir por (Lo que siento por tí): Zuregana sentitzen dudana
Señalar: erakutsi. Bertso kontuak aipatu orduko bere eskuaz Lasarte erakusten zigun Uztapidek.
Ser (sea cual sea): Zein ere den. Euskaldun guztiontzat, zein ere den beren pentsa-eta jokabidea.
Ser alguien: Bateonbat izan (gutxiespen zentzua): Apaiz huraxe ere izango zen bateonbat.
Ser más yo mismo: Neuago izan.
Ser: (¡Ni que fuera la reina!) Ezta erregina balitz ere!
Serenidad (de ánimo): Gogo baretasun
Servir (que no sirven para nada): Ezertarako ez diren...
Shallow (aguas poco profundas): Ur axala(k). Ura askoz ere axialago da han.
She's just lost a lot of flesh around her bones: Askok argaldu da; hezur eta azal dago.
Shortfall (Déficit): Falta
Si (Por sí): Ea uzten edo utziko diguzuen etorri gara!
Si: (¡Si eran mis pantalones favoritos!) Praka gogokoena nituen-da!
Sí (Pues sí): Bai, ba! (Así pues): Holaxe, ba! Bai, ba!
Siempre (Hasta siempre): Agur betiko! Betiko agur! Adio sekulako! Ez adiorik!
Siempre (Por siempre jamás): Sekula betiko!
Siempre y en todo lugar: Alde eta aldi oro.
Siguen y siguen viniendo: Etorri ta etorri ari dira.
Sisar (hurtos pequeños): Litxarreriak egin (lapurreta txikiak)
Skate box: Skate pista
Snorkeler: Arnas hodiarekin murgilean dabilena
Snowboard: Elur-ohol
Snowboarder: Elur-oholari
Sobradamente (de sobra): Ondotxo dakizu zuk...
Sobreactuar: neurritz kanpo antzeztu
Sobrenadar en la abundancia: Oparotasunean igeri
Sobrealorado: Neurritz kanpo balioetsia
Sol (de sol a sol): Egun osoan.
Solador: Zolatzaille. Errepide-zolatzaillea.
Solidario (marcha solidaria): Elkartasun-ibilaldia
Someterse (al yugo de aquel): Makurtu lepoak haren uztarpera
Someterse: Mendeko egin. (Se sometió a la muerte): Heriotzaren mendeko egin zen.
Sonar (Suena el teléfono) Telefonoa ari da (joka).
Sonar (suena muy bien al oído): Soinu oso polita du belarriantzat. Belarriak gozatzen ditu. Belarri-gozagarri da.
Sonoro (Soledad sonora): Bakardade ozena.
Sonrisa (sonrisita): irribarretxo.
Soñar (Soñando con): Horixe zuen asmo bakarra, aberria amets.
Soñar (Te hará soñar): Amets eragingo dizu.
Sorpresa (la mayor sorpresa): Ezustekorik ezustekoena.
Soso/aburrido: Asperrontzi
Star Wars: Izarretako Gerra
Subyugado (los pueblos subyugados): Uztarpeko herriak.
Suceda lo que suceda: Gerta ala gerta. Gertatzekoa gerta. (Iraganean: Gertatua gertatu)
Sucio (muy sucio): Txerri. Dena txerri eginda utzi dute sukalde.
Sueño premonitorio: Amets iragarlea. Ametsetan ikusia.

Suerte (Que la suerte te acompañe): Zori ona zeurekin!
Suerte: (Con ayuda de la suerte): Zortea lagun.
Sumo (A lo sumo): Asko jota,...
Super lujo: Luxu handiko
Superficialmente: Axaletik, axal, axalegi. Axal(etik) aritu hizketan, aitzurrean. Axalegi hartu gauzak.
Supervivientes: Bizirik irtenak. Bizirik geldituak.
Suponer (Se supone): Uste denez,...
Tacaño: Poltsa-zimur. Esku-zimur.
Tal día como hoy, en 1960,...: Gaurko egunez, 1960an,...
Tamaño (Mira el tamaño de esta cocina): Hau da sukalde puska!
Tanga: "Ipurdiko korbata" (Manuel Lasarte)
Tapado (muy bien tapado): Tapa-tapa eginda
Tapia: (sordo como una tapia): Harria baino gorrago.
Tardar (¡Cuánto está tardando!): Zenbat luzatzen den!
Tardar (A no tardar, sin tardar): Luzaro gabe. Berandu gabe.
Tardar: (No tardéis) Ez luzatu!
Taza (de retrete): Komuneko ontzia.
Te molesto: Galarazten/Eragozten dizut?
Tembloroso (estaba tembloroso): Ikara zegoen. Lertxun orria baino ikaraago zegoen.
Tener (Con que esas tenemos): Hori ere ba al dugu!
Tercera (A la tercera va la vencida): Hirugarrena izango da onena.
Terciar (¡Tercien armas!): Zeharka armak! Gurutzatu armak!
Terminar con las injusticias: Bidegabekeriak zuzendu
Tetas caídas (de): Titi-erori
They're serious people: Berriketa gutxiko jendea
Tiempo (antes de tiempo): Garaiz aurretik. Garaiz lehen.
Tiempo (El paso del tiempo): Denboraren joana.
Tiempo (haciendo tiempo): Denbora-pasa egon.
Tiempo (Hombre o mujer del tiempo): Eguraldi-iragarle
Tiempo (Justo a tiempo): Garai-garaiz
Tiempo (No hace tanto tiempo...): Ez hain aspaldi (ere)...
Tiempo (para tiempo limitado): Aldi baterako.
Tiempo (Tiempo al tiempo): Urak egingo du bide
Tiempo de pobreza (escasez, penuria): Urrialdi.
Tiempo gris: Eguraldi goibela
Tiempo parcial estable: Lanegun laburreko kontratu egonkorra
Tiempo: (A tiempo): Garaiz. (Justo a tiempo): Garai-garaian.
Tienda (La tienda más próxima): Dendarik hurrena/hurbilena/gertu(ko)ena.
Tieso: Buru-tentea
Tijeretazo: Guraizekada (Aizkorakada-ren haritik)
Tinta (de buena tinta): Bide/iturri onetik jakin. Bide zuzenetik/segurutik jakin.
Tirar (ir tirando): Hil arte(an) bizi.
Tontería (Con esos pocas tonterías): Horiekin koplarik ez!
Tonterías (Perdona las tonterías que he dicho): Barkatu nire txoro esanak/irteerak!
Tonto de capirote: Tontolapiko
Tonto del bote: Tontolapiko.
Tope (A tope): Bete-betean. Jarri argindarra bete-betean!
Topless: Titi bistan.
Torcerse (Si nada se tuerce): Okerrik ezean. Okerrik ez bada.
Torcerse las cosas: Ezeren okerrik ez badu, ongi aterako zaio dena.
Tornillo (Tener el tornillo flojo): Buruko ardatza estutu gabe eduki.
Torno (En torno a eso. Sobre eso): Horretaz. Horri buruz.
Torpe (Torpes más que torpes): Makalontzi halakoak!
Tos (con tos falsa): Gezur-eztulka.
Trabajar (Aquí se viene a trabajar, ¿queda claro?): Hemen lanerako hago, aitui!
Trabajar (de): Argazkilari dabil.
Trabarse la lengua: Mihia korapilatu.
Traductor (aparato): Itzulgailu.
Trago (de un trago) : Tragoan. Tragoan edan du basoa.
Trampa (Está haciendo trampas): Tranpan ari da.
Tranquilidad total: Bertan gozo (epelean etzanda).
Trasera (Parte trasera): Atze. Atze batean bildu ziren...
Trasladar: aldatu. Belarra bildu ta norberak aldatu behar gurdia kargatzeko moduko lekuraino.
Trasponerse: erdi lo geratu
Traspuesto: Erdi lotan.
Trasquilar: ardi-moztu. Ardi-mozten ari zela...
Traviesa: Marigaizto
Trickster: Amarrugile.
Tripulante: Ontzilagun
Trola (Menuda trola nos metieron): Ale ederra sartu ziguten!
Tronpazo: Tronpakada. (A trompazos): Tronpaladaka. (Elefanteei dagozkie, jakina)
Trona: Aulki garai
Turn the volume down please, yeah?: Hitz egin isilago, mesedez!
Ubi caritas eta amor, Deus ibi est: Maitasuna non, Jainkoa han.
Último (lo último de): Berria. Berri-berria. Berriena. Berrietan berriena.
Ultimo (Tú siempre el último): Zu beti azken. Zu beti azken putz!
Un año más, cientos de golondrinas...: Aurten ere, ehunka enara...
Un arma más poderosa que ninguna: Denik eta armarik ahaltzuena.
Un fuera de serie: Markatik fuerakoa.
Un poco antes: Aurretxo. Uda aurretxoan hasi ginen.
Un poco grande (a elegir): Handitxoa aukeran. Handi samarra aukeran.
Underwool: Ile-larru
Unnaturally: Ohi ez bezala.
Unteachables: Ikasle zailak.
Urgente: Presako. Presa handiko.
Utensilios de cocina: Sukalde tresnak
Útil: Baliagarri. (Erabilgarri: manejable)
Vacilante: Enaiz-banaizko.
Vacío (por dentro): Barne-huts. Barru-huts.
Vagabundo: Alferribiltari

Valoración positiva: Ontzat eman/jo.
Varita mágica: Azti hagaxka
Vaso de agua (Ahogarse en un vaso de agua): Putzu txikian ito.
Vaya con Dios -¿Con quién si no?: Zoaz, Jainkoa lagun! -Nor bestela?
Vaya napia! (adkor.): A ze aldaba. Aldaba bikaina!
Vecindad (Vivir en buena vecindad): Auzotasun ederrean bizi.
Velado (La imagen de Dios velada): Jainkoaren irudi lausoa.
Venda (quitar la venda de los ojos): A ze zikina atera diozun begitik!
Venga a llorar: Negar eta negar ari
Venganza (Corren vientos de venganza): Mendeku haizea dabil
Venir (¡Qué bien me has venido!): Pare-parean etorri zara.
Venir: Venga quien venga: Normahi datorrela (ere)
Ventaja (adkor.): Aurrenak bi esku (jateko ta)
Ventaja (comer la ventaja): Aldea jan
Ver (¡A ver!): Ikustagun!
Ver (¿Quién te ha visto y quién te ve?): Zer hintzen eta nola hago?!Verdades como puños: Egia biribilak.
Verdades de Perogrullo: Fernandoren egia
Vergüenza (esconder las vergüenzas): Lotsariak gorde.
Vergüenza ajena: Auzo lotsa.
Vestido (de baño): Bainu soineko.
Vez (aunque sea una vez): Behin bada ere. Behin bederen.
Vez (La última vez que): Orain hurrengo. Orain hurrena. "Orain hurrengo/hurrena bildu ginenean..."
Vez (una vez más): Berriz ere.
Vez: (cada vez) Aldiko
Vez (para de vez en cuando): Noizean behingo. Gauza politak noizean behingo.
Viaje de estudio: Ikas bidaia
Vida (A lo largo de nuestra vida): Geure bizialdian
Vida sobria (moderada) y austera: Bizimodu neurritsua ta latza.
Vida superficial: Axaleko bizitza. Axalean eta aparretan bizi.
Viento (Ha cambiado el viento): haizea aldatu du
Viento (mandar con viento fresco): Ai Anton, ai Anton, haize freskoari gabon!
Vigente campeón" (Actual campeón): Gaur egungo txapelduna.
Vigilar: Zaindu. Zainduko dugu ordua.
Viguería: Soliberia. Harrizko hormak dauzkate, eta zurezko soliberiak, prontalak eta habeak.
Vini, vidi, vinci: Iritsi, ikusi, irabazi.
Virguerías: Artistakeriak
Visaphone (interfonoa, atarikoa ikusten dena): Bistafono
Vista (a la vista): Titibistan. Ipurdibistan.
Vista (a simple vista): Begi hutsez. Begiz ere.
Vista: (Para alegrar la vista) Begiak alaitzeko.
Vital (condiciones vitales/de vida): Bizitzeko egoera (situación vital): Bizi(tza) egoera.
Vivir a tope: Mugaraino/azkeneraino bizi.
Vivir de maravilla: Esne mamitan bizi.
Vivir (¡Tú sí que vives!): Hi bizi haiz hi!
Volar (Dejar volar a la imaginación): Irudimenari atek zabaldu.
Volar (Hacer volar) Hegan eragin
Voluntad (de buena voluntad): Borondatez jantzitako jende jatorraren itxura.
Voluntad (de voluntad voluble): Gogo-aldartetsu.
Vomitar: Txahala bota. Kontuz, txahal beroa!
Voz (En voz más baja): Isilago!
Vuelco (Le dio un vuelco al corazón): Bihotz-iraulia egin zion.
Vuelta (Dar la vuelta a los bolsillos): Irauli poltsikoak.
Vuelta (no tiene vuelta atrás): Ez du atzera bueltarik. Ez du du atzerakorik.
Vuelta: (dar vueltas en la cabeza a algo): Buruan bueltaka erabili zerbait
Vulgarización de la música clásica" (Divulgación): Jendarteratzea. Zabaltzea.
Vulgo: Jende-mende.
Wanted: Bila.
Way home: Etxerabide. Etxerabide bakarra dago harentzat.
Well, you're one to talk: Zuk inori esan behar!
What bullet is marked for me?: Ze bala zegokidan niri?
When's it due?: Zenbateko zaude?
Where there's land, there's war!: Lurra non, gerra han!
Whisky de Malta: Malta whiskia.
Whole world's gone topsy-turvy: Mundua seko erotu da.
Why do they come to these tomb like hotels...?: Jendea zergatik etortzen da erdi kanposantu hauetara...?
Wildlife: Basabizitza
Wriggling: iraulkari
Xenófilo: kanpoeder
Ya a la venta: Salgai dago.
Ya es de día?: Egun-argi dagoeneko?
Ya es historia: Iragana da.
Ya está bien!: Nahikoa diagu!
Ya sé: Bai, ba! A, bai!
Yo (en cuanto a mí, yo por mi parte): Ni neu ez naiz... Nik neuk ez zekiat...
Yo de por sí soy...: Ni berez naiz...
You mind if I ask you how you got that hitch in your step, Dan?: Nola elbarritu zinen, Dan, atrebentzia ez bada?
You miss me?: Ni faltan?
You poor rich kid: Aberaskume gaixoa!
Zapatería: Zapata denda (zapatak saltzen diren tokia)
Zapatería: Zapategi (zapatariak zapatak egiten edo konpontzen dituen tokia: Tomasen zapateie gure etxepean.)
Zona residencial: Egoitzalde

ALDAKETAK

1907an jaiotzen da, 1980an hiltzeko: 1907an jaio zen, eta 1980an hil.
1937an joan zen herritik, 1978an itzuliz: 1937an joan zen herritik eta 1978an itzuli (zen).
1947an jaiotzen da: 1947an jaio zen. 1947an jaiola da.
1980 baino zertxobait beranduagoko kontuak: 1980 baino zertxobait geroagoko kontuak
1987an ezkontzen da. Hurrengo urtean elkartea sortuko zuen: 1987an ezkontu (zen) eta hurrengo urtean elkartea sortu zuen.
A ze beldurra pentsatuta bakarrik!: A ze beldurra pentsatu hutsarekin!
A ze buru txarra duzun!: A ze buru txarra zurea! (Biak)
A ze gogo gutxi joateko!: A ze alfergura joateko!
A ze kiratsa botatzen duzun!: A ze kiratsa darizun!
A ze pena badoazela?: A ze pena! Badoaz.
A ze zortea duzun horrelako ama edukitzeaz!: A ze zortea duzun horrelako ama edukita!
Abentura bat bizitzera goaz?: Abentura bat bizi behar dugu? (Biak)
Adar bihurtako zuhaitza: Adar bihurridun zuhaitza
Aditurik puntakoenak: Aditurik adituena
Aditzen dizut (Te escucho): Adi nago(kizu).
Adostasunera heldu: Ados jarri. Bat etorri.
Afaldu berri duzu ta: Oraintxe afaldu duzu ta. Afaldu berria zara ta (Hirurak)
Agurtu zaitez betiko: Esan agur betiko!
Ahal duenero: Ahal duen bakoitzean. Ahal duen guztietan.
Ahalegin guztiak porrotean amaitu dira: Alferrik(akoak) izan dira ahalegin guztiak.
Ahalegindu ez garelako ez da izango: Ez da izango ahalegin faltagatik
Ahalmen handiko benetako pistolak dira: Ahalmen handiko pistolak dira, benetakoak.
Ahatearen mokoa du: Ahate mokoa du
Ahizpari tximetatik tira ta negarrez jartzeko onik ez du izaten: Ahizpari tximetatik tira ta negarrez jarri arteko onik ez du izaten.
Ahoa ur egiten zait: Txistua egin zait ahoan.
Ahots hartua: Eztarri urratua
Ahotsa urratu: Eztarria urratu.
Ahoz gora irakurri: Ozen irakurri
Ahulgunea aurkitzean dago gakoa: Ahulgunea aurkitzea da gakoa.
Ai ene! Hemen komeriak daude.: Ai ene, komeriak dira hemen!
Aineza nik ere haren trebezia!: Ai haren trebezia banu nik ere!
Aingeru baten moduan egingo du lo: Aingeruen moduan egingo du lo. Aingeruek bezala egingo du lo.
Aintziraren zabaltasunean sakabanaturik: Aintzira zabalean sakabanaturik (biak)
Aireportuko zuzeneko irudiak: Aireportuko irudi zuzenekoak.
Aisekiago: Aiseago
Aitarekin ez du harremanik onena: Aitarekin ez du harreman oso ona ere.
Aizu, igandean zerbait egin behar duzu?: Aizu, igandean baduzu zerbait egitekorik?
Aizu, mutilen batekin gustatuta zaude?: Aizu, baduzu mutilen bat begiz joa?
Aizu, nazkatzen hasi nauzu: Aizu, nazkatu nauzu oraintxe!
Akabo zara!: Zureak egin du!
Akabua da hau! Akabua!: Akabo dena! Akabo!
Aldaketa/gauza puntualak (galizismoa): Aldaketa/gauza jakinak, zehatzak...
Aldatutako itxura du: Aldatu itxura du. Aldatu den itxura du.
Aldeak haundi samar segitzen du izaten oraindik: Aldea handi samarra da oraindik.
Alderdiaren buru bezala jarri: Alderdiaren buru jarri
Aldirietako betiko orubean, beraz: Aldirietan, betiko orubean, beraz.
Aleman gisa nire arbasoen erruduntasuna partekatzen dut: Aleman naizenez, neure egiten dut nolabait arbasoen errua.
Alkoholismoa bezalako arazo batzuk: Alkoholismoa eta halako arazoak. Arazo batzuk: besteak beste alkoholismoa.
Altura baxuan hegan: Oso behetik hegan
Ama bezalakoa da (izaeraz): Ama bezala da (nireztat).
Ama bila ibiliko zaio: Ama bila ibiliko du. (Biak)
Ama erantzulea (responsable) da: Ama arduratsua da.
Amaitu dut honekin: Amaitu dut hau (gauza bat). Amaitu dut honekioa (pertsonea).
Amak erabakiko du nork egiten duen zer: Amak erabakiko nork zer egin.
Amak esandakoa egin: Amaren esana egin. (Biak)
Amankomunean (en común): Lana denen artean egin. Barkua denona da.
Amankomunean (en común): Zertan dira berdin/antzeko? Ez dute ezer antzeko/berdin. Ezer gutxi dute berdinek.
Amaren aurpegian izua nabari zen etxeko atea itxi aurretik jada: Amaren aurpegian izua nabari zen etxeko atea itxi aurretik ere.
Ametsa izan behar du: Ametsa izango da. (Biak)
Ametsetan ote zegoen?: Ametsetan ari ote zen?
Ametsetan zegoen: Ametsetan ari zen
Amezketako kasuan, sakristaua joaten zen buruan: Amezketan, sakristaua joaten zen buruan.
Anak lagundu didanari esker luzaroko gordeko ditut gaurko irudiak: Anaren laguntzari esker luzaroko...
Andreagaiekin moztu: Andreagaiekin hautsi.
Andresek aurkitu du bilatzen ari zen liburua: Andresek aurkitu du bila zebilen liburua.
Animalia-hezitzailea den tresna bikaina: Animaliak hezteko tresna bikaina.
Antologia bat egiteko egitasmoa: Antologia bat egiteko asmoa.
Apaingarri gisa asmatua: Apaingarritarako asmatua
Apaiza irakiten luze iritzian (ezkongaien zain): Apaiza irakiten luze iritzita (Biak)
Araba-Bizkaiko txapelketa: Araba-Bizkaietako txapelketa.
Arazoa zera da, beti egoten dela...: Arazoa da beti egoten/izaten dela...
Arazo-sortzaile: Bazter nahasle
Are gehiago harritzen gaitu: Are harritzenago gaitu (Biak)
Are okerrera egin: are okerrera egin (biak)
Areago hurbiltzen/hurreratzen: Hurbilgotzen. Hurreragotzen.
Aerio/etsai (kiroletan-da): Aurkari
Argazki bat aterako dut oroigarri moduan: Argazki bat aterako dut oroigarritzat.
Argiak aldegin du: Argia joan da
Argitaratuta daude jada: Argitaratuak daude.
Arkitekto gisa, ez dut...: Arkitekto naizenez, ez dut...
Arma boteretsua: Arma ahaltsua.
Armarik punterengoena: Armarik puntakoena.
Armetara!: Hartu armak!
Arpoiz kolpatu: Arpoiz jo
Arrain pila dago guk lapurtzeko prest: Arrain pila dago guk noiz lapurtuko.
Arraina ona da bururako: Arraina ona da buruarentzat
Arraina ona da osasunarentzat: Arraina ona da osasunerako
Arrakasta ezagutu: Arrakasta izan
Arrakasta lortu du: Arrakasta izan du
Arrakastaz probatu dute sistema berria: Ongi joan da proba. Behar (den) bezala dabil sistema berria.
Arrautza bi zati bereizgarritan banatzen da: Arrautza bi zati bereizgarritan dago banatua.
Arrazen baitako bereizketa: Arraza-bereizkeria.
Arrazoa edozein delarik ere: Horregatik izan edo hargatik
Arrazoiak direnak direla: Arrazoiak gorabehera
Arren eta arren eskatuta ere: Arren eta arren eskatu arren (hitz jolas adierazkorra)
Arriskua ez da bukatu: Arriskuan gaude oraindik
Arriskupean: Arriskuan
Artikulu erakutsi didanarekin batera,...: Artikulu erakutsi orduko,... Artikulu erakutsi eta bat-batean...
Artista bat egin zaude: Artista hutsa zara
Asko esaten du: Esanahi handia du.
Asko hitz egiten dit zuri buruz: Sarri aipatzen zaitu.
Asko ikasi beharra daukazu: Asko daukazu ikasi beharra (Biak)
Asko pentsatu dut zutaz: Asko pentsatu dut zu(re)gan. Oso gogoan izan zaitut.
Askogatik: Alde handiarekin. Aise.
Asmatu dut parkera etortzean: Asmatu dut parkera etorrita.
Asmatu egin duzu, jauna; erdi-erdian jo duzu helburua: Asmatu duzu, jauna, bete-betean asmatu ere.
Asmatzean dago sekretua: Asmatzea da sekretua

Aspaldi nahi dut holako bat erosi: Aspaldi nabil holako bat erosi nahian.
Aspaldi-aspaldi honetan: Aspaldi-aspaldion (Biak)
Aspertu nauzu dagoeneko!: Aspertu nauzu oraintxe!
Atebete edo bi aste barru: Atebete edo bi barru.
Atebete jada...: Atebete bada...
Ateburua duzue indarra hartzeko: Ateburua duzue indarbertitzeko.
Atea zirri(ki)tuta: Atea, zirri(ki)tua utzita.
Ateetan dago negua: Atean/atarian da negua
Ateratzea lortu dugu: Atera dugu (behintzat).
Atero dago denda: Aterik atera dago denda.
Atzaparra bota: Atzaparra ezarri
Atzaparra erantsi zion: Atzaparra ezarri zion
Atzera egitea gomendatzen dut: Atzera egitea dugu onena.
Atzeraxeago: Atzeragoxe (Biak)
Atzeritik datorren barku bateko mandarina-kaxen artean dago: Atzeritik datorren barku batean dago, mandarina kaxa artean.
Atzo hasten zen: Atzo hasi zen.
Atzo herritik nindoala: Atzo herrian nenbilela
Aukera gutxi izaten dut: Ez dut ia aukerarik izaten (Biak)
Aulki kulunkarian... ikusten zen: Aulki kulunkarian... ageri zen.
Aurpegi-polit bat baino gehiago da: Ez da aurpegi-polit hutsa. Aurpegi-polita baino zerbait gehiago da.
Aurrekoak (hau ta hori) uzartzen bazituen ere, bigarrenak...: Aurrekoak (hau ta hori) uzartzen zituen, eta bigarrenak...
Aurrera egiten jarraituko du: Aurrera egingo du.
Aurrera jarraitu/segitu nuen: Aurrera egin nuen.
Aurrera jarraitzen nuen heinean: Aurrera egin ahala
Aurrerapena oztopatu: Aurrerapena eragotzi, trabatu.
Aurrerapenak izan arren: Aurrerapenak aurrerapen. Aurrerapenak gorabehera. (Hirurak)
Aurreztu egin behar da edozer gauza gertatzen bada ere: Aurreztu egin behar da, (badaezpada) zer gerta ere.
Aurten eman da ezagutzera: Aurten egin da ezagun
Aurten oparirik gabe- esan zion aitak, besoa jasotzen zuela: Aurten oparirik gabe- esan zion aitak, besoa jasota.
Auskalo non izango den dagoeneko!: Auskalo non izango den honezkerok!
Auto bonba, gutun bonba: Bonba autoa, bonba gutuna.
Auto horretan zazpi lagun arte sartzen dira: Auto horretan zazpi lagun ere sartzen dira.
Autoaren atzeko argiak: Autoaren ipurtargiak.
Auziak hausnarketa eskatzen du: Auzia hausnartu beharra dago.
Auziak konpondu gabe jarraitzen du oraindik: Auzia konpondu gabe dago oraindik.
Azalaren mailan ageri da zauria: Azalean ageri da zauria.
Azaldu zure une honetako sentimenduak!: Azaldu zure oraingo sentimenduak!
Azken modako: Moda berriko. Moda-modako.
Azken teknologia: Teknologia berria. Punta-puntako teknologia.
Azkena etorri nintzenez: Azkenekoz etorri nintzenez. Orain hurrengo/hurrena etorri nintzenez.
Azkena izan zuen afaltiarra: Orain hurrengo afaltiarra
Azkenean lortu du sartzeari/ahaztu izan da: Azkenean sartu da/egin du sartzeko modua.
Azkenean, afaldu ahalko dugu!: Azkenean, afaltzeko moduan gara!
Azkeneko borrokan: Orain hurrengo borrokan. (Beste kontu bat da: azken borrokan/azkeneko borrokan)
Azpimarratu (koadernoan edo liburuan hitzak azpimarratu lapitzez edo. Bestela): Nabarmendu.
Ba has gaitezen: Has gaitezen, ba!
Ba oraindik ez zarela esnatu ematen du: Badirudi, ba, ez zarela oraindik esnatu.
Ba zoaz korridorera: Zoaz, ba, korridorera.
Ba, aurrera: Aurrera, ba!
Ba, bai/Ba, ez!: Bai, bai/Ez, bai!
Ba, ez da horrenbesterako!: Ez da, ba, horrenbesterako!
Ba, horixe da araua eta ez goaz eztabaidatzen hastera: Ba, horixe da araua, eta ez gara eztabaidan hasiko.
Bada galtzaile handiagorik?: Bada galtzaile galtzaileagorik? (Biak)
Bada hemen hautsetik!: Bada hemen hautsa!
Bada hor nonbait, diotenez, zuhaitz handi bat: Ba omen da hor nonbait zuhaitz handi bat
Badakit nola mantendu aita esna: Badakit nola eduki aita esna.
Badakizu nor dela uste duan?: Badakizu nor den nire ustez? (Biak)
Badakizu zerekin amaitu dugun? Bi peztako alkandorakin: Badakizu zer geratu zaigun azkenean? Bi peztako alkandora.
Badira hiru egun bainatu ez zarela: Badituzu hiru egun bainatu gabe. (Biak)
Badu zer berezi bat: Badu zerbait berezi (Biak)
Bagoaz dantzan?: Goazen dantzar! Egingo dugu dantzan?
Bai baitakite: Badakite-ta (Biak)
Bai bitxia! Haserre nengoela uste dut!: Bai bitxia! Ez al nengoela, ba, haserre!
Bai horixe!: Horixe, bai (Biak)
Bai ote?: Ba ote? (Biak)
Bai, "Limax Flavus" izeneko espezie honek...: Bai, "Limax Flavus" espezie honek...
Bai, horrek frogatzen du: Bai, hori da frogua.
Baietz?: Bai, ezta?
Baina baita nekagarria ere: Baina nekagarria ere bai (Biak)
Baina banekien aitarekin kontu nezakeela: Baina banekien aitak lagunduko zidala
Baina berriz etortzean: Baina hurrena etortzean (Biak)
Baina bizi-etenok aurrera ere jarraitzen badute: Baina bizi-etenok gerora ere azaltzen badira
Baina edozein memelok asmatuko zuen: Baina memeloenak ere asmatuko zuen.
Baina egia da baita ere...: Baina egia ere da...
Baina egunonak ematera mugatuko naiz: Egun on besterik ez diot esango.
Baina ez kanpotik, barrutik baizik: Baina ez kanpotik, barrutik.
Baina ez nuen ezer sentitu, baina hemen...: Baina ez nuen ezer sentitu. Hemen, ordea...
Baina gero, beste inoiz ikusiko ez zaitugula espero dut: Baina gero, ez ahal zaitugu (inoiz) gehiago ikusiko!
Baina gogoa izaten jarraitzen dut: badut oraindik (ere) gogoa. Ez dut oraindik gogo faltarik.
Baina gure aitak zera zioen...: Baina gure aitak zioena...
Baina gurea espedizio zientifikoa da baita ere: Baina gurea espedizio zientifikoa ere bada.
Baina haurren kasuan...: Baina haurrak badira...
Baina honek ez zuen gertatu behar: Baina ez zuen hau gertatu behar.
Baina hori baino hobea dena...: Baina bada hori baino hoberik...
Baina horrek oso kaltegarria den mendekotasun bat sortu du: Baina horrek mendekotasun bat sortu du, oso kaltegarria.
Baina Jaunaren esana entzun ez eta haren hitza gutxiesten baduzue: Baina Jaunaren esana entzun gabe haren hitza... (Biak)
Baina nazio mailan askoz ere gehiago saltzen da bestea: Baina nazio osoan askoz ere gehiago saltzen da bestea.
Baina nire laguna da baita: Baina nire laguna da bera ere.
Baina nire pazientziak muga bat du: Baina nire pazientziak badu bere muga.
Baina orain ez dakit zer egin behar duan: Baina orain ez dakit zer egin (Sarritan nahikoa da bigarren honekin)
Baina pilotu gisa ez dut parekorik: Baina pilotu, ez dut parekorik.
Baina urperatu aurretik abisa zezakeen!: Baina urperatu aurretik abisatu behar zuen/abisatzea zeukan!
Baina zenbat pisatzen duen honek!: Baina a ze pisua duen honek!
Baina zer asmo darabilzu?: Baina zer asmotan zabilza? (Biak)
Bakarrik egiteko dantza: Bakarrik dantza
Bakarrik jardun zuen ala baziren konspiratzaile gehiago: Bere kasa jardun zuen ala... (Hiltzaileak bakarrik egin zion tiro)
Bakarrik samar nago: Bakar samarrik nago
Bakoitza leku batera joango gara: Nor bere lekura joango gara. Leku banatara joango gara.
Bakoitza non zaudeten esan: Nor non zaudeten esan
Bakoitzak beretik eman behar dio besteari: Nork beretik...
Bakoitzak zuen izena emango didazue: Nork bere izena emango didazue.
Baldintza onetan/baxretan: Egoera onetan/baxretan.
Baliagarri suertatzen zaie: Baliagarri zaie
Baliteke hau gertatzea benetan?: Litekeena da hau benetan gertatzea?
Balorazio (aldekoa): Onartu, onetsi. (kontrakoa): Ez onartu, gaitzetsi.
Balorazio positiboa egin du": Ontzat jo/eman du. Ondo dagoela esan du.
Banaka, biak dira bestea hiltzeko gai: Banaka, biak dira batak bestea hiltzeko gai.
Banana azukretuak: Banana azukreztatutak.

Bandres gogoan hartuta eman dira sariak: Bandres gogoan, eman dituzte sariak.
Banituen iristeko gogoak: Banuen iristeko gogoak. Iristeko irrikaz nengoen.
Bankua ostu/lapurto dute: Bankuan lapurreta egin dute.
Banoa lagunari gau onak ematera: Banoa lagunari gabon esatera
Barkatu esan nizun guztiagatik: Barkatu esan nizun guztia (Biak)
Barkatu, hori kentzerik unetxo batez?: Barkatu, hori kentzerik bai unetxo bat(ez)?
Barre batzuk egin: Barre egin
Barreak egingo ditugu: Barre pixka bat egingo dugu.
Basamortuak amaituko du eurekin: Basamortuak egingo du eurekiko.
Basamortuaren erdian: Basamortu-mortuan
Basatiak dira eta ez da jakiten zer egingo duten: Basatiak dira eta ezin jakin zer egingo duten.
Basoa da bizirik irauteko duten azken aukera: Basoa dute bizirik irauteko aukera bakarra.
Basoland, Basolandia: Basoalde. (Errekalde-ren haritik)
Basolanak larunbat arratsaldera arte gisa horretan jarraitzen zuten: Basolana larunbat arratsaldera arte holaxe izaten zen.
Basook ingurune botaniko anitzenetakoena dira: Basook eremu botaniko oparoenetakoak dira espezieetan.
Bat behar da ere: Bat bera ere (Biak)
Bat zor dizut (te debo una): Zorretan nago (zurekin)
Bata eta bestea: Bata bezala bestea (Biak)
Bat-batean sekulako hagineko mina jarri zait: Bat-batean hagineko mina etorri zait, sekulakoa!
Bat-batean tripako mina jarri zait: Bat-batean tripako mina etorri/sortu zait.
Batekin bukatu ondoren, bigarrenaren txanda da: Batena bukatu ondoren, bigarrenaren txanda da.
Baterere beharrik ez eta arazoak bilatzea da hori: Baterere beharrik ez eta arazo bila ibiltzea da hori.
Batzuek diotenez, Madrilen izango litzateke: ..., Madrilen izango da.
Batzueta harrapari porrokatu gisa ageri dira: Batzueta harrapari porrokatu ageri dira
Batzuk gutxierekin poztzen dira: Batzuek gutxi behar dute pozteko (Biak)
Baxuago hitz egin: Isilago hitz egin.
Bazkaltzeko ordua! Gosetuta nago dagoeneko: Bazkaltzeko ordua! Badut gosea, bai, oraintxe!
Bazkide bihurtu: Bazkide egin. Bazkide izan.
bazuen dagoeneko ospea: bazuen ordurako ospea.
Be-benetan: Bene-benetan
Bederatzitik hamalau egunera ibili behar da: Bederatzitik egunetik hamalau (bitarte) ibili behar da.
Begiak dauzkadanean esango dizut ez badizu axola: Begiak edukitzean esango dizut, axola ez badizu.
Begiak estalita pilotak zuloan sartu aitari kasu eginez: Begiak estalita pilotak zuloan sartu aitarean esanera.
Begiak indarrez itxiko ditut: Begiak itxi-itxi egingo ditut.
Begurira dago zenezari: Begira dagokio zenezari (Biak)
Begurira eta begira: Begira-begira (Biak, zein bere testuinguruan)
Begurira hemen dagoen ontzi honi: Begira hemengo ontzi honi.
Behar bezala: Behar den bezala (Biak)
Beharbada pasatu egin naiz, bai: Beharbada gehiegitxo izan da, bai.
Behin batean... Eta beste behin...: Behin batean... Eta beste batean...
Behin eta berriz hausnartu beharko du bere portaeraz: Behin eta berriz hausnartu beharko du bere portaera(rena).
Behin ospitalera iristean,...: Behin ospitalera iritsita,...
Beldur naiz galduko ote den: Beldur naiz ez ote den galduko (Biak)
Beldur naiz gertatuko zaidanaz pentsatzean: Beldur naiz zer gertatuko zaidan/zer datorkidan pentsatzean.
Beldurra ematen dit bera atzetik ez dudala zer egin behar dudana esaten neuk bakarrik moldatu beharrik: Beldurra ematen dit neure kabuz moldatu beharrik, bera atzean ez dudala zer egin esateko.
Benetako buruzagiak zuzen dena egiten du, jendearen iritziak gorabehera: ..., jendearen iritziak iritzi. (biak)
Benetan axola ote dio zuregatik?: Benetan ote du zutaz axola?
Berak bilduko zuela esan, baina ez du egin: Berak bilduko zuela esan, baina ez du bildu.
Berak dio erreskatatu baino aurkitu egin behar duzula: Berak dio erreskatatu ez, aurkitu egin behar duzula.
Berak esan zidan, baina dagoeneko banekien: Berak esan zidan, baina ordurako banekien.
Berak esango dizu egin behar duzuna: Berak esango dizu zer egin (behar duzun)
Berandu ari zaizu egiten, alaba!: Berandutzen ari zaizu, alaba!
Berarekin hitz egiten egon nintzen: Berarekin hitz egiten aritu nintzen. Berarekin hitz egin nuen.
Berdin dio nola, iristen diren bitartean: Berdin dio nola, iristen badira.
Berdina egiten saiatu dira: Gauza bera egiten saiatu dira. Berdin egiten saiatu dira.
Bere adimen burutsua: Bere adimen argia
Bere alabaren apetari lotuta gauzka: (gauzkakio ?)
Bere ama bizi da: Ama bizi du
Bere emazte Mirenek: Miren emazteak (Biak)
Bere lehen aldia da: Lehen aldia du. (Biak)
Bere oharkabea: Bera ohartu gabe.
Bere senari jarraituz, margolari bihurtuko da: Bere senari jarraituz, margolari izango da.
Berehala pasatuko zaio poza: Berehala joango zaio poza
Berehalakoan/Berehalaxe: Ez zen berehalakoan (belakoan) etorriko/ Berehalaxe etorri zen.
Bero egiten du hemen: Bero da(go) hemen.
Beroaz elikatzen da, gizakiena bane: Beroaz elikatzen da, gizakienaz ere bai.
Berragerpena (berragertzea) egin zuen: Berragertu zen. Berriz jokatzeko hasi zen.
Berrikuntzak sartu: Berrikuntzak egin. Gauza berriak sartu.
Berrito itzuliko naiz: Berrito etorriko naiz.
Berriz ere Unai garaitu du: Berriz ere Unai garaitu. Berriz ere Unai irabazi du.
Berrogei eurotan jaso digute soldata: Berrogei euro jaso digute soldata.
Berrogei urte lanean, hutsik batera gabe: Berrogei urte lanean inoiz huts egin gabe
Bertako antzinako ohitura: Bertako ohitura antzinakoa.
Beste behin, eskerrak ematen dizkizut...: Berriz ere eskerrak ematen dizkizut...
Beste behin: Utzidazu beste behin bakarrik.
Beste bere gisako arima bakar bat: Bere gisako beste arima bakar bat.
Beste bikia: Biki laguna.
Beste era batera: Bestela
Beste ez dakigu nongo tonto batek...: Beste ez dakigu nongo tonto batek...
Beste gauza bat da esan nahi duena. Zera da... : Beste gauza bat esan nahi du, eta da...
Beste norabait joan: Beste leku batera joan (Biak)
Beste zerbaitekin ari da bilatzen: Beste zerbaitekin bila dabil.
Beti bezain eder jarraitzen duzu, Jessica!: Beti bezain eder zaude zu, Jessica!
Beti eguzki aldera daudelako deitzen dira horrela: eguzki-loreak: Eguzki aldera egoten dira beti: hortik izena.
Beti jolas berean ibiltzen aspertzeko zirenean: Beti jolas berean ibiltzen aspertzeko (koan)
Betiere zutaz pentsatzen dut: Betiere zuregan pentsatzen dut. Betiere zuregan dut pentsamendua.
Betikotasuna iruditzen: Luze iritzi. Luze baino luzeago egin.
Betoa altxatu: Betoa kendu.
Bezalako/bezala: Hori zu bezalakoa da. Hori saunaren eserita egotea bezala da.
Bezperako albistei itzuli bat ematen diegu hasteko: Bezperako albistei berri bat...
Bi autotan etorri gara: Auto banatan etorri gara (Biak)
Bi bele ikusi nituen, lainoaren zurratasunerantz zihoaz hegan: Bi bele ikusi nituen, lainoaren zurratasunerantz hegan.
Bi gradu(t)an jaitsi da tenperatura: Bi gradu jaitsi da tenperatura.
Bi hauetako zein aizkora erori zaizu?: Bi aizkora hauetako zein erori zaizu?
Bi metro euri (Ingelesa): Metro koadroko bi mila litro euri.
Bi metroren aldeaz irabazi: Bi metroren aldearekin irabazi.
Bi ordu baino gutxiagoan: Bi ordu eskasean (Biak)
Bi segunduan hobetu marka: Bi segunduan hobetu marka (Biak)
Bi tantoz/tantogatik irabazi: Bi tantoren aldearekin irabazi. Bi tantoren aldean kendu/atera.
Biak ala biak, zer pentsatu ematen duten arrazoiak: Biak ere... (Biak)
Bidea moztu dute: Bidea itxi dute. (Baina bidea moztuta geratu da, lurrikararen eraginez)
Bidean dago: Bidean da.
Bidearen bukaeraino/azkeneraino: Bidebururaino.
Biei ez ote die ihes egingo!: Ez ahal die bieie ihes egingo!
Bien artean, gordeago, barrakoiak kokatzen zen: Bien artean, gordeago, barrakoiak zegoen.
Bietan inor ez da etorri: Ez da bietako inor etorri.
Bihar bizitza berria izango duzu zain: Biharko bizitza berria daukazu zain.
Bihar hasten da: Bihar hasiko da.

Bihar ospatuko da: Bihar izango/egingo da
Biharko egingo duzu, baietz?: Biharko egingo duzu, ezta?
Bihotz hondoan: Bihotz-bihotzean.
Bihotzaren erdian: Bihotz-bihotzean (Biak)
Bila nenbiltzan liburua?": Bila nenbilan liburua
Bilaka-bilaka: Bila ta bila (Biak)
Bilbon aurkitzen da kokaturik/kokatzen da: Bilbon dago.
Bildu berria denean aise hausten da: Bildu berri(t)an aise hausten da. Bildu berria aise hausten da.
Bildumetako piezak dira: Bilduma-piezak dira.
Bilduta dago (envuelto): Bileran da(go).
Bilerarekin bukatu: Bileru bukatu.
Biolin hauek kondaira bihurtu dira: Biolin hauek mitikoak dira.
Birbikaina: Bikain-bikaina.
Biriketean ordez odolean: Biriketean ez, odolean.
Birziklatzean ere pentsatu duzu?: Birziklatzea ere pentsatu duzu? Birziklatzea ere izan duzu gogoan?
Bisitatuena izaten jarraitzen du: Bisitatuena da orain(dik) ere.
Bizi banaiz, zuri esker da: Bizi banaiz, zuri esker bizi naiz.
Bizi izan den leku guztietan hartu du izen berezi bat: Zenbat bizileku hainbat izen hartu ditu
Bizirik jarraitzeko sena: Bizirik irauteko sena (Biak)
Bizirik segitzen du: Bizirik dirau. Bizirik irauten du. (Hirurak)
Bizitza basatia: Basabizitza
Biztanleen ehuneko zortziak esan du: Biztanleen ehuneko zortziak esan du(te).
Borondate gutxi: Borondate eskasa, ahula.
Borondate oneko jende jatorra: Borondatez jantzitako jende jatorra (Biak)
Borondate-ındarraren kontua da dena: Borondate kontua da dena.
Bost egunez luzatuko da jazzaldia: Bost egun iraungo du jazzaldiak. Bost eguneko jazzaldia izango da.
Bost euro(t)an garestitu: Bost euro garestitu.
Bost ordu barru suspertu ezean: Bost orduren barruan suspertu ezean.
Bost orduan etorriko naiz (handik hona), baina bost ordu barru iritsiko naiz.
Bostetik hamar kilora bitarte(an) galdu: Bost kilotik hamarrera bitarte(an) galdu.
Botilaz erratu naiz: Botilaz nahasi naiz
Botoi flotatzaile bat!: Botoi bat airean!
Buka ezazu behingoz xelegekeria honekin: Buka ezazu behingoz xelegekeria hau.
Bularreko minbizia da heriotzaren arrazoi nagusia: Bularreko minbizia da heriotza-eragile nagusia (emakumeetan)
Bularretakoak erredura sortu dit alderik alde: Bularretakoak erredura egin dit alderik alde
Buru biraka daukat: Burua biraka dabilkit
Buru lausotu(ta) antzean daukat: Burua lauso antzean daukat.
Buru zuri geratu zait (en blanco): Burua hutsik geratu zait.
Buruaren angelua beherantz zutela hegan: Buruaren angelua beherantz hegan (Biak)
Buruari bueltak emanda gero: Buruan bueltak emanda gero. Buruan bueltaka erabilita gero.
Buruaz jo: Buruz jo. Buruarekin jo (Hirurak)
Buru-belarri jarraituko dut zure saioa: Adi-adi egongo natzaio zure saioari (Biak)
Buru-ehiztarien fama zeukaten: Buru-ehiztari fama zuten.
Buru-eraginka: Buruari eraginez
Buruko mina jarri didate: Buruko mina eragin didate.
Buruko mina jarri zait: Buruko mina etorri zait (Buruko mina joan zait)
Burutik oinetaraino nago maitemindua beraz: Burutik oinetaraino nauka maiteminduta.
Buztan luzeak lema funtzioa betetzen du: Buztan luzeak lemarena egiten du.
Dagoeneko etxean behar zuen: Etxean behar zuen honezkero.
Dagoeneko urduri jartzen ari naiz ni: Urduri jartzen hasia naiz ni. Urduritzen hasia naiz ni.
Dastatzaile moduan aritu naiz: Dastatzaile aritu naiz.
Datorren asterako aurreikusita zegoen jaialdia: Datorren astean egitekoa zen jaialdia
Datorren hori Mikel da, ezta?": Hor datorren hori/Hor datorrena Mikel da, ezta?
Datorren ostiraletik astebetetera: Datorren ostiralean zortzi.
Dauden bezala argitaratu: Dauden horretan argitaratu. Dauden daudenean argitaratu (Hirurak)
Daukan adinarekin: Bere adinarekin. Bere adinean.
Dauzkan begi ederrei esker...: Bere begi ederrei esker...
Deia luzatzen die: dei egiten die
Demonio itxura zuen izaki bat: Demonio itxurako izaki bat (Biak)
Dena eramango dut. Lorategia bane: Dena eramango dut. Lorategia ere bai.
Dena planeatu(ta) bezala atera da: Dena antolatatu(ta) bezala atera da.
Denbora asko baino lehen: Luzaro gabe. Luzaro baino lehen.
Denbora askoan: Luzaroan. Luzaro. Denbora luzean.
Denbora egiten: Denbora pasa. Hementxe denbora pasa.
Denbora galtzen ari gara: Alfer-alferrik ari gara. (Biak)
Denbora gutxian: Denbora laburrean.
Denbora laburrerako: Ez luzarorako (Biak)
Dendaren batean ahaztu izango ditut: Dendaren batean ahaztuko nituen. (Biak)
Denek egingo dute barre nitaz: Denek egingo didate barre.
Denek hunkitu naute, bakoitzak modu batera: Denek hunkitu naute, nor bere modura.
Denok ala denok urduri samar: Denok ere urduri samar (Biak)
Denok ere era batean behartuta goaz: Denok ere nolabait behartuta goaz.
Denontzat onena dena egingo dugu: Denontzako onena egingo dugu.
Desegin dut maleta: Hustu dut maleta.
Desiratutako lurraldea: Lurralde desiratua/irrikatua.
Desiratzen nago: Irrikaz nago
Despistatu hutsa zara: Distrailu hutsa zara.
Dietan nago: Janurrian nabil
Dos (No hay dos sin tres): Biak hiru nahi.
Drogak hartuta ere, lehengoa izaten segitzen duzu: Drogak hartuta ere, lehengoa izango zara.
Duela denbora asko: Aspaldi. Aspaldi-aspaldian.
Duela gutxi arte: Oraintsu arte
Duela gutxi eraman dute: Oraintsu/Oraindik orain eraman dute. Eraman berri dute. Lehentxo eraman dute.
Duela sei urte ez naiz etorri: Badira sei urte ez naizela etorri.
Duen adinerako garai samarra da: Bere adinerako garai samarra da (Biak)
EAJko ordezkari den Iribarrek...: Iribar EAJko ordezkariak...
Edan gehiegia hondatu du: Gehiegi edateak hondatu du (Biak)
Edateko orduan: Edatekoan
Ederra kontua! Zeuk egin diguzunaren ondoren!: Ederra kontua! Zeuk egin diguzuna eginda!
Edozein adin izanda ere, elefanteak beti dira jostalariak: Adina gorabehera, elefanteak beti jostalari.
Edozein armaduni tiro egiteko: Armadunei tiro egiteko. Armadun guztiei tiro egiteko.
Edozein bide bazterretan uzkur-uzkurrik hiltzeko: Bide bazterren batean uzkur-uzkurrik hiltzeko.
Edozein eguraldirekin: Eguraldia gorabehera
Edozein ideia inozok balioko du: Ideia inozoenak ere balioko du.
Edozein istripu ustekabeko gertatzen bada: Ustekapeko istripuren bat gertatzen bada
Edozein kasutan: Nolanahi. (Baina: aplika daitekeen kasu (guzti) etan.
Edozein kioskotan aurkituko duzue: Kioskoetan aurkituko duzue. Kiosko guztietan...
Edozein modutara (ere): Nolanahi (ere)
Edozein momentutan: Noiznahi (en cualquier momento) Une batetik bestera (de un momento a otro)
Edozein zalantza baduzu, galdetu!: Zalantzarik baduzu, galdetu!
Edozein zalantza duzuela...: Zalantzarik baduzue...
Egia "berdaderoa": Egiazko egia. Egia-egia.
Egin didazuna eta gero: Egin didazuna eginda gero
Egin duenak egin duela: Egin duenak egin. Nomahik egin duela.
Egin dugu geure egitekoa: Bete dugu geure egitekoa.
Egin nionaren ondoren: Egin niona eginda
Egindako hainbat esperimendu erakutsi dutenez: Hainbat esperimenduk erakutsi dutenez
Egiteko orduan: Egiterakoan

Egiten dudana egiten dudala, dena kakazten dut: Zernahi egin, dena kakazten dut.
Egitera doazena: Egin behar dutena (Biak)
Lapurreta egin dute, poliziak lau ordu beranduago atxilotuz: Lapurreta egin dute, eta poliziak lau ordu geroago atxilotu ditu.
Egun bat ere ez da igarotzen non/zeinetan zure zain egoten ez naizen: Ez da egunik igarotzen zure zain egoten ez naizenik.
Egun guztian argi piztuekin zegoen logela: Egun osoan argiak piztuta zegoen logela.
Egun lanpetua dugu biok: Gaur lanpeturik gaude biok
Egun sargori batean arropa pila bat jantzita: Egun sargorian arropa pila jantzita.
Egun zoragarria doa: Eguna zoragarri doa.
Eguna gezurak esaten pasatzen duzu: Eguna gezur esaten pasatzen duzu (Biak)
Egun-argi batean: Egun-argi argi(t)an. (Hirurak)
Egunen batean: Noizbait (Biak)
Egunero utzi behar izaten dute gordelekua, jatera joan ahal izateko: Egunero..., jatera ateratzeko.
Egunon! -Berdin!: Egun on! -Baita zuri ere/Zuri ere bai.
Eguraldi onak jarraitzen badu behintzat: Eguraldi onak irauten badu behintzat.
Eguraldi onarekin: Eguraldi onean (Biak)
Eguzki kolpeagatik edo? Bero kolpeagatik edo?: Beroak jota edo? Beroagatik edo?
Eguzkia sartua zen jada: Eguzkia sartua zen.
Eguzkiaren eta ilargiaren eragina: Eguzki-ilargien eragina. (Biak)
Ehizaldiak ez du arraskatarik izan: Ehizaldiak ez du emaitza onik izan. Ehizaldia ez da emankorra izan. Ez dute ezer bota.
Ehun bazkidetan handitu da enpresa: Ehun bazkide berri hartu ditu enpresak.
Ehun ontzitarako kirol portua: Ehun ontzirentzako kirol portua
Ehuneko 50eko aukera: beltza ala zuria: Erdi banako aukera: beltza ala zuria.
Ehuneko 80an (% 80an) arraina jaten du: Hamarretik zortzitan... Hamarretik zortzi...
Einsteinen denborari buruzko teoria: Denborari buruzko Einsteinen teoria
Ekarri behar zuena ekarri duenean: Ekarki beharrekoa ekarritakoan
Ekarri kandela bat behintzat: Ekarki kandela bat, besterik ez bada (ere).
Ekimen hori armak biltzeko programa baten barruan dago: Ekimen hori armak biltzeko programan dago.
Elizak zabalik ditu atean joan nahi duen edonorentzat: Elizak zabalik ditu atean joan nahi dutenentzat.
Elizako kanpaiek hamarrak direla iragarri dute: Elizako kanpaiek hamarrak hots egin dute.
Elizatik edo zibiletik ezkondu: Elizaz edo zibilez ezkondu.
Elizatik ezkondu: Elizaz/elizan ezkondu.
Elkarbanatu: Elkarrekin banatu. Elkarren artean banatu.
Elkarrekiko tolerantzia: Elkar eramatea
Elkarri ohitu ginen: Elkarrengana ohitu ginen.
Emakume bat hilik suertatu da: Emakume bat hil da.
Eman didazun hari horrek ez du ezertarako balio: Zure hari horrek ez du ezertarako balio.
Enbor hauek egongaitzak dira oso: Enbor hauek ez daude batera egonkor.
Energia aurrezten duten etxeak eraiki: Energia aurrezteko etxeak eraiki.
Enpresa ugari biltzen dira Miramonen: Enpresa ugari bildu da Miramonen. Enpresa ugari dago Miramonen.
Entsalada platerkada eder bat: Platerkada eder bat entsalada.
Entzun dut zutaz: Badut zure berri/zure aditzea (aditzera)
Entzuten egongo gara: Adi egongo gara.
Entzuten nago: Adi nago. (Hitz egin, adi nago ta). Entzuten ari naiz (ez nago distraiturik)
Era batean edo bestean: Nola edo hala.
Era batean: Nolabait
Erabat amazuloa da: Erabat amazulo da.
Erabilera-jarraibideak: Erabilbideak.
Eraman nazazu hura ezkatua dagoen lekura: Eraman nazazu haren ezkutalekura.
Eraman zeurekin orrazia: Eraman orrazia aldean!
Erantzun irmo eta egokia izango dute: Dagokien erantzun irmoa izango dute.
Erantzunaren aurrean beldurra: Erantzunari beldurra
Erasoekin jarraitu: Erasotzen/erasoka/erasoan jarraitu.
Eritasun gutxiago ematen da udan: Eritasun gutxiago izaten da udan.
Erizain gisa egiten du lan: Erizain egiten du lan. Erizain dago (Azpeitian).
Erljioa eta hizkuntza bezalako gaiak landu zituzten: Gai hauek landu zituzten, besteak beste: erlijioa eta hizkuntza.
Erne ibili niri, gero!: Erne ibili nirekin, gero! (Biak)
Erori bezperan zeuden: Erortzeaz zeuden. Erortzeko zorian zeuden.
Erosten Harresia: Erosta Harresia (Biak?)
Erotik baino gehiago dauka gaiztotik: Eroa baino gehiago da(uka) gaiztoa. Eroa ez, gaiztoa da.
Eroten ari nau: Erotuko nau (Biak)
Erran gabe doa (il va sans dire): Ez dago esan beharrik
Errealaren filosofia: Errealaren helburua/jokabidea/irizpidea/asmoa...
Errealitatea amaitzean, hasten da irudimena: Errealitatearen mugan hasten da irudimena.
Errealitateik ihes egitean bestetan ez du pentsatzen: Errealitateik ihes egitea besterik ez du buruan.
Erreserba Federalak puntu erdian jaitsi ditu tasak: Erreserba Federalak puntu erdi (bat) jaitsi ditu tasak.
Errietan hasi zitzaion "ez si eta ez no": Errietan hasi zitzaion ez bat eta ez bi/besterik gabe.
Erronkari erantzun: Erronkari heldu
Esateagatik esan dut: Esate aldera esan dut (Biak)
Esaten nuen, ba, nik!: Banioen, ba, nik!
Eskaerak banatu: Banaketa egin.
Eskariak banatzen noa: Banaketa egitera noa
Eskarmentu gabeko letagin motzeko gaztetxoek...: Eskarmentu gabeko gaztetxo letagin-motzek...
Esker onekoago izan: Esker hobeko izan.
Eskerrak nola pasatu zekienari!: Eskerrak bazekien nola pasatu!
Eskerrik asko eskaintako arretarengatik!: Eskerrik asko zuen arretagatik!
Eskertuta benetan!: Esker oneko benetan!
Eskola hortik dago, aizu!: Eskolara hortik da, aizu!
Eskola sartze: Ikasturte hasiera (Biak)
Esku bat botatzearen ari nintzen: Pixka bat laguntzearen ari nintzen.
Espainiar geografian luze-zabalean...: Espainiaren luze-zabalean...
Espainiar Parlamentua: Espainiako Parlamentua
Espero dut aurkituko duela: Aurkituko ahal du!
Espero ez genituen leku askotan: Espero ez genuen leku askotan
Especial: Primeran (Biak)
Especializatutako eremuak: Eremu espezializatuak (arinago esateko)
Especie honen barruan bereziarena: Espezie honetako bereziarena (Biak)
Estatu mailan: Estatuan
Estrategiarik errazten onenak izaten dira: Estrategiarik errazten onenak izaten dira onenak.
Estuardoarrak: Estuardotarrak (Agirretarrak...)
Eta agian beste bakarren bat izan dezake dagoeneko: Eta agian beste bakarren bat izango du honezkerok.
Eta altxorak biltzen dira bertan: Eta altxorak daude bertan bilduta.
Eta baita hizkuntza ere: Eta hizkuntza ere bai.
Eta baita laster aurkitu ere: Eta bai laster aurkitu ere.
Eta bakeak erreinatuko du munduan: Eta bakea izango dugu munduan. Eta bakea nagusituko da munduan.
Eta benetan doa: Benetan ari naiz.
Eta beste beldurrak zeudenek ere...: Eta beldurrak zeuden besteek ere...
Eta bide batez, ez duzu jakingo...?: Eta bide batez, ba ote dakizu...? (Biak)
Eta esaten dute honela erantzun ziola: Eta honela erantzun omen zion
Eta ez gauzak irudikatu/imajinatu!: Kontuz irudimenarekin!
Eta ez noa amore ematera: Eta ez dut amore emango.
Eta ez zituen berriz/berriro (ere) ikusi: Eta ez zituen gehiago ikusi.
Eta gu berriz ere iragarkietara goaz: Eta orain berriz ere iragarkiak.
Eta hori, pilota gelditu dela (tanto asko jokatu ondoren): Eta hori, pilota moteldu dela.
Eta horrela atzeraka ibil daitezke, beste arrainek ezin dutena: Eta horrela atzeraka ibiltzen dira, beste arrainak ez bezala.
Eta ileorde bat erosten baduzu?: Eta ileorde bat erosiko bazenu?
Eta jada hasi dituzte: Eta hasi(ak) dituzte
Eta nire aldetik oso pozik nago hori ikusita: Eta ni oso pozik nago hori ikusita.
Eta oraindik hori izaten jarraitzen du: Eta oraindik ere halaxe da.

Eta oraintxe hasten bagara?!: Eta oraintxe hasiko bagina?!
Eta Paris, Paris beti!: Eta Paris, beti Paris!
Etiopiarra izan da aurrena, euskalduna hirugarren gelditu delarik: Etiopiarra izan da aurrena eta euskalduna hirugarrena.
Etor dadila medikua!: Datorrela medikua! (Biak)
Etorri berria naiz: Ez naiz etorri zaharra (Biak)
Etorritakoen erdia joan da: Etorritako(en) erdiak joan dira.
Etxeari gerizpe mardula eskaintzen dio: Etxeari gerizpe mardula ematen dio (arbolak)
Etxeko lanak egitean, ez egin liburuan, baizik eta koadernoan: Etxeko lanak egitean, ez egin liburuan, egin koadernoan.
Etxera bitartean esango dizut: Etxera bidean esango dizut
Etzazu guregatik molestiarik hartu: Etzazu guregatik nekerik hartu.
Eukalipto hosto tonak eta tonak: Tonaka eukalipto hosto
Eurek armak badituzte, guk harriak: Eurek armak dituzte; guk, berriz, harriak. Eurek armak dituzte, eta guk harriak.
Euri arriskua dago: Badirudi euria datorrela.
Euri jasak ari ditu: Euria ari du gogor.
Eurria eginarazi: Eurria eragin
Eurria egiteko arriskua dago: Eurria egiteko itxura du. Baliteke euria egitea.
Euritakoa, ez daukat gorria den beste ezer: Euritakoa, ez daukat beste ezer gorririk.
Europa mailan egindako azterketa: Europan egindako azterketa.
Europar kontinentea: Europa kontinentea. Europa.
Euskal geografiaren luze-zabalean...: Euskal Herriaren luze-zabalean...
Existitu al zen?: Izan al zen (benetan)?
Ez al da azkartxo/bizkortxo horretaz hitz egiteko?: Ez al da goiztxo horretaz hitz egiteko.
Ez al zara zakar samarra izan?: Ez ote zara zakar samarra izan? (Biak, berdin-berdinak ez dira, baina)
Ez badugu ezer erosten: Ezer erosten ez badugu (Biak)
Ez baduzu erretzen: Erretzen ez baduzu (Biak)
Ez berekin pagatu: Ez pagarazi berari!
Ez da akuria, baizik katagorri heroia: Ez da akuria, katagorri heroia da.
Ez da alaba jaiki, ama baizik: Ez da alaba jaiki, ama jaiki da.
Ez da azkarra izan behar horretarako: Ez dago azkarra izan beharrik horretarako (Biak)
Ez da bakar bat ere 20 urtetik gorakoa denik: Ez da bakar bat ere 20 urtetik gorakoa.
Ez da bakarra piku bila dabilena: Ez da bakarra piku bila.
Ez da duela gutxikoa: Ez da oraingoxea.
Ez da erraza izango bieberoiekin bukatzea: Ez da erraza izango biberioena bukatzea.
Ez da harroputza, baizik ergela: Ez da harroputza, ergela da (Filmetan arreta pizteko:..., da ergela)
Ez da kaltegarri(a) (Animaliak eta): Ez du min egiten.
Ez da lehen aldiz gertatzen dela: Ez da lehen aldia gertatzen dena.
Ez da mamurik existitzen: Ez da(go) mamurik. Ez da mamurik benetan.
Ez da sekula hiltzen, ala?: Ez da sekula hilko, ala?
Ez dago burutik ondo: Ez dago burutik sano (Biak)
Ez dago egoera gehiago okertzerik: Ez dago egoera okerragotzerik
Ez dago hainbeste handiko diamanterik: Ez dago halako diamante handirik (Biak)
Ez dago hari justizia egiten dion argazkirik: Ez dago hura behar bezala jaso duen argazkirik.
Ez dago hemen; lagun batekin geratu da: Ez dago hemen; lagun batengana joan da.
Ez dago kontatzerik sentitu nuena: Ez dago adierazterik zer sentitu nuen.
Ez dago txakur hoberik mundu osoan: Ez dago txakur hoberik mundu zabalean (Biak)
Ez dakit nola jarriko naizen egunera/egunean: Ez dakit nola eguneratuko naizen.
Ez dator bakarrik bisitan/Ez dator bisitan bakarrik: Ez dator bisita hutsean.
Ez dator honantz, hegoalderantz baizik: Ez dator honantz, hegoalderantz doa.
Ez daude oraindik etxean, ala?: Ez dira oraindik etxeratu, ala?
Ez dauka itzultzea ez den beste irtenbiderik: Ez du itzuli beste irtenbiderik
Ez daukagu toki liberik: Ez daukagu tokirik libre
Ez daukazu esaten duzunaren arrastorik: Ez dakizu zer diozun ere!
Ez dezaten ihes egin!: Ez dezatela ihes egin!
Ez diet itxaronarazi nahi: Ez ditut zain eduki nahi. (Biak)
Ez diot esateagatik: Ez diot esate hutsagatik. Ez diot esate aldera. (Hirurak)
Ez dira ehun gramora ere iristen: Ez dira ehun gramo ere
Ez dit axola, ni hemendik ateratzen nauen bitartean!: Ez dit axola, ni hemendik ateratzen banau.
Ez dituzte beharrezkoak diren baldintzak betetzen: Ez dituzte beharrezko baldintzak betetzen.
Ez dizut utzi ezta kolpe bat ere ematen: Ez dizut utzi kolpe bakar bat ere ematen
Ez dizut utziko halako bihurtzen: (baina bestek beharturik bada): Ez dut utziko halako bihur zaitezten.
Ez du ezer ederretik: Ez du ezer eder (Biak)
Ez du non ezkutatzerik: Ez du non ezkutatu(rik).
Ez du ondo erdiratzerik izan baloia (traba egin badiote): (Bestela) Ez du ondo erdiratu baloia.
Ez du txakur baten itxura: Ez du txakur itxura
Ez dugu edaberik behar, nahiko azkarrak gara dagoeneko: Ez dugu edaberik behar; azkarrak gara, bestela ere.
Ez dugu errege bezala nahi: Ez dugu errege(tzat) nahi.
Ez dugu mutikoa harrapatzea lortu: Ez dugu mutikoa harrapatzerik izan.
Ez duk berehala konbentzituko: Ez duk berehalakoan konbentzituko. Ez diok berehalakoan buruan sartuko.
Ez dut beste harraparirik ezagutzen hain petrala denik: Ez dut beste harraparirik ezagutzen hain petralik.
Ez dut denbora galtzerik: Ez dut denborarik (alferrik) galtzeko.
Ez daukat inora joaterik, tripa hutsik dudala: Ez daukat inora joaterik, tripa hutsik.
Ez dut oraindik harekin bukatu: Ez dut oraindik harekikoa egin.
Ez dut ospetsua izan nahi ospeagatik bakarrik: Ez dut ospetsu izan nahi ospe hutsagatik
Ez dute elkar ongi eramaten: Ez dira elkarrekin ongi eramaten (Biak)
Ez dute hain handia den ezer jaten: Ez dute ezer hain handirik jaten.
Ez duzu gogoratzen? -Orain aipatu duzula. : Ez duzu gogoratzen? -Oraintxe, zuk aipatuta.
Ez duzu ikusi. -Badut ikusi: ... -Bai, ikusi dut.
Ez duzu zertan pentsatu gehiago (No tienes por qué pensar más): Ez duzu zertan gehiago pentsatu.
Ez egin itxaropen ustelik!: Ez izan itxaropen ustelik!
Ez egin zirkin txikiena ere: Ez egin zirkin txikien ere (Biak)
Ez ezazu berriz ere holakorik egin: Ez ezazu inoiz gehiago holakorik egin.
Ez hartu zureak ez diren gauzak!: Ez hartu zurea ez den gauzarik!
Ez izan horrenbeste beldurrik!: Ez izan horrenbesteko beldurrik! Ez izan horrenbeste beldur!
Ez kasu gehiegi egin: Ez kasu handirik egin (Biak)
Ez kontatu inori ezer alfonbra horri buruz: Ez aipatu inori alfonbra horren konturik.
Ez naiz horretan erori: Ez naiz horretaz jabetu/konturatu/ohartu.
Ez naiz inongo lekutara joango: Ez naiz inora joango.
Ez naiz konturatu zuk egin duzunik: Ez naiz konturatu zuk egin duzula.
Ez nauzu ikusten zutabegile gisa?: Ez nauzu ikusten zutabegile?
Ez nazazue bilatu: Ez ibili nire bila!
Ez nenbilen zu zelatatzen: Ez nenbilen zure zelatan. (Biak)
Ez noan amore ematera: Ez dinat amore emango.
Ez nolana hikoak, lehen mailakoak baizik: Ez nolana hikoak, lehen mailakoak. (Biak)
Ez nuen ongi lo egin: Ez nuen lo ongi egin.
Ez ote haute hartuko!: Ez ahal haute hartuko!
Ez pentsa edozein sari denik: Ez pentsa edonolako saria denik!
Ez zaio axola katu edo azkonar bezala ikus dezaten: Ez zaio axola katu edo azkonar ikus dezaten.
Ez zaitut bikote lagun bezala nahi: Ez zaitut bikote lagun nahi.
Ez zara berehalakoan etorri: Ez zara guk nahi orduko etorri (Biak)
Ez zara berehalaxe etorri: Ez zara berehalakoan etorri (Bi gauza dira; ez dira berdinak)
Ez zara faltako batzarrera?: Ez duzu batzarra huts egingo?
Ez zara nitaz libratuko: Ez zara nigandik libratuko.
Ez zarete konturatzen zulo beltz bat ari zaigula irensten: Ez zarete konturatzen zulo beltz bat ari dela gu irensten.
Ez zekien etorriko nintzenik: Ez zekien etorriko nintzela. Ez zekien etorriko nintzen ala ez.
Ez zen izutu samurra/erraza: Ez zen izutzen samur/erraz (Biak)
Ez zenuen ikusiko?: Ez duzu (inon) ikusi?
Ez zenuen molestatu behar: Ez zenuen lan/neke hori hartu behar.
Ez zeukan arrazoi gutxi: Ez zuen arrazoi faltarik.

Ez zeukan batere presarik liburua itzultzeak": Ez zegoen halako presarik liburua itzultzeko.
Ez zituen neskatila guztiak onartzen. Birjinak zirenak bakarrik: ... Birjinak bakarrik.
Ez zituen nire kontuak gehiegi atsegin: Ez zituen nire kontuak oso atsegin ere.
Ez zuen harritu handirik hartu: Ez zen asko harritu.
Ez, gero, huts egin!: Ez huts egin, gero! (Biak)
Ez, zerbait esatearren: Ez, zerbait esate aldera (Biak)
Ezaguna zen Europa mailan: Ezaguna zen Europan.
Ezagutzen dugu bidea: Badakigu bidea (Biak)
Ezberdin (galizismoa: Udaletxeko zinegotzi ezberdinak); Udaletxeko zinegotzi asko/zenbait/guztiak
Ezer gertatzen ez bada: (Ezeren) okerrik ez bada
Ezetz espero dut: Ez ahal da izango!
Ezetz?: Ez, ezta?
Ezin da gehiago eskatu: Ez dago gehiago eskatzerik. (Biak)
Ezin da jaitsi bakarrik hortik: Ezin da jaitsi bere kabuz hortik (Biak)
Ezin gara hasi otzanagoa den suge batekin?: Ezin gara hasi suge otzanago batekin?
Ezin naiz haize aldaketaren zain egon: Ezin naiz haizea aldatu zain egon.
Ezin naiz pasatu hori jan gabe: Ezin dut etsi hori jan gabe.
Ezin nintzen atzera bota: Ezin nuen atzera egin.
Ezin txarrago da: Ez dago txarrago izaterik (Biak)
Ezin zaizu bakarrik utzi: Ez dago zu bakarrik utzerik
Ezinezkoa da amasa hartzea ere: Ez dago amasa hartzerik ere. (Biak)
Ezingo duzu asko irau hor zintzilik: Ezingo duzu luze irau hor zintzilik (Biak)
Ezker gantxo: Ezker airez
Ezta baietz?: Ezta hala?
Ezta urrutitik ere: Ezta hurrik eman ere!
Fagor, adituek aholkatua: Fagor, adituek gomendatua.
Falta garbia izan da: Falta nabarmena izan da. (Falta ez da inoiz garbia)
Falta probokatu: Falta bilatu. Faltaren bila ibili.
Falta zitzaiguna: Ez genuen besterik behar.
Familia batzuek badezakete: Familia batzuek badute modua (Biak)
Forman egon: Sasoiko egon/ibili. Sasoian egon.
Fresko-freskoa eta oso atsegina da: Fresko-freskoa da, eta oso atsegina (Biak)
Froga argi bat gehiago zen: Beste froga argi bat zen.
Fruituen pila handiak: Fruitu pila handiak.
Funtzionatzen du: Badabil
Futbolarekiko grina: Futbolerako grina.
Gaia ongi menderatu behar duzue: Gaiaz ongi jantzi behar duzue.
Gainerakoek, ezta bakar bat ere: Gainerakoek bakar bat ere ez. (biak)
Gaitajole Handiak denoi jotzen digu noizbait: Gaita jotzaile Handiak denontzat jotzen du noizbait.
Gaiztoak urrun mantendu: Gaiztoak urrun eduki. Gaiztoei urrun eutsi.
Galdera horri erantzun nahi dio txorietan aditua den Jonek: Galdera horri erantzun nahi dio Jonek, txorietan aditua.
Galdetu (Zutaz galdetu du): Zure galde(a) egin du. (Zutaz galdetzen etorri da): Zure galdezka etorri da.
Galtzea nahikoa ez bailitzan,...: Galtzea nahikoa ez balitz bezala,... Galtzea nahikoa ez, eta...
Galleta kiloa: Kilo galleta.
Garai askotakoak, bakoitza noizkoa den esaterik ez dagoelarik: Garai askotakoak, eta bakoitza noizkoa den ez dago esaterik.
Garai hartako gizon ahaltsua naiz berrito: (testuingururik gabe) Garai bateko gizon ahaltsua naiz berrito.
Garai hartantsu: Garaitsu hartan
Garaia/ordua baino lehen: Garaiz/orduz aurretik.
Garaiz gauden bitartean: Garaiz gabiltzan bitartean
Garbiketa sakona egin: Goitik behera garbitu
Gau honetan: Gaur gauean
Gauaren erdian: Gau-gauean. Gau betean. Gauminean.
Gauaren isiltasunean: Gau isilean (Biak)
Gauerdiak joko du: Gauerdia joko du.
Gaur bakoitzak gure aldetik ikusiko ditugu bazterrak: Gaur nork geure aldetik...
Gaur hasi dira lehen saioekin: Gaur hasi dituzte lehen saioak. Gaur hasi dira lehen saioak egiten.
Gaurko gosaria ikusiz, badakigu zergatik...: Gaurko gosaria ikusita, badakigu zergatik...
Gauza batetaz hitz egingo (hitz egin behar) dizut: Gauzatxo bat esan behar dizut.
Gauza edo aldaketa puntualak (galizismoa): Gauza edo aldaketa jakinak/zehatzak.
Gauza orok du prezio bat: Gauza orok du bere prezioa.
Gazte lerdanak zirenak...: Gazte lerdan zirenak...
Gaztelu erraldoi bat: Gaztelu handi-handi bat.
Gehiago hurreratzeko esan diot: Hurreragotzeko esan diot. (Biak)
Gehiago nahiago dugunok: Gehiago nahi dugunok.
Gehiago onartzen dute: Onartzenago dute (Biak)
Gehiago/Hobe: Osasunakoak gehiago izan dira (ez, hamaika): Osasunakoak hobeak izan dira.
Gehiago: Hi ez haiz ni baino gehiago: Hi ez haiz ni baino trebeago. Hi ez haiz ni baino hobe.
Gehiegi pisatzen du eskuan eramateko: Pisu handiegia du eskuan eramateko.
Gehien maitatzen dutena: Maiteen dutena.
Geldi gaitezen honuntzaxeago: Geldi gaitezen honaxeago.
Geldi, mugitu ere ez!: Geldi, zirkinik ere ez!
Geletako zerbitzua: Gela zerbitzua.
Geologoen jadanik ondorioztatu zuten hori: Geologoen ondorioztatua zuten hori.
Gero eta arrain txikiagoa, gero eta errazago eramateko: Zenbat eta arrain txikiagoa, hainbat eta errazago eramateko.
Gero eta gorago egiten dugu garrasi: Gero eta ozenago egiten dugu garrasi.
Gero eta hobeto ematen dira: Gero ta hobeto konpontzen dira.
Gero eta ikasle gutxiago bildu arren, ostegunek ostegun izaten jarraitzen dute: ..., ostegunak ostegun dira oraindik ere.
Gero ikusiko duzue ikusil: Gero ikusiko duzue, ikusiko!
Gero ta gehiago hurreratzen ari dira: Gero ta hurreragotzen ari dira.
Gero ta handiago ari da egiten: Gero ta handiagotzen ari da.
Gero, India eta Txina, eta abar eta abar etorriko dira: Gero, India ta Txina, eta beste asko etorriko dira.
Gerrarekin amaitu: Gerra amaitu.
Gerrariaren birjaiotzea: Gerraria birjaio da.
Gertatu zaizuena entzun dugu: Zer gertatu zaizuen entzun dugu.
Gertatzera doa: Gertatzean da.
Gezurra dirudi zure adinean umekeriok egitea(k): Gezurra dirudi; zure adinean umekeriok egiten!
Gezurra esaten ari da: Gezurretan ari da.
Gezurrak, etxea bezain handiak: Etxea bezain handiko gezurrak (Biak)
Gezurri bat zara: Gezurri hutsa zara.
Giro aparta egiten du: Giro aparta dago.
Gizaki jator den orok: Gizaki jator orok
Gizaki kume: Gizakume
Gizartean gertatzen den edozerk du lekua telebistan: Gizartean gertatzen den guztiak du lekua telebistan.
Gizonetik gizonera: Gizonez gizon. Gizon artean (Hirurak)
Gizontsu: Gizontasunez
Goazen arazoaren hondora: Goazen arazoaren sakonera.
Goazen denda zabaltzera (mugitu behar badute; bestela): Zabal dezagun denda.
Goazen horri buruzko informazioarekin: Hona hemen horri buruzko informazioa!
Goazen lekura goazela: Noranahi goazela.
Goazen orain ikustera: Ikustagun orain (Goazen etxera telebista ikustera)
Goazen, ba, hastera: Has gaitezen, ba!
Gobernuak eskua luzatu die bankuei: Gobernuak laguntza eman die bankuei. Gobernuak lagundu egin die bankuei.
Gogo handiagoarekin (Gogo handiagoz): Gogozago.
Gogokoen dudak: Nire film gogokoena.
Gogorra izan behar du ume hori hezteak: Gogorra izan behar du ume hori hezte. Gogorra izango da ume hori hezte.
Gogorrako jokatu behar duzue semearekin: Gogorrako hartu behar duzue semea.
Goi luxuzko (de super lujo) ontzia: Luxu handiko ontzia.
Goi mailako muturreko jauzilariak: Goi mailako jauzilari muturrekoak.

Goibel ari du jartzen: Goibeltzen ari du.
Goiz oso mugitua: Mugimendu handiko goiza.
Goizean baino haserretuago zegoen: Goizean baino haserreago zegoen.
Gorputzaren ehuneko 75a ura da: Gorputzaren %75 ura da.
Gorriak eta bi esango dizkiot!: Bereak eta bi entzungo ditu! Bereak eta bi entzun beharko ditu! (Hirurak)
Gosea egin zait: Gosea etorri zait. Gosea piztu zait. Gosea naiz oraintxe.
Gosea pizteko: Apetitua pizteko (Biak)
Gosearekin etorri da: Goseak/gosez/goseturik etorri da.
Grafikoak analizatzen dituen programa bat erabili: Grafikoak analizatzeko programa baten bidez
Gripe epidemia baten aurrean egongo ginatke, sailburuak dioenez: Badirudi gripe epidemia dela, sailburuak dioenez.
Gu ez gara intelektualak, emotiboak gara gu: Gu ez gara intelektualak, emozioa da gurea.
Gu zelatzen ari dira: Gure zelatan dabilza
Guk ezin dugu ezer egin. Begiratu bakarrik: Guk ezin dugu ezer egin, begiratu besterik.
Guk zera baino ez dugu nahi: Guk hauxe besterik ez dugu nahi:...
Gune sarrezinak: Sarbide zaileko guneak. Ezin sartuzko guneak.
Gurasoak joan eta etorri dabilza etengabe: Gurasoak joan-etorrian dabilza etengabe. (Biak)
Gurasoekin izultzeko ordua: Gurasoengana izultzeko ordua (Ez dira bata bestearekin nahasi behar)
Gure aukeren barruan: Gure aukeren artean
Gure autoarekin amaitu duzu, ezta?: Gure autoarena amaitu duzu, ezta?
Gure azpian bertan dago: Gure azpi-azpian dago.
Gure estrategiaren barruan: Gure estrategian.
Gure konpainiako edozein bulegotan: Gure konpainiako bulegoetan/bulego guztietan.
Gure kontakizunak bere argiak eta itzalak ditu: Gure kontakizunak bere argi-itzalak ditu. (Biak)
Gure lehen artistek ez dute aurkezpenik behar: Gure lehen artistek ez dute aurkezpen beharrik (Biak)
Gure planeta gehiago ez berotzeko helburua: Gure planeta ez beroagotzeko helburua (Biak)
Guri iseka egiten, zeuek hobeak bazinete bezala?: Guri iseka egiten, zeuek hobeak zaretelakoan?
Gustatuko litzaidake behin bakarrik esango balit: maite zaitut! : Gustatuko litzaidake behin bada ere esango balit: maite zaitut!
Gutun bat jaso du, ez zarela agertuko esanez: Gutun bat jaso du, ez zarela agertuko dioena.
Gutuna jaso dugu hona etortzeko esanez: Gutuna hartu dugu hona etortzeko zioena.
Gutxiago nahasia: Ez hain nahasia
Gutxiago (Hi ni baino gutxiago haiz): Hi ni baino kaskarrago haiz.
Gutxigatik: Alde txikiarekin. Ozta-ozta. Justu-justu
Gutxirako da: Ez da luzaroko.
Guztiarekin probatu dut: Dena probatu dut
Gutziz alferrik da: Alfer-alferrik da.
Haginka egiteaz aspertu arte: Haginka aspertu arte.
Haien erpe eta mokoaren beldur: Haien erpe-mokoaren beldur.
Hain zeuden gozoak, denak jan zituen: Denak jan zituen, hain zeuden gozoak! (Biak)
Hainbeste saio egin dut, azkenean eztarriko mina jarri zait: Hainbeste saio eta azkenean eztarriko mina, jakina! (Biak)
Haizea dago. Haize handia dago: Haizea dabil. Haize handia dabil.
Haizea eman: Laineza eman (Biak)
Haizeak laguntzen du etxearen gainbeheran: Haizeak areagotzen du etxearen gainbehera.
Hala ere, ez noa etsizera: Hala ere, ez dut etsiko. (Biak)
Hala izango denaren beldur naiz: Hala izango den/delako beldur naiz.
Halako argi uholde bat: Halako argiolde bat
Halako jarrekeri areagotzen dute emeentzat duen erakargarritasuna: Halako jarrekeri erakargarriago egiten dute emeentzat.
Halako txorakeriagatik sermoi hori entzun behar dut: Halako txorakeriagatik, holako erretolika!
Hamabi egun eta gero: Hamabi egun igarota gero. Hamabi egunen ondoren.
Hamabiak dira puntu-puntuak: Hamabi-hamabiak dira (Biak)
Hamabost hitzetako esaldia: Hamabost hitzeko esaldia.
Hamabost kilometro orduko abiadura: Orduko hamabost kilometroko abiadura.
Hamar arte kontatu: Hamarerraino kontatu
Hamar espezie desberdin daude: Hamar espezie daude.
Hamar galleta zorro emango ditiat: Hamar zorro galleta emango dizkiat.
Hamar hizkuntza desberdinetan: Hamar hizkuntzatan
Hamar ikaslelik gorak dute sarrera: Hamar ikaslelik baino gehiagok dute sarrera.
Hamar milioi arma ezkutatu zituztela uste da: Hamar milioi arma ezkutatu omen zituzten
Hamar ordu iraun ditu bizirik: Hamar ordu iraun du bizirik.
Hamarkaden joanean: Urteen joanean
Han jaio (izan) bagina, katoliko hobeak (izango) ginatke: Han jaio (izan) bagina, katoliko hobeak izango ginen/ginatkeen.
Handia zarenean: Handi(a) izatean.
Handiagoa den zerbaiti ekin: Zerbait handiagori ekin.
Hankak astindu beharra dauzkat: Hankak astindu beharrak dauzkat. Hankak astindu beharra daukat.
Hantxe zegoen irudian, eskuak altxaturik: Hantxe zegoen irudian, eskuak gora. (Biak)
Hara bidaliko dugu zigor gisa: Hara bidaliko dugu zigortuta.
Hara zer gertatzen den erraldi baten auzoan bizi izanda!: Hara zer gertatzen den erraldi baten auzoan bizita!
Hara, edozein sentimendu xurga dezake, orduan?: Hara, sentimenduak xurgatzeko gai da, beraz?
Hara, Jon, diotenez, zuk asko dakizu: Hara, Jon, zuk asko omen dakizu.
Hara, ume gaidu bat!: Hara, ume bat galduta!
Harantz hegaldatu da: Harantz joan da hegana
Harategitik ari naiz deitzen, andrea!: Harategitik deitzen dizut, andrea!
Harekin bukatu orduko: Harekikoa egin orduko
Harekin dituen etengabeko liskarretan: Harekiko liskar etengabeetan (Biak)
Harekin ordaintzen du amorrazioa: Hari ordainarazten dio amorrazioa.
Haren ahotsa entzun dut oraintxe: Haren ahotsa entzun dut lehentxo (hurrengo agerraldian, beste leku batean)
Haren amorrazioak gorabehera: Haren amorrazioak amorrazio (Biak=
Haren gorputzak baltsa-lana egiten du: Haren gorputzak baltsarena egiten du.
Haren hitz gutxitasuna: Haren hitz urritasuna (biak)
Haren musikari dagokionean: Haren musikari dagokionez
Harena kopiatzean dago gakoa: Harena kopiatzea da gakoa. Harena kopiatzea da kontua.
Harentzat ekarri ditut bereziki: Harentzat ekarri ditut propio.
Harez geroztik: Harrezkero.
Har guztiak adierazi nahi zuenaz pentsatu zuen (zer?): Hark guztiak adierazi nahi zuena hausnartu zuen.
Harrapatuko zaituztet egiten dudan azken gauza bada ere: Harrapatuko zaituztet egin behar dudan azken gauza bada ere.
Harreman harmoniatsuan: Harmonia osoan.
Harri hori non dagoen ikusten saiatzen: Harri hori non dagoen ikusi nahian.
Hartuko naute, fijo!: Hartuko naute, segurua!
Hasi dira festak Errenterian jarduera desberdinekin: Hasi dira festak Errenterian jarduera ugariarekin (edo askorekin).
Hasi(a) naiz jada horretan: hasia naiz horretan.
Hasten denetik bukatzen duen arte, 20 egun behar ditu: Hasi ta bukatu, 20 egun behar ditu.
Hau amorrua gogoratzen dudan aldiko!: Hau (da) amorrua gogoratu aldiko!
Hau bezalako: Honelako
Hau da interesatzen zaiguna: Hauxe interesatzen zaiguna.
Hau da lehen eguna askatasuna gozatzen duena: Hau du lehen eguna askatasuna gozatzen.
Hau ez dugu inoiz ikusi: Hau ez dugu inoiz ikusi orain arte. Hau ez genuen inoiz ikusi. Hau ikusi gabe geunden.
Hau interesgarria ari da jartzen: Gero eta interesgarriago da hau.
Hau itsusia baino gehiago polita da: Hau itsusia ez, polita da.
Hauetako operari bat: Operari hauetako bat
Haurdunaldi denboran dago: Haurdunaldian dago
Haurrei besterik ez diot/diet esan: Haurrei esan diet, ez besteri/ez beste inori. Ez diet haurrei besteri esan.
Hautagai bezala aurkeztu: Hautagai aurkeztu.
Hauxe besterik ez dugu behar!: Ez genuen besterik behar!
Hauxe ekarri zidan operari gisa: Hauxe ekarri zidan operari.
Hegaztiak eta arrainek gauza bat dute komunean: bizia: Hegaztiak eta arrainek, biek ere, bizia dute.
Hegaztien/Hegaztietako gripea: Hegazti gripea
Helburua lortu: Helburua bete
Helduak ulertezinak dira: Helduei ez dago ulertzerik.
Hemen axola diguna zera da: Hemen axola diguna da...

Hemen daude desagertu uste ziren bitxiak: Hemen daude ustez desagertutako bitxiak. (Biak)
Hemen egon behar zuten jada: Hemen behar zuten honezkerok.
Hemen egon da duela ez asko (asko ez duela): Hemen egon da aspaldi ez duela (ez duela aspaldi)
Hemen ez dago inor ibilitako arrastorik: Hemen ez dago inor ibili den arrastorik (Biak)
Hemen gauzak ohi bezala zihoazen: Hemen betikoan ari ziren.
Hemen goraino: Hona goraino
Hemen izan behar luke jada: Hemen behar zuen honezkerok.
Hemen ulertzen ez dudan zerbaite dago: Hemen bada ulertzen ez dudan zerbaite. Hemen bada zerbaite ulertzen ez dudana.
Hemendik bi egunera filmatzen hastera goazela jakiteak...: Hemendik bi egunera filmatzen hasiko garela jakiteak...
Hemendik gutxira: Aurki. Laster. Berehala(xe).
Hementxe egoten: Hementxe egonean
Heriotzarekin amai daitekeen jolasa: Heriotzan amai daitekeen jolasa. Heriotza ekar dezakeen jolasa.
Heriotzaren dantza: Herio dantza (Biak)
Herren egiten zuen zertxobait: Herren pixka bat egiten zuen. Herren egiten zuen pixka bat. (Hirurak)
Herri mailako albisteak orain: Herriko albisteak orain.
Herrien atarian dabiltzan arren: Herri atarietan dabiltzan arren
Hiena garrasilariak: Hiena irrilariak (Hienaren irria)
Hienaren espezie berezi bat dira: Hiena espezie berezi bat dira
Hil honetan marka hautsi dezake: Hil honetan marka hausteko moduan da. (Biak)
Hilabete amaierara aise iritsiko gara: Hilaren azkenenera aise iritsiko gara.
Hilda baino gehiago: Hila baino hilago.
Hilei lapurtzera etorri ziren: Hilei lapurreta egitera etorri ziren.
Hilekoa jaitzi zait: Hilekoa etorri zait. Hilekoarekin nago.
Hilerrri legendarioa: Hilerrri mitikoa.
Hiltzaile arrisksuenaren ospea: Hiltzaile arrisksuena den/delako ospea.
Hiltzailea neska hil nahian, eta hau ihes doa: Hiltzailea neska hil nahian, eta neska ihes doa.
Hiltzeko aukera: Hiltzeko arriskua
Hiltzera zoaz: Hiltzear zaude.
Hireak eginda gero: Hirekikoak eginda gero
Hirian ez dabil mamu zintzo eta gaiztoak beste konturik: Hirian ez dabil beste konturik: mamu zintzoak eta gaiztoak.
Hiru edo lau urtean, egunean hogeie euro: Hiru edo lau urtean, hogeie euro egunean. Hiru edo lau urtean, eguneko hogeie euro.
Hiru hildako egon (izan) dira: Hiru lagun hil dira.
Hiru lagunek aurre egingo diote tornado iburako tragediari: Hiru lagunek aurre egingo diote tornadoaren tragediari.
Hirurogei urte eta koska izan behar ditu: Hirurogei urte pasa izango ditu!
Hirutik bi kidek: Hiru kideak
Hitzak galdu bakarrik ez, baizik eta inork ez ditu gogoratzen: Hitzak galdu bakarrik ez, gogoratu ere ez ditu inork gogoratzen.
Hizkuntza menderatu: Hizkuntza jakin/ondo jakin
Hobe da paseatzera joaten banaiz: Hobe dut paseatzera joan.
Hobe zuen berarentzat gorde: Hobe zuen beretzat gorde.
Hobeto ez jakitea, sinetsidazu: Hobe ez jakitea, sinetsidazu.
Hobetzer a egin: Hobera egin (Biak)
Hodei isolatu batzuk: Hodei bakanak.
Hodeiak eratu: Hodeiak sortu.
Hogeie euro emango dizut sari gisa: Hogeie duro emango dizut saritzat.
Hogeie euro ordaindu ditut: Hogeie euro ordaindu dut.
Hogeie kantu posible sortu dituzte telesailerako: Hogeie kantu sortu dituzte badaezpada telesailerako.
Hogeie mila bat urte: Hogeie bat mila urte
Hogeie milana urte: Hogeina mila urte.
Hogeie minutuko hitzaldia adibideekin: Hogeie minutuko hitzaldia, adibidez jantzia.
Hogeie minututik gora ez zuen enplegatu haren bila: Ez zuen hogeie minututik gora erabili haren bila.
Hona beste Ubillosen bat: Hona Ubillosen beste bat
Hona etorri omen da eta hemen omen dabil: Hona etorrita omen dabil.
Honantzakoan: Honantzakoan
Hondakinen tonak eta tonak: Tonaka (ta tonaka) hondakin
Honek ezin du horrela jarraitu: Ez dago horrela jarraitzerik.
Honekin bukatzen dudanean joango naiz: Hauxe bukatuta joango naiz. Lagun honena bukatuak joango naiz.
Honekin, amaitu dugu: Amaitu dugu honenbestez.
Honen bila zabilzate txiripaz (kasualitatez)? : Honen bila ote zabilzate?
Honetan, gauza xeiebre bat gertatu zen: Hartan, gauza xeiebre bat gertatu zen.
Hor dago Ander kopetaduna!: Hor dago Ander kopeta-handi!
Hor galdu izango dut: Hor galduko nuen (Biak)
Hori aipatu eta eskatutako edozein egingo du: Hori aipatu eta eskatzen diozuna egingo du.
Hori al da nahi duzuna?: Hori nahi duzu benetan?
Hori bada lekukoak eskaini diezagukeen guztia: Hori bada lekukoak eskaintzeko duen guztia.
Hori da arrazoi nagusia: Hori da arrazoi nagusia.
Hori da bere ahulgunea: Horixe du ahulgunea.
Hori da gauzak bihurtzeko beharra!: Hori da gauzak bihurtu beharra!
Hori da lehentasuna. Eta bigarren lehentasuna da...: Hori da aurrena. Eta bigarrena da...
Hori da sakea!: Hori da apetitua! Hori da jan beharra! (Hirurak)
Hori ezin da iragarpen bezala kontatu: Hori ezin da iragarpenentzat hartu.
Hori gutxi baltiz: Hori gutxi baltiz bezala. Hori gutxi ez eta... Eta hori asko ez zela...
Hori medio: Hori dela medio
Hori nahikoa ez baltiz bezala, orain...: Hori nahikoa ez, eta orain... (Biak)
Hori susmatu dut bai: Horren susmoa nuen bai. (Biak)
Horixe behar genuen orain!: Horixe besterik ez genuen behar!: Ez genuen besterik behar! (Hirurak)
Horixe galdetzen dut nik ere: Galdera horixe dut nik ere.
Horixe sentitzen dut zuregatik: Zureganako sentimendu horixe dut. Horixe sentitzen dut zuregana(ko).
Horixe zen triste egotearen arrazoia: Horixe zen triste egoteko arrazoia.
Horregatik ez zen agertzen paperean: Horregatik ez zen ageri paperean.
Horregatik maite nauzu, haren antza dudalako besterik ez: Horregatik maite nauzu, haren antza dudalako, ez bestegatik.
Horregatik zaudete hemen, Kanadan beharrean: Horregatik zaudete hemen, eta ez Kanadan.
Horrela ibili beharko dute handiak direnean: Horrela ibili beharko dute handi izatean
Horrela segitzen baduzu: Martxa horretan (Biak)
Horretan datza demokrazia: Hori da demokrazia.
Horretan zerikusia du Mariak: Horretan badu zerikusia Mariak.
Horretarako espresuki: Horretarakoxe
Horretarako ez dago baina eder bat baino hobeagorik: Horretarako ez dago baina eder bat baino ezer hobirik.
Horretaz abstrakzioa eginik: Hori alde bat(era) utzita. Hori kontuan hartu gabe.
Horrez gainera, estatuaren bermea izaten jarraitzen zuten: Horrez gainera, estatuaren bermearekin segitzen zuten.
Hortik egongo/ibiliko da: Hor (nonbait, inguruan) egongo/ibiliko da.
Hosto iharra/Hosto hila (eroria): Orbela
Hotz zegoen goiz hartan: Hotz zen goiz hartan (Biak)
Hura etxean zeneko berria zabaldu zen: Hura etxean zen/zelako berria zabaldu zen.
Huraxe aukeratu zuten etxe moduan: Huraxe aukeratu zuten etxetzat.
Hurreratu gehiago: Hurreragotu
Husna: Huts eta huts
Huts egiten hasita ere, bai huts egin!: Huts egiten hasita, bai huts egin ere!
Hutsezina (pertsonea): Ez du huts egiten.
Ia hilabete bat darama jokatu gabe: Ia hilabete darama jokatu gabe.
Ibairen albo bakoitzean arbola ilara luze bat zegoen: Ibaierantzetan arbola ilara luzeak zeuden.
Ibil gaitetzen (Movámonos): Mugi gaitetzen.
Ibilbidearen arabera izaten dira ibiltariak: Ibilbidea nolako, ibiltaria halako.
Idatzizko literatura: Literatura idatzia. (Baina ahozko literatura)
Idazleok ez gara mantala zikintzeagatik gehiegi signifikatu": Idazleok ez gara mantala zikintzeagatik nabarmendu.
Ideiarik ez: Arrastorik ez. Aztarrenik ez.
Igendera begira prestatu: Igenderako prestatu.
Igel-arrautzen mordoxka bat: Igel-arrautza mordoxka bat
Igeriketa-txapelketa: Igeri txapelketa.

Ikaragarri atsegina izan daiteke batzuetan nagusia: Nagusiak badaki batzuetan oso atsegina izaten.
Ikaragarriko kiratsa daukate: Ikaragarriko kiratsa darie.
Ikasle gutxiago bidu arren, ostegunek ostegun izaten segitzen dute oraindik:..., ostegunak ostegun dira oraindik.
Ikerketa bat ireki dut: Ikerketari ekin diogu.
Ikusi bakarrik eta ukitu dudala iruditzen zait: Ikusi hutsarekin ukitu dudala iruditzen zait.
Ikusi dituenak eta gero: Ikusi dituenak ikusita.
Ikusi nahi duen guztiarentzat: Ikusi nahi duten guztientzat
Ikusi zaitut nonbait lehen: Ikusia zaitut nonbait.
Ikusleagoaren gehiengo: Ikusle gehienak
Ikuspegi ederra ikusten da hemendik: Ikuspegi ederra dago hemendik.
Ilara zu bezalakoentzat da: Ilara zure modukoentzat da (Biak)
Ilargiak zeharo jota dago: Ilargiak jota dago zeharo (Biak)
Ile horia duen neska: Neska ilehoria. Ile horiko neska.
Ilelarrua kendu: Burua larrutu. (Biak)
Ilunpe bizia dago: Ilun-ilun dago.
Iluntasunaren babes erlatiboa: Iluntasunaren nolabaiteko babesa
Indar egiten ari da: Indarka ari da.
Indar handiagoz eman: Indartsuago eman.
Indar ikaragarriaz sakatu: Indar ikaragarri sakatu.
Indarrak berreskuratu behar ditugu: Indarberritu behar dugu
Inguru e hizaz hustuta dago: Inguruan ez dago ehizarik.
Inguruan ibil litekeen beldur ez banintz: Inguruan ibiliko den beldur ez banintz
Ingurumen mailan: Ingurumenean
Inoiz baino arinago joan zen: Inoizko arinen joan zen (biak)
Inoiz ez bezain zoragarri: Inoiz baino zoragarriago.
Inoren nortasuna osteagatik atxiloturik zaude: Besteren nortasuna osteagatik zaude atxiloturik.
Iñaki lagunari esker jakin dugun informazioa: Iñaki lagunari esker jakin duguna.
Iñakirekin eta besteekin joango naiz: Iñakirekin-da joango naiz.
Iñakiri esan izango dio: Iñakiri esango zion (Biak)
Ipuina miragarria izan da: berehala hartu du loak: Ipuinak miraria egin du: berehala hartu du loak.
Ipurdia gaitzen du nirekin joateko: Ahaleginak eta bi egiten ditu nirekin joateko.
Iragan desberdineko jendea da: Nork bere iragana du.
Iragan luzea dute buru-ehiztari gisa: Iragan luzea dute buru-ehiztari.
Iraganeko garaiak beti hobeak: Garai iraganak beti hobeak (Biak)
Iragarkietara goaz: Iragarkiak orain.
Irakiten dagoen uretan sartu: Ur irakinetan sartu.
Irakurleak topatuko du berria den zerbait: Irakurleak aurkituko du zerbait berri.
Ireki diezadakezu?: Irekiko didazu?
Irrati-antennarik indartsuenetako bat: Irrati-antennarik ahaltsuenetako bat.
Irri isekaria: Iseka irria
Irribarre bat!: Irribarre hori!
Irtenbideak aurkitzean dago gakoa: Irtenbideak aurkitzea da gakoa
Irunen finkatu zen bere familiarekin: Irunen kokatu zen familiarekin. Irunen jarri zen bizitzen familiarekin.
Isatsetik heldu dio, baina non dago gainerako gorputza: Isatsetik heldu dio, baina non dago gainerakoa?
Isileko ehizak arazo handia segitzen al du izaten?: Isileko ehiza arazo handia al da oraindik (ere)?
Isilik egon ginen tarte batez: Isilik egon ginen pixka batean.
Istant batean: Amen batean
Itsaskien itsutua: Itsaski zale itsua
Itsasontzia hondoratu da, 800 tona petrolio eramanez: 800 tona petrolio zeramatzan itsasontzia hondoratu da.
Itsasotik joan: Itsasoz joan.
Itsusi mortala da: Itsusi amorratua da.
Iturri onetik jakin: Bide zuzenetik jakin (Biak)
Itxaroten ari nintzen pixkanaka jateko: Pixkanaka-pixkanaka jan nahi nuen.
Itxi-usaina (olor a cerrado): Zoko usaina.
Itxura txarra ematen diot: Itxura txarra hartzen diot.
Itzultzeaz egon behar du. Jada ordua da: Iristear (egon) behar du; ordua da ta.
Izadiaren erdian: Izadi-izadian.
Izan ere hori baitu...: Izan ere hori du...
Izan ere lanpetuegi nauka: Izan ere oso lanpeturik nauka.
Izan ere nik badakit zerbait etsitzeaz": Izan ere nik badakit zer den etsitzea.
Izan ere, huskeriengatik berotzen da: Izan ere, huskeria behar du berotzeko
Izan ezazu: Izazu. Jauna, izazu nire amaren erruki.
Izarren Gerra: Izarretako Gerra
Izen-emate epea: Izen(a) emateko epea.
Izotzak itsaso zabal aurkitzen duen tokian: Izotzak itsaso zabalarekin bat egiten duen tokian.
Izurria zabaldu da Afrikako geografia osoan: Izurria zabaldu da Afrika osoan.
Jabearen partetik ongi elikatuak: Jabeak ongi elikatuak.
Jacobs doktorea, zuzendu mesedez lehen solairura!: Jacobs doktorea, zoaz mesedez lehen solairura!
Jada ez dut lehiaketan parte hartzeko gogorik: Joan zait lehiaketan parte hartzeko gogoa.
Jada udaberria ate joka ari da: Udaberria ate joka da.
Jainkoagatik!: Jainkoarren! Ala Jainkoa! Alajaina! Jainkoaren izenean!
Jakin badakik ondo: Ondotxo dakik (Biak)
Jakin daiteke zergatik eman didazun belarrondoko hori?: Jakin daiteke zergatik eman didazun belarrondokoa?
Jakin ez itxura egin: Ez jakin itxura egin.
Jakin izan banu, ez nituzke egingo: Jakin izan banu, ez nituen egingo.
Jakina egin dezakezula!: Jakina, ba, egin dezakezu.
Janari kontzentrazio handiari esker: Janari ugariari esker.
Jantzi gorriko neska: Neska jantzi gorriduna (Biak)
Jarraian nire txanda da: Ni naiz hurrengoa.
Jarri ikasten!: Hasi ikasten! Ekin ikasteari!
Jarridazu koronelarekin (telefonoan): Koronelarekin, mesedez!
Jasan dezakeen pisua: 500 kilo arte: Jasan dezakeen pisua: 500 kilo, gehienez.
Jasan duzuna eta gero: Jasan duzuna jasanda. Jasan duzunaren ondoren.
Jatean baino ez duzu pentsatzen: Jatea besterik ez duzu buruan.
Jaten eta guzti ari da": Jaten ere ari da.
Jauzi sinestezinak: Jauzi harrigarriak
Jauzilari sinestezinak: Jauzilari harrigarriak.
Jendetza handia espero da gaur: Jendetza (handia) bilduko da gaur. ("Espero" sarritan erretorikoa da)
Joan dadila pikutara!: Doala pikutara! (Biak)
Joan den urtean: laz. (Egokitzearen luzatzeko: lazko urtean)
Joateko ordua iristen zaion arte: Joateko ordua iritsiko zaion arte (Biak)
Justu agurtu aurrean/aurretik: Agurtu aurretxoan.
Kaian zaude, motel!: Kaian hago, motel! (Zaude ta motel ez dira ezkontzen)
Kale amaierako: Kale buruko (Biak)
Kalearen buruan: Kaleburuan (Biak)
Kaleetatik ibili: Kaleetan ibili.
Kalte fisiko eta mentala: Kaltea gorputzean eta buruan.
Kamioi horrek nola ez zaituen harrapatu!: Kamioi horrek harrapatu ez zaituenean!
Kandelekin irakurtzen: Kandela-argitan irakurtzen
Kanpalekua zegoen bezala utzita: Kanpalekua zegoen zegoenean utzita. (Biak)
Kanpo-baldar: Kale-beldur (Biak)
Kantari bihurtzea zuen amets: Kantari izatea zuen amets
Kantari hori aurten eman da ezagutzera: Kantari hori aurten egin da ezagun.
Karea kaltzioak osatua da: Kareak kaltzioa du.
Kasu honetan (epaitegikoa bada bai, bestela): Oraingo honetan. Kontu honetan.
Katilukada bete esne: Katilua bete esne. Katilukada bat esne.
Katilukada salda bero hartu: Katilukada bat salda bero hartu.
Katuekin hasi eta txakurrekin segitzen dute, harrapakin errazak: Katuak aurrena, txakurrak hurrena: harrapakin errazak.

Kazetari izatea pagotxa da: A ze pagotxa kazetari izatea!
Kearen kiratsa botatzen du erretzaileak: Kearen kiratsa dario erretzaileari.
Kendu erditik (erdian badago; besteia): Kendu paretik!
Kilometro koadro bakoitzeko: Kilometro koadroko
Klase: eskola. Piano(ko) eskola.
Klikatu "ezabatu": Eman "ezabatu".
Koalaren arrisku larriena: Koalarentzako arrisku larriena.
Kolonia bezalako beste herrialde batzuetan: Beste herrialde batzuetan, Kolonbian adibidez, ...
Kometak hegan egitea oso zaila da: Oso zail da kometei hegan eragiten
Komuna eta guzti: Komun eta guzti (komun-da guzti)
Konstantea izatean dago teknika horren gakoa: Konstante izatea da teknika horren gakoa.
Kontaidazu, beharbada lagun diezazuket: Kontaidazu, beharbada laguntzeko modua izango dut. (Biak)
Kontatu nirekin: Ni zuekin.
Kontu gehixeagoz: Kontuxeago (Biak)
Kontu handiz: Kontuz kontuz (Biak)
Kontua ez da egiteagatik egitea, baizik eta ondo egitea: Kontua ez da egiteagatik egitea, kontua da ondo egitea.
Kontuak lehenago atera behar zenituen: Kontuak lehenago ateratzea zenuen/zeneukan. (Biak)
Kontuz bota gabe: Kontuz, bota gabe! Kontuz, ez bota!
Kontuz diozunarekin: Kontuz, (gero), zer diozun!
Kontuz, autoa datorrela!: Kontuz, autoa dator.
Kontuz, ea erortzen zaren!: Kontuz, erori gabe!
Kontuz, gaizki ikusten zaituztet!: Kontuz, ez duzue ederki behar! Kontuz, gaizki behar duzue!
Kontzientziako karga jarri: Kontzientziako harra piztu.
Kontzientziako karga kentzeko: Kontzientziako karga arintzeko.
Korreotik igorri: Postaz igorri.
Korridorearen amaieran: Korridore buruan
Kosta ahala kosta harrapatzeko agindua eman dizkigute: Kosta ahala kosta harrapatzeko agindua eman digute.
Kumea dagoen zuloan: Kumearen zuloan
Kumeen kasuan, ezin da segundorik galdu: Kumeekin, ezin da segundorik galdu.
Kutsadurarekin bukatu: Kutsadura garbitu.
Kutsu basatia: Basakutsua.
Labaren amorratuak: Laba zale amorratuak
Labazko kaskadak: Laba-jauziak.
Lagunok, zerbait ikustea nahi dut: Lagunok, gauza bat ikusi behar duzue. Lagunok, zuek gauza bat ikustea nahi dut.
Laguntza eskatu diote nazioarteari: Nazioarteko laguntza eskatu dute. Laguntza eskatu diete beste nazioei.
Lan doblea: Doble lan. (Biak)
Lanean agertzen da margolanean: Lanean ageri da margolanean.
Lanean dago: Lantokian dago. Lanean (ari) da.
Lanpara gisa nahi zuen esporea argitsua: Lanparatzat nahi zuen esporea argitsua.
Lasai egon daiteke: Lasai egoteko moduan da. (Biak)
Lasai joan zaitezkete orain: Lasai joateko moduan zarete orain. (Biak)
Laster ez da zeri aterarik izango (argazkirik) (?): Laster ez da izango zeri atera (argazkirik).
Laster hasiko naiz bakarrik hizketan: Laster hasiko naiz neure artean hizketan.
Laster jakin ahal izango duzue: Laster/Aurki jakingo duzue
Laster kenduko dizkizut barregurak: Laster kenduko dizut barregura
Lastima ez zaitudan lehenago ezagutu: Lastima (da) zu lehenago ez ezagutu izana!
Lastima ezin izan dugula dena bukatu: Lastima, ezin izan dugu dena bukatu!
Lastima Koldo ez dagoela!: Lastima Koldo ez egotea!
Lau edo bost piper desberdin aukeran: Lau edo bost piper mota aukeran
Lau egun itxaron behar dituzu: Lau egun itxaron behar duzu.
Lau euro baino gutxiago: Lau euro eskas
Lau istripu egon dira: Lau istripu izan dira.
Lau istripu eman dira: Lau istripu izan/gertatu dira
Lau lagun suertatu dira hilda: Lau lagun hil dira
Lau metrogatik irabazi: Lau metroren aldeaz/aldearekin. Lau metroko aldeaz(aldearekin).
Legeak aurreikusten duena: Legeak agintzen/ebazten duena
Lehen ilaran ondo-ondotik entzuteko: Lehen ilaran berta-bertatik entzuteko.
Lehen nire eskularria bere eskularriaren ordeztatu dugu: Lehen nire eskularria berearekin aldatu dugu.
Lehenago esan behar zenuen: Lehenago esatea zenuen/zeneukan. (Biak)
Lehenengoetan, gure bizimodua ezagutzeko etorri zenean: Hasieran, gure bizimodua ezagutzera etorri zenean
Lehenengo egunean: Lehenengoan
Lehenago izaten jarraituko duzu: Lehenago bera izango zara
Lehenago izaten jarraitzen dute: Lehenago dira oraindik.
Lehoia eta tigrea barne: Lehoia eta tigrea ere bai.
Lehoikumeek esnea dute oraindik ere elikagai ohikoena: Lehoikumeek batez ere esnea edaten dute oraindik.
Leialtasuna zin degizut: Leialtasun zina degizut. Leial izango naiz, zin degizut.
Leialtasuna zin egin behar didazu: Leialtasun zina egin behar didazu. Leial izango zarela zin egin behar didazu.
Leku basatia: Basalekua
Leku seguruago batera eraman: Leku seguruago eraman.
Liburua idazteari utzi behar diot, lapiko batzuk garbitzeagatik?: Liburua idazteari utzi bhar diot, lapikoak garbitzeagatik?
Liburuak apalean hautsa hartuz: Liburuak apalean hautsa biltzen.
Liburuaren errezetak: Liburuko errezetak
Liburuari begi-kolpetxo bat eman": Liburuari begiratutxo bat eman.
Lo egiteko etzatean: Lotarako etzatean (Biak)
Lo geratu izango naiz: Lo geratuko nintzen (Biak)
Lorategi hori nire etxera eramatea nahi dut: Lorategi hori nire etxera eraman behar duzue.
Lore basatiak: Basaloreak
Lore gehiegi botatzen dizkit: Hitz ederrak ditu beti niretzat.
Lore txikiak eta mendikoak nahasten dira: Lore txikiak eta mendikoak daude nahasian.
Lorez eginiko lepoko eder bat ekarriko dizut: Lepoko eder bat ekarriko dizut, lorez egina.
Lorisaren bi espezie bizi dira Sri Lankan: Bi lorisa espezie bizi dira Sri Lankan.
Lotsatu behar zenuke hori pentsatzeagatik bakarrik: Lotsatu behar zenuke hori pentsatze hutsagatik.
Lotu hitzak!: Itxi ahoa! Neurtu hitzak!
Lur hartu: Lurreratu
Lur jotako aitaren zakarkeria: Aita lur joaren zakarkeria. (Biak)
Lurpean beherago joan behar dugu: Lurperago joan behar dugu.
Lurraldekoiak: Lurraldeari atxikiak (Biak)
Lurrarekiko duten lotura: Lurrarekin duten lotura. Lurrarekiko lotura...
Lurrean sakon sartuta ere: Lurrean sartu-sartu eginda ere (Biak)
Lurrera iristen den gutxiarekin konformatu behar: Lurrera iristen denentzako konformatu behar (Biak)
Lurrin gaztetzailea: Gaztetzeko lurrina.
Luzerako doa hau: Luze joko du honek (Biak)
Llabur: Labur-labur (Biak)
Madrilgo ordezkari bezala Serra etorri zen: Madrilgo ordezkari Serra etorri zen.
Mahaia erreserbatuko dut: Mahaia erreserba egingo dut (Biak)
Maketazaleen santutegia: Maketazaleen amestokia.
Makillajeak emango zidan alergiala!: Makillajeari izango diot alergiala!
Malko-iturri: Malko-jario (Biak)
Mamu kontuak ipuinak besterik ez dira: Mamu kontuak ez dira ipuinak besterik (Biak)
Mamuak ez dira existitzen: Mamuak izan, ez dira. Mamuak ez dira benetan (Hirurak)
Maniobratzeko marjina: Maniobratzeko tartea
Mantendu zazu urrutu: Eduki zazu urrutu
Manuel beraren hitzak: Manuelen beraren hitzak.
Markesak dukeak baino gutxiago dira: Markesak dukeak baino beherago daude.
Markesak kondeak baino gehiago dira: Markesak kondeak baino gorago daude.
Marmarra sortzean, seinale lehiaketa ondo zihoala: Marmarra sortzean, lehiaketa ondo zihoan seinale.
Martxa al duzue?: Abiatzekotan zarete? (Biak)
Martxan daude: Martxan dira

Mementoz: Oraingoz
Mendeetan eta mendeetan: Mende ta mendeetan. Menderen mendetan. Gizaldi ta gizaldietan (Laurak)
Mendeetan zehar/barrena: Mendeetan. Mende luzeetan. Mendeen joan-etorrian.
Mendian besterik ez naiz ibili: Ez naiz mendian beste inon ibili.
Mesedez, polikiago joan zaitzake?: Mesedez, polikiago joaterik bai? (Biak)
Mila bederatziehunda hamarreko urteetan: Mila bederatziehunda hamarreko hamarkadan (Biak)
Milaka hondakin toxikoen biltegi: Hondakin toxikoen milaka biltegi
Milana, bost milana: Mila bana, bosna mila.
Milioina, bi milioina: Milioi bana, bina milioi.
Min asko egin zion: Min handia egin/eman zion
Ministroak gaur dimiti lezake: Baliteke ministroak gaur dimititzea. Ministroak gaur dimitituko omen du.
Ministroen mailan eztabaidatuko da: Ministroen artean eztabaidatuko da.
Minutu gutxi batzuetan: Minutu gutxitan. Minutu batzuetan.
Mirari batez bada ere: Mirariz bada ere. Mirari bidez bada ere.
Modu osasuntsuago batean bizi: Osasuntsuago bizi.
Mojaz mozorrotu: Moja mozorrotu (jantzi bezalaxe)
Molestatzen zaitut?: Eragozten dizut? Galarazten dizut?
Momentoz: Oraingoz
Morroizain: Morroiburu (biak)
Morrontzan erori: Morroi bihurtu
Mota hori aurkitzen den munduko leku bakarra da: Hemen beste inon ez dago mota hori.
Mugimenduak egon omen dira: Mugimenduak izan omen dira.
Mukizu betzua izan arren: Mukitsu izua izan arren
Mundu mailan: Munduan. Mundu osoan.
Mundua mundu deino: Mundua mundu den arte (Biak)
Munduaren bukaeran: Munduaren azkenean (Biak)
Munduaren bukaeraraino: Munduaren azkeneraino (Biak)
Munduaren gaineko leihoa: Munduari zabalduetako leihoa.
Munduko lekuri baztertuenetako bat: Munduko lekuri bazterrenetako bat
Munstro hori benetakoa dela dirudi: Munstro horrek benetakoa dirudi (Biak)
Musika beltza: Beltzen musika
Musika zegoen bitartean...: Musika ari zen bitartean...
Musikarekiko zaletasuna: Musikarako zaletasuna/grina
Musikarekin jarraituko dugu: Musika entzuten jarraituko dugu.
Mutikoak gehitu egin du kontua, arreta bereganatzeko: Mutikoak puztu egin du kontua, arreta bereganatzeko.
Mutila negarrez eta negarrez ari zen: Mutila negar eta negar ari zen.
Nagoen moduan nagoela, ezingo dut asko lagundu: Nagoen bezala, ezingo dut asko lagundu.
Nagusiena: nagusia.
Nahi baduzu, atzo bezala egiten dugu: Nahi baduzu, atzo bezala egingo dugu.
Nahi duzenero: Nahi duzun bakoitzean. Nahi duzun guztietan.
Nahiko ospetsua: Ospetsu samarra
Nahikoa da bihar amaitzearekin: Nahikoa da bihar amaituta
Nahiko putakeria jasan dut gaur: Putakeria ugari jasan dut gaur.
Nahiz eta erraztasun berdineakoak izan ez: Nahiz eta ez izan erraztasun berdineakoak (Biak)
Nazio mailako: Nazioko. Nazio osoko.
Negar batean ari zen: Negar eta negar ari zen. (Biak)
Neguaren erdian: Negu-neguan. Negu betean. Neguminean.
Neguko larru zuria marroi distiratsua ordezkatu du: Neguko larru zuria marroi distiratsua du orain.
Nekatutako itxurak egin: Nekatu itxurak egin
Nengoeneko depresio-egoera medio: Nire depresio-egoera zela medio.
Nerbioak dantzan nituela esnatu naiz gaur goizean: Nerbioak dantzan esnatu naiz gaur goizean.
Neska katxarroa!: Neska puska!
Neskata argala eta beltzez jantzia zen: Neskata argala zen, beltzez jantzia.
Neure burua artista moduan ez baizik diseinatzaile moduan ikusten nuen: Neure burua artista ez, diseinatzaile ikusten nuen.
Neuregana areago hurbiltzen: Neuregana hurreragotzen
Ni ahaleginean eta zuk toma!: Ni ahaleginean eta zuk ja-jai!
Ni ere mugitu ezinik nago nekearen eraginez: Ni ere mugitu ezinik nago nekearen nekez (Biak)
Ni laguntzera bestetara ez naiz etorri: Ni laguntzera etorri naiz, ez bestetara. (Biak)
Ni naiz. Nor izan ninteke bestela?: Ni naiz. Nor, izan ere, bestela?
Ni noa irabazten: Ni ari naiz irabazten.
Ni oso errekorra naiz: Ni aise erretzen naiz.
Ni zu baino gehiago naiz: Ni zu baino hobea naiz. Ni zu baino trebeago naiz...
Ni? Huskeria bat: Ni? Hutsaren hurrengoa
Nik aginduak bete bakarrik egin nituen: Nik aginduak bete besterik ez nuen egin.
Nik amatara jo dut: Nik amaren aldera jo dut.
Nik ba al dakit!: Nik al dakit, ba!
Nik badakit aita esna nola mantendu: Nik badakit aita esna nola eduki.
Nik espero nuen hondamendia ez da gertatu: Nik uste nuen hondamendia ez da gertatu.
Nik ez dakit tutik ere berak egiten duenari buruz: Nik ez dakit tutik ere berak zer egiten duen.
Nik gehien atsegin dudana: Nik atseginen dudana
Nik uste aldean egoskorra da: Nik uste baino egoskorrago da (Biak)
Nik uste nuen(a) baino okerrago dago: Nik uste baino okerrago dago.
Nik, presidente bezala,: Nik, presidente naizenez/presidente naizen aldetik,...
Nik, zu banintz,...: Nik, zure lekuan,... (Biak)
Nire dohainetako bat errenditzeko uneaz jabetzea da: Nire dohainetako bat da noiz errenditu jakitea.
Nire errezeloa egin du eta atzeraka doa: Nire errezelotan, atzeraka doa.
Nire idazkari gisa kontratatzen zaitut: Nire idazkari kontratatzen zaitut.
Nire lagunik onena zen. -Bilatu beste lagunik onen bat: ...Bilatu beste bat lagunik onena izateko.
Nire maitasun osoarekin berotu dizut: Maitasunaren maitasunez berotu dizut (Biak)
Nire nahirik handiena azalduko dizut: Neure nahirik handiena azalduko dizut
Nire neska printzipala: Nire neska-neska.
Nire onetatik aterata: Neure onetik irtenda/aterata.
Nire/gure amak eman dit: Amak eman dit.
Nire/gure etxera noa: Etxera noa.
Niregatik, ez nintzateke inoiz joango: Ni neu ez nintzateke inoiz joango
Niri akatsik gabea iruditzen zatzaizkit: Nik akatsik gabea ikusten zaitut (Hizkera mailaren arabera)
Niri ez zitzaidakeen sekula bururatuko: Niri ez zitzaidan berehalakoan bururatuko
Nitzaz bestelakoa: Ni ez bezalakoa (Biak)
Nobita, jakin dezazun, ez naiz zurekin inoiz ezkonduko: Nobita, zeuk jakiteko,... (Biak)
Noiz hasi zara niri aginduak ematen?: Noiztik zu niri aginduak ematen!
Nola aldatu den leku hau azken alditik!: Nola aldatu den leku hau orain hurrengotik!
Nola aurkitu bakoitzak bere zuloa?: Nola aurkitu nork bere zuloa?
Nola ausartzen zara?: Nola(tan) ausartu zara?
Nola bizi nahi duzunaren arabera: Nola bizi nahi duzun.
Nola demontre egin dute hegan egiteko?: Nola demontre moldatu dira hegan egiteko?
Nola egin behar dut hori, lagunik onena galbidean ikusita?: Nola egin hori, ordea, lagunik onena galbidean ikusita?
Nola hazi den mutikoa!: Zenbat hazi den mutikoa! (Biak)
Nola liteke hain itsua izatea?: Nola liteke hain itsua izan?
Nola zuk esan duzun: Zeuk esan duzunez
Nolabaiteko portaera: Hala moduzko portaera (Biak)
Nonbait jarri beharra dauzka: Nonbait jarri beharrak dauzka.
Nor da hemen agintzen duena?: Nork agintzen du hemen?
Nora hartu dudatan: Nora hartzeko dudatan (Biak)
Nora zoazte horren korrika?: Nora zoazte presaka?
Norbait indartsua ikusiko banu: Norbait indartsu ikusiko banu.
Norbaitek amorrarazten nauen aldko,...: Norbaitek amorrarazten naueneko etortzen zait astintzeko gogoa.
Norberarekiko konfiantza: Norbereganako konfiantza.
Norberaren indarretan ez bestetan bermatu: Norberaren indarrean bermatu, ez besterenean.

Norbere zaldiak bakoitza bere etxera eraman: Nor bere zaldiak etxera eraman.
Nork demontre eman dio?: Nor demontrek eman dio?: Nork demontrek eman dio? (Hirurak)
Nork pentsatu behar zuen...?: Nork usteko zuen...? (Biak)
Nornahik irabazten duela, mundua ez da aldatuko: Nornahik irabazita ere, mundua ez da aldatuko.
Noski baietz, jakina baietz, horixe baietz: Bai, noski! Noski, ba! Bai, jakina! Jakina, ba! Bai horixe! Horixe, ba!
Nostalgiako sentitzen naiz: Oroiminak hartu nau. Oroiminez nago.
O! Eta bide batez...: Aa, ta bide batez...
O! Milesker!: Oo, milesker!
Oo, ahaztu egingo zitzaidan!: oo, ahaztu egin zait, nonbait! (Biak)
Obamak eskua luzatuko digula espero dut: Obamak lagunduko ahal digu!
Odolezaturik zegoen: Odoletan zegoen.
Oh ez!: Ez, ba! Oo, ez!
Oh, ze ongi gurekin zatozela eskolara!: Oo, ze ongi! Gurekin zatoz eskolara.
Ohea desegin eta egin: Ohea nahasi eta jantzi (Biak)
Ohiko (Txalupak ez dira ohikoak ibai alde honetan: Ez da ia txaluparik ibiltzen... Ez da txalupa askorik ikusten...
Ohitura zaharrak aldatzeak denbora eskatzen du: Ohitura zaharrak aldatzeko denbora behar da.
Oihan trinkoek egin duten hesi lanak eragotzi die arranoei: Oihan sarriak hesi izan dira arranoentzat.
Oihan zulotik ateratako neskatxa betizua: Oihan zulotik ateratako neskatxa izua.
Oilo ipurdia atera zaio: Oilo larrua egin zaio.
Oilo-ipurdia jarri zion gorputz guztiko azalean: Oilo larrua egin zitzaion gorputz osoan.
Oinekin ibili beharrean, ipurdiarekin ibiliko gara: Oinez ibili beharrean, ipurdiz ibiliko gara.
Okerreko mahaian jarri izango gara: Okerreko mahaian jarriko ginen. (Biak)
Olatu handiak daude: Olatu handiak dabilta.
Olatuak hondartzan hiltzen: Olatuak hondartzan etzaten
Olatuetatik babestutako lekuetan: Olatu babeseko lekuetan (Haize babes-en haritik)
Olio erabili zutela esaten dute: Olio erabili omen zuen.
Ona edo txarra izanik ere: Ona izan edo txarra (izan)
Ondo egon zara: Ondo hitz egin duzu. Ondo aritu zara.
Ondo egon zen: Ondo jokatu zuen (pilotan)
Ondo jarri zara: Oneratu zara (Biak)
Ondo lo egin! - Baita zuri ere!: Ondo lo egin! - Baita zuk ere!
Ondo herriak: Auzo herriak (Biak)
Ondoko herrikoak: Auzo herrikoak. (Biak)
Ongi aterako zenaren itxaropena zuen: Ongi aterako zen/zelako itxaropena zuen.
Ongi etorri bigarren erronkara!: Ongi etorri bigarren erronkarako!
Ongi etorria eman asmotan etorri gara: Ongietorria egiteko asmotan etorri gara.
Ongi jabetu dira presoak direnez: Ongi jabetu dira presoak direla.
Oporren oroitzapen gisa, hona ikuspegi ederra!: Oporren oroigarri, hona ikuspegi ederra!
Orain (dela) hogeitau urte pasa: Orain (dela) hogeitau urte (Biak ongi) "Orain dela ogeitau urteetako kontuak" (M. Lasarte)
Orain arte ura erabili dugu, eta harengana joan garenean, ez dugu...: Orain arte..., eta harengana joan garenetan,...
Orain bai nagoela kale gorrian: Oraintxe bai kale gorrian ni!
Orain dela gutxi: Oraintsu. Oraindik orain.
Orain ez du inoren zaintzarik behar: Orain ez du inork zaindu beharrik.
Orain guraso bezala ikusten dut neure burua: Orain guraso ikusten dut neure burua.
Orain hobeto pasatzen dut ama bezala: Orain hobeto pasatzen dut ama izanda. (Biak)
Orain non bizi denaz hitz egin zuen: Orain non bizi den kontatu zuen. Orain bizi den tokiaz hitz egin zuen.
Orain non bizi naizen badakizunez, lasai zoazke: Orain badakizu non bizi naizen, eta lasai zoazke.
Oraindik ere kopuru handiagoetan: Kopuru are handiagoetan (Biak)
Oraindik luze gabe: Aspaldi ez dela
Oraindik misterioa da nola...: Argitzeko dago oraindik nola...
Oraindik ohean zaude, Axun?: Oraindik ere ohean, Axun?
Oraindik tabernetan hasteko ginen: Artean tabernetan hasi gabeak ginen.
Oraintxe etortzea besterik ez dugu egin mezetatik: Oraintxe etortzea egin dugu mezetatik (Biak)
Oraintxe urtebete-edo izango da: Oraintsu urtebete-edo izango da.
Oraintxe, inor begira ez dagoela (Ahora, que no mira nadie): Oraintxe, ez dago-ta inor begira.
Ordu bakoitzeko: Orduko
Ordu estrak sartu: Aparteko orduak egin.
Ordurako ja(da) oina bermaturik: Ordurako oina bermaturik.
Orokorrean (en general): Oro har
Osabak behin ikusi zuen eta nik beste behin: Osabak behin ikusi zuen eta nik ere behin.
Osagarri gisa erabili: Osagarri(tzat) erabili.
Osasun baldintzak: Osasun egoera. Osasuna.
Oso adeitsu jokatu du bere etxea utzita: Oso adeitsua izan da bere etxea utzita.
Oso benetakoa: Bene-benetakoa
Oso desoroso nago: Ez nago batere eroso.
Oso emakume ekina da: Ekimen handiko emakumea da.
Oso enpresa talde bikainak sortu ditu: Enpresa talde oso bikainak sortu ditu (Biak)
Oso erabilgarria da (manejable): Oso baliagarria da (útil)
Oso lotsatiak dira (tximinoak) : Oso izuak dira
Oso mendian dago: Mendi-mendian dago.
Oso mikatza dirudi horrek: Mikatza izango da hori! Mikatz itxura du horrek.
Oso ondo usaintzen du: Oso usain ona du. Usaimen oso ona du.
Oso partida lehiatua: Lehia handiko partidan. Partida oso lehiatsuan.
Oso sakon dago lotan: Lo sakon-sakonean dago
Oso-oso maitemindurik: Maite-maitemindurik
Ospa hemendik! Lokartzeko garaia da: Ospa hemendik! Lotarako garaia da.
Otorduak jan: Otorduak egin
Ozeano barean bizi dira normalean: Ozeano barean bizi ohi dira
Ozta-ozta ibili da, ba!: Ez da, ba, urruti ibili! (Biak)
Papagaixoak ia bakarrik saltzen dira: Papagaixoak ia bere kasa saltzen dira.
Paper ederra egin zenuen: Ederki bete zenuen zeure tokia
Paper garrantzitsua jokatu: Egiteko garrantzitsua bete.
Paris eta Londres bezalako hiri handietan (?): Paris, Londres eta halako hiri handietan.
Partida orekatua: Partida neurtua. Bi partida ikusi nituen, biak ere neurtuak eta ederrak.
Pasatu ditugun nekeen ondoren!: Pasatu ditugun nekeak pasatuta. Pasatu ditugunak pasatuta.
Pasatu egin naiz: Gogorregia/zakarregia izan naiz.
Pasatu zaio zorabioa: dantzan eta guzti hasi da: Pasatu zaio zorabioa, dantzan ere hasi da ta.
Pasatuta geratu nintzen: Zur eta lur geratu nintzen.
Patetikoa zara!: Tristeza zara, gero!
Patxi (nire) lehengusuarekin: Nire lehengusu Patxiarekin (Biak)
Pazientziatik irtena: pazientzia agorturik.
Pello baino baliagarriago(a) da: Pello baino gehiago balio du
Penaren bidez gaude...: Penaren penaz gaude (biak)
Pentsa zazu hortik: Hortik pentsatu!
Pentsatu duzu norekin joango zaren Turkiara?: Pentsatu duzu norekin joan Turkiara?
Pentsatu duzu zer opari egingo diozun lagunari?: Pentsatu duzu zer opari egin lagunari?
Pentsatu horretaz (zer pentsatu horretaz, bai, bestela): Pentsatu horretan. (edo pentsatu horrengan).
Pentsatzen jarrita: Pentsatzen hasita (Biak)
Perikoren jardun zirikatzailea etengabea da: Periko ez da inoiz zirika nekatzen.
Perrexil landare ontzia (maceta de perejiles): Perrexil ontzia.
Pertsona argiak eta zentzuzkoak bihurtzen dira: Pertsona argi ta zentzuzko bihurtzen dira.
Pertsona famatuen galeria: "Itzalen galeria" (Joan Mari Lekuona)
Pinto? Begira, ba, izena ere jarri zion aitona!: Pinto? A hor, ba, izena ere jarri zion aitona!
Pisatzen dutenaren ehuneko zortzi jaten dute: Beren pisuaren ehuneko zortzi jaten dute.
Planeatu bezala: Planaren arabera.
Plantxan sartu (entrar en plancha): Orpoz sartu.
Plazan gelditu gara: Plazan biltzekoak/elkartzekoak gara. Plazan biltzekotan (gelditu) gara.
Poema liburuak dira kasu gehienetan: Poema liburuak dira gehienak.

Poltsakada barazki ta fruta: Poltsa bete barazki ta fruta (Biak)
Postretzat (de postre): Postrea. Postrerako.
Pozen naiz zu ikustea: Hau poza zu ikustea! (Biak)
Pozen naiz: Poz hartzen dut (Biak, eta ez da komeni bigarrena ahaztea; izan ere badirudi *pozen naiz* bakarrik dakigu!)
Poztu egiten naiz: Asko pozen naiz, (ba).
Presa handia nuen: Presaka nenbilen
Prestatu, ba, min handia hartzeko!: Prestatu, ba, epelak hartzeko!
Prezio oso onean: Oso modu onean (Biak)
Prezioek jasandako/nozituriko/pairatutako igoera: Prezioen igoera. Prezioek izandako/izan duten igoera.
Primeran izango dituzu (jantziak): Primeran edukiko dituzu
Probatu lixiba honekin: Probatu lixiba hau
Putzaren pareko: Hutsaren hurrengo (Biak)
Safari batean zaudela ematen du: Safariari zabiltzala ematen du.
Saiak ez dira jale finak zehazki: Saiak ez dira jale fin-finak ere.
Saiakera ona, baina ez: Ahalegin ona, baina ez.
Saio hauek ez dute kontatzen sailkapenerako: Saio hauek ez dute balio sailkapenerako.
Saltoki guneak ez dira asmatu Estatu Batuetan, Damasko bezalako lekuetan baizik: ..., Damaskon-da baizik.
Saltsaren erdian: Saltsaren saltsan.
Sariak eta guzti!: Sari eta guzti!
Sarraskiak jarraitzen du: Sarraskia ez da gelditu/amaitu.
Sartu aurretik, ziurtatu inor ez dagoela: Sartu aurretik, egiaztatu ez dagoela inor.
Sartzen saiatzen ari da: Sartu nahian ari da. Sartu nahian dabil. Sartzeko ahaleginean ari da.
Sasoi bakoitzeko: Sasoiari sasoi
Satorrak super ahalmenak ditu. Horiei esker...: Satorrak super ahalmenak ditu. Ahalmenoi esker...
Según (eta) zer egiten duen: Zer egiten duen
Según zeinek: Norekin den
Sei urterekin dagoeneko maiteminduta: Sei urte bezterik ez eta maiteminduta
Sekretu-tonuan: Ahopean
Sekulako animala aniztasuna dago: Sekulako animala aukera dago.
Sekulako logura sartu zait: Sekulako logura etorri zait.
Seme, otoitz egingo dut zuregatik: Seme, otoitz egingo dut zure alde.
Sentitzen dut zu ez etortzea: Lastima zu ez etortzea!
Sesiente (?): Sesio zale
Sinestezina: Ez sinestekoa! Harrigarria! (Hirurak)
Sokaz gogor lotu zuten: Sokaz lotu-lotu egin zuten (Biak)
Soldata baxua: Soldata txikia.
Su baxuan: Su txikian.
Sudur okerra ta handia: A ze kakoa!
Su-egurrerako: Egurrerako
Suge hori ez da kaltegarri(a): Suge horrek ez du min egiten. Suge hori ez da arriskutsua. Suge horrek ez du arriskurik.
Suitzan finkaturiko/kokaturiko artista: Suitzan bizi den artista.
Suneo eta Erraldoik parkean jarraituko al dute?: Suneo eta Erraldoi parkean ote daude oraindik?
Super ona, Super samurra: On-ona. Samur-samurra.
Suposatzen da: Ustekoa da.
Suposatzen dut: Hala uste dut.
Suposatzen nuena: Nik uste nuena
Susmatzen ari naiz...: Badut susmoa...
Susmatzen nuena: Banuen susmoa
Sute garrantzitsu bat: Sute handi bat. Sute izugarria.
Sutondoaren aurrean: Sutondoan. Supazter txokoa.
Talde gisa aritu: Taldean aritu
Talde serioa izan ezik, edozer dira: Talde serioa ez, beste edozer dira.
Taldetan bizi dira: Taldean bizi dira. Taldeetan bizi dira.
Tarta jate lehiaketa: Tartajan lehiaketa
Tartuforekin dago liluratuta: Tartufok dauka liluratuta.
Telefonoan dago: Telefonoz ari da.
Telefonotik deitu zidan hauxe esanez: Telefonoz deitu zidan hauxe esateko. Telefonoz deitu zidan eta hauxe esan (zidan).
Telefonotik deitu: Telefonoz deitu.
Tenperatura hiru gradutan igo da: Tenperatura hiru gradu igo da
Tentazioaren irudirik tentaziozkoena: Tentazioaren irudirik tentagarriena.
Termiten habiak: termita habiak.
Tigreen heren bat akabatu dute: Hiru tigretik bat akabatu dute.
Tira, bilaketa jarrai dezagun: Tira, segi (edo jarrai) dezagun bila.
Tira, ea laguntzerik dugun!: Tira, ea laguntzerik badugun!
Tira, entzuten dizut/entzuten nago: Esan, adi nago!
Titi biribilak dituzten neska: Neska titi-biribilak
Topatu dute matxuraren arrazoa: Aurkitu dute zerk eragin duen matxura
Tratamendua jaso: Tratamendua hartu
Tratua itxi: Tratua egin
Traumak ziztu bizian gutxiagotzen doaz!: Traumak ziztu bizian doaz murrizten!
Trena galdu dut: Trena huts egin dut. Trenak ihes egin dit. Trena joan zait.
Trukean zer eman behar eta...: Trukean zer emango eta...
Txakurrak debekatuta: Txakurrik ez.
Txapelketa borrokata: Txapelketa gogorra. Borroka/lehia handiko txapelketa.
Txarrerako joerakikoak gehienak: Txarrerako joerakoak gehienak.
Txartel gorria ikusi du: Txartel gorria atera/erakutsi dio.
Txikitakoaren aldean oso desberdina zen mundua aurkitu zuen: Txikitakoaren aldean oso bestelako mundua aurkitu zuen.
Txinako ekialdeko kostako: Txina ekialdeko kostako. Txinako ekialdeko kostako.
Txintxo-papera egin: Txintxoarena egin.
Txokolatada: Txokolate-jana.
Uda(ren) erdian: Uda-udan. Uda betean.
Udaberriaren bukaeran: Udaberri buruan.
Udako ohiko arratsalde bero batean gertatu zen: Udako arratsalde bero horietako batean gertatu zen.
Udala ageri da babesle moduan: Udala ageri da babesle.
Udaren udan: Uda-udan (Biak)
Ukitzea faltan botatzen dugu: Ukitze falta sumatzen dugu
Ulertzen dut mutilagatik sentitzen duzuna: Ulertzen dut zer sentitzen duzun mutilagana(ko).
Umeen falta bereziki: Umeen falta batez ere.
Umore txarrez dirudi, baina kezkatu dago: Umore txarrean, itxuraz, baina kezkatu dago.
Umorezko antzezlea bihurtu nahi du: Umorezko antzezle(a) izan nahi du.
Une honetan bertan: Orainxe bertan.
Une honetan: Orainxe
Unetxo batez konfiantzak huts egin badio ere: Unetxo batez zalantzan egon bada ere
Unibertsitatean dago: Unibertsitatean dabil. Unibertsitatean ari da ikasten.
Ura moztu dute: Ura kendu dute
Urduritasun aldiak: Urdurialdiak
Uretan mantendu: Ur gainean egon (igeri).
Uretan sartu garenerako, joanda zegoen: Uretan sartu garenerako, joana zen.
Urreagatik aldatu/trukatu: Urrearekin aldatu/trukatu
Urrearekin ordez artaleekin azaltzen bada: Urrearekin ez, artaleekin azaltzen bada. Urrearen ordez artaleekin...
Urrun mantendu gaiztoak: Urrun eduki gaiztoak. Urrun eutsi gaiztoei.
Urrutiko lurraldetik: Lurralde urrunetik
Urte guztian binaka jokatzeko: Urte guztian binaka jokatzeko aritu/jardun ondoren
Urte honetan: Aurten
Urteko denborarik gehienean: Urte osoan ia.
Urtetan ikerturik: Urteetan ikerturik
Uste dute/uste denez (Se cree que...): Omen. Orain bi milioi urte sortu omen zen aintzira hau.
Uste nuena baino okerrago: Nik uste baino okerrago.

Ustekabean jaiok (adkor.): Kondoikumeak.
Ustez, milaka ziren mende hasieran: Milaka omen ziren mende hasieran.
Utzidazu niri: Utzi nire esku!
Utziko didazu unetxo baterako?: Utziko didazu pixka baterako?
Will nerbioek jota zegoen: Will nerbioak airean zebilen. Willek nerbioak airean zituen (Hirurak)
Xabier oso gutxiatik kexatzen da: Xabierrek ez du ezer behar kexatzeko.
Xabierrek eta Iñakik ez dute soluziorik: Xabier eta Iñakirenak ez du soluziorik.
Xabierrek, bere aldetik,....: Xabierrek, berriz,....
Zabalik daude atekak joan nahi duen edonorentzat: Zabalik daude atekak joan nahi duenarentzat/dutenentzat.
Zaharrago diren arte: Zaharrago izan arte.
Zaindu etxea, ongi?: Zaindu etxea, bai? (Biak)
Zaindutako ehiza: Kontrolpeko ehiza
Zaldia barik, behi hegalaria da honek daukana: Zaldia ez, behi hegalaria dauka honek.
Zaletuak: Zaleak (zaletu ondoren zale dira denak)
Zaratarekin igarriko digute!: Zaratak salatuko gaitu.
Zaratarik gehiago dauka indarkeriatik baino: Zarata gehiago du indarkeria baino.
Zatoz heriotza!: Zatoz, herio!
Zatoz, motel!: Hator, motel!
Zaunkak ez baizik deiadarrak salbatu zituen: Zaunkak ez, deiadarrak salbatu zituen.
Ze kolore nahiago duzu etxerako?: Ze kolore duzu nahiago etxerako?
Ze ooroiaren eskasa duzun!: Ze buru txarra duzun! (Biak, zein bere mailan)
Zein da haizearen norabidea?: Ze norabide du haizeak?
Zein da, ba, bere eskakizuna?: Zer eskatzen du, ba?
Zein ere den zure iritzia: Zure iritzia gorabehera
Zenbat eta tenperatura altuagoa, orduan eta lasterrago...: Zenbat eta beroago, hainbat eta lasterrago...
Zenbat saguzar mota desberdin daude?: Zenbat saguzar mota daude?
Zentratu lanean: Jarri arreta lanean.
Zentzu handia du (kontu horrek): Badu zentzia.
Zer ari zara egiten zu nire mutilarekin?: Zertan zabilta zu nire mutilarekin?
Zer ari zara esaten?: Zer diozu, ordea?
Zer ari zara pentsatzen?: Zer duzu buruan?
Zer da ikusi nahi duzun hori?: Zer ikusi nahi duzu, ordea?
Zer da nik erostea nahiko zenukeena?: Zer nahi zenuke nik erostea?
Zer dago meriendatzeko?: Zer dago askaltzeko? Zer dago askaritarako?
Zer darabilzu buruan?: Zer dabilkizu buruan? (Biak)
Zer du errazetik 200 kiloko harria mugitzeak?: Zer du erraz 200 kiloko harria mugitzeak?
Zer du horrek ederretik: Zer du horrek eder?
Zer dugu amankomun ibilgailu honek eta nik?: Zer dugu berdinean ibilgailu honek eta nik? Biok izugarri bidaiazten dugula.
Zer egitea pentsatu duk?: Zer egin behar duk?
Zer egiteko asmoa duzu orain?: Zer egin behar duzu orain? (Biak)
Zer egiten dute umeez, zu lanean zaudela?: Zer egiten dute umeez, zu lanean zarela?
Zer egitera doaz?: Zer egin behar dute?
Zer egongo da gaur askaltzeko?: Zer ote dago gaur askaritarako?
Zer esan nahi duzu horrekin?: Zer esan nahi duzu?
Zer esango du amak atera dudana nota ikustean?: Zer esango du amak nire nota ikustean?
Zer eta beren kultura galtzeko: Zertarako ta beren kultura galtzeko!
Zer eta musu emateagatik: Zergatik eta musu emateagatik.
Zer eta zuk ez duzulako nahi: Zergatik eta zuk ez duzulako nahi.
Zer eta: Zer eta orduantxe bera agertu.
Zer gertatu da umearikin eta bere amarekin?: Zer gertatu zaie umeari eta amari?
Zer gertatuko (ote) zitzaion?: Zer gertatu ote zitzaion? Zer gertatu ote zaio?
Zer gertatzen ari da (prozesua kontuan harturik. Bestela): Zer gertatzen da?
Zer kontatu aitaz, hilda dagoenaz aparte?: Zer kontatu aitaz, hilda dagoela aparte (utzita)?
Zer nahi duzu nitaz?: Zer nahi duzu ni(re)gandik?
Zer nindoan esatera?: Zer esan behar nuen? (Biak)
Zer ordaindu?: Ordaindu, zer? (Biak)
Zer(tan) ari zara lurrean etzanda?: Zertan zaude lurrean etzanda?
Zer, laster bukatuko duzu?: Zer, laster bukatzeko moduan? (Biak)
Zera baino ez dugu nahi: laguna itzul dadin/dadila: Zera baino ez dugu nahi: laguna itzultzea.
Zerbait ahaztea (ahantz dezan) nahi duzun pertsonaren...: Pertsona batek zerbait ahaztea nahi baduzu...
Zerbait ez banaiz, hori lotsatia da: Zerbait ez banaiz, horixe ez naiz: lotsatia.
Zerbait gehiago?: Besterik? (Biak)
Zerbait harrigarria ikusiko duzue: Zerbait harrigarri ikusiko duzue. Gauza harrigarri bat ikusiko duzue.
Zerbait jakingarria aurkituko banu: Zerbait jakingarri aurkituko banu.
Zerbait txarrik egin dut?: Okerren bat egin dut?
Zerbtzua egin/eduki: Guri zerbitzu handia egiten zigun. Guretzat zerbitzu handia zuen.
Zerekin beldurtu ote dira?: Zerk beldurtu ote ditu?
Zerekin erabiltzea pentsatu duzu?: Pentsatu duzu zerekin erabili? Zerekin erabili behar duzu?
Zergatik ekarri nauzu hemen goraino: Zergatik ekarri nauzu hona goraino.
Zergatik ez ote zen etorriko?: Zergatik ez ote zen etorri? Zergatik ez ote da etorri?
Zergatik gertatu behar zait niri beti? Ez da bidezkoa: Niri gertatu behar beti! Ez da bidezkoa.
Zergatik ihes egin hiltzen bagara?: Zergatik ihes egin, hilko bagara?
Zergatik itzali dituzu, hain politak direla?: Zergatik itzali dituzu, hain politak izanda?
Zer-nolako politika garatuko duzue hirigintzari dagokionez?: Zer egingo duzue hirigintzan?
Zerrendaturik ez, bizirik irteadako faltagatik: Saikatu gabe, bizirik irteadako faltan.
Zerriak, inoiz ez didate mapa horretaz hitz egin: Zerriak, ez didate inoiz mapa hori aipatu.
Zertan ari zara/zertan zabilta?: Zertan zaude (hor etzanda, eserita)? (geldi dagoenari).
Zertan ibiliko da?: Zertan ote dabil?
Zertan jolasten zara?: Zertan ari zara jolasten/jolasean? Ze jolasetan ari zara?
Zertarako saiatu, lagun mina galtzen badut?: Zertarako saiatu, lagun mina galtzekotan?
Zeruko ama: Ama zerukoa (Biak)
Zeuk irabazi duzu: Zeu garaila! (Biak)
Zeure kasuan, zer egingo zenuke: Zuk zeuk zer egingo zenuke?
Zinta-mozketaren unean: Zinta mozteko unean.
Ziur hemendik dagoela igerilekua?: Ziur hemendik dela igerilekua?
Ziur nago baietz: Ziur nago hala dela.
Ziur nago goseak ere zaudela: Ziur nago goseak ere bazaudela.
Ziur nago harekin kontu dezakedala: Ziur nago hark lagunduko didala.
Ziur nago laster indarberrituko dela: Aurki suspertuko da, ziur nago. (Biak)
Ziur nago. Hemen atsedean bat hartu dugu: Ziur nago: hemenxe hartu dugu atsedean.
Zoaz beste norbait astintzera: Zoaz besteren bat astintzera (Biak)
Zoaz ondoren! Horixe harrapatuko dituzula!: Zoaz atzetik, harrapatuko dituzu bai!
Zomorro txikiak: erleak, tximeletak eta abar: Zomorro txikiak: erleak, tximeletak eta beste.
Zopa urtsua: Zopa saldatsua.
Zoramenezko taldea: Ertzeko moduko taldea.
Zorionaren gailurra: Zorionaren zoriona
Zorionez, bietan otzanena denari zultu behar diot belarria: Zorionez bietan/bietako otzanenari zultu behar diot belarria.
Zortea du zu edukitzeaz: Zortea du zu edukitzeaz. Zortea du zu edukita.
Zortzi t'erdia edo bederatzietarako: Zortzi t'erdia edo bederatzietarako.
Zortziak jo zuten jada: Zortziak jota dira.
Zu besterik ez zaitut ikusi: Zu besterik ez dut ikusi.
Zu beti hileta jotzen: Zu beti negar eta negar (Biak)
Zu ez zara bezeroa, parasitua baizik: Zu ez zara bezeroa, zu parasitua zara. (Biak)
Zu horrela zaudenerako: Zu horrela egoteko
Zu ikusteko gogo handiak nituen: Zu ikusteko gogo handia nuen. Zu ikusteko irrikaz nongoen.
Zu zaren neska politarekin!: Zu horren neska polita izanda!
Zu zer zara nire aldean? Hutsakeria baino ez: Zu zer zara nire aldean? Hutsaren hurrengoa.
Zuek biontzat: Zuentzat biontzat

Zuek lagunduta edo zuek laguntzen ez badiguzue ere: Zuek lagunduta edo lagundu gabe ere bai.
Zuek nahi duzuen daukazuen bitartean, guk ezer ez: Zuek nahi duzuen daukazue, eta guk ezer ez/Guk, berriz, ezer ez.
Zuek zera egitea nahi dut:... : Zuek gauza bat egitea nahi dut: ...
Zuek zerbitzatzeko!: Zuen zerbitzura! (Biak)
Zuhaitzak loretan dauden garaia: Zuhaitzen loretako garaia (Biak)
Zuhaitzez gora: Zuhaitze(ta)tik gora.
Zuk baduzu oso baliagarria den zerbaít: Zuk baduzu gauza bat oso baliagarria
Zuk bai dakizula!: Zuk bai badakizu!
Zuk baino lehenago amaitzen dudala!: Zuk baino lehenago amaitu baietz!
Zuk dakizun makila hura: Harako makila hura
Zuk dena batera erosi zenuen etxea, mamu eta guzti: Zuk oso-osorik erosi zenuen etxea, mamu eta guzti.
Zuk esandakoa egingo dugu: Zure esana egingo dugu (Biak)
Zuk eustearekin nahikoa izango da: Zuk eutsita nahikoa izango da.
Zuk izan behar zenuen orain ere: Zu izan behar orain ere!
Zuk uste duzuna baino are maltzurragoa zara: Zeuk uste baino ere maltzurrago zara.
Zuk, ordea, irabazteari besterik ez diozu begiratzen: Zuk, ordea, irabazteari besteri ez diozu begiratzen.
Zulotxo arrosa izatetik, zauri mingarria izatera: Zulotxo arrosa zena, zauri mingarri.
Zure bihotz eta adimenarekin: Zure bihotz-adimenekin
Zure bila ibili naiz etengabe: Zure bila ta bila ibili naiz (Biak)
Zure sentimenduak direnak direla: Zure sentimenduak gorabehera
Zuregandik etortzeko, detaile polita: Zuregandin etortzeko, ez dago gaizki.
Zuregatik sentitzen dudana: Zuregana sentitzen dudana. Zureganako nire sentimendua.
Zurekin bakarka hitz egin nahi dut: Zurekin buruz buru hitz egin nahi dut. (Biak)
Zuretzat moduko lana: Zuretzako moduko lana
Zutaz asko entzun dut: Badut zure berri bai.
Zutaz bakarrik izan gaitezen egarri: Zure egarri izan gaitezen, ez besterenik.
Zutaz galdetzen du honek: Zure galdezka da(tor) hau.